

# HAUR ETA NERABEENGANAKO INDARKERIA EAEN

## Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

**Argitaraldia:**
1.a, 2020ko otsaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

**Internet:**
www.euskadi.eus

**Egilea:**
edefundazioa

**Argitaratzailea:**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketazioa:**
Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

## Aurkibidea

**Aurkezpena** ... 4
**Ohar metodologikoak** ... 6
**Erreferentzia-esparrua** ... 9
**Esparru teoriko eta kontzeptuala** ... 9
Zer ulertzen dugu ume eta nerabeenganako indarkeria diogunean? ... 9
Zein dira haur eta nerabeenganako indarkeriaren erroak? Zer ikuspegitatik ari gara arazoa aztertzen? ... 10
Zein dira arrisku-faktoreak? Zer haur eta nerabe dira bereziki hauskorrak? ... 14
Zer faktorek murriztu dezakete indarkeria jasateko arriskua? ... 20
Nola sailka dezakegu ume eta nerabeenganako indarkeria? ... 21
**Arau- eta eskumen-esparrua** ... 31
**Arazoaren diagnostikoa: dimentsioa eta eragina** ... 39
**Sarrera** ... 39
**Datu orokor batzuk** ... 40
**Familia barruko haurren tratu txarrarekin lotutako datuak** ... 45
**Sexu-indarkeriarekin lotutako datuak** ... 57
**Berdinen arteko tratu txarrekin lotutako datuak** ... 64
**Emakumeen, neskatilen eta neska nerabeen aurkako indarkeriari lotutako datuak** ... 72
**Erakunde-indarkeriari lotutako datuak** ... 81
**Adingabeen aurkako beste indarkeria mota batzuei buruzko datuak** ... 86
**Adingabeek gauzatutako indarkeriari lotutako datuak** ... 91
**Ondorioak** ... 96
**Erantzunaren ebaluazioa: sisteman hobetzeko baliabideak eta arloak** ... 99
**Sistemaren baliabide-mapa** ... 99
**Erantzuna zer esparrutan hobetu behar den** ... 113
Beharren estaldurarekin lotuta: ... 114
Sistemaren funtzionamenduarekin lotuta: ... 123
**Eranskina** ... 152
Erakunde parte-hartzaileen zerrenda ... 152
Baliabideen mapa zehatza ... 153
Diagnostikorako datuen iturrien zerrenda ... 181
Erreferentzia bibliografikoak ... 183
Araudia ... 190

# Aurkezpena

«Ez liteke kontzesiorik egin haurren kontrako indarkeria gaitzestean. Haurren berezitasunak –haien giza potentzialak, hasierako hauskortasun eta urrakortasunak, hazkuntzan eta garapenean gurasoekiko duten mendekotasunak– argudio ukaezina dira indarkeria indar handiagoz prebenitzeko eta indarkeriatik hobeto babesteko, eta bide horretan gutxiagora ez jotzeko»[1].

*Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa*[2] ia toki guztietan onartu eta berretsi izanaren ondorioz (Espainiak 1990ean egin zuen), estatuek hainbat betebehar hartu dituzte beren gain giza eskubideen alorrean, haurren kontrako indarkeria desagerrarazteko bidean.

Haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko ezein planteamenduk, haien eskubideak oinarri harturik, eskatzen du biktima gisa ikusteari uztea eta «errespetuan, haien giza duintasunean eta osotasun fisiko zein psikologikoan oinarritutako paradigma bat hartzea, eskubideen titular direla aintzat harturik»[3].

Haur guztien ongizatearen bermeak eta haien eskubideak egikaritzekoak ez dira Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu duten estatuek beren gain hartutako konpromiso hutsa, garapen jasangarrirako 2030erako helburuak eskuratzeko bidean –nazioarteko komunitateak 2015ean onartuak, garapena ekitatiboa eta jasangarria izan dadin ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren aldetik.

Gobernuek garapen jasangarrirako helburuekin loturik hartutako konpromisoek programak eta inbertsio publikoak ekarri behar dituzte, guztia ere helburu eta jomuga sorta zabal bat eskuratu ahal izateko. Horien artean, garapen jasangarrirako 16. helburuak (Gizarte bakezaleak eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarrirako) berariaz aipatzen du «behin betiko amaitzea haurren esplotazioa, salerosketa eta haienganako tratu txar eta tortura mota oro»[4].

Era berean, garrantzitsua da haurren eta nerabeen kontrako indarkeria mota oro errotik akabatzea, kontuan izanik horrek ekarriko dituen giza kostuak, sozialak eta ekonomikoak. Hainbat ikerketak azaleratu du zer-nolako inpaktua duten haurtzaroan bizi izandako esperientziek haurrak modu osasungarriak gara daitezen. Indarkeriak ondorio kaltegarriak eta iraunkorrak izan ohi ditu haurren ongizatean, osasunean eta segurtasunean, baina, horrezaz gain, eragina dauka haien errendimendu akademikoan, produktibitatean eta, finean, gizarteen eta herrialdeen garapenean. «Haurren kontrako indarkeria behar bezala eta garaiz prebenituta, epe luzean karga sozial eta ekonomiko handia eragiten duten arazo ugari artatu ahal izango dira»[5].

Halaber, mahaiaren gainean ipini da haurren eta nerabeen kontrako indarkeria prebenitzeko beharrezkoa dela hainbat eragileren arteko lankidetza eta kooperazioa; izan ere, nabarmendu da ezin zaiola gaiari heldu modu efikazean, bereizita lan eginez gero.

---

[1] PINHEIRO, P. S. *Haurrenganako indarkeriari buruzko mundu txostena.* New York: NBE, 2016.
[2] UNICEF, ESPAINIAKO BATZORDEA. *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa.* Madril: UNICEF, Espainiako Batzordea, 2015.
[3] NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA. 13. ohar orokorra. Haurraren eskubidea inolako indarkeriaren biktima ez izateko (CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa).
[4] UNICEF-EN IKERKETA ZENTROA. Construir el futuro. Los niños y los Objetivos de Desarrollo Sostenible en los países ricos*. Report Card de Innocenti.* Florentzia: UNICEFen Ikerketa Zentroa, 14. zk., 2017.
[5] PINHEIRO, P. S. *Haurrenganako indarkeriari buruzko mundu txostena.* New York: NBE, 2016.

Txosten honek Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Haurren eta Nerabeen Behatokiak 2019. urtean sustatutako ikerketa baten emaitza nagusiak jaso ditu. Ikerketa haren helburua izan zen haur eta nerabeenganako indarkeriak Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) nolako intzidentzia eta nagusitasuna duen ezagutzea, bai eta sistemak arazo horri ematen dion erantzuna ezagutzea ere, eta ume eta nerabeenganako indarkeria-egoeretan prebentziorako, detekzio goiztiarrerako, arretarako, babeserako eta konponketarako politikei buruzko gomendioak ezartzea, arazoari aurre egiteko jarduketaren eta erantzun koordinatuagoaren eta egokiagoaren oinarriak finkatuko dituztenak.

Azterlanean, gaian inplikatutako eta zenbait eremurekin (osasuna, justizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, berdintasuna…) zerikusia duten eragile batzuek parte hartu dute; haiek partekatu dituzten datu eta hausnarketen bidez, arazoarekin lotura duen egungo panorama deskribatzen duen argazkia egin da.

Azterketak baliatu duen ikuspegiari dagokionez, nabarmendu behar da molde zabalez eta dimentsio askotatik aztertu dela; hartara, analisia ez dago mugatuta ikusgarrien suertatzen diren indarkeria mota jakin batzuetara bakarrik, baizik eta haiek guztiak erakusten saiatzen da. Halaber, ez da mugatzen halako egoerei ematen zaien arretara edo egiten diren esku-hartzeetara, eta kontuan hartzen dira beste hainbat ekimen ere, hala nola sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erreparazioa.

Zehazkiago, txosten honek alderdi hauek eskaintzen ditu:

- Lehendabiziko zatian, aipamen labur bat egiten zaio azterlanaren metodologiari.
- Bigarren zatia **azterlanaren esparrua** aurkeztera bideratuta dago; alde batetik, maila teoriko eta kontzeptualean, arrisku-faktoreei buruzko informazioa bilduz eta indarkeria mota eta moduen sailkapen xehea eginez. Eta, bestetik, araudiari eta eskumenei egingo diegu erreferentzia.
- Beste atal batean, diagnostiko erako analisi bat egingo da, **arazoa deskribatzera** bideratua: datu kuantitatiboak ez ezik kualitatiboak ere eskainiko ditu haur eta nerabeen kontrako indarkeria mota batzuen eta besteen intzidentziari eta prebalentziari buruz, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan eta indarkeria horien ezaugarriei erreparaturik. Horrez gainera, indarkeriaren inpaktuari eta ondorioei buruzko informazioa bilduko da.
- Ebaluazio tankerako analisi bat ere izango du lan honek, **deskribatzeko zer erantzun ematen dion sistemak arazoari**: eskuragarri dauden bitartekoen oinarrizko deskripzio-datuak eta interpretazio-analisi bat, egungo sistemaren beharrizanak estaltzearekin eta hobekuntza-alorrekin loturik.
- Azkeneko atalean ondorioak aurkezten dira; hau da, zer **erronka eta orientazio nagusi** identifikatzen diren gai honetan eskumena duten administrazio publikoek etorkizunean esku hartzeko.
- **Eranskinean**, azterketa honetan parte hartu duten erakundeen zerrenda ageri da, baita errekurtsoen mapari buruzko datu osagarriak eta erreferentzia bibliografikoak ere.

# Ohar metodologikoak

Lan-prozesuan orotara lau fasetan egin da, eta gutxi gorabehera hamabi hilabete behar izan dira (2018ko azarotik 2019ko urrira bitartean). Honako taula honetan daude jasota fase bakoitzarekin lotutako ekintzak eta lan bakoitza zer denboratan egin den.

| | 1. fasea: ESPARRUA ETA DISEINUA | 2. fasea: ARAZOAREN DIAGNOSTIKOA | 3. fasea: ERANTZUNAREN EBALUAZIOA | 4. fasea: ERRONKAK ETA ORIENTAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **ZER?** | • Dokumentuen berrikuspena.<br>• Gako-agenteak eta informazio-iturriak identifikatzea.<br>• Prozesuaren diseinu metodologikoa.<br>• Erreminten diseinua.<br>• Proiektuaren web-gunearen diseinua. | • Adituei egindako elkarrizketak.<br>• Bigarren mailako iturriak kontsultatzea: memoriak, txostenak, azterlanak, iturri estatistikoak...<br>• Lehendabiziko lan-tailerra, hainbat esparrutan inplikatutako eragileekin. | • Profesionalei inkestak egitea.<br>• Bigarren lan-tailerra, hainbat esparrutan inplikatutako eragileekin.<br>• Kontsultak eta alderaketak agenteekin. | • Informazio osoa aztertzea eta interpretatzea.<br>• Agenteekin alderatzea.<br>• Hirugarren lan-tailerra, inplikatutako eragileekin. |
| **ZERTARAKO?** | Zer gakok gidatu behar dute ikerlana? Zer dio arau-esparruak? Zer pertsonarekin kontatu behar dugu? Zer iturri kontsultatu behar ditugu? Nola? | Partekatzen dugu esparru kontzeptuala? Zer datu ditugu? Zerk kezkatzen gaitu? | Zer ari gara egiten arazoaren aurrean? Zer hobetu liteke? | Zein dira lehentasunez jorratu beharreko auziak eta nola erantzun behar zaie? Zer izan behar da kontuan? |
| **NOIZ?** | 2018ko azarotik 2019ko urtarrilera | 2019ko otsailetik apirilera | 2019ko maiatzetik uztailera | 2019ko abuztutik urrira |

Esan dugun bezala, ikerketa horren bidez honako hiru helburu handi hauek bete nahi izan dira:

1. EAEn ume eta nerabeenganako indarkeriaren arazoa **dimentsionatzea:** EAEn ume eta nerabeenganako indarkeriaren nagusitasuna ezagutzea, bai eta haiengan eragina duten indarkeria motak zein diren, zer iturritatik datozen, biktima diren ume eta nerabeen eta beren ingurunearen ezaugarriak zein diren eta ahultasun-egoera berezian dauden ume eta nerabeen identifikazioa zein den ere.
2. Sistemak arazo horri ematen dion erantzuna **ebaluatzea:** EAEko administrazio publikoek egoera mota horien sentsibilizazioari eta kontzientziazioari, prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta laguntza eta esku-hartzeari dagokienez garatutako politika, neurri eta jarduketen eragina ezagutzea eta ebaluatzea.
3. Erronkak eta **orientazioak** identifikatzea: EAEko administrazio publikoek ume eta nerabeenganako indarkeria desagerrarazteko eta tratatzeko gauzatzen duten jarduketaren eraginkortasuna hobetzeko gomendioak egitea.

Helburu horiek inplizitu dituzten galderei erantzuteko, zenbait teknika metodologiko konbinatu dira eta, haien bidez, lehen mailako eta bigarren mailako iturrien informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutu da:




| | BIGARREN MAILAKO ITURRIAK | LEHEN MAILAKO ITURRIAK |
|---|---|---|
| **ARAZOAREN DIMENTSIOA ULERTZEA** | • **Dokumentuen berrikuspena eta estatistika-iturrien kontsulta.** | • **Sakoneko elkarrizketak.**<br>• **Kontsultak eta egiaztapena agenteekin.**<br>• **Hausnarketa kolektiboko aurrez aurreko tailerrak.** |
| **ERANTZUNAREN EBALUAZIOA** | • **Dokumentuen berrikuspena.** | • **Sakoneko elkarrizketak.**<br>• **Kontsultak eta egiaztapena agenteekin.**<br>• **Profesionalei egindako galdeketak.**<br>• **Hausnarketa kolektiboko aurrez aurreko tailerrak.** |
| **ORIENTAZIOAK IDENTIFIKATZEA** | | • **Hausnarketa kolektiboko aurrez aurreko tailerrak.** |

Azterlan honetan baliatutako ikusmoldeari esker, **hainbat dimentsio baliatzen dituen partaidetza-ikuspegi** batetik jorratuko da aztergaia, eta hausnarketan esku hartu duten eragile sozial inplikatuak hartuko ditu kontuan. Haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazio eta erakunde publikoak hausnarketan parte hartzera gonbidatu dira, baina baita beste sistema batzuk ere, besteak beste, judiziala, poliziala, osasun-arlokoa eta hezkuntza-arlokoa. Era berean, hirugarren sektoreko erakunde pribatuak eta eremu horretan lan egiten duten adituak ere hartu dira aintzat. Zehazki, hausnarketa kolektiboko prozesuan 34 erakunde eta entitatetako 53 pertsona murgilarazi dira[6].

## Azterlan honen norainokoa eta mugak:

Arazoaren neurriak ezartzeko orduan, dauden kasuen eta erregistratzen direnen artean arrail oso esanguratsua dagoela aintzat hartuta, kontu berezia hartu da estrategia diseinatzeko garaian; hala, zenbait indarkeria-modurekin (zenbait mota, zenbait eremu…) lotutako intzidentzia-datuak biltzeaz gainera (organo ofizialek erregistratutako gertakariak), eskuragarri dauden eta nagusitzen diren datuak ere baliatu dira (agintariek ezagutzen ez zituzten gertakariak, tartean diren pertsonek eta/edo beren inguruneak baino ez zituztenak ezagutzen eta, oro har, ezaugarri zehatz bat duen pertsona-talde baten proportzioari dagozkionak).

[6] Eranskinean daude jasota parte hartu duten erakundeak.

Hori hala, estrategia nagusia izan da azterlanarekin koherentzia gordetzen duen ahalik eta informazio gehien identifikatzea (hainbat dimentsiotako ikuspegi zabalez), eta, haietatik abiatuta, ahalik eta gehien biltzea kolektiboarekin esku hartzen duten eragileekin lotutako informazioa –argitaratuta edota eragileon eskura dagoena–. Alde horretatik, nabarmendu behar da txostenean aurkezten diren prebalentzia-datu kuantitatiboen bolumena eta kalitatea loturik daudela kontsultatutako iturrien egungo datuen eskuragarritasunarekin.

Hainbat muga identifikatu dira datu kuantitatiboak eskuratzearekin loturik:

- Alde batetik, kontuan izan behar da partzialak direla gaur egun eskura ditugun datuen bigarren mailako iturriak; hau da, kasu bakoitzean indarkeria mota edo modu desberdin bat jorratzen dutela eta gerturatzeak hainbat ikuspegitatik egiten dituztela (esate baterako, azterlan batzuetan kontuan hartzen diren indarkeria-definizioak eta -tipologiak ez datoz bat beste batzuetan kontuan hartzen dituztenekin).
- Horrezaz gainera, nabarmendu da oso murritza eta desberdina dela prebalentziari buruzko bigarren mailako iturrietan eskura dagoen informazioa, indarkeria mota desberdinei dagokienez.
- Beste alderdi bat ere nabarmendu behar da. Oro har, agente inplikatuek izan ohi dituzten informazio-sistemak (zerbitzuen eta bestelako bitartekoen arduradunak) ez dira behar bezain lerrokaturik egoten ikerketa-eremuak identifikatzen dituen informazio-premiekin (datuak ez dira behar bezainbeste banakatzen, ez dira irizpide estandar eta bateratuekin sailkatzen, ez dira interes bereziko zenbait aldagai soziodemografiko kontuan hartzen, ez da beti erraza izaten kontsultak egitea, esaterako, denbora-alderaketa bat egin ahal izateko eta abar).

Hori hala izanik, bereziki garrantzitsutzat jo da datu-bilketa informazio kualitatiboarekin osatzea; horretarako, bigarren mailako iturriak ez ezik lehen mailakoak ere hartu dira kontuan, zenbakietan eskas samar jasotako arazoak identifikatu ahal izateko.

Halaber, garrantzitsua da kontuan izatea aztergai den indarkeria modu eta motetako bakoitzak berez txosten oso bat eman dezakeela. Lan honek biltzen ditu beste azterlan batzuetan adingabeen kontrako indarkeria mota espezifiko batzuei buruz egindako azterlan espezifikoetako aurkikuntzak, baina ez da egileen asmoa haien berri luze-zabal ematea, baizik eta oro har erakustea zer indarkeria mota diren eta jakinaraztea, labur-labur, zein diren gako esanguratsuenak haietako bakoitzaren errealitatea ulertu ahal izateko.

Orobat, nabarmentzekoa da azterlan honetarako iturri-kopuru esanguratsu bat baliatu dela datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jasotzeko, baita haiek birsailkatzeko jarraitu den jarduketaren balioa ere. Bi horien bidez, azterlanaren helburu den arazoaren dimentsioari buruzko panoramika eskaini da eta, hala, aurretiko beste txosten batzuen ikuspegia zabaldu da.

Bitartekoen mapari buruz diharduen atalari dagokionez, aztergaiarekin loturik esanguratsuen jo daitezkeenen zerrenda jasotzen da. Hori hala, erabilgarria izango da jakiteko zer ezaugarri dituzten arazoari erantzuna emateko eragile batzuen eta besteen artean zabaldu dituzten zerbitzu, programa eta erreminta nagusiek. Nolanahi ere, zerrenda hori ez da osoa eta eta sakonekoa izango, lan honen helburua ez baita bitartekoen gida bat egitea.

# Erreferentzia-esparrua

## Esparru teoriko eta kontzeptuala

### Zer ulertzen dugu ume eta nerabeenganako indarkeria diogunean?

Lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu haurrez eta nerabeez jardutean 18 urtetik beherako pertsona guztiez ari garela; izan ere, adin horretatik azpiko pertsonak dira, Espainiako eta nazioarteko legeriaren arabera, adingabeen eskubideen titular.

*Haurrenganako indarkeriari buruzko mundu-txostenak* honela definitzen du indarkeria hori: «Indarra edo boterea nahita baliatzea, egiaz edo mehatxu-modura, lesioak, kalte psikologikoak, garapen eskasa, gabeziak edo are heriotza eraginez»[7].

Haurren Eskubideen Batzordearen 13. ohar orokorraren arabera, indarkeriatzat hartuko dira «edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra; indarkeria mentala; indarkeria fisikoa; gorputz-zigorrak; sexu-abusua eta -esplotazioa; tortura eta tratu edo zigor gizagabe edo iraingarriak; neskato eta mutikoen arteko indarkeria; autolesioak; kultura-jardunbide kaltegarriak; komunikabideen indarkeriaren mende jartzea; indarkeria informazioa eta komunikazioaren teknologien bidez, eta umeen eskubideak urratzea erakundeetan eta sisteman»[8].

*Adingabeenganako indarkeriaren kontra babes integrala eskaintzeko lege-aurreproiektua*ren zirriborroan zehazten denez, «indarkeriatzat hartuko dira, kasu guztietan, tratu txar fisiko, psikologiko edo emozionalak; zigor fisiko, umiliagarri edo apalgarriak; deskuidu edo tratu arduragabeak; esplotazioa; sexu-erasoak eta -abusuak; ustelkeria; eskola-jazarpena; genero-indarkeria; emakumezkoen mutilazio genitala; gizakien salerosketa, edozer xedetarako dela ere; haurren ezkontza; eta adingabeak babestearen bermatzaile izan behar duten pertsonek egindako omisio-egintza oro».[9]

Gaiaren inguruko erreferentzia nagusiak bat datoz adingabeenganako indarkeriaren definizio honetan: **desberdintasunean oinarritutako harremanen inguruko botere-abusua**. Eta, batetik, kalte fisikoaren eta kalte egiteko asmodunak diren **modu esplizituenak** jaso ditu eta, bestetik, **modu ez-fisikoak** (tratu txar psikologikoa…) eta/edo kalte egiteko **asmodunak ez direnak** (deskuidua…).

[7] PINHEIRO, P. S. *Haurrenganako indarkeriari buruzko mundu txostena.* New York: NBE, 2016.
[8] NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA. 13. ohar orokorra. Haurraren eskubidea inolako indarkeriaren biktima ez izateko (CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa).
[9] ESPAINIAKO GOBERNUA. Haurrenganako eta nerabeenganako indarkeriaren kontra babes integrala eskaintzeko lege-aurreproiektua [online] Madril: Espainiako Gobernua, 2019.

## Zein dira haur eta nerabeenganako indarkeriaren erroak? Zer ikuspegitatik ari gara arazoa aztertzen?

Azkeneko urteetan aldaketa handiak izan dira eta, legeei erreparaturik, egoera oso bestelakoa da. Hala eta guztiz ere, ohikoa da oraindik ere helduen eta familien eskubideak gailentzea haur eta nerabeen eskubideen aldean.

Hasteko eta behin, arazo hau jorratzean **haurren eta nerabeen eskubideak** baliatzen ditugu ikuspegi gisa. Horrenbestez, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa hartzen dugu erreferentzia gisa, zeinak aldaketa ekarri baitzuen: haurrak babes-elementu gisa ez ezik eskubideen subjektu substantibo gisa ere hasi ziren kontuan hartzen –giza eskubide orokorren eta herritar gisa dituzten eskubideen jabe gisa, alegia–. Cilleroren hitzetan, «konbentzioa diskriminazio mota baten kontrako itun bat da, haurrak ez baitziren kontuan hartzen gizakien kategoria beraren barruan»[10].

Era berean, horrek esan nahi du **haurraren interes gorena** oro har jasota geratzen dela Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren 3.1 artikuluan[11], eta hainbat eta hainbat arauk dei egiten diotela, dela Espainian, dela nazioartean. Jokabide-irizpide horrek ezartzen du haien interesa lehenetsi behar dela beste edozeren gaindik, baita gurasoen interesen gaindik ere. Haurraren interes gorena lehenesteak, azken buruan, haurren oinarrizko eskubideak kontuan izatea eta lehentasuna ematea esan nahi du, bestelako hainbat eskubide eta interes kolektiboren aurrean (haien nortasuna, familia-esparrua eta harremanak gordetzea; zainketak, babesa eta segurtasuna; hauskortasun-egoera, haurraren osasunerako eskubidea; hezkuntzarako eskubidea eta tankera horretako alderdiak).

Modu zehatzagoan, *urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazi dituena), Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Legeak*[12] emandako idazketako 2. artikuluan, ezartzen du zer ulertu behar den adingabearen interes gorenaz hitz egiten dugunean:

1. «Adingabeek beren interes gorena baloratu eta hura funtsezkotzat har dadila eskatu ahal izango dute berei dagozkien akzio eta erabaki guztietan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Lege hau eta berari eragiten dioten gainerako arauak aplikatzen direnean, eta erakunde publiko nahiz pribatuek, epaitegiek edo organo legegileek hartzen dituzten adingabeekin lotutako neurriak aplikatzen direnean, haien interes gorenari emango zaio lehentasuna, egon daitezkeen bestelako interes legitimoen gainetik. Adingabeen jarduteko gaitasunari dagozkion mugak modu murriztailean interpretatuko dira, eta adingabearen interes gorena hartuko da kontuan une oro.

2. Adingabearen interes gorena interpretatu eta aplikatzeko, honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan, hargatik eragotzi gabe legeria espezifiko aplikagarrian zehazten direnak eta kasu bakoitzeko egoera zehatzen arabera egokitzat jo daitezkeen beste batzuk: a) Adingabeak bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko duen eskubidea babestuko da, eta haren oinarrizko premia materialak, fisikoak eta hezkuntzakoak aseko dira, baita emozionalak eta afektiboak ere. b) Adingabearen nahiak, sentimenduak eta iritziak kontuan hartuko dira, baita haren interes gorena zehazteko prozesuan progresiboki parte hartzeko duen eskubidea ere, betiere adingabearen adina, heldutasuna, garapena eta bilakaera pertsonalaren arabera.

[10] CILLERO, M. Los derechos del niño: de la proclamación a la protección efectiva. *Justicia y derechos del niño*. Buenos Aires: *Justicia y Derechos del Niño*, 3. zk., 2009.

[11] Nabarmentzekoa da printzipio hori Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideen Batzordeak mugatu zuela 2013ko 14. ohar orokorrean, printzipio honi buruz egin diren interpretazio-irakurketa ugariak mugatze aldera.

[12] ESPAINIAKO GOBERNUA. 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 175. zenbakia, 2015eko uztailaren 23koa).

c) Adingabearen bizitza eta garapena indarkeriarik gabeko familia-testuinguru egoki batean oinarrituta egotea komeni da. Ahal izanez gero, adingabea jatorrizko familiarekin geratuko da, eta familiako harremanak mantentzen saiatuko dira, ahal den neurrian eta adingabearentzat positiboa bada. Babes-neurri bat hartzea erabakitzen bada, familia-harrerari emango zaio lehentasuna, eta ez egoitza-harrerari. Adingabea bere familia-nukleotik banandu denean, adingabea hara itzultzeko aukerak eta komenigarritasuna baloratuko dira, eta, horretarako, babes-neurria hartu den momentutik familiak izan duen bilakaera hartuko da kontuan. Une oro adingabearen interesei eta premiei emango zaie lehentasuna, eta ez familiak dituen premiei. d) Adingabearen identitatea, kultura, erlijioa, usteak, orientazio eta identitate sexuala eta hizkuntza babestuko dira. Adingabeak ez du inolako bereizkeriarik jasango arrazoi horiek edo beste baldintza batzuk direla-eta, desgaitasuna barne, eta bere nortasunaren garapen harmonikoa bermatuko da.

3. Irizpide horiek baloratzeko orduan, elementu orokor hauek hartuko dira kontuan: a) Adingabearen adina eta heldutasuna. Adingabearen berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatzeko beharra, adingabea bereziki kaltebera denean hainbat arrazoirengatik: familia-testuingururik ez izateagatik, tratu txarrak jasateagatik, desgaitasunagatik, orientazio edo identitate sexualagatik, errefuxiatua izateagatik, asilo edo babes subsidiarioa eskatzeagatik, gutxiengo etniko bateko kide izateagatik edo beste ezaugarri edo egoera garrantzitsu batzuengatik. c) Denboraren joateak adingabearen garapenean sortzen dituen ondorio itzulezinak. d) Adingabea modu eraginkorrean gizarteratu eta garatu dadila sustatzeko hartzen diren irtenbideen egonkortasuna mantentzeko beharra, baita edozein motatako egoera-aldaketa material edo emozionalek adingabearen nortasunean eta etorkizuneko garapenean eragin ditzakeen arriskuak murriztea ere. e) Adingabeak behar bezala prestatu behar du heldutasunera igarotzeko eta independentea izateko, bere gaitasunen eta egoera pertsonalaren arabera. f) Beharrezkotzat jotzen diren eta adingabeen eskubideak errespetatzen dituzten beste haztapen-elementu batzuk. Elementu horiek modu bateratuan baloratu beharko dira, premia- eta proportzionaltasun-printzipioak kontuan hartuta. Hala, adingabearen interes gorena lortzeko helburuarekin hartu beharreko neurriak ez ditu murriztuko edo mugatuko babesten dituen eskubideak baino gehiago.

4. Adingabearen interes gorenaz gain beste edonolako interes legitimoren bat izanez gero, interes gorenari erantzun eta beste interes legitimo horiek ere errespetatzen dituzten neurriei eman beharko zaie lehentasuna. Interes legitimo guztiak errespetatzea ezinezkoa bada, adingabearen interes gorenak izango du lehentasuna, egon daitezkeen bestelako interes legitimoen gainetik. Adingabearen interes gorena bermatzeko helburuarekin hartutako erabakiek eta neurriek behar bezala baloratu beharko dituzte ukitutako beste pertsonen oinarrizko eskubideak.

5. Adingabearen interes gorenarekin lotutako neurri guztiek prozesuaren bermeak errespetatu beharko dituzte, honako hauek bereziki: a) Adingabeak informazioa jasotzeko, entzuna izateko eta prozesuan parte hartzeko eskubideak izango ditu, indarrean den araudiari jarraikiz. b) Prozesuan profesional kualifikatuek edo adituek esku hartu ahal izango dute. Beharrezkoa izanez gero, profesional horiek desgaitasuna duten haurren premia zehatzei erantzuteko moduko prestakuntza izan beharko dute. Adingabeari eragiten dioten erabaki bereziki garrantzitsuetan, esparru horietan espezializatutako diziplina anitzeko talde tekniko baten txosten kolegiatua jasoko da. c) Adingabearen gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariek parte hartu ahal izango dute, baita defendatzaile judizial batek ere, haien artean gatazka edo desadostasunik balego; Ministerio Fiskalak ere esku hartu ahal izango du prozesuan, adingabearen interesak defendatzeko. d) Erabakia hartzeko orduan, erabakiaren motibazioan honako hauek gaineratu beharko dira: erabilitako irizpideak; irizpideak elkarren artean baloratzean eta orainaldiko nahiz etorkizuneko beste interes batzuekin baloratzean aplikatu diren elementuak; eta errespetatutako berme prozesalak. e) Hartutako erabakia berrikusteko aukera eskaintzen duten errekurtsoak egongo dira, erabaki horretan adingabearen interes gorenari lehentasuna eman ez bazaio, edo adingabearen garapena dela-eta edo inguruabarren aldaketa esanguratsuak direla-eta hura berrikustea beharrezkoa den kasuetan. Adingabeek doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea izango dute legez aurreikusitako kasuetan.»

Osasunaren Mundu Erakundearen *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena*k adierazten duenez, «indarkeria fenomeno biziki konplexua da, eta faktore biologiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politiko askotan ditu sustraiak»[13]. Txosten horrek, Bronfenbrenner eta tankera horretako beste hainbat egilek bezalaxe, «eredu ekologiko» bat baliatzen dute indarkeriaren poliedrikotasuna ulertu ahal izateko, eta haren bidez identifika eta uler ditzakegu **indarkerian esku hartzen duten hamaikatxo faktoreak**.

Hazten garen inguruneak gure bizitzako alderdi guztietan du eragina, eta gure pentsatzeko, sentitzeko, jarduteko dugun moduan esku hartzen du. Hipotesi horretatik abiatuta, hainbat faktore sozialek baldintzatuta egongo da ingurune hori; hala, ulertzen da elkarren artean lotuta dauden sistema-multzo bat eratzen dutela eta, aldi berean, euren artean ere eragina dutela. Horrenbestez, haietako batek haurraren garapenean duen eragina gainerako faktoreekin duen harremanaren mende dago.

Eredu horrek hainbat maila bereizten ditu, zeinak pertsonarekin den gertutasunaren arabera antolatzen baitira: indibiduala (faktore biologikoak eta historia pertsonala), harremanak (familia, adiskideak, bikotekidea...), testuinguru komunitarioa (ikastetxeak, lantokiak, bizilagunak...), eta gizartearen egitura (balio eta arau sozial eta kulturalak). Maila bateko faktoreek beste batekoak indartu edo aldaraz ditzakete, eta horrek bistaratzen du indarkeria prebenitzeak hainbat mailatan eta aldi berean jardutea eskatzen duela.

Erreminta analitiko gisa, ereduak aitortzen du faktore-sorta zabal eta konplexu batek areagotu egiten duela indarkeria-arriskua, eta horiek indarkeria betikotzen laguntzen dutela. Edo kontrakoa ere bai: indarkeriatik babes dezaketela. Portaerarekin lotutako patroi sozial eta kulturalek, faktore sozioekonomikoek (desberdintasuna eta langabezia kontuan harturik) eta genero-estereotipoek ere egiteko garrantzitsua dute alde horretatik. Hori hala izanik, ondorioztatu behar da **indarkeriak ez diola mundu guztiari berdin eragiten**.

Haur eta nerabeenganako indarkeriaren gaineko beste azterlan espezifiko batzuek pisuzko bi elementu aipatu ohi dituzte: mendekotasuna eta botere-harremanak. Biak ala biak ere **oso kontuan hartu behar dira adin txikiagoko populazioarenganako indarkeria azaltzeko garaian**.

1. Adingabeak dira edozer gizartetako populaziorik hauskorrena, eta **mendekotasun-egoeran** egoten dira helduekiko.
2. Gure gizartean, **asimetriak** definitzen ditu helduen eta adingabeen arteko harremanak (hierarkizatzeko eta bertikaltasuneko joera nabariz), eta helduak beti izaten dira adingabearen gainetik. «Helduaren gailentasunak, kasu honetan, esan nahi du haren irudia erreferentzia bilakatzen dela adingabearentzat; alegia, eredu eta agintaritza-iturri. Hala, posizio asimetriko horri erantzunez, helduaren “egiteko ahala” legitimo bilakatzen da adingabearen aurrean. Normatibotasunaren irudikapen horrek estatusa baliatzen duenean bere beharrizan propioak asetzeko eta ez adingabearen hazkuntza pertsonala lortzeko, aldeetako baten interesak biziatutako harremanak sortzen dira»[14].

Era berean, haur-talde batzuk **bereziki hauskorrak** dira indarkeria mota desberdinen aurrean. Esate baterako, hauskortasun mailarik handienak honako hauekin daude loturik: desgaitasuna duten haurrak eta nerabeak; umezurtzak; desberdintasun, langabezia eta pobrezia maila handiko komunitateetan bizi direnak eta abar.Gainera, badira faktore horien guztien eragina aldi berean jasotzen duten umeak eta nerabeak ere (desgaitasuna duten haur errefuxiatuak, eta abar).

[13] OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA. *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena: laburpena*. Washington: Osasunaren Erakunde Panamerikarra, Osasunaren Mundu Erakundearen Amerikarako Eskualde Bulegoa, 2002.

[14] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Abusos sexuales en la infancia. Visibilizando violencias.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

Bestalde, kontuan hartu behar da, halaber, neskak eta mutilak indarkeria moten inguruan arrisku maila desberdinetan daudela (alegia, generoak eginkizun esanguratsua duela eragile gisa), aurretik esan dugun moduan, eta, gainera, neskek indarkeria mota batzuk jasateko arrisku maila handiagoa dutela aintzat hartutako kasu horietakoren batean (bereziki tratu arduragabearekin eta sexu-indarkeriarekin lotua, pubertaro garaiaren ostetik). Halaber, ez da ahaztu behar adingabeei sexu-erasoak egiten dizkieten heldu gehienak gizonezkoak direla, emakumeren batzuk baldin badaude ere[15].

Hori hala, *Emakumearen diskriminazioa deuseztatzeko Batzordearen (CEDAW) 19. gomendio nagusiak*[16] ohartarazten duenez, **haurrek modu proportziorik gabean jasaten dituzte indarkeria eta abusuak gizonezkoen aldetik**. Indarkeria honekin loturik, teoria feministak albo batera utzi ezin den analisi-esparru bat eskaintzen du; izan ere, nabarmentzen du generoan oinarritutako eta gizartean errotutako botere-harremanek ipintzen dituztela neskak indarkeria mota jakin batzuk jasateko arriskuan –bereziki sexu-indarkeria–.

Emakumeek eta neskatoek indarkeria modu desproportzionatuan jasateaz gainera, maiz oso bestelakoak izaten dira haienganako indarkeriaren dinamika, jasaten dituzten indarkeria motak, larritasuna, maiztasuna eta ondorioak, betiere gizonezkoek eta mutilek jasaten dutenaren aldean.

Fenomeno hori osorik ulertzeko, erabakigarria da gure gizartearen **egitura patriarkalaren** ondorioak kontuan izatea, haren arabera eraikitzen baitira emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak[17]. Botere-harreman asimetrikoak eta berdintasunik gabeak dira, eta menderakuntza maskulinoari dagozkion patroi kulturalak dituzte oinarrian (lana sexuaren arabera banatzean oinarritutako hierarkizazio historiko eta unibertsal batetik abiatuta). Horien ondorioz, emakumeak azpikotasun- eta diskriminazio-egoeran ageri dira sektore publikoan zein pribatuan, emakume izate hutsagatik; txirotu egiten dira gizonezkoen aldean (ezaugarri, balio, funtzio, ardura eta rol desberdinak ematen dira gizartean eta familian sexuaren arabera, eta hierarkizatu egiten dira desberdintasun horiek, desberdinkeria bilakatuz; izan ere, hierarkizazio horretan emakumeei esleitutako rolak azpiratu egiten dira eta balio apalagoa ematen zaie, gizonezkoei esleitutakoen aldean).

«Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriaren arazoa egokiro lantzeak eskatzen du sistema sozialaren egitura aztertzea –sexu batek bestea menderatzea legitimatzen duen aldetik–, eta ikusi behar da, halaber, zer-nola erabiltzen diren erasook sexu batek bestearen gainetik dituen pribilegioei eusteko»[18]. Gerda Lerner[19] eta tankera horretako hainbat egileren aburuz, patriarkatua, luze-zabal harturik, «familiako emakumeen eta haurren gaineko gizonezkoen menderakuntzaren adierazpena eta instituzionalizazioa da, eta, orobat, menderakuntza hori emakumeengana zabaltzea gizartean».

---

[15] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Abusos sexuales en la infancia. Visibilizando violencias.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016. Azterketa honek adierazten duenez, adituak bat datoz adieraztean ezer gutxitarako balio dutela abusu-egilearen profilek, sexu-indarkeriarekin loturik. «Ziurtasunez baiezta daitekeen gauza bakarra zera da, biktimarioak gehienetan gizonezkoak izaten direla, % 90eko edo gehiagoko proportzioan».

[16] GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA. *Emakumeen aurkako indarkeria. CEDAW 19. Gomendio Orokorra.* Geneva: Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, 1992.

[17] *Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko Nazio Batuen Adierazpenak* aitortzen du emakumeen aurkako indarkeria gizon-emakumeen artean historikoki desberdinak izan diren botere-harremanen adierazpen dela eta, haren ondorioz, gizonezkoek menderatu eta diskriminatu egin dituztela emakumeak.

[18] EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak.* Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2019.

[19] LERNER, G. *La Creación del Patriarcado*. Bartzelona: Editorial Crítica, 1990.

Alde horretatik, esan dezakegu patriarkatuak sustatu duen familia-ereduak heteronormatibitatea duela ezaugarri nagusi: hau da, gizonaren hierarkia (tradizionalki hark zuen boterea familia-nukleoan), jabetzak markatutako harreman-loturak sortzea (seme-alabak, neurri batean, aitaren jabetza ziren, eta hark zuen umeen gaineko eskubide oro aitortua) eta pribatutasuna gordetzea.

Garrantzitsua da ez ahaztea familia-eredu horrek zera sustatu duela arau gisa, emakumeen eta seme-alaben obedientzia eta sumisioa. Eta, nolabait ere, «batez ere gizonek praktikatutako indarkeria mota batzuekiko tolerantzian hezten duten» balioak, sinesmenak, tradizioak eta ohiturak transmititu eta betikotu direla[20]. Era berean, ez da albo batera utzi behar beste auzi bat ere: biktimak ideologia horretan gizarteratzen direnean, nabarmen zailagoa izaten dela indarkeriari hortzak erakustea eta salatzea.

Honako eskema honetan, aipatutako gako nagusiak laburbiltzen dira:

| 1. ikuspegia: **HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK** | 2. ikuspegia: **EREDU EKOLOGIKOA** | 3. ikuspegia: **TEORIA FEMINISTA** |
|---|---|---|
| Ume eta nerabeak babesteko xede izateaz gainera, eskubideen titularren subjektu ere badira (Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa). | Indarkeriak ez du eragin bera pertsona guztiengan. | Neskatoek neurrigabe jasan ohi dituzte indarkeria-modu batzuk. |
| Adingabearen interes gorenak beste eskubide eta interes kolektibo batzuen gainetik egon behar du. | Elkarrekin lotutako hainbat eta hainbat faktorek eragiten dute indarkerian. | Egitura patriarkalak emakume eta gizonen arteko botere-harreman desberdinak eragiten ditu. |

## Zein dira arrisku-faktoreak? Zer haur eta nerabe dira bereziki hauskorrak?

Garrantzitsua da garbi uztea ezerk ez duela zehazten haur edo nerabe jakin batek indarkeria jasango duela: edonor da biktima potentziala. Halere, orain-oraingoz egindako ikerketek erakusten dutenez, badira hainbat arrisku-faktore.

Arrisku-faktoreen presentziak (izan indibidualak, familiakoak, soziokulturalak) areagotu egiten du indarkeria jasateko probabilitatea; hau da, aldagai horiek hauskortasun-egoeran ipintzen dituzte haurrak, jokabide edo jarrera oldarkorren aurrean.

Arrisku-faktoreak izateak EZ du zehazten tratu txarrak gertatuko direnik. Arrisku-faktoreok bata bestearen gainean metatzen dira, eta bereziki familiarekin eta gizartearekin lotutako faktoreek beste arrisku batzuk areagotzen dituzte. Baina, berez, ez dira erabakigarriak. Arrisku-faktoreek elkarri eragiten diete, ur-jauzi erako arrisku deitzen dena sorraraziz. Kasu horretan, hasierako arrisku batek nekez bereiz daitezkeen beste arrisku batzuk izan edo abiaraz ditzake; hala, arrisku-faktoreak bata bestearen jarraian metatzen joaten dira. Era berean, nabarmendu behar da indarkeria azaltzen eta aldez aurretik prestatzen duten faktore asko eta asko indarkeria jasan izanaren ondorioz agertzen direla.

[20] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Abusos sexuales en la infancia. Visibilizando violencias.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

Arrisku-faktoreei buruz aipatutako eredu ekologikoarekin bat, elkarri eragiten dioten lau maila aipa genitzake, zeinak «mikro» eremutik «makro» eremuraino baitoaz.

1. **Indibiduala**: biktimen zein erasotzaileen faktore biologikoak eta historia.
2. **Harreman primarioak**: berehalako familia-testuingurua eta gertuko harreman sozialen beste ekosistema batzuk (hala nola adiskideak, bikotekidea...).
3. **Komunitarioa:** zer testuinguru sozialetan mugitzen garen (ikastetxeak, lantokiak, bizilagunak...).
4. **Estrukturala**: gure gizartearen esparru orokorra, gure arau sozialak eta kulturalak ezartzen dituen aldetik.




Ondoren, gai honi buruzko erreferentziako ikerketek gehien aipatu izan dituzten arrisku-faktoreak aurkeztuko ditugu, lau maila horien barruan taldekatuta eta hainbat azpikategoriatan banatuta:

| | |
|---|---|
| indibidualak; | biktimen alderdi demografikoak; |
| | biktimen alderdi psikologiko eta emozionalak; |
| | biktimen bestelako alderdiak; |
| | erasotzaileen alderdi psikologiko eta emozionalak; |
| | erasotzaileen inguruabarrekin lotutako alderdiak; |
| harreman primarioak; | familien egitura; |
| | familia-etxeetako gizarte-bazterkeria; |
| | etxeko indarkeria; |
| | aita-amen gaitasunak; |
| | bestelako alderdiak; |
| komunitarioa | baldintzatzaile sozioekonomikoak; |
| | bitartekoak; |
| | bestelako alderdiak; |
| estrukturala | politikak; |
| | balioak. |

## MAILA INDIBIDUALA

### Biktimen alderdi demografikoak

- **Adina**: adingabeak dira edozer gizartetako populaziorik hauskorrena, eta mendekotasun-egoeran egoten dira helduekiko. Adinean aurrera egin ahala irabazten da autonomia, baina mendekotasuna ez da desagertzen nerabezaroa igaro arte; hau da, heldutasunera iristean –eta gizabanako guztietan adin desberdinean lortzen da hori–. Haurraren adinaren eta heldutasun mailaren arabera, emanagoa izango da tratu txar jakin batera, beste batera baino.
- **Sexua**: indarkeria mota batzuek (hala nola sexu-indarkeria, abandonua edo tratu arduragabea, eta behartutako prostituzioa) modu desproportzionatuan eragiten diete neskei, umetan zein nerabetan; mutilek, berriz, arrisku handiagoa izaten dute indarkeria fisikoa jasateko.

### Biktimen alderdi psikologiko eta emozionalak

- **Trebetasun eta gaitasun sozialik** ez izatea.
- **Nahasmendu mentalak** izatea.
- **Jokabidearen nahasmenduak** izatea, dela kanporakoiak (jokabide disruptiboak, desafiatzaileak eta oposizionistak, arreta-gabeziaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua eta hiperaktibitatea), dela barnerakoiak (antsietatea, depresioa).
- **Autestimu apala** edo segurtasun-ezaren arrastoak (norbere buruari buruzko kontzeptu edo irudi negatiboa edukitzea).

### Biktimen bestelako alderdiak

- **Epe aurreko** jaiotza eta/edo jaiotza-pisu eskasa.
- Jaiotzatiko **okerrak** izatea.
- **Osasun-arazo** kronikoak izatea.
- **Desgaitasun** fisikoa, intelektuala eta garapenekoa.
- **Sexu-orientazioa eta genero-identitate ez-normatiboa** (ez betetzea edo zalantzan ipintzea genero-arauak eta -estereotipoak, gizon-emakumeentzat ezarritako rolak, portaerak eta jarrerak).
- **Indarkeria-aurrekariak** (aurretik indarkeria jasana izateak areagotu egiten du haurra gerora biktimizatzeko aukera eta esperientzia oldarkorrak metatzea; polibiktimak).
- **Gutxiengo etnikoren** batekoa izatea (aurpegiera fisiko edo trazu kultural desberdinak izatea, gehiengoaren aldean).
- **Atzerritarra izatea jatorriz** (bereziki beste faktore batzuekin loturik, hala nola ez izatea babes-sare informal sendorik...).

### Erasotzaileen alderdi psikologiko eta emozionalak

- Sumina eta **hiperreaktibitatea**.
- Heldugabetasuna eta **ezegonkortasun emozionala**.
- **Frustrazioari** tolerantzia apala izatea.
- **Estres maila** handiak (bizi-kalitate txarra, nekea...).
- **Autoestimu** apala.
- **Nahasmendu mentalak** (depresioa, antsietatea, psikopatia…).
- **Drogen** edota alkoholaren abusua.

### Erasotzaileen inguruabar sozialekin lotutako alderdiak

- **Harreman eskasa gurasoekin**.
- **Indarkeria**-esperientziak umetan (biktima izan diren egoerak erreproduzitzea).
- **Nerabetan** guraso izatea.
- **Delitu-jokabideen** aurrekariak.
- **Mediku-kontrolik gabeko haurdunaldia**.
- **Loturaren nahasmenduak** agertzea.
- **Hezkuntza maila** apala.

## HARREMAN PRIMARIOAK

### Familien egitura

- **Gurasoak galtzea edo banantzea** (umezurtzak, migrazio-prozesuak...).
- **Familiako erreferenteak** falta izatea (lagundu gabeko atzerritar adingabeak) eta familia zabalaren babesik eza (emozionalki babestuko dituzten beste pertsona batzuk, gurasoen eta seme-alaben arteko zainketa-falta arintzeko).
- **Familia-kohesio** eskasa (egitura-falta, mugatu eta definitu gabeko rol eta funtzioak).
- **Familia ugariak, guraso bakarrekoak eta berrosatuak** (familia-etxe horien artean diren kidetzeak kontuan izanik eta kontuan harturik pobrezia eta gizarte-bazterkeriako arrisku handiagoa dela).

### Familia-etxeetako gizarte-bazterkeria

- **Maila sozioekonomiko** apala (pobrezia, lan-arazoak, langabezia...).
- Etxebizitzarik ez izatea, pilaketa edo **etxebizitzarekin** lotutako beste hainbat arazo.
- **Isolamendu soziala** (ez izatea babes- eta informazio-iturririk, ez edukitzea erreferentzia-punturik esparru afektibo eta ekonomikoan...).

### Etxeko indarkeria

- Bikotekideen artean **indarkeria** izatea familia-etxean.
- Ezkontideen arteko **gatazkak** (adostasunik gabeko banantzeak eta dibortzioak...).
- **Indarkeria-praktiken aurrekariak sinesmen erlijiosoen esparruan** (aldez aurretik halakoak jasan dituzten neba-arrebak izatea...).
- Indarkeria fisikoa eta zigorra **diziplinarako** modu baliagarri eta eragingarri gisa ikustea.

### Gurasoen gaitasunak

- **Hezkuntza-araurik** ez izatea edo arau gehiegi edukitzea (hezkuntza-estilo lasaiegia edo zurrunegia).
- Gurasoen rolak ez ezagutzea eta ez izatea **hezteko eredu** egokirik (guraso askoren zailtasuna bereizteko zer dagoen ondo eta zer gaizki seme-alabei dagokienez, hezkuntza-erreminta efikazik ez izatea mugak markatzeko eta hezteko garaian...).
- Ez ezagutzea haurraren **eboluzio-prozesua** eta haren beharrizan fisiko eta emozionalak.
- **Itxaropen** errealistarik ez izatea gurasoen aldetik seme-alabaren gaitasunei eta portaerari dagokienez (batzuetan, beren gain har ditzaketenak baino erantzukizun eta gaitasun gehiago ematen dizkiete, beste batzuetan, berriz, gutxietsi egiten dituzte haien gaitasunak).
- Gaitasun murriztua familiako **estresa** kudeatzeko (arazoen kudeaketa...).
- Interakzio eta komunikazio kaskarra gurasoen eta seme-alaben artean.

### Kontuan izateko beste alderdi batzuk

- **Nahi gabeko haurdunaldia** eta gurasoek umea arazo gisa ikustea.
- Denbora-falta.
- **Poztasunik eza** bikotean.
- Eskola-porrota.

## MAILA KOMUNITARIOA

### Baldintzatzaile sozioekonomikoak

- **Langabeziak eta lan-prekarietateak** maila handiak izatea inguruan.
- **Aukera ekonomiko mugatuak** inguruko emakumeentzat.
- **Pobrezia eta ezegonkortasun ekonomikoko** maila handiak izatea inguruan.
- **Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak** inguruan.
- **Maila kaskarreko etxebizitza** ugari izatea inguruan (espazio-arazoak, osasungarritasun-arazoak...).
- **Gatazka armatuak**.
- **Hondamendi naturalak**.

### Baliabideak

- Bitarteko gutxi **kontziliazioa** posible egiteko (familia, bizitza pertsonala eta lana).
- **Hezkuntza-bereizketa** (adingabeen profil jakin batzuek kontzentrazio maila handiagoa izatea ikastetxe jakin batzuetan, hala nola jatorriaren edo egoera sozioekonomikoaren arabera).
- **Eskolatze-falta** eta hezkuntza-bitartekorik ez izatea jokabide-arazoak dituztenentzat, sistematik ez botatzera bideratzeko (kalean dauden adingabeak edo instituzioetan bizi direnak).
- **Sexu-heziketa** desegokia edo eskasa ikastetxeetan.
- **Komunikabide elektronikoak** eskuratzea zaindu gabeko edo gainbegiratu gabeko espazioetan (ordenagailu edo *smartphone* bat edukitzea Internetera konektatuta).
- **Informazio eskasa** sare sozialak erabiltzearekin lotutako arriskuei dagokienez (ez izatea beharrezko arauak Internet modu arduratsuan erabiltzeko).

### Haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeria lantzeko bitarteko espezifikoak

- Behar adina bitarteko ez izatea haur eta nerabeenganako indarkeria **prebenitzeko**.
- **Prestakuntza-falta** haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen eta eragileen artean, haur eta nerabeenganako indarkeria detektatzearekin eta jakinaraztearekin loturik.
- Bitarteko eta laguntzarik ez izatea bizitzako lehen urteetan (0 eta 3 urte bitarte), **detekzio goiztiarrarekin** loturik, eta, hala, familia-esparruan izandako adingabeenganako indarkeria-kasuak garaiz artatu ahal izateko.
- Behar adina bitarteko ez izatea adingabeenganako indarkeria detektatzeko eta fenomeno horren gainean esku hartzeko, **babesgabetasunaren esparrutik harago** (esaterako, sexu-erasoei emandako erantzuna familia-esparrutik kanpo eta abar).
- Bitarteko egokirik ez izatea **hainbat arazo** jorratu ahal izateko haur eta nerabeenganako indarkeriaren esparruan (esaterako, osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeak).
- **Arreta-*continuuma*** etetea indarkeria jasaten edo baliatzen duten adingabeekin esku hartzean (arreta zatikatzearen ondorioz eta azpisistemen artean koordinaziorik ez izateagatik).

### Bestelako alderdiak

- Jaiotza-ziurtagiririk edo **erregistro ofizialik** ez izatea (zailtasunak errefuxiatuak edo barne-desplazatuak identifikatzeko...).
- **Sinesmen erlijiosoak** izatea, zeinen arabera hainbat indarkeria mota Jaungoikoaren agindua baita (komunitateetako lider erlijiosoek babesturik).
- **Erreferenterik ez izatea** esparru komunitarioan.
- **Babes-sare eta gizarte-babes eskasak** izatea inguruan (asoziazionismoa, herritarren lankidetza...).

## MAILA ESTRUKTURALA

### Politikak

- Haur eta nerabeenganako indarkeriaren kontrako legerik eta **araudirik ez izatea** ikuspegi orokorrarekin (ez aitortzea indarkeria mota jakin batzuk bakarrik tratu txar gisa).
- Araudiren batek esplizituki edo inplizituki onartzea indarkeria motaren bat (zigorrak...).
- Haurraren **eskubideen** gaineko jakintza- eta kontzientzia-falta izatea.
- Estatuak **emakumezkoen sexu-jarduna kontrolatzea**, bereziki sexu-portaeraren eta erreprodukzio-gaitasunaren gainean.
- Mekanismorik eza hainbat araudi aplikatzetik erator daitezkeen **sistemaren disfuntzioak konpontzeko** (esaterako, erasotzailea emakumearengandik urruntzeko agindua ematen denean, baina ez seme-alabengandik).
- **Adingabearen interes gorena** behar bezainbeste ez kontuan hartzea (familiaren eta erakundeen interesak adingabeenak baino garrantzitsuagotzat hartzen direnean).

### Balioak

- Emakumeak gizartean bizi duen desberdintasun eta azpikotasun errotua betikotzen duten **jokabide patriarkalak** nagusi izatea (sexu-harremanak izatean emakumezkoen baimena izateari buruz erlatibizatzen denean, edo emakumeei leporatzen zaienean gizonezkoek haienganako duten indarkeriaren errua, emakumeek gizonen nahiei ezezkoa ematen dietenean...).
- **Genero-rol zurrunak** defendatzea (neska-mutilak indarkeriaren eraginpean egon daitezke, gizon eta emakumeentzat ezarritako estereotipoak betetzen ez dituztenean).
- Haurtzaroarekin eta gurasotasunarekin lotutako **balio negatiboak** transmititzea.
- **Adineko pertsona erdigunetzat** hartzen duen ikuspegi soziala, haurrak eta haien premiak eta arazoak ikusezin bilakatuz.
- **Indarkeria mota batzuk legitimo bilakatzea** gizartean harreman-modu gisa, harreman-arazoak konpontzeko metodo gisa eta errotutako hezkuntza-metodo gisa.
- **Indarkeriaren ondorioak erlatibizatzea**, bereziki zeharkako indarkeriarenak (esaterako, teknologia edo komunikabide berrien bidezkoak).
- Haurren eta nerabeen **partaidetzarik eza eta haiei ez entzutea** erabakiak hartzeko garaian (esku hartzeko jardueren planteamenduak, kontuan hartu gabe...).
- Tratu txarren kulturak sorrarazten dituzten **kontsumo-irizpideak**, -ereduak eta -estereotipoak sustatzea.
- Familiaren **pribatutasunaren** balioa muturreraino defendatzea eta nolabaiteko erresistentzia agertzea estatuak haurtzaroa babesteko duen parte-hartzeari (seme-alabak jabetza gisa ikustea eskubideen subjektu gisa ikusi ordez; haurrenganako indarkeria auzi pribatua dela uste izatea gizartean, eta, ondorioz, ez dela esku hartu behar pentsatzea).

## Zer faktorek murriztu dezakete indarkeria jasateko arriskua?

Faktore babesle deitzen diegu arriskuaren aurrean erresilientzia sustatzen dutenei, garapen pertsonala modu positiboan indartzen dutenei eta gizartea kontzientziatu bat sustatzen dutenei, ulertaraziz haurrenganako indarkeria ez dela onargarria:

- **Autoestimu maila handia** (portaera sozial positiboa hobetzen laguntzen du.
- Haurtzaroan **amaren edo aitaren zaintza maila handiagoak** izatea.
- Harreman primarioen **sare** bat izatea inguruan, isolamendua saihesteko (tolerantziarik batere ez adingabeenganako indarkeriarekin, erasotzaile eta biktima ez direnean, irakasleak, begiraleak...).
- **Gizarte-kohesio** handia duten komunitateak, gizarte-sareak eta bizilagunekiko konexioak.
- **Gurasoek bitartekaritza aktiboa** gauzatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari dagokionez (adingabeekin hitz egitea online egin dezaketenari buruz, jarduerak partekatuz eta haiekin batera eseriz nabigatzen ari direnean; arriskuei buruzko gomendioak ematea eta laguntza eskaintzea arazoak dauzkatenean).
- Familiei babesa eskaintzeko bitartekoak edukitzea, mugak markatzeko eta hezteko efikazak diren **hezkuntza-erremintekin**.
- Prebentzio-programa komunitarioak sustatzea (haur-eskoletan, kirolguneetan...), **hainbat balio sustatzeko**, hala nola hezkidetza, bizikidetza eta abar.
- **Hezkuntzaren ikuspegi inklusiboa** hartzea, desberdintasunei aurrera egiteko eta hauskortasun-egoerak saihesteko (hezkidetza, genero-desberdintasunak errespetatzeko bermeak, immigrazioa, desgaitasuna...).
- **Gaitutako irakasleak, begiraleak eta bestelako profesionalak** izatea, eskolako indarkeria eta beste testuinguru batzuetakoa prebenitzeko eta detektatzeko, hala nola aisialdian, kiroletan, osasun-zentroetan eta abarretan.
- Sistemen arteko protokoloak izatea haur eta nerabeenganako indarkeria-kasuak deribatzeko, igarotzeko eta **koordinatzeko**.
- Komunikabideek **adingabeekin lotutako albisteak** egokiro tratatzen dituztela bermatzea.
- Komunikabideetako, publizitateko eta bideo-jokoetako **eduki oldarkorrak eta sexistak zabaltzeko arauak ipintzea**.
- Sistema sendo bat edukitzea eta behar adina bitarteko eta laguntza izatea gizarte-bazterkeriaren kontra egiteko eta **pobrezia-tasak murrizteko** (diru-sarrerak bermatzeko errenta-sistema edo antzekoak).
- **Gizon-emakumeen arteko berdintasun-politikak** izatea, emakume eta neskatoenganako indarkeriaren kontra egiteko neurri espezifikoak aurreikusiz.
- Araudia **protokolo eta jarduera-irizpideetan** mamitzea, inplikatutako agenteek ondo eta behar bezala interpretatzen dituztela bermatzeko.
- Familia, bizitza pertsonala eta lana **kontziliatzeko** politikak eta bitartekoak izatea.
- Haur eta nerabeenganako indarkeriari buruz **informazioa, orientazioa, sentsibilizazioa eta prebentzioa** sustatzeko kanpainak aktibatzea, indarkeria mota desberdinei eta haien ondorioei buruz.
- **Haurren eta nerabeen partaidetza** sustatzea hainbat mailatan.
- Haur eta nerabeenganako **indarkeriaren kontrako lege integral** bat edukitzea.

## Nola sailka dezakegu ume eta nerabeenganako indarkeria?

Ume eta nerabeenganako indarkeria-modu eta  mota ugari daude, eta, haiek sailkatzeko orduan, hainbat irizpide har daitezke kontuan. Hala, honako hauetan jar daiteke fokua: indarkeriaren izaeran (fisikoa, emozionala, sexuala…); indarkeriaren testuinguruan edo ingurunean (etxea eta familia, eskola, aisia eta astialdia, lantokiak, Internet eta komunikazioaren teknologiak…); pertsonan edo agente eragilean (familiartekoa, berdina, erakundea, autoezarria, heldu ezezagunak, taldeak…); zorroztasun maila babesgabetasunari dagokionez (arrisku arina, moderatua edo larria, edo babesgabetasuna), eta abar.

Arazo horrekin lotutako gerturatzea modu zatikatuan gertatu da, eta, sarritan, esparru horretan egindako ikerketek bestelako izaera espezializatua izan dute eta analisia indarkeria mota batera edo bestera mugatu dute (haurren kontrako tratu txarrak familia-esparruan, berdinen arteko tratu txarrak, sexu-abusuak...). Hori hala izanda, esku artean ditugun sailkapenek ez dute behar adina osotasun. Era berean, ohikoa da termino berbera baliatzea errealitate desberdinak izendatzeko (esaterako, «tratu txarrak» ez dira berdin ulertzen esparru judizialean edo osasunaren alorrean). Halaber, ohikoa da beste egile batzuek bereizita baliatzen dituzten kontzeptuak erabiltzea, eta, finean, ez da erraza guztiek onartzen duten sailkapen bat topatzea.

Zehazki, **indarkeriaren jatorria** kontuan izanik eta Osasunaren Mundu Erakundeak aurkeztutako sailkapenarekin bat (*Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu-txostena*[21]), lau indarkeria mota handi bereizi ahal izan ziren: indarkeria fisikoa, indarkeria emozionala edo psikologikoa, arduragabetasuna edo arreta-falta, eta sexu-indarkeria.

Txosten horretako ekarpenetatik abiaturik, eta kontuan izanik, era berean, adingabeenganako indarkeria mota jakin batzuen gaineko beste azterlan espezifiko batzuk (bibliografian daude jasota), honako definizio eta azpikategoria hauek hartuko ditugu:

1. **Indarkeria fisikoa:** Indarkeria motarik nabarmenena da, eta maila fisikoan eragiten du mina. Kolpeak, ebakiak, erredurak, mutilazioak, astinduak, jipoiak, pozoitzea, estupefazienteak ematea edo erraztea eta itotzea, besteak beste.

2. **Indarkeria emozionala:** Haurren eta nerabeen ongizate emozionalari eragiten dion edozer eraso, ahozkoa edota psikologikoa; esaterako, mehatxuak, isekak, umiliazioak, barregarri uztea, xantaia, manipulazioa, isolatzea edo taldetik kanporatzea.

3. **Arduragabekeria:** Haurren beharrizan fisikoak, psikologikoak, afektiboak, nutrizionalak eta babesarekin lotuak arretarik gabe uztea, haien garapenean hainbat eratako kalteak eraginez. Indarkeria mota horretan, helduek ez dute behar bezala gauzatzen babesteko funtzioa, eskura duten ahal hori, eta ez dute modu positiboan baliatzen zaintzeko, elikatzeko, artatzeko edo mugak ipintzeko ahala, edo ahal hori egikaritzeari uzten diote. Hainbat kategoria bereiz daitezke.

    - **Deskuidu fisikoa**: kaltetik babesten ez direnean, zaindu gabe utziz edo oinarrizko premiak artatu gabe utziz (hala nola elikadura, etxebizitza, higienea eta jantzi egokiak).

---

[21] OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA. *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena: laburpena*. Washington: Osasunaren Erakunde Panamerikarra, Osasunaren Mundu Erakundearen Amerikarako Eskualde Bulegoa, 2002.

- **Deskuidu emozionala**: babes- eta maitasun-gabezia, enpatiarik eza eta zaintzaileak ez izatea eskura, egoera kaltegarrietan inplikaturik egotearen ondorioz (indarkeriazko harremanak, alkohol- eta droga-kontsumo handiegia...).
- **Osasun fisiko edo mentalaren deskuidua**: ez denean ematen behar adinako mediku- edo osasun-zainketarik.
- **Hezkuntza-deskuidua**: zaintzaileek ez dituztenean betetzen haurren eskolatze-arauak eta ez direnean arduratzen haien hezkuntzarekin eta sozializazioarekin lotutako oinarrizko alderdiekin.
- **Abandonua**: zaintzaileek ez dutenean betetzen guraso-erantzukizuna gradu bakarrean ere.

4. **Sexu-indarkeria:** Adingabe baten eta adindun baten arteko kontaktu eta interakzioak, adindunak adingabea baliatzen duenean sexu-estimulazioa lortzeko, dela berea, haurrarena edo hirugarren pertsona batena. Baliteke abusua 18 urtetik beherako pertsona batek egitea, biktima baino nabarmen helduagoa denean edo erasotzailea botere- edo kontrol-egoeran dagoenean [22] . Sexu-abusua izan liteke kontaktu fisikoarekin (igurtziak, masturbazioa, laztanak, sarketa...) edo kontaktu fisikorik gabea (haur bat behartzea helduen sexu-harremanak ikustera, exhibizionismoa, sexu-kutsuko txantxak edo umiliazioak...). Sexu-abusuaren barruan, hainbat desberdintasun egin behar dira:

   - **Sexu-abusua eta -erasoa:** Aldea zera da, sexu-erasoan, sexu-indarkeriaz gainera, indarkeria fisikoa ere izaten dela.
   - **Exhibizionismoa:** Sexu-organoak edo -jokabideak erakustea, kontaktu fisikorik gabe.
   - **Sexu-esplotazioa:** Abusuari abusu horren merkaturatzea gaineratzen zaionean, dela diru-truk, dela haurrak edo nerabeak behar duen bestelako ondasunen baten truk. Haurren sexu-esplotazioko moduak dira:
     - Haurrak eta nerabeak prostituziorako baliatzea. Beste pertsona batzuekin sexu-harremanak izatera behartutako haurrak edo nerabeak. Sexualki abusatuak eta ekonomikoko esplotatuak dira, indarkeria psikologikoa eraginez eta arduragabekerian bizitzera behartuz, nahiz eta baimena eman.
     - Haurren sexu-abusuaren erreprodukzioak edo irudiak («haur-pornografia» izenez gaizki deituak). Haur edo nerabe batek ezin du inoiz baimena eman sexu-harremanak grabatzeko eta merkaturatzeko. Aitzitik, sexu-abusuen irudiak dira, Interneten merkaturatuak. Halako irudiak edukitzea, kontsumitzea, produzitzea eta banatzea delitua da EAEn.
     - Haurren eta nerabeen salerosketa, sexu-esplotazioko xedeekin. Haur edo nerabe bat toki batetik beste batera eramaten denean prostituzioan erabiltzeko, dela herrialde bereko beste tokiren batean, dela herrialde batetik bestera.
     - Haurren sexu-esplotazioa turismo- edo bidaia-egoeretan, heldua joaten denean herrialde bateko toki batera edo beste herrialde batera haurrak eta nerabeak sexualki abusatzera, zigorgabetasun handiagoko baldintzetan.

[22] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.) egileen definizioa baliatu dugu. *Abusos sexuales en la infancia. Visibilizando violencias.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

- **Sexu-abusua sare sozialen bidez (ziberjazarpena)**:
  - Baimenik gabeko sextinga eta sextortsioa (haur edo nerabe bati biluzik, jarrera erotikoetan edo zona intimoak erakutsiz argazkiak eginaraztea, eta argazki horiek zabaltzea edo zabaltzeko mehatxu egitea, haur edo nerabearengandik bestelako zerbait eskuratzeko).
  - Groominga (adindun batek haur edo nerabe bat engainatzea adinari edo nortasunari buruz, sinetsaraziz berdin batekin bikote-harreman bat ezarri nahian dabilela, eta, hari esker, sexu-harremanak izateko).
  - Haur edo nerabe batenganako jarrera apalgarriak edo abusuzkoak grabatzea eta sarean zabaltzea.




Osasunaren Mundu Erakundearen esandako txosten horrek, halaber, hiru kategoria handitan banatzen du indarkeria, **segun eta nor den indarkeria-egintzaren egilea**. Horien barruan, hainbat azpikategoria ematen ditu, indarkeria mota espezifikoagoak bereizteko.

1. **Indarkeria autoezarria**: norbere buruari zuzendutako indarkeria da, hala nola suizidio-saioak, autolesioak...

2. **Pertsonen arteko indarkeria**: pertsona edo pertsona-talde txiki batek egina, dela familiako edo etxeko giroan (bikotekidea, tutoreak edo bestelakoak) edo handik kanpo, komunitatean, oro har (ezagunak ala ez).

3. **Indarkeria kolektiboa:** talde handiagoek egina, hala nola estatuek, talde politiko antolatuek, miliziek, erakunde terroristek, mafiek... Arrazoi horiek izan litezke sozialak, politikoak edo ekonomikoak.



Bestalde, kontuan izan behar da indarkeria **ingurune edo inguruabar** desberdinetan gerta litekeela:




1. **Familia edo etxea:** eremu horretan bizi izaten dira adingabeak gurasoekin edo haien garapenaren arduradunekin (tutoreak).
2. **Ikastetxea:** erantzukizun publikoko eremua da (edozer dela ere ikastetxearen lege-titulartasuna), eta adingabeei derrigorrezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzeaz arduratzen dira, baita derrigorrezkoa ez dena ere. Familiaren ondotik, haurtzarorako eta nerabezarorako bigarren erreferentzia-espaziorik garrantzitsuena, hura baita denbora gehien ematen duten tokietako bat.
3. **Aisialdia eta kirola:** denbora libreko, aisialdiko eta kirolerako eremuetan, haurrek eta nerabeek bizitzaren zati eder bat ematen dute berdinen konpainian, eskola-orduetatik kanpo.
4. **Internet:** espazio horretan, haurrek eta nerabeek gero eta denbora gehiago ematen dute eta arrisku garrantzitsuak ageri ditu, besteak beste anonimotasuna eskaintzen dielako jarduten dutenei.
5. **Instituzioak:** alde batetik, arazo sozialak dituzten adingabeak babesteko eta tutoretzapean edukitzeko ekipamenduen esparru konkretuari egiten die erreferentzia, neurri judizialekin lagundurik; bestetik, indarkeria instituzionala uler liteke sistemak haurren eta nerabeen eskubideak gordetzeari dagokionez, oro har, eta sistema judizialari erreferentzia eginik, bereziki.
6. **Komunitatea:** zentzu zabalean, familiatik edo etxetik kanpoko espazioen multzoari egiten dio erreferentzia. Zentzurik hertsienean, aurrekoetan aurreikusi gabeko espazio komunitarioari egiten dio erreferentzia (kaleak, parkeak...).
7. **Komunikabideak:** komunikabideek eragin erabakigarria dute eskainitako edukiekin loturik (esaterako, mezu eta irudi sexisten eraginpean egotea).
8. **Lan-esparrua**: adingabeenganako indarkeria lan-esparruetan ere gerta liteke [23], bereziki lan-esparru oso itxietan (hala nola etxeko lanetan). Era berean, kontuan hartu behar dira beste hainbat egoera ere, zeinetan lanerako adinean ez dauden pertsonak baliatzen baitira edozer motatako irabaziak eskuratzeko (eskekoak ere barnean hartuta).
9. **Bestelakoak:** esaterako, gatazka armatuak (horiekin loturik, errefuxiatuen egoera nabarmendu behar da).

Familia da haurren eta nerabeen babes-eremu funtsezkoa. Hori kontuan izanik, garrantzitsua da garbi desberdintzea indarkeria esparru horretan gertatzen den eta/edo adingabeak zaintzeaz eta babesteaz arduratu behar direnek (gurasoek eta bestelakoek) ez dutenean babesik eskaintzen (zaintzarako ezarritako babes-betebeharrak ez betetzea edo ez egokiro betetzea), edo, bestalde, indarkeria esparru horretatik kanpo gertatzen denean eta/edo babesa eta zaintza eskaintzen duten pertsonez bestelakoek eragiten dutenean eta tutoreek babes hori eskaintzen dutenean (guraso-erantzukizunak behar bezala gauzatzen dituztenean).

Hala, nahiz eta hainbat pertsonak urra ditzaketen haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak (eraso fisikoen, sexualen, ahozkoen eta halakoen xede izanik...), esandako urratze hori ez da izango babesgabetasun egoera (horrek ez du esan nahi halakoak jasotzen dituenak ez duenik laguntzarik jaso behar).

[23] Espainian, 18 urtetik azpikoek eta 16tik gorakoek lan egin dezakete gurasoen, tutoreen edo arduradunen baimenarekin, ez baldin badaude emantzipaturik.

Halako egoera bat babesgabetasun gisa hartzeko, ezinbestekoa izango da egoera hori ez den nahita eragina izatea edo gurasoei zein tutoreei dagozkien babes-eginbeharrak desegoki gauzatzearen ondorioz gertatzea; hau da, pertsona horiek eraginak direnean edo ez direnean gauza hirugarrenek eragindako erasoetatik edo eskubide-urraketetatik babesteko.

Aldatzen joan da **babesgabetasun** kontzeptuaren definizioa, eta aldatzen joan dira kontzeptu horren arabera haur edo nerabe bati babesik eza eragiten dioten egoera zehatzak. Kontzeptu dinamikoa da, eta eboluzionatzen joan da denboraren poderioz. Garai historikoaren, tokiaren, ohituren eta arau sozialen arabera, aldatu egiten dira haur eta nerabeenganako tratu egokia eta desegokia bereizteko barrera eta haiek zaintzeaz arduratzen diren pertsonek jarrera jakin batzuekiko duten tolerantzia soziala. Zorionez, gurearen moduko gizarte aurreratuetan, legeak eta ohitura sozialak aldatzen joan dira, eta gero eta kontsiderazio eta estaldura zabalagoa eskaintzen zaie haurren eta nerabeen eskubideei.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak[24] ezartzen duenez, hainbat kausak eragiten dituzte haurren babesgabetasun-egoerak:

- Gurasoek edo tutoreek babesteko eginbeharrak beren gain hartzeko ezintasuna, aldi baterakoa edo behin betikoa, hainbat arrazoik eraginda, hala nola heriotza, espetxeratzea, gaixotasun fisiko edo mentala, toxikomania ezintzaileak edo tankera horretako kausaren bat.
- Gurasoek eta tutoretzan diharduten pertsonek babes-eginbeharrei uko egitea: gurasotasunari uko egitea edo ez aitortzea, erabateko abandonua edo tankera horretako kausaren bat.
- Gurasoek edo tutoretza duten pertsonek ez jardutea modu egokian, babes-eginbeharretan izandako ekintzak edo omisioak direla eta.
- Tratu txar fisikoak: gurasoen ekintza, halabeharrezkoa ez dena eta haur edo nerabeari kalte fisikoa edo gaixotasuna eragiten diona edo halakoren bat izateko arrisku larrian ipintzen duena.
- Beharrizan fisikoekiko arduragabekeria (elikadura, osasun fisikoa zaintzea, jantziak, higiene pertsonala, etxebizitzako baldintza higienikoak).
- Segurtasun-beharrizanekiko arduragabekeria (gainbegiratzea, beste pertsona batzuek egindako babesgabetasun larrien aurreko babesa).
- Prestakuntza-beharrizanekiko arduragabekeria.
- Beharrizan psikikoekiko arduragabekeria (interakzioa, afektua, arauak, mugak eta balioak transmititzea).
- Tratu txarrak eta abandonu emozionala: errefusa, isekak, abandonatzeko mehatxuak, isolamendua, bizkar ematea, estimulu-falta, etxeko indarkeriaren presentzia, jokabide egokitu gabeak bultzatzea edo baimentzea, gehiegizko babes larria eta abar.
- Sexu-abusua.
- Abandonua.

Gaur egun EAEn adingabeak babestearen alorrean indarrean den legeriak ezartzen duenez, administrazio publiko eskudunak beharturik daude haur edo nerabe orori eragiten dion edozer arrisku- eta babesgabetasun-egoera prebenitzera eta halakoetan esku hartzera, haien garapen integrala bermatzeko eta familia-bizitza normalizatua sustatzeko. Hala, honako definizio hauek ematen ditu:

[24] EUSKO JAURLARITZA. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. (EHAA, 59. zk., 2005eko martxoaren 30ekoa.)

- **Arrisku-egoerak**: haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak. (Adingabearen babes juridikorako urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 17. artikulua; Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legearen 51. artikulua). Indarkeriaren intentsitatearen edo eraginaren arabera, hainbat babesgabetasun-egoeratan topatuko ditugu haurrak eta nerabeak (arina, moderatua eta larria).

- **Babesgabetasun-egoerak:** «Babesgabetasun-egoera dagoela joko da egitez hala gertatzen denean arrazoi hauetako bat tarteko: adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala» (Kode Zibilaren 172.1 artikulua eta Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legearen 56. artikulua).




Aurreko sailkapenak gurutzatzetik, honako eskema hau ondorioztа liteke. Indarkeriaren hainbat tipologia eta azpitipologia ageri ditu, lau dimentsio ere uztarturik (non gertatzen den indarkeria, nork egiten duen, zer xederekin eta nola), eta hari hainbat indarkeria-manifestazio gaineratu zaizkio. Kontuan izan behar da asko direla indarkeria-moten arteko gurutzatzeak, izaeraren eta inguruabarren arabera (esaterako, berdinen arteko indarkeria eskola-eremuan gerta liteke, baina baita kirolean ere, eta tratu txarrak izan litezke fisikoak, sexualak edo psikologikoak).

ADINGABEENGANAKO INDARKERIA-TIPOLOGIAK ETA -AZPITIPOLOGIAK

| | Non, nork eta zer xederekin | AUTO EZARRIA | PERTSONEN ARTEKOA | | | | | KOLEKTIBOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **Familia/etxea** | | | **Komunitatea**<br>Ikastetxea, aisialdia, kirola, Internet, instituzioak, lana... | | **Komunitatea**<br>Instituzioak, gatazka armatuak, komunikabideak... |
| | | | Bikotekidea edo bikotekide ohia | Tutoreak (babesgabetasuna) | Familiako beste hainbat | Berdinak | Beste ezagun edo ezezagun batzuk | Gizarte-, politika-, ekonomia-motibazioetan oinarritutako taldeak... |
| MOTA: Nola | **FISIKOA**<br>Kolpeak<br>Ebakiak<br>Erredurak<br>Mutilazioak<br>Astinduak<br>Jipoiak<br>Pozoitzea<br>Estupefazienteak ematea edo erraztea<br>Itotzea<br>Hilketa | Autolesioak<br>Suizidioa<br>Anorexia eta bulimia | | Jaioaurreko tratu txarrak<br>Jaioberri astindua<br>Bahiketa | | | | Harrapatze edo bahiketa<br>Tortura edo giza tratu apalgarriak atxilotze-prozesuetan.<br>Ohore-kontuengatik egindako hilketak<br>Neskak hiltzea<br>Mutilak hiltzea |
| | **EMOZIONALA**<br>Mehatxuak<br>Isekak<br>Umiliazioak<br>Barregarri uztea<br>Larderia<br>Xantaia edo manipulazioa<br>Irainak<br>Xaxatzeak<br>Isolamendua edo taldetik baztertzea | | Mugimenduak, lagunak eta mugikorra kontrolatzea<br>Objektu pertsonalak haustea | Adingabeen instrumentalizazioa<br>Amarenganako genero-indarkeriaren eraginpean egotea | | Ahozko erasoak: gaizki esaka aritzea, goitizenak ipintzea...<br>Egoera apalgarrietan ateratako irudiak eta edukiak<br>Umiliatzeko sortutako web-guneak<br>Norbait zerbait egitera behartzea | Programa kaltegarriak bidaltzea<br>Sareetan nortasuna ordeztea...<br>LGTBIfobia | Patroi oldarkorren bidezko hezkuntzaren eraginpean egotea<br>Irudi sexisten eraginpean egotea komunikabideetan<br>Praktika tradizional mingarriak: behartutako ezkontzak...<br>Bigarren mailako biktimizazioa prozesu judizialetan |
| | **ARDURAGABEKERIA**<br>Arreta afektiborik ez izatea<br>Arretarik ez ipintzea segurtasun-premietan (arriskuak prebenitzea, gainbegiratzea, beste pertsona batzuek egindako babesgabetasun-egoeretatik babestea...)<br>Elikadura-falta<br>Higienerik, oinetakorik, jantzirik eza...<br>Etxebizitzarik eza<br>Eskolako absentismoa | | | Zainketa ez betetzea<br>Pentsioak ez ordaintzea<br>Etxetik botatzea<br>Haurraren portaera kontrolatu ezina<br>Eskolako absentismoa<br>Adingabe migratzaileak, familiako erreferenterik gabe | | | | Entzuna izateko eskubidea zapaltzea<br>Lan-kontraturik gabeko lana<br>Eskean aritzea<br>Segurtasun-baldintzarik gabe lan egitea<br>Harrera-zentroak gainsaturatuta egotea<br>Administrazio-prozesuetan luzapen bidegabeak<br>Atxilotze-guneak desegokiak izatea |
| | **SEXUALA**<br>Bortxaketa<br>Abusua<br>Jazarpena | | Sexu-harreman behartuak bikote barruan | Antzutze behartua | | Sexu-portaera desegokiak | Sextinga<br>Sextortsioa<br>Groominga | Salerosketa sexu-xedearekin<br>Prostituzioa<br>Pornografia<br>Sexu-turismoa<br>Praktika tradizional kaltegarriak: iniziazio-erritu oldarkorrak eta nesken mutilazio genitala. |

Iturria: geuk egina, *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena* (OME, 2002) agiria erreferentzia gisa hartuta. Oharra: koadro urdinetan, indarkeria mota bakoitzarekin lotzen diren agerraldiak erakusten dira, edonork gauzatzen duela ere indarkeria hori. Horrez gainera, beste koadroetan indarkeria-azpimota batzuen agerraldi espezifiko batzuk ere adierazten dira (agerraldi horietako batzuk egon litezke lotuta indarkeria-azpimota batekin baino gehiagorekin, baina koadro honetan errealitate hori gehien jasotzen duten azpimotaren barruan kokatzen dira).

Indarkeria motari eta -azpimotari erreparatzeaz gainera, haietako hainbaten zantzu komunei eta azpian dituzten kausei ere begiratzen badiegu, bestelako irakurketa osagarriak ere egin ahalko dira. Esate baterako, aurreko eskeman atal desberdinetan sailkatutako hainbat indarkeria mota «emakumeenganako indarkeria» kategoria espezifikoan bil litezke: bikotekidearen aldetik jasotako indarkeria, neskenganako sexu-indarkeria familia-esparrutik kanpo, sexu-esplotaziorako salerosketa, emakumezkoen mutilazio genitala, ezkontza behartuak, genero-indarkeriako ingurunearen eraginpean egotea eta abar.

Garrantzitsua da haurren eta nerabeen kontrako indarkeria mota guztiak presente edukitzea, arazoaren konplexutasuna eta aniztasuna ikusgarri egiteko, baina kontuan hartu behar da, era berean, haur eta nerabeenganako indarkeria-modu batzuek presentzia handiagoa dutela gure erkidegoan beste batzuek baino.

Halaber, azpimarratu behar da indarkeria mota batzuek intzidentzia eta prebalentzia maila handiagoak dituztela populazio-segmentu jakin batzuetan. Hori hala izanik, garrantzitsua da genero-ikuspegia kontuan izatea, bereziki neskek jasaten dituztelako indarkeria mota batzuk, hala nola nerabezaroaurrea baino lehen izandako sexu-abusuak, haurren salerosketa edo praktika tradizional kaltegarri batzuk.

Irizpide horiek oinarri hartuta eta, batik bat, **beste batzuetatik bereizten dituzten ezaugarri oso bereziak dituztela** aintzat hartuta, txosten honetan erabaki da berezko espazioa eskaintzea honako INDARKERIA-MODU hauei (ez dira espazio estankoak; izan ere, haietako askok loturak dituzte beste batzuekin):

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| FAMILIA BARRUKO TRATU TXARRAK | SEXU-INDARKERIA | BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRA | EMAKUME, NESKATO ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA | INDARKERIA INSTITUZIONALA | BESTE BATZUK |

**Familia barruko tratu txarrak:** «Gurasoek edo zaintzaile nagusiek egindakoa eta halabeharrezkoa ez den ekintza edo omisio oro, zeinak kaltea eragiten baitu haurren eta nerabeen ongizate fisiko, emozional eta psikologikoan, haien garapen ebolutiboa erasanez»[25]. Indarkeria mota horrek izan dezake indarkeria fisikoa, psikologikoa, arduragabekeria eta sexu-abusua. Hainbat babesgabetasun mailarekin loturik dago.

**Sexu-indarkeria:** «Adingabe baten eta adindun baten arteko kontaktu eta interakzioak, adindunak adingabea baliatzen duenean sexu-estimulazioa lortzeko, dela berea, haurrarena edo hirugarren pertsona batena. Baliteke abusua 18 urtetik beherako pertsona batek egitea, biktima baino nabarmen helduagoa denean edo erasotzailea botere- edo kontrol-egoera batean dagoenean»[26]. Hor barnean sartzen dira familia-esparruan izandako indarkeria (abusua eta erasoa) beste pertsona edo talde batzuek egindakoa, xede eta bitarteko desberdinekin (esplotazioa). Era berean, Interneten esparruan gertatutako abusuen modu espezifikoak ere biltzen ditu (ziberjazarpena).

[25] BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save The Children, 2018.
[26] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Abusos sexuales en la infancia. Visibilizando violencias.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

**Berdinen arteko tratu txarra:** Nahita egindako ekintza bat, 18 urtetik beherako pertsona batek edo pertsona-talde batek tankerako adina duen beste norbaiti egina, zeinaren helburua baita beldurra edo estutasuna sorraraztea; erlazio asimetriko batean gertatzen da, desberdintasuna da erasotzailearen eta biktimaren artean, eta errepikakorra izan ohi da. Tratu txarrok hainbat eratakoak izan litezke (baliteke tratu txarrak jasotzen dituen pertsona aurrez aurre izatea ala ez; izan liteke ahozko gutxiespena, eraso fisikoa edo bazterkeria soziala; izan litezke delako pertsonaren kontrako ekintza zuzenak, baina baita zeharkakoak ere, biktimaren objektu pertsonalei, lagunei edota senitartekoei egindakoak; izan liteke mehatxuen, ikararen eta halakoen bidez eragina.). Horrez gainera, Interneten ere izaten dira bullying-moduak (ziberbullyinga)[27].

**Emakume, neskato eta nerabeen aurkako indarkeria:** Emakumeen eta nesken kontrako indarkeria da, emakume izate hutsagatik; oinarrian, gizon-emakumeen arteko harreman desberdinak ageri dira. Hainbat forma izan ditzake: «Generoan oinarritutako edozein indarkeria egintza[28], emaitza moduan, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena edo izan dezakeena, baita egintza horien mehatxuak, derrigortzea edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, hori bizitza publikoan zein pribatuan gertatu»[29]. Hainbat kategoria biltzen dira:

- Bikotekide edo bikotekide ohiaren eskutik **indarkeria (genero-indarkeria) jasaten duten emakumeen seme-alabak**, baita emakumeen kontrako bestelako indarkeria motak (hala nola, salerosketa) jasaten dituzten emakumeen seme-alabak ere.
- Bikotekidea edo bikotekide ohiaren eskutik indarkeria jasaten duten **nerabeak** eta/edo sexu-indarkeria esparru horretatik kanpo jasaten dutenak, eta bestelako indarkeria mota batzuen biktima diren **neskak** eta nerabeak, betiere genero-osagai garbi batekin (esaterako, emakumezkoen mutilazio genitala, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa eta abar).

**Indarkeria instituzionala:** Haurtzaroaren kontrako indarkeria mota bat da; halako egoeretan, administrazio publikoak urratzen ditu haurraren eskubideak, dela administrazioan lan egiten duten pertsonek edo langile juridikoek ez dituztelako ezagutzen haurren eskubideak, dela ez dagoelako bitarteko espezializatu eta egokirik haurrek esku hartzen duten egoera judizialei erantzuna emateko –izan haur horiek biktimak edo delituen lekukoak, izan lege-hausleak–, ezkontzen krisietan edo babesgabetasun-egoeretan, edo atzerritarren legeei dagokienez, beste hainbat egoeraren artean.

[27] Ziberbullyingak eskatzen du telefono mugikorrak (testuak, deiak, bideoklipak), Internet (emaila, sare sozialak, mezularitza, txata, webguneak) edo informazioaren eta komunikazioaren bestelako teknologiak baliatzea norbaiti irainak, apaltzeak, mehatxuak edo larderia egiteko. Ziberjazarpenaren berezitasuna zera da, eraso bakar bat grabatzea eta Internetera igotzea ziberjazarpen gisa hartzen dela, askotan erreproduzitu daitekeelako eta hartzaileak potentzialki globalak direlako.

[28] Istanbuleko Hitzarmenean, «generoa» honela definitzen da, «sozialki eraikitako rolak, portaerak, jarduerak eta esleipenak, eta gizarte jakin batek emakumezkoen edo gizonezkoen propiotzat hartzen dituenak».

[29] EUROPAKO KONTSEILUA. *Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentziorako eta indarkeria horien aurka borrokatzeko Hitzarmena.* Council of Europe Treaty Series. Estambul: Council of Europe Treaty Series, 2011, nº 210.

**Adingabeenganako bestelako hainbat indarkeria mota:** Atal honetan, gainerako indarkeria motak biltzen dira; aurreko eskemarekin loturik, harremana dute indarkeria autoezarriarekin eta arrazoi sozialak, politikoak edo ekonomikoak direla eta izandako indarkeria kolektiboarekin (praktika tradizional kaltegarriak, gatazka armatuen esparruko indarkeria, lan-esparruko indarkeria, komunikabideak...).

Azkenik, interesgarria dirudi, era berean, haur eta nerabeenganako indarkeriari buruz diharduen azterlan batek beste hainbat errealitate ere kontuan izatea; izan ere, nahiz eta ezin ditzakegun hartu adingabeenganako indarkeria gisa, harekin lotura estua daukate. Adibidez: **adingabeek gauzatutako indarkeria**.

Adingabe arau-hausleez ari gara, baina baita bikoteen edo bikotekide ohien kontra indarkeria baliatzen duten mutilak ere, bullying erasotzaileak, gurasoenganako indarkeria praktikatzen duten nerabeak eta abar.

# Arau- eta eskumen-esparrua

**Nazioartean**, adingabeen eskubideak XIX. menden hasi ziren garrantzi politiko eta soziala hartzen, eta garrantzi hori XX. mendeko hainbat lege-testutan islatu zen. Haietako lehendabizikoa *Haurren eskubideei buruzko Genevako Konbentzioa*[30] (1924) izan zen. Hura oinarri hartuta, ondoren, *Haurren eskubideen Aldarrikapena* (NBE, 1959) eta *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa*[31] onartu ziren, zeina Espainiako estatuak 1990an berretsi baitzuen. Dokumentu horrek adingabeen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, sanitarioak eta kulturalak biltzen ditu.

Haurren eskubideei buruzko Konbentzioak ezartzen duenez, adingabeak *«18 urtetik beherako gizaki oro»*[32] izango dira, eta zehazten du haur eta nerabe oro eskubideen titular direla, eta ez babestu beharreko subjektu huts. Halere, eskubide horietakoren bat zaintzaileei edo tutoreei esleitua da, eta, horrenbestez, eskubide horiek haurraren edo nerabearen interes gorena kontuan hartuz egikaritzea espero da. Adingabeak gizakien beste kolektiboetatik bereizteko faktoreetako bat zera da, adingabeek hainbat motatako giza eskubideak dituztela –pertsona giza dagozkienak eta haiek babesteko beharrezkoak direnak, haien garapena eta ongizatea sustatzeko heldu izateko bidean–.

Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren hainbat artikulu nabarmenek aipatzen dute estatu sinatzaileak beharturik daudela adingabeak era guztietako tratu txarretatik babestera, prebentzio- eta tratamendu-neurrien bidez (19. artikulua); haurren adierazpen- eta partaidetza-eskubidea gordetzera (13. artikulua); babesteko eskubidea gordetzera, beren familia-ingurunetik gabetuta daudenean (20. artikulua); haurra sexu-esplotazio eta -abusu mota orotatik babestera (34. artikulua).

Haurraren Eskubideen Batzordea aditu independentez osatutako organo bat da, eta arduratzen da egiaztatzeaz estatu sinatzaileek betetzen dutela Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa. Besteak beste, ohar orokorrak eta gomendioak egiten ditu, haurren eskubideak egokiro interpretatzen eta aplikatzen direla bermatzeko, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioan ezarrita dagoenarekin bat. Nabarmentzekoak dira honako ohar hauek, indarkeriaren aurrean haurrak hobeto babestearekin loturik:

- 8. ohar orokorra, adingabeak gorputz-zigorretatik eta bestelako zigor krudel eta apalgarrietatik babesteko eskubideari buruzkoa.
- 13. ohar orokorra, adingabeek inolako indarkeriarik ez jasateari eta indarkeria-egoerak modu integralaren lantzeko beharrizanari buruzkoa.
- 14. ohar orokorra, adingabearen interes gorenaren printzipioari buruzkoa.
- 18. ohar orokorra –zeina, era berean, 31. gomendio orokorrarekin ere lotuta baitago–, emakumearen kontrako diskriminazioa desagerrarazteari buruzkoa, emakumeei eta neskei eragiten dieten praktika kaltegarriekin loturik (esaterako, haurrak abandonatzea, dieta-mugapen muturrekoak, gorputz-zigorrak, sexu-jazarpena, indarkeria, haurren ezkontza behartua edo emakumezkoen mutilazio genitala).

Nazioartean funtsezkoa den beste lege-testu bat *Hagako Hitzarmena*[33] da (1993), haurrak babesteari eta nazioarteko adopzioetako lankidetzari buruzkoa, Espainiako estatuak 1995ean berretsia.

---

[30] NAZIO BATUAK. Haurren eskubideei buruzko Genevako Aitorpena. Geneva: Nazio Batuak, 1924.
[31] NAZIO BATUAK. BATZAR OROKORRA. *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa.* 1989. New York: Batzar Orokorra, 1990.
[32] *Salbuespenak egiten dira estatu sinatzaile batzuetan, baldin eta adin-nagusitasuna 18 urte baino lehenago aitortzen badute beren lege-esparruan.*
[33] HAGAKO KONFERENTZIA. *Haurren adopzioari buruzko Hitzarmena.* Haga. Hagako Konferentzia, 1995.

**Europan**, 1992an Europako Parlamentuak *Haurraren Eskubideen Europako Gutuna*[34] onartu zuen. Ebazpen haren bidez, aitortu zuen zer-nolako garrantzia duen haurtzaroak bizitzako etapa gisa; era berean, onartu zuen haurren beharrizanek hainbat eskubide sorrarazten dituztela, eta, ondorioz, obligazioak ere eragiten dituztela familientzat, estatuarentzat eta gizartearentzat. Adingabeak babesteko printzipio horiek, halaber, *Europar Batasunaren 2012ko Itunean* ere jasota daude, zeinak hauxe ezartzen baitu: Europar Batasunak gizarte-bazterkeria eta diskriminazioa borrokatuko ditu, eta justizia eta babes soziala babestuko, baita gizon-emakumeen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurraren eskubideen babesa ere» (3. artikulua). Ondoren, EBk gai horri buruz onartutako beste hainbat arau eta jarduketa aipatuko ditugu kronologikoki.

2000. urtean, *Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak*[35] hainbat kolektibo kalteberaren beharrizan espezifikoekin lotutako eskubide erlatiboak nabarmendu zituen –horien artean, adingabeenak–. 2001ean, Batzordearen *EBren agenda bat haurren eskubideen alde*[36] izeneko komunikazioak ezarri zuen beharrezkoa dela helburu politikoak jasotzea haurren eskubideak babesteko eta sustatzeko neurrietan. 2006an, Batzordeak komunikazio bat argitaratu zuen, *Haurren eskubideei buruzko Europar Batasuneko estrategia baterantz*[37], zeinean hainbat egitura ezartzen baitzituen haurren eskubideen arazoei heltzeko. 2011n, Batzordeak *EBren agenda bat haurren eskubideen alde* izeneko komunikazio bat onartu zuen, eta EBn jarduteko printzipio orokorrak ezarri zituen, Gutunak eta Haurren eskubideei buruzko Konbentzioak haurren eskubideei buruz biltzen dituen xedapenak zaintzeari dagokionez. Halaber, nabarmentzen zuen garrantzitsua dela eskubide horiei beste bultzada bat ematea eta helburu politikoak neurrietan biltzea. 2013an, Batzordeak *Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea*[38] izeneko agiria publikatu zuen, eta estatu kideei gomendatzen zien antola eta aplika zitzatela haurren pobreziari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politikak. 2017an, *Adingabearen eskubideak babesteko gidalerroek*[39] berrezarri egin zuten EBren ikuspegia, bermatzeko adingabeen eskubideak kontuan hartzen direla kanpo-politika eta -ekintza guztietan.

Bestalde, Europako Kontseiluak ere garatu ditu haurren eskubideei buruzko alderdiak biltzen dituzten tratatuak. Horien artean, nabarmentzekoak dira: *Ezkontzatik kanpora jaiotako haurren estatus juridikoari buruzko Hitzarmena*, *Haurren adopzioari buruzko Hitzarmena*, *Haurraren harreman pertsonalei buruzko Hitzarmena*, *Haurren eskubideak egikaritzeari buruzko Hitzarmena* eta *Haurrak sexu-esplotazio eta -abusutik babesteko Hitzarmena*. Berriki zabalduen artean, *Europako Kontseiluaren 2016-2021 aldirako haurren eskubideen aldeko Estrategia*k hainbat erronka ezartzen ditu (pobrezia, indarkeria, justizia, familientzako erronkak, arrazismoa, gizarte digitala, migrazioa), baita arretarako bost lehentasun-esparru ere (aukera berdintasuna adingabe guztientzat, haur guztien partaidetza, indarkeriarik gabeko bizitza, haien premietara egokitutako sistema judiziala, eta ingurune digitaletako eskubideak).

---

[34] EUROPAKO PARLAMENTUA. Haurren eskubideen Gutuna. (Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, C 241. zenbakia, 1992ko irailaren 21ekoa).
[35] EUROPAR BATASUNA. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna. (Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, C 202/389 zenbakia, 2016ko ekainaren 7koa).
[36] EUROPAKO BATZORDEA. EBren agenda, haurraren eskubideen alde. (COM (2011) 60 azkena, 2001eko otsailak 15).
[37] EUROPAKO BATZORDEA. Haurren eskubideei buruzko Europar Batasuneko estrategia baterantz. (COM (2006) 367 azkena, 2006ko uztailak 4).
[38] EUROPAKO BATZORDEA. Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea. (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2013ko martxoak 2, L 59/5).
[39] EUROPAR KONTSEILUA. *Adingabearen eskubideak babesteko gidalerroak*. Europar Kontseilua, 2017ko abenduak 10.

**Espainiako estatuan**, gai honetako esparru juridikoko lege-testu nagusia 1/1996 Lege Organikoa da (Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazten dituena)[40]. Era berean, nabarmentzekoa da ekainaren 9ko 14/1999 Lege Organikoa, 1995eko Zigor Kodea aldatzen duena tratu txarren biktimei dagokienez, baita Prozedura Kriminalaren Legea ere[41].

Adingabeen babes juridikoko erremintak hobetzeko eta autonomia-erkidegoentzako erreferentzia bat eraikitzeko –zeinek bere legeria gara zezan gai honi buruz–, 2015ean adingabeak babesteko sistema erreformatu zen bi legeren bitartez: uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa[42], eta uztailaren 28ko 26/2015 Legea[43] (azken horren xedapenek aldatu eta osatu egiten dituzte honako testu hauetako hainbat alderdi: 1/1996 Lege Organikoa, Kode Zibila, Nazioarteko Adopzioaren 54/2007 Legea, Prozedura Zibilaren 1/2000 Legea, eta hezkuntzarekin, familia ugariekin edo prozedura kriminalarekin lotutako beste hainbat arau). Laburbilduz:

- «Adingabearen interes gorena» kontzeptua finkatzen du, eta edukia ematen dio. Hala, interpretazio-pautak eta -irizpideak ezartzen ditu, kasu bakoitzean egokiro aplikatu ahal izateko.
- Adingabeak eskubideen titular gisa aitortzen ditu, baita obligazioen titular gisa ere, familian, eskolan eta gizartean.
- Adingabeak genero-indarkeriaren biktima gisa aitortzen ditu.
- Ezartzen du pertsona guztiek agintariei jakinarazteko betebeharra dutela, baldin eta sexu-askatasunaren kontrako, gizakien salerosketarekin lotutako edo adingabeen esplotazioarekin zerikusia duten delituak hautematen badituzte.
- Sexu-delinkuenteen erregistro zentrala sortzen du, eta murrizketak ezartzen ditu adingabeekin lan egiteko.
- Etxean hartzeko prozesua sustatzen eta sinplifikatzen du, modu egonkorrean eta adostuan, eta
- gurasoentzako bitarteko-eskubideak aitortzen ditu.
- Horrez gainera, hainbat arau ere aldatzen dira: filiazio-ekintzak, adopzio nazionalak eta internazionalak, eta bisiten erregimenak. Halaber, hobekuntzak ezartzen dira abian diren babes-alorrean diren prozeduretan.

Esparru penalean, adingabeen zigor-erantzukizuna arautzeko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa[44] aplikatzen zaie 14 eta 18 urte bitarteko pertsonei, Zigor Kodean edo zigor-lege berezietan delitu edo falta gisa tipifikatutako egintzak gauzatu izanagatik. Horrek zera esan nahi du, 14 urtetik beherako pertsonak ezin daitezkeela zehatu penalki eta haien hezkuntza-tratamendua autonomia-erkidegoek horretarako berariaz diseinatutako dispositiboei egokituko zaiela.

Haurren Behatokiaren bidez, Espainiako Gobernuak haurrei eta nerabeei zuzendutako plan estrategikoak garatu ditu (PENIA), eta haur eta nerabeen sexu-esplotazioaren kontrako planekin osatu (PESIA). PENIA haur eta nerabeen eskubideak aplikatzeko Espainiako gida da, eta bi edizio egin dira.

---

[40] ESPAINIAKO GOBERNUA. 1/1996 Lege Organikoa, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 15. zk., 1996ko urtarrilaren 15ekoa).

[41] ESPAINIAKO GOBERNUA. 14/1999 Lege Organikoa, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazten dituena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 138. zk., 1999ko ekainaren 10ekoa).

[42] ESPAINIAKO GOBERNUA. 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 175. zenbakia, 2015eko uztailaren 23koa).

[43] ESPAINIAKO GOBERNUA. 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 180. zenbakia, 2015eko uztailaren 29koa).

[44] ESPAINIAKO GOBERNUA 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen zigor-erantzukizuna arautzekoa (BOE, 11 zk., 2000ko urtarrilaren 13koa).

Berriena 2013 eta 2016 arteko aldirako prestatua da[45]. PESIAren helburua, berriz, haurren sexu-esplotazioko formen prebentzioa eta arreta sustatzea da, eta delitu horien biktima diren haur eta nerabeen eskubideak berrezartzea. Ediziorik berriena hirugarrena da, eta 2010 eta 2013 arteko aldia hartzen du[46].

2018an, Espainiako Gobernuak *Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko lege-aurreproiektua*[47] egin zuen, eta lagungarri izan beharko luke babes-esparru integral bat sortzeko estatuko haur eta nerabe guztientzat.

**EAEri dagokionez**, 2005ean Eusko Jaurlaritzak [48], Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea onartu zuen, eta, hala, lehendabizikoz izan zen EAEn gai honi buruzko erreferentzia-esparru bat. Esandako lege-testu horretan, beste araudi batzuek EAEn, Espainian zein nazioartean haur eta nerabeen eskubideen alde bildutako oinarrizko eskubideak batzen ziren, eta, batez ere, administrazio-jarduna arautu behar duten printzipioak ezartzen zituen EAEn bizi diren edo EAEko lurraldean dauden adingabe guztiei dagokienez (bereziki, haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko eskumenak egikaritzeari begira).

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legeak arriskuan edo babesgabezian dauden haur eta nerabeak babesteko eskumenak ezartzen ditu, hiru administrazio-mailetarako.

Laburpen gisa, ondoren eskumen-egitura oinarrizkoa biltzen da, EAEko adingabeen arretari dagokionez, hiru administrazio mailak kontuan izanik:

ESKUMENEN OINARRIZKO EGITURA, EAE-KO ADINGABEEN ARRETARI DAGOKIONEZ




Iturria: EAEko lege-esparrua, geuk egina.

[45] ESPAINIAKO GOBERNUA *Haurren eta Nerabeen II. Plan Estrategiko Nazionala, 2013 -2016 (II PENIA)*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Haurren Behatokia, 2013.

[46] ESPAINIAKO GOBERNUA *Haur eta nerabeen sexu-esplotazioaren kontrako III. Ekintza Plana, 2010 -2013 (III PESIA)*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Haurren Behatokia, 2011.

[47] ESPAINIAKO GOBERNUA. Haurrenganako eta nerabeenganako indarkeriaren kontra babes integrala eskaintzeko lege-aurreproiektua [online] Madril: Espainiako Gobernua, 2019.

[48] EUSKO JAURLARITZA. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. (EHAA, 59. zk., 2005eko martxoaren 30ekoa.)
Lege hori partzialki aldatu zuen abenduaren 23ko 3/2009 Legeak (Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea aldatzekoa). (EHAA, 251. zk., 2009ko abenduaren 31koa.)

Aipatutako babesaren esparruko esku-hartzearekin loturik, hara zer dioen Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legeak:

- «Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek (udalak) haien eskubideak bermatu egin behar dituzte, bai eta haien beharrizanetan laguntza emango dela ziurtatu ere. Arlo honetan egiten diren jarduketa publikoek haurren, nerabeen eta horien familien moldatze pertsonala eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku-faktoreak desagerraraztea izango dute helburu. Horretarako, honako hauek sustatuko dira: gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza, adingabeei eta haien familiei laguntzeko bitartekoen erabilera, komunitatearen esparruko esku-hartzea, bai eta orientabidea emateko eta jarraipena egiteko zerbitzuak ere.

  Baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek uste badute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arreta-plan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharrizanei erantzuteko taxutu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte» (53. artikulua).

- «Babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuek hartu egin beharko dute kasua, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak edo beste edozein erakundek edo pertsonak jakinarazi diena, eta ikertu egin beharko dute eta balorazio osagarri bat egin, egoeraren larria zehazteko eta kasua nola bideratu erabakitzeko. Eta egoera larria dela baieztatzen bada, zerbitzu espezializatuak berak esku hartu beharko du, oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin elkarlanean; egoeraren arriskua txikia edo ertaina denean, aldiz, eta zerbitzu espezializatuaren esku-hartzea beharrezkoa ez denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorri beharko dio» (54. artikulua).

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek eta lurralde-zerbitzu espezializatuek, arrisku eta babesgabezia egoerak zehazte aldera, horretarakoxe ontzat emandako tresna teknikoak aplikatuko dituzte, azken xedapenetako lehenbizikoan ezarritako eran». Xedapen horrekin bat, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek «oinarrizko erreminta bat prestatuko eta onartuko dute babesgabetasun-egoeren larritasuna zehazteko eta definitzeko arrisku-egoera arina edo moderatua ote diren, arrisku-egoera larria edo, aldiz, babesgabetasun-egoera ote diren» (49. artikulua).

Hori hala, BALORA[49] erreminta sortu zuten, honako helburu honi erantzuteko: familiaren barruan sortutako arrisku- eta babesgabetasun-egoeren berri jasotzeko eta haien larritasuna balioesteko, eta, hala, eskumena duen agintaritzak kasuan-kasuan babesteko estrategia adosteko (dela foru-aldundiek, dela udalek).

Adingabeenganako arriskua kalkulatzeko eta jarduteko premia neurtu ahal izateko, erreminta honek deskribatzen du zer tipologia edo modu izan litzaketen arrisku- edo babesgabetasun-egoerek, babesteko eginbeharra egikaritzearekin loturik. Adingabeenganako tratu txarren eta indarkeriaren honako kategoria hauek ezartzen ditu:

---

[49] EUSKO JAURLARITZA. 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena. (EHAA, 233. zk., 2011ko abenduaren 12koa.)
EUSKO JAURLARITZA. 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal eta lurralde mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena. *(*EHAA, 125. zk., 2017ko uztailaren 3koa).

1. Tratu txar fisikoak
2. Arduragabekeria
3. Sexu-abusua
4. Tratu txar psikologikoak
5. Abandonua (arduragabekeria maila gorena)
6. Haurraren edo nerabearen jokabidea kontrolatzeko gurasoen ezintasuna (seme-alabek gurasoenganako duten indarkeria barnean hartuta).
7. Bestelakoak (jaioaurreko tratu txarrak, tratu desegokia, ustelkeria, eskekoak, lan-esplotazioa).

Kategoria horietakoren baten inpaktua neurtu behar denean adingabearengan, BALORA erremintan ezarritako larritasun-eskala aldatu egin daiteke: arina, moderatua, larria edo oso larria (babesgabetasuna).

Erreminta hori diseinatu zen balioetsi ahal izateko ba ote den defizitik gurasoen edo legezko arduradunen babes-eginbeharretan eta, egotekotan, zer larritasun maila duen. Horrenbestez, ez du balio familiatik kanpoko bestelako arazoak balioesteko. Horrez gain, «babesgabetasunaren larritasuna neurtzeko, gurasoen edo legezko ordezkarien portaerak haurrarengan edo nerabearengan izan dezakeen inpaktua hartzen da kontuan, eta ez familiari eragiten dioten arazoen mota, kopurua edo larritasuna».

Era berean, erreminta hori ez da aplikatzekoa arrisku-egoera guztietan; izan ere, kanpoan uzten ditu "zailtasun sozialetatik" eratorritako egoera guztiak; halakoetan, babes-eginbeharrak egokiro gauzatu arren, beste inguruabar batzuk dira gurasoen kontroletik kanpo, zeinek kalte egiten baitiote edo egin baitiezaiokete haurraren edo nerabearen garapenari, hala nola pobrezia-indize altua, delinkuentzia maila handiak, bazterkeria, indarkeria eremu komunitarioan, eskolan gertatutako erasoak...»[50].

Horrenbestez, gizarte-zerbitzuen esparrua erantzukizun publikoko sistema bat da; prestazioei eta zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak[51] eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak[52] garatua. Hala, adingabeen indarkeria artatzeko funtsezko tokia du sistema horrek, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 aldirako Plan Estrategikoa[53] dauka taxututa, sistema sendotzeko eta unibertsaltasunaren bidean aurrera egiteko.

2008an, era berean, Familiak babesteko 13/2008 Legea[54] onartu zen, zeinaren helburua baita familia-politika integral baterako markoa eta oinarriak arautzea, ongizatea eta familiaren eta familiako kideen bizi-kalitatea hobetzeko. Familiei babesa, arreta eta laguntza ematea du xede, autonomia mailan indarrean dauden neurriak multzo koherente eta bakar batean antolatuta, eta baita laguntza-neurri berriak araututa.

[50] ARRUABARRENA, I. eta HURTADO, M.A., 2018. BALORA erreminta, haurren arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko: prestaketa, ezarpena, kontzeptu-funtsak eta edukia. *Zerbitzuan.* Vitoria-Gasteiz: Zerbitzuan, 66. zk.

[51] EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 260. zk., 2008ko abenduaren 24koa.)

[52] EUSKO JAURLARITZA. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 206. zk., 2015eko urriaren 29koa.)

[53] EUSKO JAURLARITZA. *EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko Plan Estrategikoa (2016-2019).* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2015.

[54] EUSKO JAURLARITZA. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, familiei laguntzekoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa.)

Esparru horretan, nabarmentzekoak dira hainbat plangintza-jarduera, hala nola EAEko Familiei laguntzeko erakunde arteko Plana 2018-2022[55] eta Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna 2018[56].

Esparru judizialean, Justizia Sailburuordetzak gauzatzen ditu adingabe arau-hausleen alorreko eskumenak, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legeak esleitutako moduan, gizarte-zerbitzuen sistemako eskumenen kalte gabe. *IV. Gazte Justizia Planean (2014-2018)*[57] zehazten den moduan, delituaren prebentzioaz, legea aplikatzeaz eta hezkuntza- eta errehabilitazio-lanak egiteaz arduratzen da gazte-justizia.

Emakumeen eta nesken kontrako indarkeriarekin loturik, EAEko erreferente den lege transbertsala otsailaren 18ko 4/2005 Legea [58] da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, zeinak hainbat neurri bultzatzen baititu emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bizitzaren esparru guztietan sustatzeko eta bermatzeko. Esparru horretan sartzen dira, era berean, Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa[59] eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana, zeinaren helburua baita politika efikazagoak eta efektiboagoak ezartzea, bizirik iraun duten biktimak erdigunean ipinita –eskubideen titular diren aldetik–, baita indarkeriak haien bizitzan utzitako inpaktuak ere. Horretarako, honako programa hauek garatzen ditu: «Sentsibilizazioa eta prebentzioa», «Detekzioa, arreta eta leheneratzea» eta «Erakundeen arteko koordinazioa».

Era berean, prebentzioan zein arretan esku hartzen da erantzukizun publikoko beste sistema batzuen bidez, hala nola osasun- edo hezkuntza-sistemekin; horiek ere hainbat ekintza-plan gauzatu dituzte, eta helburuak eta neurriak ezarri dituzte zentzu zabalean haurren eta nerabeenganako indarkeriaren fenomenoari buruz, haien kausak eta ondorioak jorratuz.

Ildo horretan, osasun-sistemaren barruan, esparru horretako eskumenak garatzen dituzten estrategiak sustatzen ari dira. Esaterako, *2017-2020 aldirako Euskadiko lehentasun soziosanitario nagusiak*[60]; haien helburua da asistentzia-bide soziosanitarioak definitzea, xede kolektiboei arreta eskaintzeko, hala nola indarkeria matxistaren biktima diren adingabe eta emakumeak, guztia ere eragile sozial, sanitario eta komunitario erabakigarriekin lankidetzan. Hala, erantzun integral eta koordinatua eman ahal izango zaio kolektibo bakoitzari alta ondoko zainketen bidez eta bitartekoak modu efizienteak kudeatzeari begira. *Euskadin suizidioak prebenitzeko Estrategiari*[61] dagokionez, EAEn portaera suizidek duten intzidentzia, prebalentzia eta inpaktua murriztu nahi dira, prebentzio eta esku-hartzeko sistema integratu eta efiziente baten bidez, guztia ere jardunean eta planteamenduetan genero-ikuspegia kontuan harturik. Halaber, *Euskadiko Adikzioen VII. Planak (2017-2021)*[62] ahalik eta neurri handienean murriztu nahi ditu, berdintasunaren ikuspegitik, substantzia adiktiboen kontsumoa eta jokabide-

[55] EUSKO JAURLARITZA. *EAEko Familiei laguntzeko erakunde arteko Plana: familietan inbertitzea eta haurtzaroan inbertitzea (2018-2022)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2018.
[56] EUSKO JAURLARITZA (2017). *Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna.* Eusko Jaurlaritza, 2017.
[57] EUSKO JAURLARITZA. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. JUSTIZIA SAILBURUORDETZA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA. *IV. Gazte Justizia Plana (2014-2018). I. liburukia* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
[58] ESPAINIAKO GOBERNUA 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 274. zk., 2011ko azaroaren 14koa).
[59] EMAKUNDE. II. AKORDIO INSTITUZIONALA ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA HOBETZEKO. JARRAIPEN-BATZORDEA. *Genero indarkeria pairatzen duten Euskadiko haurren giza-eskubideak babesteko ikuspegi eta ekintza-ildoak.* Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2017.
[60] EUSKO JAURLARITZA. *2017-2020 aldirako Euskadiko lehentasun soziosanitario estrategikoak.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2018.
[61] EUSKO JAURLARITZA. *Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2019.
[62] EUSKO JAURLARITZA. *Adikzioen VII. Plana. Euskadi 2017-2021.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2017.

adikzioak. Ondorioz, pertsonen eta familien osasunean eragin nahi du, baita komunitatean eta populazioan ere oro har, betiere adingabeei arreta berezia ipiniz.

Hezkuntza-sistemari dagokionez, bada nabarmentzeko protokolo bat: hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzekoa eta egoera horietan jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa[63]. Halaber, *Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida*[64] ere bada, zeinaren helburua baita ikastetxe batean hauteman litezkeen jazarpen-kasu posibleen tratamendua erraztea (izan bullyinga, ziberbullyinga edo jazarpen sexual eta sexista), edo *EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza-Plana*[65], berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023), zeinaren helburua baita hainbat mekanismo martxan ipintzea, genero-indarkeria eta sexismoa jatorri duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, detekzio goiztiarrerako eta halakoei erantzun efikaza emateko.

Hainbat esparrutatik erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko ardura hartzen duten erakunde publikoez gain, kontuan hartu behar dugu sisteman badirela beste hainbat agente sozial ere, egiteko garrantzitsua dutenak. Alde batetik, hirugarren sektoreko eragileak hartu behar ditugu kontuan: programak, prestazioak eta zerbitzuak ari dira garatzen, kasu batzuetan erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroak, adingabeei eta zerbitzu komunitarioetako sareei zuzenduak (ikastetxeak, kirolguneak, aisialdia...), eta haurrei eta nerabeei zuzendutako programak gauzatzen dituzte, betiere lehen mailako prebentzio-ikuspegiz. Bestalde, aintzakotzat hartzekoak dira hainbat esparrutako erakundeak eta adituak (ikerketa, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazioa...), haur eta nerabeen eskubideei buruzko jakintzak eta sustapena egiten ari baitira.

[63] EUSKO JAURLARITZA. *Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
[64] EUSKO JAURLARITZA. *Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2015.
[65] EUSKO JAURLARITZA. *EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).*Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2019.

# Arazoaren diagnostikoa: dimentsioa eta eragina

## Sarrera

Atal honetan, galdera hauei erantzuten saiatu gara:

- Zenbat haur eta nerabek pairatzen dute indarkeria EAEn? Zer indarkeria mota? Nork pairatzen ditu, neurri handiagoan, indarkeria mota jakin batzuk? Nork eragiten du indarkeria eta nola?
- Zer ondorio ditu epe laburrera eta luzera haur eta nerabe horiengan indarkeria modu horien eraginpean egoteak?

Eskura dauden datuak kontzeptuzko esparruan aurkeztutako sei indarkeria moduen arabera aurkeztu dira: familia barruko haurren kontrako tratu txarrak; sexu-indarkeria; berdinen arteko tratu txarrak; emakumeen eta neskatoen aurkako tratu txarrak; erakunde-indarkeria; adingabeen kontrako beste indarkeria modu batzuk. Horrez gain, azken bloke bat egin da, indarkeria erabiltzen duten adingabeei buruzkoa.




Haurren kontrako indarkeria kuantifikatzeko garaian, kapitulu honetan aintzat izan beharreko zenbait muga daude:

- Alde batetik, jada esan den bezala, terminologia desberdina eta kontzeptuzko argitasun falta direla eta, baldintza beretan egoera desberdinak erregistratzen ari dira. Horren ondorioz, sarri azterlanek zailtasun metodologikoak dituzte eta, era berean, hurbilpen metodologiko desberdinak erabiltzeak alderaketak egitea zailtzen du.

- Bestalde, benetan dauden eta kaleratzen diren kasuen arteko aldea esanguratsua da. Haurrek eta nerabeek pairatzen duten indarkeriaren kasu asko ez dira salatzen, ez eta inon erregistratzen ere. Hainbat arrazoi direla eta, indarkeriako kasu gehienak ezkutuan geratzen dira, oso haur txikiek ez baitute salatzeko gaitasunik, haur asko errepresaliak izateko beldur baitira, ez baitira gai beti indarkeria zer den eta zer ez den bereizteko, indarkeria salatzearekin lotutako gizarte-estima handia baita eta abar. Horregatik, **funtsezkoa da jazoera (erakunde ofizialek erregistratutako gertaerak) eta prebalentzia (gertatutako gertaerak, agintariek haien berri izan gabe egon daitezke, inplikatutako pertsonek edo haien inguruneak baino ez du haien berri)**[66] **bereiztea.**

- Aurreko puntuarekin oso lotuta, garrantzitsua da salaketa gutxi izateak ez duela adierazten tratu txarren maila baxua denik, eta salaketak ugaritzeak ez dakarrela berekin, ezinbestean, kasuak ugaritu izana, baizik eta gero eta kontzientziazio handiagoa

[66] Intzidentziaren eta prebalentziaren diagnostikoko datu kualitatiboak bereiztea errazteko, eranskinean erabilitako iturrien orientazio-sailkapena eskaini da.

dagoenez, gero eta kasu gehiago jakinarazten direla. Zentzu horretan, funtsezkoa da zenbait iturriren artean informazioa trukatzea, ikuseremua zabaltzen lagun baitezakete.

- Ikertzaileek ez diete arreta bera eskaini indarkeria mota guztiei. Horregatik, indarkeria mota batzuekin eta besteekin lotutako informazioaren bolumena eta kalitatea desberdina da.

Muga horietako batzuei aurre egiteko, zenbait iturritatik (erregistro ofizialak nahiz prebalentzia-azterlanak) datuak emateko ahalegina egin da, informazio kualitatiboarekin osatzeko eta EAEko datuak testuinguruan jartzeko beste lurralde-esparru batzuetako erreferentziekin.

Indarkeria modu bakoitzarekin lotuta, hau jaso da:

- Definizio bat.
- Ezaugarri espezifikoen eta ondorio nagusien deskribapena.
- Eskura dauden datu kuantitatibo esanguratsuei buruzko aipu labur batzuk (informazio hori osatzeko, oin-oharretan aipatutako iturriak edo eranskinean jasotakoak kontsulta daitezke).
- Datuak sakonago aztertzen dituzten gogoeta interesgarriak.

## Datu orokor batzuk

Lehenik eta behin, datozen ataletan eskainitako zifra asko testuinguruan jarri ahal izateko, kontuan izan behar da, datuen arabera, EAEn guztira **366.097 haur eta 18 urtetik beherako nerabe zeudela** (% 51 mutilak eta % 48 neskak). Atzerritar jatorrikoak dira adingabeen % 7,70.

Lurraldeka, Araban EAEko 18 urtetik beherako biztanleriaren % 15,88 bizi da; Bizkaian, % 49,87; eta Gipuzkoan, % 34,25.

0-17 URTEKO BIZTANLERIA EAE-N ETA LURRALDE HISTORIKOETAN. BALIO ABSOLUTUAK ETA % 2018

| ADINA | EAE | | | | Araba | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urteak | Mutikoak | Neskatoak | Guztira | % | Guztira | Guztira | Guztira |
| 0 | 8.804 | 8.229 | 17.033 | 4,65 | 2.948 | 8.479 | 5.606 |
| 1 | 9.408 | 9.020 | 18.428 | 5,03 | 3.137 | 9.166 | 6.125 |
| 2 | 9.889 | 9.256 | 19.145 | 5,22 | 3.283 | 9.376 | 6.486 |
| 3 | 10.058 | 9.677 | 19.735 | 5,39 | 3.364 | 9.859 | 6.512 |
| 4 | 10.028 | 9.531 | 19.559 | 5,34 | 3.201 | 9.838 | 6.520 |
| 5 | 10.916 | 9.996 | 20.912 | 5,71 | 3.448 | 10.322 | 7.142 |
| 6 | 11.007 | 10.576 | 21.583 | 5,89 | 3.588 | 10.688 | 7.307 |
| 7 | 11.145 | 10.724 | 21.869 | 5,97 | 3.615 | 10.690 | 7.564 |
| 8 | 11.154 | 10.288 | 21.442 | 5,85 | 3.392 | 10.577 | 7.473 |
| 9 | 11.421 | 10.712 | 22.133 | 6,04 | 3.485 | 11.072 | 7.576 |
| 10 | 11.022 | 10.402 | 21.424 | 5,85 | 3.267 | 10.643 | 7.514 |
| 11 | 10.905 | 10.261 | 21.166 | 5,78 | 3.227 | 10.452 | 7.487 |
| 12 | 10.714 | 10.180 | 20.894 | 5,70 | 3.090 | 10.564 | 7.240 |
| 13 | 10.808 | 10.296 | 21.104 | 5,76 | 3.176 | 10.629 | 7.299 |
| 14 | 10.707 | 10.094 | 20.801 | 5,68 | 3.101 | 10.443 | 7.257 |
| 15 | 10.090 | 9.731 | 19.821 | 5,41 | 2.941 | 10.035 | 6.845 |
| 16 | 10.170 | 9.361 | 19.531 | 5,33 | 2.884 | 9.892 | 6.755 |
| 17 | 10.208 | 9.309 | 19.517 | 5,33 | 2.987 | 9.836 | 6.694 |
| Guztira | **188.454 (% 51,48)** | **177.643 (% 48,52)** | **366.097 (% 100)** | **100** | **58.134 (% 15,88)** | **182.561 (% 49,87)** | **125.402 (% 34,25)** |

Iturria: Bertan egindako taula, EINen Etengabeko erroldaren estatistikako datuak oinarri hartuta.

Haurrek eta nerabeek biztanleria osoaren % 16,8ko proportzioa biltzen dute. Tasa hori pixka bat aldatzen da lurralde historikotik lurralde historikora; Bizkaian da txikiena.

18 URTETIK BEHERAKO BIZTANLERIAREN PROPORTZIOA EAE-KO ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO GUZTIZKO BIZTANLERIAREKIKO EHUNEKOAK. 2017-2018

| Urtea | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| **2017** | 16,67 | 17,63 | 15,88 | 17,49 |
| **2018** | 16,78 | 17,68 | 15,88 | 17,41 |

Iturria: Bertan egindako taula, EUSTATen datuak oinarri hartuta. Biztanleen Udal Estatistika, erreferentziazko urteko urtarrilaren 1a.

**Haur eta nerabe askok pairatutako indarkeria ezagutzen ez den isilarazitako indarkeria da:** Azterlan batzuetan kalkulatzen da **umeen aurkako indarkeria kasuen % 10 baino gutxiago haurtzaroan edo nerabezaroan jakinarazten dela**, alegia, indarkeria gertatzen denean[67].

**Azken urteetan, adingabeen aurkako indarkeria kasu gehiago detektatu dira nabarmen:** Lagungarri gisa, kontuan izan behar da azken 8 urtean ANAR Fundazioak[68] Espainian artatutako haurren eta nerabeen aurkako indarkeria kasuen guztizkoa **nabarmen hazi** dela: 2009an 1.487 kasu artatu ziren; eta 2016an, berriz, 5.930. Azken urtean, kasuen ugaritzea % 27,4koa izan da.[69]

Bestalde, 2018an soilik Ertzaintzak 1.584 biktimizazio (pertsona bat arau-hauste penal baten biktima denean esaten zaio biktimizazio) erregistratu ditu 18 urtetik[70] beherako biztanleriaren aurka EAEn, familia barruko indarkeria, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia-esparrutik kanpo sexu-askatasunaren aurkako indarkeria eta familia-esparrutik kanpoko beste indarkeria mota batzuk barne.

Eta iturri horren beraren arabera, guztira 1.501 adingabe izan ziren arau-hauste penalen baten biktima 2018an; Araban 256, Bizkaian 819 eta Gipuzkoan 426.

ARAU-HAUSTE PENALEN BIKTIMAK DIREN ADINGABEAK EAE. 2016-2018




Halaber, Ertzaintzaren datuen arabera, igoera nabarmena izan da 2017an (% 20,5 gehiago) eta 2016an (% 36,2) izandako biktima kopuruarekin alderatuta.

[67] Iturria: WORLD HEALTH ORGANIZATION. European report on preventing child maltreatment. Kopenhage: World Health Organization, 2013.

[68] Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* Fundación ANAR, 2017. Azterlan honen oinarria 1.722 kasuko lagina da, Espainian adingabeen aurkako indarkeriaren adierazgarritzat jo daitekeena %+/-2,3ko akats-marjinarekin.

[69] Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* Fundación ANAR, 2017. Azterlan honen oinarria 1.722 kasuko lagina da, Espainian adingabeen aurkako indarkeriaren adierazgarritzat jo daitekeena %+/-2,3ko akats-marjinarekin.

[70] Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.

Biktimizazio kopuruari dagokio; hau da, pertsonak denbora-tarte batean legez kontrako egoera penal baten xede izan diren aldiei deritze, eta Ertzaintzak horrela erregistratu ditu. Pertsona berak biktimizazio bat baino gehiago jasan ditzake. Bi mota bereizten dira: bikoteko harremanean edo bikotekide ohiarekin eta familia barrukoa (gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak…) eta gainerakoak (ikasketetako harremanak, lanekoak, auzokoak, ustekabekoak eta abar, edo askotan gertatzen den bezala, aurretik biktimaren eta egilearen artean aurretiko harremanik egon gabe), bikote/bikotekide edo familia girotik kanpo. Bi esparrutan, aurkeztutako datuan ez dira aintzat hartu Zigor Kodean aurreikusitako arau-hauste penal guztiak, baizik eta “pertsonen aurkako” arau-haustearen kontzeptu zabalaren baitan aintzat har daitezkeenak: Delitu hiltzaileak eta haren formak, abortua, lesioak, askatasunaren aurkako delituak (bahiketa, mehatxuak, bortxak…), tortura eta osotasunaren aurkako delituak (ohiko tratu txarrak, irainak eta isekak familia-giroan…), gizakien salerosketa, laguntzeko zeregina ez betetzea, etxean indarrez sartzea, ohorearen kontrako delituak (kalumniak eta irainak), segurtasun-neurriak eta kautelazkoak apurtzea, familia-harremanei buruzko delituak, sexu-askatasunaren eta –ukigabetasunaren aurkakoak…

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.

**Biktimen profila aldatu egiten da, indarkeria motaren arabera:** ANAR Fundazioak[71] eginiko “Estudio sobre la evolución de la violencia a la infancia y adolescencia en España según las víctimas (2009-2016)” izeneko azterlanaren arabera, lagin erakusgarri bat oinarri hartuta, **neskatoen** aurkako indarkeria kasu gehiago daude mutikoen aurkakoa baino. Are gehiago, ugaritu egin direla igarri da, nesken aurkako kasuak 2009an guztizkoaren % 54,1 izatetik, 2016an % 57,3 izatera igaro baitziren (7 urte geroago). Sexu-abusuarekin lotuta, desproportzioa are nabarmenagoa da. Indarkeria mota horretan, 2016an artatutako biktimen % 75 izan ziren emakumezkoak.

Azterlan horren arabera, azken urteetan biktimen adinak behera egin du; batez bestean 12,3 urte izatetik 11, 5 izatera igaro ziren. Halaber, indarkeria hori gero eta neskato txikiagoen aurka baliatzen hasi da: batez besteko adina 9,6 urtekoa da. Batez ere 5 eta 12 urte arteko biktimen kasuak ugaritu dira (2009an % 14,5 ziren; eta 2016an, % 22).

Halaber, Ertzaintzak neskato adingabe biktimen kasu gehiago erregistratu zituen: zehazki, 2018an erregistratutako adingabe biktimen % 55,6 neskatoak ziren. Puntu horretan, EAEko biktimen gehiengoak 14 eta 17 urte artean bazituen ere, azpimarratu behar da hirutik ia bat 10 urtetik beherakoa zela.

INDARKERIAREN BIKTIMA DEN 18 URTETIK BEHERAKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK. ESPAINIA ETA EAE. 2017-2018

| Indarkeriaren biktimak diren adingabeak | Guztira | Mutikoak | Neskatoak | 10 urtetik beherakoak | 10-13 urte | 14-17 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ITURRIA (esparrua eta urtea) | Absolutuak | % | % | % | % | % |
| ANAR Fundazioa (Espainia, 2017) | 5.930 | 42,7 | 57,3 | 22* | | |
| Ertzaintza (EAE, 2018) | 1.501 | 44,4 | 55,6 | 27,6 | 24,2 | 48,2 |

Oharra (*): datu hori 5-12 urte-tarteari dagokio.
Iturria: Segurtasun Sailaren datuak oinarri hartuta, bertan egindako taula. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa eta ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016).* Madril: ANAR Fundazioa, 2017.

**Sexuaren eta adinaren** arabera, biktimen banaketa nabarmen aldatzen da, datozen ataletan xehetasun handiagoz ikusiko den bezala, **indarkeria mota bat edo bestea izan.** Lagungarri gisa, hauek izan behar dira aintzat:

ARAU-HAUSTE PENALEN BIKTIMAK DIREN 18 URTETIK BEHERAKO BIZTANLERIA, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK. EAE. 2018

| Indarkeriaren biktimak diren adingabeak | | Guztira | Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria | Familia barruko familia | Familia-girotik kanpoko indarkeria sexuala | Familia-girotik kanpoko beste delitu batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | Absolutuak | 1.501 | 68 | 654 | 224 | 555 |
| Mutikoak | % | 44,4 | 4,4 | 46,2 | 30,4 | 52,8 |
| Neskatoak | % | 55,6 | 95,6 | 53,8 | 69,6 | 47,2 |

Iturria: Segurtasun Sailaren datuak oinarri hartuta, bertan egindako taula. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.

**Zer indarkeria mota dira ohikoenak?** ANAR Fundazioak batez ere indarkeria mota hauek artatu zituen 2016an: tratu txar fisikoa (% 22,7), eskolako indarkeria (% 19,7), tratu txar psikologikoa (% 17,6), jokabidearen asaldura (% 9,3), genero-indarkeria (% 9), sexu-abusua (% 7,6), uztea (% 6,6), familia-girotik kanpoko erasoak (% 3,4), ziberabusua eta groominga (% 1,8), helduak adin txikikoen aurka egindako indarkeria (% 1,6), etxetik bototakoak (% 0,5), prostituzioa eta pornografia (% 0,2).

[71] ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* Fundación ANAR, 2017. Azterlan honen oinarria 1.722 kasuko lagina da, Espainian adingabeen aurkako indarkeriaren adierazgarrritzat jo daitekeena %+/-2,3ko akats-marjinarekin.

Aztertutako ia indarkeria mota guztiek egin dute gora urte hauetan, nahiz eta genero-indarkeriako kasuen, tratu txar fisikoenen eta eskolako indarkerienen igoera nabarmendu. Indarkeria moduen aldaketei dagokienez, azterlanak aditzera ematen du indarkeria fisiko larriak, jazarpenak eta kontrolak, mespretxuak eta umiliazioek eta ziberjazarpenak gora egin dutela.

INDARKERIA MOTAREN ARABERA ARTATUTAKO INDARKERIA KASUAK. ESPAINIA. 2016




Iturria: ANAR Fundazioak egindako *Estudio sobre la evolución de la violencia a la infancia y adolescencia en España según las víctimas (2009-2016)* azterlaneko datuak oinarri hartuta, bertan egindako grafikoa.

EAEn, Ertzaintzaren datuen arabera, familia barruko indarkeria pairatzen duten adingabeen proportzioa arau-hauste penalen biktima diren guztizkoaren % 43,5ekoa izan zen.

ARAU-HAUSTE PENALEN BIKTIMAK DIREN 18 URTETIK BEHERAKO BIZTANLERIA, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. EHUNEKOAK. EAE. 2018




Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.

**Indarkeriak askotariko ondorioak ditu eta arazoa betikotzen laguntzen du:** Azterlan horretan, beste ikerketa askoren ondorioekin batera, pairatutako indarkeriaren ondorioz adingabeek zer arazo psikologiko dituzten eta indarkeria horrek buruko osasunean zer eragin duen azpimarratzen da: larritasuna, beldurra, depresioa, arazo emozionalak, bakartzea... Halaber, biktimek duten oldarkotasuna ere nabarmentzen du, aztertutako lau kasutatik batengan hauteman baitute. **Indarkeriak indarkeria gehiago sortzen du,** baina ez besteenganakoa soilik, baizik eta nork bere buruaren aurkakoa ere bai. Izan ere, hamar biktimatatik batek lesioak eragiten dizkio bere buruari, ideia suizidak izan ditu edo noizbait bere buruaz beste egiten saiatu da.

**Indarkeria baliatzen dutenen asko biktimen gertuko inguruneko pertsonak dira: Erasotzailearen** profilari dagokionez, kasuen % 66,4tan aitak, amak eta gurasoen bikotekideak dira. Horregatik, azterlanean ondorioztatzen da adingabeak beldur direla eta ez direla ausartzen kontatzera, babesik gabe eta bakarrik daudela sentitzen dute, eta horregatik, % 14k soilik adierazten du salatzeko nahia, eta horien % 7k azkenean atzera egiten dute.

# Familia barruko haurren tratu txarrarekin lotutako datuak

## Zer esan nahi dugu familia barruko haurren tratu txarrak esaten dugunean?

"Familia barruko haurren tratu txarrak deritze aitek, amek edo zaintzaile nagusiek eragindako ez-ustekabeko ekintza edo utzikeria orori, baldin eta haurren eta nerabeen ongizate fisikoa, emozionala eta psikologikoa kaltetzen badu, eboluzio-garapenari gaitz eginez"[72].

Indarkeria mota horrek hauek barne hartzen ditu: indarkeria fisikoa (kolpeak, ebakidurak, erredurak, mutilazioak eta abar), indarkeria psikologikoa edo emozionala (mehatxuak, irainak, umiliazioak, manipulazioa, bakartzea...), sexu-abusua edo -erasoa eta zabarkeria (deskuidu fisikoa, emozionala, hezitzailea...).

Era berean, adingabeen zaintza eta tutoretza (aitak, amak edo beste batzuk) dutenek babesten ez duten edo adingabeen zaintzarako ezarritako babes-zereginak betetzen ez dituzten edo behar bezala betetzen ez dituzten neurrian, indarkeria mota hori zenbait babes gabeko egoeren mailekin (arrisku arina, neurritsua edo larria eta babesgabetasuna) lotzen da, indarkeriaren intentsitatearen edo afektazioaren arabera.

Zabarkeria kasuen baitan bakarrik dauden edo familia-erreferenterik[73] ez duten haurren eta nerabeen kasuak ere aintzat hartzen direla aipatu behar da. Izan ere, adingabeak izatea eta familiaren edo ardura hori hartzeko gai den heldu baten zaintzapean eta arretapean ez egotea babes gabeko egoeraren baliokidea da, EAEn indarrean dauden haurren babeserako legeen arabera. Erakundeek egoera hori berehala konpondu behar dute.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Familiak **babes-iturri nagusia** izan behar du, **baina aparteko zaurgarritasun-eremua ere bada** adingabeentzat, helduen zaintzaren mendean baitaude. Sarri, tratu txarren eta abusuaren aurrean zigorgabetasuneko lekua da, pribatutasunaren balioa nagusi denez, zaila baita eremu horretan sartzea. Zehazki, zabarkeria, familia barruko tratu txarren baitan tratu txar mota ohikoena, bereziki zaila da detektatzeko.

Tratu txar fisikoa, ikusten diren arrastoak uzten dituenez, ezagunena izan ohi da deigarriena eta gehien jakinarazten dena. Hala ere, beste indarkeria batzuek, hala nola psikologikoak edo **zabarkeriak,** ondorio larriak eragin ditzakete adingabeen garapen fisikoan eta mentalean.

Indarkeria mota horrek **kalte handia eragiten du** eta biktimen mundua ikusteko modua eta munduan konfiantza izateko modua asaldatzen du: "demagun zaindu behar zaituztenek, munstroengandik babestu behar zaituztenek, zure ongizatea zaindu behar dutenek, min egiten dizutela. Zure onagatik egiten dizute min, egun txarra izan dutela, ezin zaituztelako jasan, ez zarelako ezertaz ohartzen edo ez dakitelako beren emozioak kudeatzen. Eta min hori normalizatu egiten da, zure egunerokoaren zati bihurtzen da, zure hezkuntzarena, harremanak ulertzeko moduarena, afektuarena, familiarena, eta munduaren. Eta normalizatzean eta erlatibizatzean, min hori ezkutuan geratzen da" [74].

[72] Definizioa txosten honetatik atera da: BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save The Children, 2018.
[73] Pertsona honi buruz ari gara: "heldu arduratsuren batek, legez edo erabileren eta ohituren arabera, lagundu gabe estatu-kideen lurraldera iristen den 18 urtetik beherako adingabea da, eta heldu arduratsu horren zainketarik gabe dagoenean". Kontzeptu horretan, hau ere aintzat hartzen da: "estatu-kideen lurraldean sartzean bakarrik geratzen diren adingabeak". Kontseiluaren 2003/9/EE Zuzentaraua, 2003ko urtarrilaren 27koa eta Kontseiluaren 2001/55/EE Zuzentaraua, 2001eko uztailaren 20koa.
[74] BLASCO DEL MORAL, C. Más me duele a mí. *La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save the Children, 2018.

Ondorioak era askotakoak izan daitezke eta helduarora arte iraun dezakete. Izan ere, haurrak fisikoki eta psikologikoki garatzen ari direnean gertatzen dira. Azterlan askoren arabera, “zaintzaileek haurrei oso txikiak direnean egindako tratu txarren esperientziak, bai eta esperientzia horiek metatzea ere, bereziki mingarriak dira garun-egituren garapenerako. Biktimak bizi dituen egoera estresagarriek, denboran zehar luzatzen direnek, gogorrek edo ezin iragarrizkoek ondorioak dituzte garapen neuronalean”[75].

Era berean, segurtasuna eman beharko lioketen horiek tratu txarrak emateak biktima alerta-egoera etengabean egotea eragiten du. Egoera hori dela eta, estresari aurre egiteko sistema hiperaktibatuta dago eta biktima denbora osoan alerta-egoeran dago. Hori lotuta dago nerabezaroko eta helduaroko buruko asaldura larriak garatzearekin, hala nola depresioa eta antsietate-nahasmendua.

Haurren tratu txarren biktimak direnek beldurra izan dezakete eta segurtasunik ez sentitu, lo egiteko arazoak, pentsamendu intrusiboak edo errepikakorrak izan ditzakete; trauma ondoko sintomak dira horiek guztiak. Haurtzaroan, biktimek sufrimendua bakartze, beldur, bakardade-sentimendu, erru, tristezia, depresio… eran barnera dezakete; edo hirugarrengoen aurkako jokabide erasokorren eta indarkeriazko jokabideen bidez, sexu-jokabide arriskutsuak praktikatzearen edo alkoholaren edo beste droga batzuen mendekotasunaren bidez kanporatu. Halaber, haurren tratu txarren ondorio psikologikoak izan daitezke, besteak beste: lotsa, nork bere buruari, inguruneari eta etorkizunari buruzko sinesmen ezkorrak, adierazpen emozionalak bereizteko zailtasunak, autoestimu baxua, mesfidantza, laguntza bilatzeko eta pertsona arteko harremanetan lotura segurua garatzeko zailtasunak.

Halaber, tratu txar mota horrek absentismoa, eskola uztea, hezkuntza maila baxua lortzea edo hezkuntza-premia bereziak behar izatea eragin dezake, eta horrek biktimen gizarte-garapenean eragina du.

Horrez gainera, ondorioen artean besteen gainetik nabarmentzen da **belaunaldien artean indarkeria transmititzea;** hau da, biktimek zaintzaileek egindako indarkeria-patroia errepikatzeko aukera handiagoa. *“Zaintzaile tratu txarren emailea parekatzeagatik, indarkeria harremanak izateko modutzat onartzeagatik, afektibitatea eta enpatia ez garatzeagatik edo izandako esperientzietatik ikasteko zailtasunagatik gerta daiteke errepikatzen hori. Horrez gain, hazkunde-moduak belaunaldiz belaunaldi errepikatzen dira, zuzenak edo okerrak izan"*[76].

Haurren aurkako indarkeria **gizarte-klase guztietan eta familia-egitura guztietan** gertatzen da. Hala ere, errazagoa da gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten familietan detektatzea eta gizarte eta ekonomia maila altuagoko familiengan ikusezinagoa da, radar horretatik kanpo baitaude. Dena den, horrek ez du esan nahi maila horietan ez dagoenik.

Zigor fisikoa diziplina- edo hazkunde-metodo gisa erabiltzeak erreakzio oldarkorrak eragin ditzake, eta horrek familian gatazken maiztasuna eta larritasuna areagotzen du. Aitzitik, printzipio demokratikoak eta indarkeriazkoak ez direnak oinarri dituen **diziplinak** lankidetza-jokabideak sortzen ditu seme-alabengan.

Arrisku-faktore sozialak eta familiako arrisku-faktoreak erabakigarriak izan ez arren, garrantzitsua da bistatik ez galtzea, indarkeria pairatzeko arrisku handiagoa izatearekin lotuta baitaude. Zentzu horretan, arreta berezia jarri behar da **pobrezia-egoerek eta gizarte- eta ekonomia-prekarietateak familiengan zer inpaktu duen.**

[75] Idem.
[76] Idem.

Azterlanen arabera, gizonek nahiz emakumeek haurren kontrako tratu txarrak baliatzen dituzte familia-giroan zaintzaile rola betetzen ari direnean, baina, sexu-indarkeriari buruz ari garenean, gizonezkoak dira batez ere erasotzaileak.

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

EAEn indarkeria maila horrek duen prebalentziari buruzko daturik ez dagoen arren, duela gutxi Europan eta estatuan egindako azterlanek orientazio-erreferentzia interesgarriak eskaintzen dituzte. **Europan[77], hamar adingabetatik batek zaintzaileen tratu txar fisikoak jasaten ditu; hamarretik bik zabarkeria fisikoa pairatzen dute; eta hamarretik hiruk tratu txar emozionalak bizi dituzte**. Espainian [78], kalkulatzen da umeen % 25 baino gehiago umeen tratu txarraren biktima izan dela beren zaintzaileen aldetik.

**FAMILIA BARRUKO HAURREN KONTRAKO TRATU TXARRAK (Espainia)**

**% 25**




Iturria: BLASCO DEL MORAL, C. Más me duele a mí. *La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save The Children, 2018. eta STOLTENBORGH, M., BAKERMANS-KRANENBURG, M., ALINK, L. eta VAN IJZENDOORN, M., 2015. The prevalence of child maltreatment across the globe: Review of a series of meta-analyses. *Child Abuse Review.* York: Child Abuse Review, *24. Zk.*

Esan bezala, badaude fisikoak ez diren indarkeria moduak, eta sarritan, oharkabean geratzen dira. **2018an Fiskaltzak EAEn 1.081 aurretiko eginbide abiatu zituen familia-harremanen aurkako delituak zirela eta.** Hauek adieraz daitezke: pentsioa ez ordaintzea (750), familia eta neska-mutilak uztea (178), adingabeak ebastea (71) eta zaintza-araubidea apurtzea (66) [79].

AURRETIKO EGINBIDEAK FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUENGATIK. EAE ETA LURRALDE HISTORIKOAK. ABSOLUTUAK. 2018.

| AURRETIAZKO EGINBIDEAK | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EAE |
|---|---|---|---|---|
| **Familia-harremanen aurka - Guztira** | **328** | **612** | **141** | **1.081** |
| **Aitatasuna aldatzea, adingabearen egoera edo izaera** | 1 | 1 | 1 | 3 |
| **Zaintza-zereginak ez betetzea** | 19 | 47 | 0 | 66 |
| **Adingabeak etxea uztea eragitea** | 1 | 4 | 0 | 5 |
| **Adingabeak ebastea** | 19 | 40 | 12 | 71 |
| **Familia uztea** | 35 | 95 | 14 | 144 |
| **Haurrak uztea** | 3 | 22 | 9 | 34 |
| **Pentsioa ez ordaintzea** | 249 | 397 | 104 | 750 |
| **Haurrak eskean ibiltzeko erabiltzea** | 0 | 1 | 0 | 1 |

[77] Iturria: STOLTENBORGH, M., BAKERMANS-KRANENBURG, M., ALINK, L. eta VAN IJZENDOORN, M., 2015. The prevalence of child maltreatment across the globe: Review of a series of meta-analyses. *Child Abuse Review.* York: Child Abuse Review, 24. Zk.
[78] Iturria: BLASCO DEL MORAL, C. Más me duele a mí. *La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save the Children, 2018.
[79] Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzaren estatistika-datuak.

Eskolako absentismoa[80] zabarkeriarekin lotutako familia barruko beste indarkeria modutzat har daiteke, kasu honetan, prestakuntza-beharrak ez artatzeagatik. Gure autonomia-erkidegoan absentismoari buruz argitaratutako azken txostenaren[81] arabera, 2016-2017 ikasturtean, **Bizkaiko Lurralde Historikoan oinarrizko hezkuntzako ikasleen % 1,7k jokabide absentista[82]** edo eskolatu gabea[83] zuen**.** % 44,2 neskak ziren; eta % 55,8, mutilak. Ikastetxe publikoetan, Lehen Hezkuntzan, absentismo-tasa % 2,8koa zen, eta Bigarren Hezkuntzan, % 3,6koa. Ikastetxe pribatuetan, berriz, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 0,4koa zen tasa, eta Bigarren Hezkuntzan, % 0,9koa.

Ikasturte horretan, bi hezkuntza-etapetan eta bi ikastetxe-saretan, ikasleen ehunekoa pixka bat igo da, itunpeko ikastetxe pribatuetako DBHn izan ezik.

Kasuen % 58,6 “ohikoa ez den absentismotzat" jo daitezke. Izan ere, ikasturtean justifikatu gabeko ez-etortzeak ez dira % 10era iristen. Gainerakoak, absentismo larrienak, nesken % 44,8ri eta mutilen % 55,1i eragiten die.

Absentismo kasuen % 62,4 udaleko gizarte-zerbitzuetara bideratu ziren, % 1,04 foru-aldundira eta % 2,3 fiskaltzara.

IKASLE ABSENTISTAREN EHUNEKOA. BIZKAIA. TASAK ETA EHUNEKOAK. 2016-2017 IKASTURTEA

| | **Guztira** | **Lehen Hezkuntza** | | **Bigarren Hezkuntza** | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **Ikastetxe publikoak** | **Itunpeko ikastetxeak** | **Ikastetxe publikoak** | **Itunpeko ikastetxeak** |
| Guztizko TASA | 1,7 | 2,8 | 3,6 | 0,4 | 0,9 |
| % Neskak | 44,2 | 46,6 | 46,2 | 40,6 | 44 |
| % Mutilak | 55,8 | 53,5 | 53,8 | 59,4 | 56 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA EUDEL. *Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko 2017-2018* programan aurreikusitako jarraipen-batzordearen txostena. Bilbo: EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 2018.

Zenbait sistema-esparruk (justizia, osasuna, gizarte-zerbitzuak…) familia barruko indarkeria modu baten ugaritzea identifikatu dute, bikoteen banantze oso liskartsuekin eta gurasoen arteko gatazkekin lotutakoa, hain zuzen. Egoera horietan, ohikoa da adingabeak instrumentalizatzea.

Nahiz eta ez izan arazo hori kuantifikatzeko datu zehatzik, erreferentzia gisa, 2017an EAEn 18 urtetik beherako seme-alabak zituzten bikoteen 2.142[84] ezkontza-banantze erregistratu ziren. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2012an[85] egindako txostenak adierazi zuen EAEn izandako ezkontza-hausturen % 36,1 adostu gabeko dibortzioei edo banaketa liskartsuei dagozkiela.

[80] Eskolako absentismoa esaten zaio ikastetxera etengabe ez joateari, justifikatu gabeko kausarik gabe, familiak berak baimenduta edo utzita edo ikaslearen borondatez, aurrenerabeen eta nerabeen kasuan. Hezkuntza 6 urtetik aurrera izan arren derrigorrezkoa, EAEn 3 urtetik aurrera orokortuta dagoenez, absentismoaren kontzeptua adin horretatik aurrerako gai horren datuak biltzen dituzten azterlanetan aplikatzen da, prebenitzeko eta zuzentzeko, aukera-berdintasun erreala bermatze aldera.

[81] EUSKO JAURLARITZA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA EUDEL. *Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko 2017-2018 programan aurreikusitako jarraipen-batzordearen txostena. Bilbo:* EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 2018.

[82] Azterlan honen xederako, absentismotzat jotzen da eskolen % 20 edo gehiagora justifikatu gabe ez joatea.

[83] Ez eskolatzea esaten zaie derrigorrezko eskolatzean dauden adingabeei (6-16 urte) ikastetxe batean matrikula ez gauzatzea. EAEn eskolatu gabeko ikasleen egoera oso aldian behingoa da, eta horrez gainera, familiek seme-alabak eskola-sistematik kanpo hezteko erabakiarekin oso lotuta dago. Azken ikasturtean, guztira 4 kasu erregistratu dira.

[84] Iturria: EUSTAT. Eskontza-hausturen estatistika.

[85] BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *La justicia dato a dato*. Madril: BJKN, 2013.

Familia-elkarguneetako erabiltzaileen datuek, era berean, bereziki zaurgarritasun-egoeran dauden haurrak eta nerabeak aipatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak aiten, amen edo tutoretza duten pertsonen eskura jartzen dituzten eremuak dira familia-elkarguneak. Eremu “neutralak” eta "konfidentzialak” dira. Adingabeek zaintza ez duen gurasoarekin bisita izaten dute han, baldin eta aiten eta/edo amen arteko harremana dela eta, bisitak edo adingabeak emateko unea gatazkatsua edo zaila izan badaiteke[86]. **2017an 18 urtetik beherako 1.145 adingabe inguruk arreta jaso zuten familia-elkarguneetan; Eusko Jaurlaritzaren[87] deribazio judizialagatik, bi urte lehenagoko zifra baino % 7,6 handiagoa.**

Esan den bezala, salatzen diren kasuak guztizkoaren gutxieneko bat izan arren, garrantzitsua da kontuan izatea **2018an Ertzaintzak [88] familia-giroko indarkeriako arau-hauste penalen biktima ziren 18 urtetik beherako 654 adingabe erregistratu zituela** (bikotearen/bikotekide ohiaren esparrua kanpo utzita) gure autonomia-erkidegoan, urte bat lehenago erregistratutako zifra baino % 48 handiagoa. Indarkeria mota horren biktimak urte horretako biktima adingabeen guztizkoaren (1.501) % 43,6 izan ziren.

Biktimen % 46k, gutxi gorabehera, 10 urte baino gutxiago zituen, eta % 54 neskak ziren.

**ARAU-HAUSTE PENALEN BIKTIMAK DIREN 18 URTETIK BEHERAKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. EHUNEKOAK. EAE. 2018**

| % | Indarkeria familia barruko giroan | Indarkeria esparru guztietan |
|---|---|---|
| 10 urtetik behera | 45,8 | 27,6 |
| 10-13 urte | 24,2 | 24,2 |
| 14-17 urte | 30 | 48,2 |

| % | Indarkeria familia barruko giroan | Indarkeria esparru guztietan |
|---|---|---|
| Mutikoak | 46,2 | 44,4 |
| Neskatoak | 53,8 | 55,6 |

**Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa.**

Bestalde, Haurren Tratu Txarren Erregistro Bateratuak (RUMI) [89] herri-administrazioetara iristen diren haurren tratu txarren susmoen berri ematen saiatzen da. Nahiz eta datu-iturriak beheranzko joera bat izan, tokiko administrazioek hura elikatzen parte-hartze desorekatua izatearen ondorioz, kontuan izan **2017an erregistro horri EAEn haurren tratu txarren 1.121 susmo-kasu jakinarazi zitzaizkiola.** Tasa horrek adierazten du 18 urtetik beherako 100.000 adingabetik 305,6 kasu daudela (kontuan izan bakarrik dauden adingabe atzerritarrak aintzat hartzen direla).

Neskatoen kasuak guztizkoaren % 19,2 dira, eta jakinarazpen guztien % 0,2 desgaitasuna duten haurrei eta nerabeei dagozkie. Kasuen % 45,8 espainiar nazionalitatekoak dira, eta gainerako % 54,2, atzerritarrak.

[86] Adingabeak gurasoen banantzeen aurrean babesteko neurri bat da, adingabearen interes gorena nagusi izan behar baitu.
[87] Iturria: Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. EAEn Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena. 2017
[88] Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.
[89] Iturria: OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak. Madril:* Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.

Jakinarazpenen % 13,7 kasu larriei dagozkie, eta gainerako % 86,3, kasu arinei edo neurritsuei. % 88,2 zabarkeria kasuak izan ziren; % 9, indarkeria emozionalarenak; % 1,8 sexu-abusuenak: eta % 0,9, tratu txar fisikoenak.

HAURREN TRATU TXARREN SUSMOAREN JAKINARAZPENEN BANAKETA, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. EAE % 2017




Iturria: OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak. Madril:* Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.

Kasuen gehiengoa 15 eta 17 urte arteko nerabeei dagokie (% 58), gure autonomia-erkidegoan familia-erreferenterik gabeko migratzaileen berariazko pisuak asko baldintzatzen du ehuneko hori (hartu alderatzeko erreferentziatzat Espainian zabarkeriagatiko jakinarazpenen batez bestekoa guztizkoaren % 52 dela).

HAURREN TRATU TXARREN SUSMOAREN JAKINARAZPENEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. EAE % 2017

| ADINA | 0-3 urte | 4-6 urte | 7-10 urte | 11-14 urte | 15-17 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| % | 6,9 | 3,6 | 7,6 | 23,6 | 58,2 |

Iturria: OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak. Madril:* Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.

Foru-aldundiek zerbitzuen eta baliabideen erabiltzaileei buruz dituzten datuak bereziki baliagarriak dira familia barruko indarkeria egoera muturrekoenen prebalentzia aztertzeko. Izan ere, gure babes-sistemaren estaldura maila kontuan izanda, pentsa liteke babesgabetasun larriko egoera gehienak foru-aldundiek detektatzen eta artatzen dituztela.

**2018ko abenduaren 31n** eskura zeuden datuen arabera, EAEn 18 urtetik beherako 2.800 adingabe zeuden babes-neurriekin (zaintza[90] edo tutoretza[91])[92]. Datu horrek, oro har, goranzko joera izan du azken urteetan, neurri batean, EAEn bakarrik dauden adingabe etorkinen ugaritzearen ondorioz. Kasu horiek ez baditugu kontatzen, 2.000 haur eta nerabe inguruk dituzte foru-aldundien babes-neurriak.

Horrez gain, urte horretan, foru-aldundiak gutxi gorabehera **babesgabetasun-arrisku neurritsuan edo larrian zeuden 2.300 haur eta neraberekin ari ziren lanean familia-babeserako programetan.**

[90] Pertsona edo erakunde publiko batek adingabekoa aldi baterako eta guraso-ahala dutenen borondatez jasotzen duen kasuari egiten dio erreferentzia zaintzak eta horiek adingabekoaz arduratzeko, beraiekin izateko, zaintzeko, elikatzeko, hezteko eta prestakuntza osoa emateko betebeharra bere gain hartuko dute.

[91] Tutoretza arbasorik ez duen edo, izanda ere, guraso-ahala bete ezin duten adingabekoei tutoretza emateaz arduratzen da. Zaintza aintzat hartzen du.

[92] Zaintza eta tutoretza judizialei nahiz administratiboei buruz ari gara.

BABESGABETASUN-EGOERA LARRIAN ZEUDEN ADINGABEAK, FORU-ALDUNDIAK ARTATUAK. LURRALDE HISTORIKOAK. ABSOLUTUAK. 2018.

| | Lurraldea | Guztira | Oharrak |
|---|---|---|---|
| Babesgabetasun-egoeren jakinarazpenak/babes-espediente berriak | **Araba** | 282 jakinarazpen eta 384 adingabe | Adingabeen kopurua 2017koa baino % 114,5 handiagoa da. |
| | **Bizkaia** | 1,8¡925 espediente berri eta 1.900 adingabe | % 12 kasu berri gehiago aurreko urtean baino. |
| | **Gipuzkoa** | 1.195 jakinarazpen eta 1.109 adingabe (bertako 325 adingabe) | Adingabeen kopurua 2017koa baino % 14,2 handiagoa da.<br>Bertako adingabeen 325 jakinarazpen (bertako 133 neska eta 192 haur); bakarrik dauden adingabe etorkinen 699 jakinarazpen eta adingabe arau-hausleen 171 jakinarazpen. Bakarrik dauden adingabe etorkinen jakinarazpenak % 25 ugaritu dira, eta gainerakoak % 10 eta % 14 artean gutxitu. |
| Zaintzako edo tutoretzako babes-neurriak dituzten adingabeak. | **Araba** | 334 tutoretza eta 115 zaintza | Tutoretzen kopurua 2017koa baino % 15 txikiagoa da. |
| | | Bakarrik dauden adingabe etorkin gabe, gutxi gorabehera 379 tutoretza eta zaintza. | Bakarrik dauden adingabe etorkinak guztizkoaren % 15,6 inguru dira. |
| | **Bizkaia** | 1.028 tutoretza + 558 zaintza | 364 neskato tutoretzapean eta 664 mutiko tutoretzapean.<br>2017an baino % 7 pertsona gehiago tutoretzapean.<br>2017an baino % 12-17 zaintza gutxiago. |
| | | Bakarrik dauden adingabe etorkin gabe, gutxi gorabehera 987 tutoretza eta zaintza. | Bakarrik dauden adingabe etorkinak guztizkoaren % 38 inguru dira. |
| | **Gipuzkoa** | 713 tutoretza eta 59 zaintza | |
| | | Bakarrik dauden adingabe etorkin gabe, gutxi gorabehera 662 tutoretza eta zaintza. | Bakarrik dauden adingabe etorkinak guztizkoaren % 14,2 inguru dira. |
| Babesgabetasun-arrisku neurritsuan edo larrian dauden adingabeak familia-babeserako programetan | **Araba** | 580 | 253 babesgabetasun-egoera larrian eta 94 babesgabetasun-egoera neurritsuan eta arinean (20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuen mendean daude). |
| | **Bizkaia** | 732 | 365 neska familia-babeserako programetan eta 367 mutiko. |
| | **Gipuzkoa** | 1.001 | |

Iturria: hiru foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailetako memoriak.

2018an, **Arabako** Foru Aldundiak babesgabetasun-egoerei buruzko 282 jakinarazpen jaso zituen, eta guztira 384 adingaberi eragin zieten (2017an erregistratutakoa baino % 114,5 gutxiago). Urtearen amaieran, lurralde horretan Adingabearen Kontseiluaren tutoretzapean 334 adingabe zeuden (2017an baino % 15 gutxiago), eta 115ek zaintza-neurriak zituzten

2018ko abenduaren 31n, **Bizkaiko** Foru Aldundiak 2.618 babes-espediente zituen hasita Umeen Zerbitzuan (aurreko urtean baino % 1,8 gehiago), eta horietako 1.925 urte horretan abiatutakoak ziren (aurreko urtean baino % 12 kasu berri gehiago)[93]. Une hartan, 1.028 pertsona zeuden tutoretzapean (664 mutiko eta 364 neskato); aurreko urtearekin alderatuta, % 7 gehiago. Bestalde, behin-behineko 480 zaintza zeuden (2017an baino % 12,2 gutxiago) eta gurasoek/tutoreek edo zaintzaileek eskatuta 78 zaintza (% 14,2 gutxiago)[94].

2018an, **Gipuzkoako** Foru Aldundiak 1.195 babesgabetasun-jakinarazpen jaso zituen, eta 1.109 neska-mutil zeuden tartean sartuta (2017an baino % 14,2 gehiago). Urte horretako abenduaren 31n, 713 adingabe zeuden tutoretzapean eta 59 zaintzan[95].

[93] Zifra horretan aintzat hartuta daude haur baten edo nerabe baten arrisku-egoera larria antzeman duten kasuak, babes-neurriak hartzea eskatu ez dutenak, eta horrenbestez, familia-nukleotik bereiztea, hala nora haurraren edo nerabearen tutoretza eta/edo zaintza hartu denekoa.
[94] Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.
[95] Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Gipuzkoako Foru Aldundiari buruz eskuratu ahal izan diren datu bereizien arabera, **jakinarazitako babesgabetasun moten artean, argi eta garbi zabarkeriarena (% 35) eta tratu txar emozionalena (% 27) gailentzen da.**

BABESGABETASUN-JAKINARAZPENAK, TIPOLOGIEN ARABERA (BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ETORKINAK ETA ARAU-HAUSLEAK IZAN EZIK) GIPUZKOA. EHUNEKOAK. 2018

| Babesgabetasun tipologiak | Jakinarazpen guztien % |
|---|---|
| Tratu txar fisikoak | 3 |
| Tratu txar psikikoa | 27 |
| Zabarkeria | 35 |
| Sexu-abusua | 8 |
| Jokabidea kontrolatzeko gurasoen ezintasuna | 16 |
| Gurasoen zailtasun larriak | 13 |
| Jaio aurreko tratu txarrak | 1 |
| Uztea | 3 |
| Babesgabetasun larriaren aurrekariak | 12 |
| Behin-behineko edo behin betiko ezintasuna | 1 |
| Beste batzuk (eskaletasuna, ustelkeria, tratu desegokia…) | 1 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Haur eta nerabeen, Foru Aldundiak haien berri izan zuenen, batez besteko adina 9,42 urtekoa izan zen, eta adinen artean desoreka pixka bat hauteman zen.

BABESGABETASUN-JAKINARAZPENAK, ADINAREN ARABERA (BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ETORKINAK ETA ARAU-HAUSLEAK IZAN EZIK) GIPUZKOA.%.2018

| ADINA | 0-3 urte | 4-7 urte | 8-11 urte | 12-14 urte | 15-17 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| % | 22,4 | 18 | 18,9 | 15,1 | 25,6 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Bizkaiko Foru Aldundiko haurren babesgabetasun-egoerak dituzten familietan esku hartzeko programa bereziak datu interesgarriak ditu erabiltzaileen familia-unitate motari buruz. Artatutako familien % 63 guraso bakarrekoak izan ziren.

HAURREN BABESGABETASUN KASUAK DITUZTEN FAMILIETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA BEREZIAREN ERABILTZAILEEN BANAKETA, FAMILIA-EREDUAREN ARABERA. BIZKAIA.%.2018

| FAMILIA-EREDUA | Egoitza | Familia zabala | Besteren familia | Guraso bakarrekoa | Ama/Aita |
|---|---|---|---|---|---|
| % | 3 | 8 | 3 | 63 | 23 |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.

Familia barruko indarkeriari buruzko atalean, berariazko aipamena merezi du substantzia toxikoak kontsumitzeagatik edo emakumeen aurkako indarkeria-egoeren eraginpean egoteagatik jaio aurreko tratu txarrak[96]. Izan ere, bereziki ezkutuan dago indarkeria fisiko hori, eta haurra abstinentzia-sindromearekin jaiotzen denean detektatu ohi da edo emakumeak haurdun dagoenean emakumearen aurkako indarkeria salatzen duenean.

Erreferentzia lagungarri gisa, **Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako babesgabetasun-jakinarazpenen % 1 jaio aurreko tratu txar mota horri zegokion[97].**

[96] Haurdun dagoen emakume bat, nahita edo nahigabe, kontuz ibiltzen ez den egoerei dagokie, bere egoerak behar dituen neurriak hartzen ez dituena, fetua kaltetzeko arriskuarekin.

[97] Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Ezaugarri bereziak dituztela aintzat izanda, merezi du **EAEn senideren baten edo arduradunen baten laguntzarik ez duten erkidegotik kanpoko herrialdeetan jaiotako adingabeei** buruzko datuak aztertzea.

Adingabe horiek erronka handia dira haien babesaren ardura duten administrazioentzat (kasu honetan, foru-aldundientzat). Esan daiteke samaldan etorri direla eta etorrera horien ondorioz, urte batzuetan kasu gehiago artatu behar izan direla, beste urte batzuetan kasuen kopurua nabarmen gutxitu den bitartean. Hala, 2007tik 2010era, etorrerak ugaritu egin ziren, eta ondoren, murriztuz joan ziren, azken bi urteetan joera-aldaketa antzeman den arte, batez ere Bizkaian.

2018an, **hiru aldundien artean profil hori duten 2.450 adingabe baino gehiago artatu zituzten, eta, urte horren amaieran, guztira 779 egoitza-harrerako zentroetakoren batean zeuden,** eta, haietatik, % 97 mutilak ziren.

FORU-ALDUNDIEK HARRERA EGOITZAKO ZENTROETAN ARTATUTAKO FAMILIA-ERREFERENTERIK GABEKO HAUR ETA NERABE MIGRATZAILEAK LURRALDE HISTORIKOAK. ABSOLUTUAK. 2018.

| | | Guztira | Mutilak | Neskak | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | **2018an** | 157 | 157 | 0 | 2017an baino % 30 gutxiago artatu ziren. |
| | **2018ko abenduaren 31n** | 70 | 70 | 0 | 2017n baino % 19,5. |
| Bizkaia | **2018an** | 1.571 | 1.556 | 15 | 2017an baino % 67,5 gehiago artatu ziren. |
| | **2018ko abenduaren 31n** | 599 | | | 2017n baino % 41,6 gehiago. |
| Gipuzkoa | **2018an** | 728 | | | 2017an baino % 30 gehiago artatu ziren. Batez besteko adina 16,52 urtekoa da. |
| | **2018ko abenduaren 31n** | 110 | 103 | 7 | Aurreko urtean baino % 74 gehiago zegoen. Zentroetan, jada 18 urte bete dituzten pertsonen 23 kasu daude eta zain daude. |

Iturria: hiru foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailetako memoriak.

2018an, **Araban** egoitza-harrerako sarean bakarrik zeuden 157 haur eta nerabe etorkini eman zitzaien harrera. Denak mutilak ziren. Urtearen amaieran 70 geratzen ziren. Aurreko urtean familia-erreferenterik gabeko 225 haur eta nerabe artatu ziren, eta urtearen amaieran 87 geratzen ziren.

Azken bi urteetan, Bizkaian bolumena esponentzialki handitu da. Datuen arabera, 2017. eta 2018. urteen artean, hazkunde nabarmena izan da; are handiagoa 2016. urtearekin alderatuz gero. Zehazki, 2018. urtean, Bizkaian familia-erreferenterik gabeko edo bakarrik dauden 1.571 adingabe etorkin artatu ziren egoitza-harrerako sarean (2017. urtean, 938 artatu ziren; hau da, urte batean, % 67,5 ugaritu ziren). 1.148 izan ziren kasu berriak (aurreko urtean 783 kasu berri izan ziren), eta urtearen amaieran 599 zeuden (urte bat lehenago, data berean, 423 erregistratu ziren, % 41,6 gutxiago). Gehienak mutilak ziren, bi heren inguru marokoarrak, eta gainerakoak, heren bat, Saharaz hegoaldekoak. Neskak zertxobait gehiago etorri zirela antzeman zen: 2018an 15 izan ziren; eta 2017an, 9 guztira.

2018an, **Gipuzkoan,** bakarrik dauden adingabe etorkin gehiago artatu dira, 2017. urtean baino % 30 gehiago. Hala ere, etortzen direnetako asko denbora-tarte txikirako geratzen dira, migrazio-prozesuetan iragaiteko lurralde bat baita. 2018an, larrialdi-egoeretan harrera egiteko zerbitzuak guztira profil horretako 728 pertsonari egin zien harrera, eta urtearen amaieran 110 zeuden (103 mutil eta 7 neska; hau da, aurreko urtean baino % 74 gehiago).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, artatuak izan ziren bakarrik dauden adingabe etorkinek batez ere 16 eta 17 urte artean dituzte.

URTEAN ZEHAR ARTATUTAKO FAMILIA-ERREFERENTERIK GABEKO HAUR ETA NERABE ETORKINAK GIPUZKOA. EHUNEKOAK. 2018

| ADINA | 12 urte | 13 urte | 14 urte | 15 urte | 16 urte | 17 urte | 18 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| % | 0,4 | 2,0 | 6,7 | 19,6 | 32,9 | 33,5 | 4,9 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Halaber, interesgarria da ikuspuntu hori osatzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuek edo haurren udal zerbitzuek artatzen dituzten babesgabetasun arineko edo neurritsuko arriskuan dauden adingabeen bolumena zenbatekoa den aztertuz. Lagungarri gisa, 2018an, **hiru euskal hiriburuetako** [98] **udaleko haurren zerbitzuek babesgabetasun neurritsuko edo arineko arriskuan zeuden 2.200 adingabe inguru artatu zituzten**.

EUSKAL HIRIBURUETAKO UDALETAN ARTATUTAKO FAMILIAK ETA ADINGABEAK, BABESGABETASUN ARINEKO EDO NEURRITSUKO ARRISKUAN DAUDENAK ABSOLUTUAK. 2018

| | Arriskuan dauden artatutako familiak guztira | Arriskuan dauden artatutako familia berriak | Arriskuan dauden artatutako adingabeak | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| **Bilbo** | 1.142 | 385 | | Kasu berriak guztizkoaren % 33,7 dira.<br>Kasu berriak aurreko urtean baino % 5,6 gutxiago dira. |
| **Donostia** | 579 | 169 | | Kasu berriak guztizkoaren % 29,2 dira. |
| **Gasteiz** | | | 1.009 | Artatutako adingabeak adin horretako biztanleria osoaren % 2,3 dira.<br>Artatutako pertsonak 2017an baino % 11 gehiago dira. |

Iturria: Gizarte Ekintzako arloen edo hiru euskal hiriburuetako udalen arlo baliokideen memoriak.

2018an, **Bilboko** Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuek adingabeak dituzten eta arrisku-egoeran dauden 385 familia berri artatu dituzte; hau da, aurreko urtean baino % 5,6 gehiago. Ekitaldi horretan, gizarte-hezkuntzako esparrua eta esparru psikosoziala jorratzen duten udal gailuek guztira 1.142 familiarekin esku hartu dute, aurreko urtean erregistratutako zifra bera[99].

**Donostiako** Udalak, 2018ko abenduaren 31n, babesgabetasun neurritsuko edo arineko 579 esku-hartze aktiboko kasu zituen, eta horietatik 169 kasu berriak izan ziren.[100]

2018an, **Gasteizko** Udalaren haurren eta familiaren zerbitzuak babesgabetasun-arazoren bat zuten 1.009 adingabe artatu zituen (aurreko urtean baino % 11 gehiago); 476 babesgabetasun neurritsuko edo larriko arriskuan zeuden.[101]

[98] EAEko udal eta/edo mankomunitate guztiek lehen mailako arreta eskaintzen da, nahiz eta hiru hiriburuen datuak soilik eskaini, esanguratsuagoak izateagatik.
[99] Iturria: Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza arloko memoria.
[100] Iturria: Donostiako Udaleko Gizarte Ekintza arloko memoria.
[101] Iturria: Gasteizko Udaleko Gizarte Politika Sailaren memoria.

## Intereseko beste ohar batzuk:

**Txirotasun maila eta gizarte-bazterkeria** arrisku-faktoretzat jotzen diren neurrian, aipatu behar da eskura dauden azken estatistikek hau ohartarazten dutela: 2018an[102] 14 urtetik beherako euskal biztanleriaren % 10,3 pobrezia errealean[103] bizi zen; hau da, oinarrizko beharrak, batez ere elikadura-, etxebizitza-, arropa- eta oinetako-gastuekin lotutakoak, asetzeko behar adina diru-sarrera ez zituen etxe batean bizi zen, eta egoera hori konpentsatzeko beste ondasunik ez zuen. 2014ko datuekin alderatuta beherakada handia izan ez den arren, aurreko neurketetan hautemandako goranzko joerak aldaketa bat izan dela adierazten du datuak. Urte hauetan egin ziren aurreko neurketak: 2008 (% 7,3), 2012 (% 9,5), 2014 (% 11,2) eta 2016 (% 10,6).

Halaber, estatistikek adierazten dute mantenu-txirotasunaren[104] arriskua handiagoa dela guraso bakarreko etxeetan (batez ere emakumezkoak buru dituztenetako) eta espainiarra ez den beste nazionalitate bat duten erreferentziazko pertsona duten etxeetan. Hala, guraso bakarreko etxeetan pobreziaren arriskua % 17,3koa da, etxe guztien batez bestekoaren (% 8) bi halako baino gehiago; eta erreferentziazko pertsona atzerritarra den etxeetan, % 33,6koa (zifra horrek tasa orokorra laukoizten du). 2015ean, EAEn 16 urtetik beherako 27.642[105] haur eta nerabe bizi ziren guraso bakarreko etxeetan.

Era berean, azterlanek azaleratzen dute, gaur egun, etxebizitza dela euskal familien gastu nagusietako bat, eta krisia dela eta, etxebizitza ez ordaintzearen egoerak areagotu egin direla. Egoera horrek, batzuetan, bahiturak eta kaleratzeak ekar ditzake. Mendeko haurrak dituzten eta kaleratzeko edo hipoteka exekutatzeko arriskuan edo prozesuan dauden etxeen ehunekoa % 0,44koa da; hau da, EAEn arazo horrek 1.290 familia baino gehiago kaltetzen ditu[106].

**Zenbait zaurgarritasun-egoeren prebalentzia maila** laguntza gisa adierazteko, Gasteizko Udalak emandako datu batzuk azpimarra daitezke. 2018an, udal horretan erroldatutako haurren eta nerabeen % 18 udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen espedienteetan sartuta zeuden. Horrenbestez, gizarte-zailtasunen bati aurre egiten zieten familietan bizi ziren (arazo ekonomikoak, laneratzeko zailtasunak, bizikidetzan adostasunik eza, osasun-arazoak, etxebizitza-arazoak, genero-indarkeria, eskolatzeko zailtasunak eta abar).

UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATUTAKO PERTSONAK, ADIN-TARTEAREN ARABERA ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK. GASTEIZ. 2019KO URTARRILAK 1

| Adina | Erroldatutako pertsonak | Artatutako pertsonak | % |
|---|---|---|---|
| **0-2 urte** | 6.814 | 1.108 | 16,3% |
| **3-5 urte** | 7.685 | 1.428 | 18,6% |
| **6-12 urte** | 18.024 | 3.423 | 19,0% |
| **13-17 urte** | 11.577 | 2.011 | 17,4% |
| **Guztira** | 252.569 | 28.722 | 11,4% |

Iturria: Gasteizko Udala

[102] Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte-beharrei buruzko inkesta. Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen modulua. 2018

[103] Mantenu-txirotasunak honako egoera honi egiten dio erreferentzia: behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean oinarrizko beharrak asetzeko, batez ere elikadurari, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei lotuta. Txirotasun-arriskuan daude, oinarrizko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituztenak. Arrisku-arazoek edo -egoerek ez dute eragiten benetan pobrezia bizitzea. Hala ere, adierazle horrek aukera ematen du benetako pobrezia-egoeren inpaktua neurtzeko. Izan ere, honako hau zehazten du: premien estaldura nahikoa ez izateagatiko arrisku-egoerak zer zirkunstantziatan ez dauden behar adina konpentsatuta ongizate-elementuekin biztanleriaren eguneroko bizitzan.

[104] Mantenu-txirotasunak honako egoera honi egiten dio erreferentzia: behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean oinarrizko beharrak asetzeko, batez ere elikadurari, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei lotuta. Txirotasun-arriskuan daude, erabili dugun erreferentzia-aldian oinarrizko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak. Gogora dezagun zenbait arazok edo arrisku-egoerak ez dakartela berekin automatikoki pobrezia benetan bizi behar izatea.

[105] Euskal Familia eta Etxeen Inkesta. Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2015

[106] Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familia eta Etxeen Inkesta. 2015

Azkenik, jada esan den bezala, **bakarrik dauden haur eta nerabe etorkinek berariazko** ezaugarriak eta **beharrak** dituzten talde bat osatzen dute. Garrantzitsua da kontuan izatea "Dakartzaten itxaropenen eta bertan duten errealitatearen arteko kontraesanak erakundeen, langileen eta gazteen arteko harremana oztopatzen duela. Horrez gain, ia hemezortzi urte betetzear dituztela sartzen direnean, esku hartzeko ibilbide pertsonalizatua garatzeko denbora urria dago, eta horrek erakundeen erantzunak jarraipena izatea zailtzen du. Bestalde, atzerritartasun-araudiaren aplikazioak segurtasun juridiko gabezia larria eragiten du, interpretazio desberdinak eta batzuetan kontraesankorrak egiten baitira adingabeen itzulerei egin behar zaizkien tratamenduei buruz" [107].

Era berean, gai horrekin lotuta argitaratutako azken txostenek hau adierazten dute: "Bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazo nagusiak aldatu egin dira urte hauetan: lehen etorrera eta harrera uneetan zeuden; eta orain berriz, gizarte-prozesuetan eta 18 urte bete ondoren emantzipazioa babesteko prozesuetan daude (enplegua eta etxebizitza lortzeko zailtasunak, eskura ditzaketen prestakuntzako eta lan-gaikuntzako programen murrizketa, ekonomia-prestazioen eta gizarteratze-zerbitzuen antolatutako programen ahulezia"[108]).

[107] Arartekoa. *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.* Gasteiz: Arartekoa, 2011.
[108] Arartekoa. *Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren eta bere Hautazko Protokoloen Aplikazioari buruzko Espainiako V. eta VI. Txostenaren txosten osagarria.* Gasteiz: Arartekoa, 2017.

# Sexu-indarkeriarekin lotutako datuak

## Zeri buruz ari gara sexu-indarkeria aipatzen dugunean?

Honi esaten zaio sexu-indarkeria: "Adingabe baten eta heldu baten arteko kontaktuak eta elkarreraginak, azken horrek adingabea erabiltzen badu bere burua, haurra edo hirugarren pertsona bat sexualki estimulatzeko. 18 urtetik beherako pertsona batek burutu dezake abusua, biktima baino nabarmen helduagoa bada edo adingabe erasotzailea bestearen gainetik botere- edo kontrol-egoera batean badago" [109].

Ez da haurren sexu-abusura soilik mugatzen, bere baitan hartzen dira hertsaduraz, manipulazioz edo indarkeria erabiliz (sexu-erasoa, exhibizionismoa eta sexu-esplotazioa) egindako sexu-jokabideak. Sexu-indarkeria kontaktu fisikoaren bidez (igurtziak, masturbazioa, laztanak, penetrazioa…) edo kontaktu fisikorik gabe (neskato bat edo mutiko bat helduen sexu-harremanak ikustera behartzea, exhibizionismoa, sexu-kutsuko txantxak edo umiliazioak...) eragin daiteke.

Familia-giroan nahiz familia-girotik kanpo gertatzen den indarkeria modu bat da. Horrez gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, batez ere, Interneten eta gailu mugikorren garapenak areagotu egin dituzte sare sozialen bidez edozein abusu mota (haurren pornografia, sextinga, groominga…) eragiteko aukerak, haiek erabili ahal izatea erraza baita, eta erasotzaileei pribatutasuna eta zigorgabetasuna eskaintzen baitiete.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Fenomeno konplexua da, dimentsio errealean **bereziki ezezaguna,** oso informazio gutxi baitago eskura. Hala ere, aztertu diren gizarte guztiei eragiten die, eta kalkuluen arabera, haren prebalentzia askoz ere handiagoa izan daiteke gertaera ezezagunak oinarri hartuta egindako estatistiketan adierazi ohi dena baino.

Haurren Eskubideen Batzordearen arabera, haurren sexu-abusua haurren eta nerabeen aurkako tratu txar modu larri bat da, eta berekin dakar muga intimoak eta pertsonalak urratzea. Tratu txar horiek pairatzen dituenaren garapenean ondorio sakonak eta iraunkorrak ditu eta haren **duintasuna** kaltetzen dute, biktimak zaurgarriago egiten baititu desoreka mentalen eta beste biktimizazio batzuen aurrean, besteak beste.

Sexu-abusuaren biktima izan diren haurrek gurasoak (amak eta/edo aitak) gaitzesten dituzte, enuresi arazoak izan ohi dituzte eta, handitu ahala, beren adinerako sexu-jokabide desegokiak izan ohi dituzte eta jokabide antisozialak ikastetxean eta gizartean oro har.

Sarritan, **indarkeria iraunkorra eta pixkanakakoa** izan ohi da (ez da aldian behingo ekintza bat eta pixkanaka intentsitate handiagoa hartzen hasten da), eta foku nagusia familia bera edo gertuko harreman-sareak (lagunak, familia zabala…) izan ohi dira. Biktimagileak **erreferentziazko pertsonak izan ohi dira adingabearentzat.** Indarkeria-ekintzek denboran jarraipen bat izanda eta biktimagilearen gertutasuna kontuan izanda, indarkeria-ekintzak hasten diren adinaren arabera, biktimak egoera hori normaliza dezake, harremanak izateko ohiko modu batekin nahasteraino.

---

[109] Txosten honetatik atera da definizioa: BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

Nahiz eta sarritan kontrakoa pentsatu, maiz ez dago agresibitate eta indarkeria fisiko esplizituri k, baizik eta heldu abusatzaileak limurtuz adingabearen kontra gauzatzen duen indarkeria mota bat da, adingabearen onespena eta konplizitatea lortu nahian. Nerabezaroaren aurreko etapan, biktimak ez du bortxatua izaten ari denaren kontzientziarik. Nerabezaroan, aldiz, erresistentzi posibleei aurre egiteko, limurtze-mekanismoak agresibitate mailako beste zenbait estrategiarekin uztar daitezke, hala nola errua adingabearena dela sentiaraztea, mehatxua edo eraso fisikoa.

Horregatik, indarkeria mota hori inor ohartu gabe gerta daiteke, eta ohartzen direnean, hura agerian jartzeko eta **salatzeko itzulinguru handiak** izaten dira, gertuko ingurunearen nahiz biktimaren aldetik. Gero eta haurren sexu-abusuaren kasu gehiagoren berri dugun arren, indarkeria mota hori **tabu** bat da oraindik, eta hura pairatzen dutenak **laidoztatuak** sentitzen dira oraindik. “Indarkeria guztiak lotuta daude gure gizarteko egiturazko-tabuekin, eta indarkeria eragiteak, beraz, berekin dakar haustea. Hala ere, sexualitatearekin lotuta egoteak egiten ditu berezi haurren sexu-abusuak. Era berean, tratu txar mota horren sexu-osagaiak are zailago egiten ditu hura detektatzea, ezagutaraztea, bai eta jazartzea ere, pertsonaren harreman-esparru pribatua inbaditzen duenez, gaiaren inguruan beldur eta mito ugari izatearen ondorioz[110].

Haurrak oso txikiak direnean, nerabezaroaren aurretik, biktima kopuruari dagokionez, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak ez dira handiak. Izan ere, neskek eta mutilek oraindik ez dituzte bigarren mailako sexu-ezaugarriak argi zehaztuta. Esan daiteke pedofilia eta pederastia kasu horietan, neskak edo mutilak izan, abusua berdin gauzatzen dela (biktima jakin baten aukera lotuta dago haurraren zaurgarritasunarekin eta unean bertan aukera izatearekin).

Hala ere, **nerabezarotik aurrera,** esan daiteke pederastiaren neskenganako eta mutilenganako erakarmenaren osagaia desagertzen dela eta “indarkeriak hartzen duen itxura heldu bati egingo litzaiokeenaren bera da. Biktimarengandik gertu egoteak dakartzan aukeren eta nagusitasun-abusu argi batean haren gaineko nagusitasunaren mendean dagoen adingabe baten aurka egitea abusu horiek” [111]. Etapa horretan, neska nerabeen aurka egiten diren sexu-abusuak askoz ere ugariagoak dira mutilei eragindakoak baino.

Indarkeria mota hori eragiten dutenei dagokienez, zenbait azterlan bat datoz hau adieraztean: ez dago profil tipo bat (esaterako, ez da egia sexu-abusua gizarte-klase baxuetako familietan soilik gertatzen denik...), nahiz eta biktimario gehienak **gizonezkoak** izateari dagokionez ziurtasuna dagoen (% 90 edo gehiago).

Beste indarkeria modu batzuetan bezala, ez da ahaztu behar indarkeria modu hau lotuta dagoela **egiturazko faktore** ideologikoekin, kulturalekin eta sinbolikoekin. Faktore horiek direla eta, “helduak oro har, eta gizonezkoa batez ere, pribilegiozko eta nagusitasunezko jarrera batean jartzen dira, beren abusuzko jokabidea legitimotzat hartuz”[112]. Horrek azal dezake nerabezarotik aurrera sexu-indarkeriak neurri gabe neskatoei eragitea eta erasotzaileak batez ere gizonezkoak izatea.

Bizitzen ari diren egoera identifikatzeko eta salatzeko zailtasunei beste faktore batzuk gehitzen badizkiegu, hala nola salaketa-prozesuen iraupena eta lekukotzen sinesgarritasunarekin lotutako oztopoak, abusuek biktimengan are ondorio larriagoak dituzte (**berriz biktimizatzen dira**).

[110] BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.
[111] Idem
[112] Idem

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

Europako Kontseiluak[113] kalkulatzen du **Europan bost adingabetatik bat sexu-abusuen biktima dela.**

Espainian duen prebalentziari buruzko beste argitalpen batzuetan, kalkulatzen da **Espainian bost pertsonatatik batek sexu-indarkeria motaren bat pairatu duela haurtzaroan[114].**

Era berean, gaurdaino egindako makroinkesta urrietako batek (1994an argitaratu zen) adierazi zuen espainiar biztanleriaren % 18,9k (% 15,3 gizonezkoak eta % 22,5 emakumezkoak) sexu-abusuak pairatu zituela haurtzaroan[115].

Sexu-indarkeria familia-girotik kanpo edo familia-giroan gerta daiteke, baina familiaren barruan gertatzen diren sexu-indarkeriako kasuen bolumena esanguratsua da. 2016an, **ANAR Fundazioak Espainian artatutako sexu-abusuen % 70,4 etxean edo familia-inguruneko etxeetan gertatu ziren;** % 28,2 ikastetxeetan; % 7,5 Internet bidez; eta % 3 leku publikoetan[116].

Kontuan hartzen badugu **haurren aurkako sexu-abusuen kasuen % 2 baino ez dela denbora errealean, gertatzen ari denean[117], detektatzen**, erraza da ohartzea zenbateko aldea dagoen arazo errealaren dimentsioaren eta erregistroetako datuek adierazten dutenaren artean. Hala ere, intzidentzia-datuak ere lagungarriak dira intereseko ezaugarri batzuk ezagutzeko.

Azken urteetan, sexu-delituen biktima diren adingabeen igoera proportzionala eta pixkanakakoa hauteman da. **Espainian** Kriminalitatearen Estatistika Sisteman **erregistratutako 18 urtetik beherakoei eragindako biktimizazioak 2012an delitu mota horiengatiko biktimizazio guztien % 40,4 izan ziren, eta 2017an, % 47,6.** Sexu kutsuko ziberdelinkuentziaren kasuan, 18 urtetik beherakoen aurkako biktimizazioak guztizkoaren % 71,7 dira[118].[119]

Sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko biktimizazioen % 51,6 bat datoz sexu-abusuekin (penetrazioarekin edo gabe) eta sexu-erasoak (penetrazioarekin edo gabe) % 15,4 dira.

---

113
Europan ikerketa-taldeek egindako zenbait azterlanen emaitzak uztartuz lortu da zifra hori eta bat dator zenbait erakundek, hala nola UNICEFek, Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Osasunaren Munduko Erakundeak, aurkeztutako estatistikekin. Iturria: Europako Kontseilua https://www.coe.int/es/web/human-rights-channel/stop-child-sexual-abuse-in-sport

114 Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

115 Iturria: LÓPEZ, F. *Los abusos sexuales de menores. Lo que recuerdan los adultos. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 1994.*

116 Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* ANAR Fundazioa, 2017.

117 Iturria: BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

118 Iturria: *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena.* 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. Estatuko Segurtasun Idazkaritza. Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren (SEC) ustiapenaren ondoriozko datuak dira. SECean biltzen diren datuak atestatuen instrukzioa egiteko oinarri diren polizia-jarduketen ingurukoak dira. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen, Autonomia Erkidegoetako polizien eta udaltzaingoen datuak biltzen ditu.

119 Iturria: *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena. 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. Estatuko Segurtasun Idazkaritza.* Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren (SEC) ustiapenaren ondoriozko datuak dira. SECean biltzen diren datuak atestatuen instrukzioa egiteko oinarri diren polizia-jarduketen ingurukoak dira. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen, Autonomia Erkidegoetako polizien eta udaltzaingoen datuak biltzen ditu.

Atzetik daude exhibizionismoaren (% 10,9) eta adingabeen ustelkeriaren (% 9,5) delituak. Era berean, teknologiaren bidez 16 urtetik beherakoekin harremanetan jartzeagatiko delituak guztizkoaren % 5,4 dira, sexu-probokazioagatiko delituak % 3,3, haurren pornografiarenak % 1,7 eta prostituzioarekin lotutakoak % 0,8.

Iturri beraren datuen arabera, 2017an Espainian ezagutu ziren sexu-askatasunaren aurkako delituengatik 13 urtetik beherako adingabeen aurka eginiko biktimizazien % 75etan biktima neskatoa zen. **14 eta 17 urte arteko adingabeen aurkako biktimizazioetan % 81era igotzen da nesken ehunekoa.** Prostituzioari eta ustelkeriari lotutako delituei, 16 urtetik beherakoekin teknologiaren bidez harremanetan jartzeari eta adingabeen pornografiari buruz ari garenean, sexuagatiko aldeak zertxobait txikiagoak dira.

SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITU NAGUSIENGATIKO BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA, DELITU MOTAREN ARABERA. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2017.

| | DELITU MOTA | Sexu-askatasunaren aurkako delituak | Sexu-abusuak | Sexu-erasoak | Exhibizionismoa | Adingabeen ustelkeria | Teknologiaren bidez harremanetan... | Sexu-probokazioa | Haurren ponografia | Prostituzioa | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0-18 urte | % horizontala | 100 | 51,6 | 15,4 | 10,9 | 9,5 | 5,4 | 3,3 | 1,7 | 0,8 | 1,4 |
| | Neskak | 78 | 79 | 89 | 77 | 64 | 65 | 69 | 58 | 71 | |
| | Mutilak | 22 | 21 | 11 | 23 | 35 | 1735 | 31 | 3542 | 29 | |
| 0-13 urte | % horizontala | 100 | 53,5 | 8,6 | 11 | 6 | 6,4 | 3,6 | 1,4 | 0,27 | 9,3 |
| | Neskak | 75 | 77 | 81 | 73 | 61 | 65 | 76 | 67 | 50 | |
| | Mutilak | 25 | 23 | 19 | 27 | 39 | 35 | 24 | 33 | 50 | |
| 14-17 urte | % horizontala | 100 | 38,7 | 10,8 | 10,8 | 12,8 | 4,3 | 3 | 1,1 | 1,2 | 17,3 |
| | Neskak | 81 | 83 | 96 | 82 | 66 | 64 | 61 | 53 | 76 | |
| | Mutilak | 19 | 17 | 4 | 18 | 34 | 36 | 39 | 47 | 24 | |

Iturria: *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena. 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. Estatuko Segurtasun Idazkaritza*

Estatuko 2015eko emakumearen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestaren arabera, **Espainiako emakumeen % 7,2k** sexu-indarkeria jasan dute bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin lotutako eremutik kanpo, haien bizitzako uneren batean, eta horietatik **% 3,5ek 15 urte bete baino lehen.**

Azterlan horretan, era berean, hau adierazi da: bikotekidearen eremutik kanpo sexu-indarkeria (igurtziak, bortxaketak, azkenean gertatu ez zen sexu-harremanaren saiakera eta abar) pairatu duten emakumeen % 46,1ek adierazten dute behin baino gehiagotan gertatu dela eta haurtzaroan gertatzen den indarkeria pixka bat errepikakorragoa dela 15 urte bete ondoren gertatzen dena baino[120].

[120] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* 2015.

Duela gutxiko **inkesta baten arabera**[121]**, 2018an Espainiako 11-17 urteko nesken eta mutilen % 42k sexu-izaerako irudiak ikusi dituzte Interneten edo beste baliabide baten bidez, eta hamarretik hiruk sexu-edukiko edo sextingeko** (sexu-mezuak –erotikoak edo pornografikoak– bidaltzea eta ikustea) **mezuak jaso dituzte**.

Zenbat eta zaharrago izan, orduan eta handiagoa da horrelako mezuak jasotzeko probabilitatea (11 eta 12 urte-tartean % 12koa da, eta 15-17 urte-tartean, % 45ekoa). Azpimarragarria da adingabeek sexu-mezuen gero eta eragin handiagoa jasaten dutela, eta horrez gain, horiek jasotzeko adina ere aurreratzen ari direla (11 eta 12 urte arteko adin-tartean, 2018. urteari dagokionez, sexu-mezuak jasotzeko maiztasuna 2010ean 15 eta 16 urte artekoei gai horri buruz galdetzen zitzaienean lortzen zenaren antzekoa da).

SEXU-EDUKIKO MEZUAK EDO SEXTINGA JASO DUEN BIZTANLERIA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2010-2015-2018.

| | % | Guztira | >11-12 urte | >13-14 urte | >15-17 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| 2010 | **Guztira** | **10** | **3** | **10** | **13** |
| | Mutila | 7 | | | |
| | Neska | 11 | | | |
| 2015 | **Guztira** | **30** | **19** | **34** | **42** |
| | Mutila | 35 | | | |
| | Neska | 28 | | | |
| 2018 | **Guztira** | **26** | **12** | **30** | **45** |
| | Mutila | 27 | | | |
| | Neska | 24 | | | |

Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

2017an, Ertzaintzak **EAEn familia-girotik kanpo 18 beherako adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituekin**[122] **lotutako indarkeriaren 224 biktima erregistratu zituen (% 69,6 nesken aurkakoa); hau da, aurreko urtean baino % 30 gehiago**. Biktimizazio mota horiek Ertzaintzak erregistratutako adingabeen aurkako biktimizazio guztien % 14,2 dira[123].

2018an, EAEko Fiskaltzak **aurretiko 66 eginbide abiatu zituen adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituengatik (aurreko urtean baino % 13,8 gehiago):** 27 eginbide sexu-abusuengatik eta 23 sexu-erasoagatik[124].

2017an, EAEn segurtasun-indarrek **adingabeen pornografiarekin lotutako 42 gertaera ezagun erregistratu zituzten (lau urte lehenago baino % 121 gehiago) eta ziberkriminalitatearekin eta haurren pornografiarekin lotutako 26 arau-hauste penal (2013an baino % 271,4 gehiago).** Guztira, 23 pertsona, denak gizonezkoak, atxilotu edo ikertu ziren urte horretan adingabeen pornografiarekin edo teknologiaren bidez harremanetan jartzerekin lotutako ziberkriminalitatea dela eta[125].

[121] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.
[122] Iturri horrek kategoria horretan familia-girotik kanpoko egileek eragindako sexu-erasoak hartzen ditu aintzat soilik.
[123] Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.
[124] Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzaren estatistika-datuak.
[125] Iturria: Barne Ministerioko Kriminaltasunaren Estatistika Ataria.

2018an, Bizkaian sexu-abusuen kasuan Laguntza Psikologikoa emateko Programa Bereziak 65 kasu artatu zituen; 29 berriak ziren (2 ustezko erasotzaileak). Artatutakoen % 72,3 neskak ziren (kasu berrien % 69 neskak dira, eta biktimen kasu berrien % 74 ere bai), eta adin-talde ugariena 6 eta 11 urte artekoa izan zen. Artatutako kasuen % 48 egoitza-harrerako zentroetara bideratu ziren.

SEXU-ABUSUETAN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO PROGRAMA BEREZIAN ARTATUTAKO ADINGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. BIZKAIA. EHUNEKOAK. 2018

| | % | 0-5 urte | 6-11 urte | 12-14 urte | 15-18 urte | 18 urte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **SEXUA** | Mutikoak | 20 | 25 | 35,3 | 31,6 | 0 | 27,7 |
| | Neskatoak | 80 | 75 | 64,7 | 68,4 | 100 | 72,3 |
| **ADINA** | % | 7,7 | 30,8 | 26,2 | 29,2 | 6,1 | 100 |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.

## Intereseko beste ohar batzuk:

Azterlan batzuek aipatutako datuen norabide bera seinalatzen eta hau adierazten dute: sexu-indarkeria pairatzen duten haurrek hamar **erasotzailetatik** sei maila desberdinean **ezagutzen dituzte.** Profil tipoari dagokionez, mutikoak batez ere 11 edo 12 urte dituztenean dira erasotuak eta erasotzailea agintaritza duen norbait da (kirol-entrenatzailea, irakaslea, aisialdiko begiralea…), eta neskak, aldiz, batez ere 7 eta 9 urte artean familia-inguruneko norbaitek erasotzen ditu[126].

Bizkaian sexu-abusuetan Laguntza Psikologikoa emateko Programa Berezian artatutako kasu berrien % 74tan, biktimaren eta ustezko erasotzailearen arteko harremana familiakoa edo familiaren gertuko batena zen.

SEXU-ABUSUETAN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO PROGRAMA BEREZIAN ARTATUTAKO ADINGABEAK, USTEZKO ERASOTZAILEAREKIN ZUTEN HARREMANAREN ARABERA. KASU BERRIAK. BIZKAIA. EHUNEKOAK. 2018

| | Aita | Ama | Gurasoaren bikotekidea | Familia zabala | Egoitza-harrerako kidea | Anaia | Familiaren laguna | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **%** | 37 | 3,7 | 11,1 | 14,8 | 0 | 3,7 | 3,7 | 25,9 |

Oharra: ustezko erasotzaileen 2 kasuak ez dira aintzat hartu.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.

Abusu asko **ez dira salatzen,** eta horrenbestez, erasotzailea zigortu gabe geratzen da. Salatzean, prozesu judiziala nabarmen luzatzen da eta biktimentzat oso mingarria da. Duela gutxiko azterlan batzuen arabera, haurrak sexu-abusuaren berri ematen duen ikastetxeen % 15ek soilik jakinarazten du, eta lege-sisteman sartzen diren sexu-indarkeriako kasuen % 70 inoiz ez da ahozko epaiketara iristen[127].

Ondorioekin eta haurtzaroan abusu-egoera bat bizitzearen inpaktuarekin lotuta, Save the Children elkarteak gai horri buruzko berariazko txosten batean hau ohartarazten du: “haurrei eta nerabeei eragindako sexu-abusua gertaera traumatiko bat da, eta haurraren indibidualtasuna oinarri izanda sortzen da. Horregatik, gertaera hori salatzen duten sintomak nahiz epe laburrerako eta luzerako ondorioak izugarri aldatzen dira biktima batengandik bestearengana.

[126] SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.
[127] Idem.

Nahiz eta ondorioak aldakorrak izan haur bakoitzarengan, hamar biktimatatik sei-zortzi biktimak zenbait mailatako eraginak dituzte epe laburrean, eta ehuneko nahiko esanguratsu batean, efektuak hain dira indartsuak, ezen sintoma kliniko nabarmenak eragiten dituzte" [128].

Azkenik, EAEn beste testuinguru batzuen bezain intzidentzia handia ez badu ere, sexu-indarkeriaren baitan koka daitezkeen beste indarkeria mota batzuk ere aipatu behar dira, hala nola **sexu-esplotaziorako salerosketa eta emakumeen genitalen mutilazioa.** Biek genero-osagai argia dutenez, indarkeria horiei buruzko datuak txosten honetako emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriari buruzko berariazko atalean aurkeztuko dira.

[128] Idem.

# Berdinen arteko tratu txarrekin lotutako datuak

## Zer dira berdinen arteko tratu txarrak?

18 urtetik beherako pertsona batek edo pertsona talde batek antzeko adina duen beste pertsona bati nahita eginiko ekintzak dira, mina, beldurra edo estutasuna sorrarazteko helburuarekin eginak, harreman asimetriko batean, erasotzailearen eta biktimaren arteko botere desberdintasuna tarteko dela, eta errepikariak eta errepikakorrak izaten dira.

Tratu txarrok hainbat eratakoak izan litezke: baliteke tratu txarrak jasotzen dituen pertsona aurrez aurre izatea ala ez; izan liteke ahozko gutxiespena, eraso fisikoa edo bazterkeria soziala; izan litezke delako pertsonaren kontrako ekintza zuzenak, baina baita zeharkakoak ere, biktimaren objektu pertsonalei, lagunei edota senitartekoei egindakoak; izan liteke mehatxuen, ikararen eta halakoen bidez eragina. Tratu txar horien artean daude Interneten esparruan egiten diren bullying motak; ziberbullying esaten zaienak.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Berdinen arteko jazarpena –edo bullyinga eta ziberbullyinga– maila berekoen arteko indarkeria formek osatzen dute (neska-mutilak dira erasotzaile eta erasotuak), eta **biktima zein erasotzailea adingabeak dira, biek dute babesa jasotzeko eskubidea,** Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera.

Indarkeria forma hauek nahitakoak eta errepikakorrak izaten dira eta biktima babesgabe uzten dute botere fisiko, psikologiko eta/edo sozial handiagoa duen erasotzailearen aurrean. Gainera, "isiltasunaren legea" gailentzen da **egoeraren lekuko ez-aktibo** diren gainerako umeen artean. Horrek are gehiago larritzen du egoera, isolatu egiten baitu biktima eta arazoa identifikatzeko zailtasunak sortzen baitira.

Fenomeno hau eskola-giroarekin lotu izan da urte askoan, adingabeek denbora luzea ematen duten lekuarekin, baina garrantzitsua da aintzat hartzea **beste testuinguru batzuetan ere gertatzen dela**, neska-mutilak elkarrekin sozializatzen diren espazioetan, denbora luzea ematen duten lekuetan: kiroldegietan, parkeetan, kalean, sare digitaletan...

Ziberbullyinga, zehazki, oso lotuta dago informazio eta komunikazio teknologien erabilerak gaur egungo neska-mutilen belaunaldian izandako igoerarekin. Ume horiek "natibo digitalak" direla esaten da. Indarkeria mota honetan ez dago aurrez aurreko kontakturik eta **jazarpenaren audientzia** kontrolik gabe **heda daiteke** eta denbora ere gehiago luza daiteke; izan ere, irain edo irudiak denbora-mugarik gabe gelditzen dira sarean "zintzilik".

Bullying modalitate espezifiko horrek garrantzia du, baita ere, erasotzaileen **anonimotasunez jokatzea errazten duelako** (erasotzen duenak erraz ezkuta dezake bere identitatea) eta **eragindako mina ez delako zuzenean eta berehala hautematen** eta garrantzi hori lotuta dago, halaber, Interneten, mugikorrean eta abarrean irudizko rolak betetzearekin.

Ziberjazarpenak, askotan, eskolako jazarpena (offline) jasaten dutenei eragiten die, eskolakoa kanpora ere zabaldu egiten baita sareak erabiliz. Baina beste profil bateko neska-mutilek ere jasaten dute; hain zuzen, etxean isolatuta eta Internetera konektatuta denbora luzean egoten diren umeei.

Indarkeria mota horren **ondorio emozionalak** askotarikoak izan daitezke. Azterlanen batzuen eta besteen arabera, autoestimu baxuagoa izan dezakete, gainerako ikaskideek baino arazo psikosomatiko gehiago eta antsietatea, depresioa eta trauma osteko estresaren sintomak izan ditzakete. Egoera horiek bizitzeak luzatu egin ditzake denboran arazo emozionalak, askotan, helduarora arte (umetan tratu txarrak jasandako heldu batzuek amesgaiztoak eta oroitzapen asaldatzaileak izaten jarraitzen dute). Tratu txarrak jasaten dituztenen erreakzio berehalakoena beldurra izaten da eta ondorio muturrekoena, berriz, suizidioa, etsipenak eta inpotentziak eragindakoa (fenomeno honi buruzko ikerketa, hain zuzen, heriotzarekin lotutako ondorio horiek izandako kasuen harira abiarazi zen).

Beste ondorioetako bat norbere buruaren inguruan eta norbere munduaren inguruan iritzi positiborik ez izatea da. Indarkeria mota hori jasan dutenek besteen ondoezaz jabetzeko eta haren aurrean erreakzionatzeko gaitasun txikiagoa izaten dute eta ikaskideen nahiz irakasleen asmoak interpretatzeko garaian, benetan direnak baino etsaitasunezkoagoak iruditzen zaizkie. Hala, ume horiek, urteetan aurrera egin ahala, adierazpen emozionalak erreprimitu egiten dituzte eta beldurti eta zelatari jokatzeko joera izaten dute. Era berean, gero eta arreta handiagoa eskaintzen diete haserre edo mehatxu seinaleei, aurpegiko keinuei adibidez, eta arreta txikiagoa, aldiz, emozioen beste adierazpen batzuei; maitasuna adierazteko keinuei, adibidez. Denborak aurrera egin ahala, emozioak identifikatzeko eta erregulatzeko gaitasun-falta horrek emozioak barneratzeko arazoak (depresioa eta beldurrak) eta kanporatzeko arazoak izatea (etsaitasuna eta indarkeriazko jokabideak) ekar ditzake.

Bestalde, neskek eta mutilek ez dituzte berdin prozesatzen eta adierazten jasaten dituzten etengabeko kontraesan emozionalak. Tratu txarrak jasandako neskatilek barneko ondoezaren seinale gehiago erakusten dituzte (lotsa eta errua) eta mutikoek, berriz, fisikoki nahiz ahoz oldarkorrago jokatzeko joera izaten dute.

Aipagarriak dira, baita ere, **ikusle diren ikaskideen ondorioak;** hau da, jazarpen-egoeren aurrean amore ematen dute eta besteen sufrimenduaren aurrean pasibotasunez jokatzen dute. Hasieran, ez da hain nabaria izaten, baina injustiziaren aurrean axolagabe edo are, adeitsu joka dezakete eta norbere balioaren modelazio okerra ere egin dezakete. Gainera, ikusten duten indarkeria horrek kikildu egiten dituen ikaskideek ere ondorioak jasaten dituzte zuzenean edo zeharka, eta ezin dela ezer egin edo injustizien aurrean hobe dela ezer ez egitea pentsatzera irits daitezke, eta horren haritik, izaera beldurtia finkatu egin dakieke.

Bestalde, tratu txarren esperientziak zuzenean eragiten die jarduera akademikoari eta hala, gisa honetako tratu txarrak jasatea lotuta dago **errendimendu akademiko** okerragoa eta emaitza okerragoak izatearekin eta horrek baldintzatu egin ditzake etorkizuneko garapen-aukerak. Biktimek zailtasunak izan ditzakete ikaskuntzako zereginetarako eta horren ondorioz, jaitsi egin daiteke errendimendu akademikoa. Horrez gain, tratu txarrak berriro jasatearen beldurrak eskola uzteko nahia pitz dezake eta batzuetan, horren ondorioz, izaten dira absentismo kasuak ere.

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

**2018an, Espainiako ume eta nerabeen % 33k baieztatu zuten bullyingaren biktima izan zirela, online zein offline, azken urtean,** eta bullyinga jasandako neskatilen ehunekoa (% 36) mutikoena (% 29) baino pixka bat altuagoa izan zen. Baliabide elektronikoen bidez egiten den bullyingarekin alderatuta, aurrez aurreko bullyingak pertsona gehiagori eragiten die eta gehiagotan gertatzen da.

**Balio hauek 2015ekoak baino pixka bat altuagoak dira eta erraz bikoizten dituzte 2010ekoak.** Igoera ez da adin-tarte guztietan homogeneoa izan: 2015eko datuekin alderatuta, nabarmen igo da bullyinga jasan duten 15-17 urtekoen ehunekoa (% 28tik % 37ra). 9-10 urteko eta 13-14 urteko neska-mutikoetan bere horretan jarraitzen du % 33ko ehuneko horrek eta pixka bat jaitsi da 11-12 urtekoen artean; % 32tik % 30era. [129]

OFFLINE EDO ONLINE BULLYINGAREN BIKTIMAK AZKEN URTEAN. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2015-2018

| % | 9-10 urte | 11-12 urte | 13-14 urte | 15-17 urte |
|---|---|---|---|---|
| **2018** | 33 | 30 | 33 | 37 |
| **2015** | 33 | 32 | 33 | 28 |

Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Ziberbullyingari dagokionez, 2018ko datuek erakusten dute online egindako erasoen modurik ohikoena mugikorrean mezu desatseginak jasotzea dela eta hori jasan dute inkestari erantzundako bullyingaren biktima izandako bost pertsonetatik batek. Bazterketak eta isolatzeak biktimen % 15i eragiten die. Ziberbullyinga jasan duten pertsonen % 8-9k ikusi dute publiko egin dituztela haiei buruzko mezu desatseginak eta mingarriak, egin nahi ez zuten zerbait egitera behartu dituzte eta mehatxuak jaso dituzte.

ZIBERBULLYINGAREN BIKTIMAK, MOTAKA. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2018

| Ziberbullying motak | Denekiko % eta ziberbullyingaren biktimak |
|---|---|
| Mezu desatseginak eta mingarriak bidali zizkidaten | 20 |
| Isolatu edo Interneteko talde edo jarduera batetik baztertu ninduten | 15 |
| Mezu desatseginak edo mingarriak igo edo argitaratu zituzten | 9 |
| Egin nahi ez nuen zerbait egitera behartu ninduten | 9 |
| Mehatxu egin zidaten Interneten | 8 |

EAEn, erreferentzia nagusi eguneratuena ISEI-IVEIk 2016an eginiko azterlana da. **Azterlan horren arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarteko bost ikasletik batek adierazi du maiz jasan dituela berdinen arteko tratu txarrak eskolan.**[130]

[129] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

[130] Urte jakin bateko tratu txarren indize orokorrak, neurtutako tratu txarren jokabide guztietatik gutxienez bat "askotan" edo "beti" jasan dituzten ikasleen ehunekoa adierazten du. Hona hemen ikerketa honetan neurtutako tratu txarren 19 jokabideak: hitzezko tratu txarrak (iraindu egiten naute, ezizenak jartzen dizkidate, nitaz gaizki esaka aritzen dira); gizarte-bazterkeria (ezikusiarena egiten didate, ez didate parte hartzen uzten); tratu txar fisikoak (jo egiten naute, nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute, makilekin mehatxatzen naute, beldurra emateko asmo hutsarekin mehatxatzen naute); gauzen kontrako erasoa (gauzak ezkutatzen dizkidate, gauzak puskatzen dizkidate, gauzak lapurtzen dizkidate); ciberbullynga (ikus 82. oharra); sexu-erasoa (sexu-jazarpena egiten didate).

Kasu honetan, sexuaren arabera hautemandako aldeak ez datoz bat beste azterlan batzuetakoekin; izan ere, nesken % 20k eta mutilen % 25,3k jasan dute. Lehen Hezkuntzan, tratu txarren indize orokorra % 22,7koa da eta DBHn % 19,2koa (ehuneko 3,5 puntuko aldea). **Hiru urte lehenago egin zen aurreko kontsulta eta indize orokorra % 21ean zegoen eta 2009an, berriz, zazpi urte lehenago alegia, % 16,9koa zen indizea[131].**

TRATU TXARREN INDIZE OROKORRA, SEXUAREN ETA ETAPAREN ARABERA EAE. EHUNEKOAK. 2009-2012-2016

| | **2016** | | | **2012** | **2009** |
|---|---|---|---|---|---|
| | Mutilak | Neskak | Guztira | Guztira | Guztira |
| **Lehen Hezkuntza** | 25,3 | 20 | 22,7 | 21 | 16,9 |
| **DBH** | 20,5 | 17,8 | 19,2 | 14,6 | 11,9 |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Ahozko tratu txarrak (% 16,2 Lehen Hezkuntzan eta % 13,4 DBHn) eta gizarte-bazterkeria (% 8,3 Lehen Hezkuntzan eta % 5 DBHn) dira tratu txarren modurik ohikoenak eta atzetik dituzte jabetzen kontrako erasoak (% 5,7  hurrenez hurren).

TRATU TXAR MOTAK ETAPAKA. EAE. EHUNEKOAK. 2016

| **%** | **Jazarpen sexuala** | **Ziberbullyinga** | **Tratu txar fisikoak** | **Gizarte-bazterkeria** | **Jabetzen kontrako erasoak** | **Ahozko tratu txarrak** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen Hezkuntza** | 1,3 | 3,4 | 4 | 5 | 5,7 | 13,4 |
| **DBH** | 0 | 3,1 | 7,4 | 8,3 | 5,7 | 16,2 |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Iturri horrek berak adierazten du **EAEko Lehen Hezkuntzako ikasleen % 13,6k [132] ziberbullying[133] motaren bat jasan dutela maila berekoen partetik** kontsulta egin aurreko urtean (beti, askotan edo batzuetan) eta tratu txar mota horren intzidentzia larria (beti edo askotan)[134] % 3,3k jasan dutela.[135]

Zehatz esanda, adin horretako nesken % 10,7k eta mutilen % 12k adierazi dute indarkeria mota horren biktima izan direla, azken urtean, noizbait. **Zifrek erakusten dutenez, tasek gora egin dute 4 urte lehenago egindako kontsultarekin alderatuta** (% 11,8 eta % 2,8, hurrenez hurren).

Era berean, DBHko ikasleen % 12,5ek ziberbullying motaren bat jasan dute eta % 3,1ek ziberbullying larria. Tasa horiek ere gora egin dute 2012tik (% 10,3 eta % 1, 8, hurrenez hurren).

[131] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

[132] 2016tik txostenean Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei ere kontsulta egiten zaien arren, jasotako datua zuzenduta dago, 2012rekin alderaketa egin ahal izateko, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailei soilik dagokie.

[133] Cyberbulling kasu bat dugula ulertuko dugu adin txikiko batek beste batzuk mehatxatzen, zirikatzen, umiliatzen edo gogaitzen duenean Internet bidez, telefono mugikorren bidez edo beste teknologia telematiko batzuen bidez. Intzidentzia orokorrak “beti, askotan eta batzuetan” maiztasunak hartzen ditu aintzat aztertutako 6 gaietatik, gutxienez, 1i lotuta: - Mezuak bidaltzea SMS, WhatsApp (mugikorretik), Tuenti edo Facebook (Internet) bidez, mehatxatzeko, iraintzeko edo barre egiteko - Sare sozialetatik ezabatzea, txatetatik kanporatzea - Internetez edo mugikorraren bidez kideren baten argazkiak, irudiak edo mezuak zabaltzea haren aurka erabiltzeko - Mugikorrean grabatzea eta grabatutakoa zabaltzea, haren aurka erabiltzeko - Mugikorrarekin grabatzea, egin nahi ez duen zerbait, mehatxu bidez, eginarazteko - Kide baten kontuan sartzea edo mezuak edo irudiak bidaltzea haren izenean eta, hala, lagunekin arazoak sorraraztea.

[134] Intzidentzia larriak “beti eta askotan” maiztasunak hartzen ditu aintzat aztertutako 6 gaietatik, gutxienez, 1i lotuta (ikus aurreko oharra).

[135] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

ZIBERBULLYINGA JASATEN DUTEN IKASLEAK, SEXUAREN ETA ETAPAREN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK. 2012-2016

| | | **2016** | | | **2012** |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Mutilak | Neskak | Guztira | Guztira |
| **Orokorra** | Lehen Hezkuntza | 12 | 10,7 | 13,6 | 11,8 |
| | DBH | | | 12,5 | 10,3 |
| **Larria** | Lehen Hezkuntza | 4 | 2,8 | 3,3 | 2,8 |
| | DBH | 3,9 | 2,2 | 3,1 | 1,8 |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Azterlan beraren arabera[136], Lehen Hezkuntzan eta DBHn maila berekoen partetik tratu txarrak jasan dituztela dioten ikasleen profila hauxe da: mutila, atzerritarra, adinez dagokiona baino maila akademiko baxuagoan dagoena eta aitaren edo amaren ikasketa mailak oinarrizko ikasketak amaituta edo amaitu gabe. Profil tipoaren erretratu horrek, hala ere, aintzat hartu beharreko errealitate garrantzitsu bat ezkutatzen du, lehen adierazi ditugun zaurgarritasun- eta arrisku-faktore batzuekin lotuta.

Hala, oso gogoan izan behar dira azterlan batzuek egiten dituzten ohartarazpenak[137], esanez, LGTBI kolektiboetako pertsona adingabeek indarkeria-egoera jasaten dituztela askotan, bullyinga barne. Estatuko inkesta batek erakusten du 2016an jazarpenaren biktima izandakoen % 3,2k eta ziberjazarpenaren biktima izandakoen % 4,2k uste dutela haien sexu-orientazioagatik izan direla biktima[138].

Ildo horretan, EAEn gai honen inguruan 2014an eginiko azterlan baten arabera:

- Hamar ikasletik seik baino gehiagok ikusi dituzte irain edo iseka homofoboak edo lesbofoboak.
- Hamarretik hiruk gutxienez aipatu dute ikusi dutela norbait isolatu izana;
- Hamarretik bi inguru tratu txar fisikoaren lekuko izan dira; eta
- Ikasleen % 3 inguruk diote irainak, isekak, isolamendua edo tratu txar fisikoak jasan dituztela[139].

Aipatu dugun ISEI-IVEIren azterlan horrek dio DBH egiten ari diren ikasleen % 32,3k baieztatzen dutela ikaskide batzuek sexu-orientazioagatik edo neska edo mutila izateagatik jasan duten bazterketaren lekuko izan direla eskola-eremuan. % 5,9k neska izateagatik, % 7,5ek lesbiana izateagatik eta % 19,2k gaytzat hartzen dutelako[140].

[136] Idem
[137] Iturria: EUSKO JAURLARITZA. *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza sisteman,* 2017 [linean] Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
[138] Iturria: CALMAESTRA, J. et al.; SASTRE, A. (koord.). *Yo a eso no juego. Bullying y ciberbullying en la infancia.* Madril: Save the Children, Espainia, 2016.
[139] Iturria: GEHITU (BERDINDU GIPUZKOA) Y GUZTIOK ELKARTEA (BERDINDU ESKOLAK). *BERDINDU! Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan. 2013-2014 ikasturtea.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2014.
[140] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Datuek adierazten dute igo egin direla gisa horretako tratu txarrak jatorri atzerritarreko herritarretan. 2016an eginiko Estatuko inkestaren arabera, jazarpenaren biktimen % 5,1ek eta ziberjazarpena jasan duten biktimen % 5ek uste dute haien larruazalaren koloreagatik, kulturagatik edo erlijioagatik jasan dutela jazarpena[141].

Era berean, 2016ko EAEko inkestak erakusten du **tratu txarren tasa orokorraren intzidentzia askoz handiagoa dela jatorri atzerritarreko ikasleen artean** (Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko ikasleen % 32,3k jasan dute; batez besteko tasa baino ehuneko 9,6 puntu gehiago da hori, eta DBHko jatorri atzerritarreko ikasleen % 20,8k ere jasan dute, batez bestekotik gora ehuneko 1,6 puntu)[142]**.**

## Intereseko beste ohar batzuk:

Aipatutako azterlan horren azken edizioak –ISEI-IVEIk egiten du, aldizka[143]– gure autonomia-erkidegoari dagokionez, adierazten du Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 34,6tan eta DBHko ikastetxeen % 19,6tan, 2013ko eta 2015eko bullying-indizeen azpitik zeudela 2016an. Aldiz, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 24,9tan eta DBHko ikastetxeen % 14,2tan, kontsultaren aurreko bi urteetan erregistratutako indizearen gainetik zeuden. Indizea igo zaien ikastetxeen pisua txikiagoa da indizea jaitsi zaienen pisua baino eta hori horrela, badirudi datuek erakusten dutela, ikasleen tratu txarren tasa orokorraren igoera **ikastetxe batzuetan** indarkeriaren prebalentzia **bereziki** igo izanaren ondorio izan daitekeela.

Interesgarria da ikustea, baita ere, maila berekoen arteko tratu txarrek lotura dutela **familien ikasketa mailarekin.** Oinarrizko ikasketak amaitu gabeak dituen aita edo ama duten Lehen Hezkuntzako ikasleen tratu txarren tasa, orokorra, % 27,9koa da (batez bestekoa baino ehuneko 5,2 puntu altuagoa) eta aitak edo amak unibertsitateko ikasketak dituztenen artean tasa hori % 20,3koa da. DBHn, oinarrizko ikasketak amaitu gabeak dituen aita edo ama duten ikasleen (tratu txarren indizea % 28,6koa) eta unibertsitate ikasketak dituzten aita edo ama duten ikasleen (tratu txarren indizea % 17,1ekoa) arteko aldea are handiagoa da.

TRATU TXARREN INDIZE OROKORRA ETAPAREN ETA FAMILIAKO IKASKETEN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK

| | **Lehen Hezkuntza** | **DBH** |
|---|---|---|
| Oinarrizko ikasketak amaitu gabe | 27,9 | 28,6 |
| Nahitaezko ikasketak amaituta | 26,8 | 20,3 |
| Batxilergoa, LH edo baliokidea | 24,7 | 20,1 |
| Unibertsitateko ikasketak | 20,3 | 17,1 |
| Ez dago jasota | 23,8 | 20,0 |
| **GUZTIRA** | **22,7** | **19,2** |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Gainera, lehen azaldu dugun moduan, maila berekoen arteko tratu txarren fenomenoak lotura argia du **emaitza akademikoekin,** baina ezin izan da identifikatu zein den kausa eta zein ondorioa, harreman hori, seguru asko, ezberdina izango baitute pertsona guztiek.

[141] Iturria: CALMAESTRA, J. et al.; SASTRE, A. (koord.). *Yo a eso no juego. Bullying y ciberbullying en la infancia.* Madril: Save the Children, Espainia, 2016.
[142] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*
[143] Idem

2013ko eta 2015eko Diagnostiko proben datuek adierazten dute ebaluatu diren konpetentzietan, ikaskideek eginiko jazarpenik ez dutela jasan diotenek eskuratu dituztela emaitza onenak eta horien atzetik daude tratu txar motaren bat jasan dutela diotenak eta ondoren, bi motatako tratu txarrak jasan dituztela diotenak. Badirudi, zenbat eta tratu txar mota gehiago jasan, orduan eta txikiagoa dela errendimendua konpetentzietan (matematika, zientziak...).

Tratu txarren egoerak antzeko eragina du konpetentzia guztietako emaitzetan. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ikaskideek eskola-jazarpena egiten diotela adierazi duten ikasleek konpetentzia guztietan, batez beste, eskuratu zuten puntuazioa jazarpenik ez zutela jasan esandako ikasleena baino 19 puntu inguru baxuagoa izan zen, bai 2013ko diagnostiko-proban (21 puntuko aldea), bai 2015ekoan (18 puntuko aldea). DBHko 2. mailako ikasleen artean, maila berekoek eginiko tratu txarrak jasan dituztela esandakoek ere, batez beste, tratu txarrik ez dutela jasan adierazitakoek baino 16 puntu inguru gutxiago lortu zituzten proba horietan.

Hala ere, talde guztietan gertatzen dira tratu txar egoerak eta garrantzitsua da, beraz, gogoan izatea, emaitza onak lortutako ikasleak ere tratu txar egoera batean egon daitezkeela eta gainera, zailagoa izango dela egoera hori identifikatzea. 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan “Matematikako konpetentzia” erreferentzia gisa hartuta, ikusi dugu Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean emaitza onak lortu dituztenetatik % 23k adierazi dutela tratu txar egoerak jasaten dituztela, eta tratu txarrak jasaten dituzten ikasleen ehunekoa % 45,1era igotzen da maila baxuagoetako ikasleen artean. DBHko 2. mailan, ikasleen konpetentzia maila zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta handiagoa da tratu txarren biktima direla dioten ikasleen ehunekoa.

Beste alde batetik:

- Lehen Hezkuntzako ikasleen % 12,1ek eta DBHko % 12,4k mota bateko tratu txarrak jasaten dituzte eskolan.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen % 5,8k diote bi motatako tratu txarrak jasaten dituztela eta % 4,8k diote hiru tratu txar mota edo gehiago jasaten dituztela.
- DBHn, ikasleen % 3,5ek bi motatako tratu txarrak jasaten dituzte eta % 1,7k hiru motatakoak edo gehiagotakoak. Hiru motatako edo gehiagotako tratu txarrak jasaten dituztela dioten ikasleen ehunekoa txikia izan arren, ez zaio bereziki babesgabe egoteko arriskuan dagoen talde honi arretarik kendu behar.

Azterlan horrek berak adierazten du, Lehen Hezkuntzan, tratu txarrak, batez ere, **patioan** egiten direla (kasuen % 37,3an) eta DBHn, berriz, tratu txarren egoeren % 33,5 **ikasgelan** izaten dira.

Garrantzitsua da nabarmentzea tratu txar horiek jasaten dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleen % 26,6k eta DBHkoen % 22,1ek aitortzen dutela, batzuetan, **ez diotela inori kontatzen zer gertatzen zaien,** eta ikasleen % 4,4k eta % 6,3k, hurrenez hurren, adierazi dute ez dutela inoiz horri buruz hitz egin. Gertatzen zaiena norbaiti kontatzekotan, familiarengana eta lagunengana jotzen dute gehienetan irakasleengana eta ikastetxeko beste langile batzuengana jo beharrean.

BIKTIMEK NORENGANA JOTZEN DUTEN GERTATU ZAIENA KONTATZERA, ETAPAREN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK. 2016

| | Lagunengana | Familiakoengana | Irakasleengana | Tutorearengana | Batzuetan, inorengana ez | Inorengana ez |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen Hezkuntza** | 62,5 | 76,7 | 31,8 | 39,4 | 26,6 | 4,4 |
| **DBH** | 68,6 | 53,4 | 15,3 | 15,3 | 22,1 | 6,3 |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

Azkenik, kezkagarria da, halaber, **ikasleek nola erantzuten duten** kideek jasandako **tratu txarren aurrean.** Lehen Hezkuntzako ikasleen % 21ek eta DBHko ikasleen % 38k aitortzen dute jokabide pasiboa dutela tratu txarren egoeretan eta Lehen Hezkuntzako % 10,3k eta DBHko % 6,7k aitortu dute parte hartzen dutela, zuzenean edo zeharka, tratu txarren egoera horretan.

Tratu txarren biktima diren ikasleei galdetu diegunean ea nork esku hartzen duen haiei laguntzeko, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen ehuneko handi batek (% 78,4 eta % 82,4, hurrenez hurren) dio lagunen batek laguntzen diela jazarpen-egoeretan. Lehen Hezkuntzako % 19,7k eta DBHko % 28,6k diote, batzuetan, ez duela inork esku hartzen.

TRATU TXARREN EGOERETAN ESKU HARTZEN DUTEN PERTSONAK, ETAPAREN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK. 2016

| | **Lagunen bat** | **Gelako edo ikastetxeko kide batzuk** | **Irakasleak edo tutorea** | **Gurasoren bat** | **Beste helduren bat** | **Ez du inork esku hartzen** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen Hezkuntza** | 78,4 | 40,6 | 39,3 | 42,7 | 17,8 | 19,7 |
| **DBH** | 82,4 | 31,2 | 26,3 | 31,6 | 11,5 | 28,6 |

Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

# Emakumeen, neskatilen eta neska nerabeen aurkako indarkeriari lotutako datuak

## Zeri esaten diogu emakumeen, neskatilen eta neska nerabeen aurkako indarkeria?

Emakumeen eta neskatilen aurka emakume izate hutsagatik egiten den indarkeria da, emakumeen eta gizonen artean berdintasunik gabe ezarritako botere-harremanetan oinarritutа[144]. Askotariko formak har ditzake eta zera da, “generoa oinarri duen indarkeria-egintza oro[145], emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragitea ekar dezakeena, bai eta egintza horien mehatxuak, bortxak edo askatasuna bidegabe kentzea, bizitza publikoan nahiz bizitza pribatuan gertatzen bada ere”[146]. Zenbait kategoria daude:

1. *Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak*: emakumeen aurkako indarkeria esaten diogu, emakumeek jasaten duten indarkeriaren esparruan sortzen baita haien seme-alaben aurkako indarkeria ere. Gehienetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriaren esparruan gertatzen da (genero-indarkeria ere esaten zaio) eta egoera horietan, seme-alabek indarkeria mota horren biktima izatearen aitortza juridikoa dute (biktima indarkeriaren eraginpean egoteagatik). Gainera, emakumeen aurkako indarkeriaren beste modu batzuen esparruan ere gerta daiteke emakumeek seme-alabak dituztenean; adibidez, sexu esplotazioko helburuekin pertsonak salerostea dago indarkeria-modu horien artean.

2. *Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren neskatilak eta neska nerabeak:* Neskatilen eta neska nerabeen aurkako indarkeria aipatzen dugu bikotekideekin edo bikotekide ohiekin dituzten harremanen esparruan (indarkeria fisikoa, emozionala edo sexuala izan daiteke), eta baita neskatila izate hutsagatik jasandako edozein indarkeria motaren esparruan. Hor sartzen dira familiatik kanpo egiten diren gehiegikeria eta eraso sexualak, praktika tradizional kaltegarriak (adibidez, emakumeen mutilazio genitala eta behartutako ezkontzak), pertsonen salerosketa esplotazio sexualerako helburuekin eta abar.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria egiturazko indarkeria dela esaten da; hau da, **egitura sozial patriarkal** baten baitan antolatutakoa eta ezarritakoa da eta ez da mugatzen kultura, eskualde edo herrialde jakin batera, ez eta gizarte bateko emakume talde espezifiko batera ere. “Emakume batzuen eta besteen egoera oso desberdina den arren (emakume afrikarrak, asiarrak, latinoamerikarra, europarrak, neskatilak, gazteak, helduak, adinekoak, soldatapekoak, langabeak...), gizonekiko mendekotasun-egoeran daude denak (eta mendekotasun horrek askotariko formak hartzen ditu)”[147].

Historian, sexuaren arabera bereizita esleitu izan dira rolak eta balioak sozialki, eta horrek iraun egin du, familiaren, eskolaren, legeen eta ohituren bidez sozializatu delako eta naturala izatearekin ere nahasi izan da.

---

[144] Badira sexua-generoa sistemak zeharkatzen dituen beste indarkeria mota batzuk ere, baina kasu honetan, helburu nagusia emakumeen gaineko kontrolari eta nagusitasunari eustea duten gizonek erabiltzen dituzten indarkeriei buruz ari gara.

[145] Istanbulgo Hitzarmena esaten zaionak “generoa” honela definitzen du: “gizarte jakin batek emakumeei edo gizonei esleitzen dizkien paperak, jokabideak, jarduerak eta esleitzeak, sozialki eratuak”.

[146] EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseiluak emakumeen aurkako eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka egiteari buruz eginiko hitzarmena.* Council of Europe Treaty Series. Istanbul: Council of Europe Treaty Series, 2011, 210. zk..

[147] EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017. Gasteiz.* Emakunde, 2019.

Esleipen horien normalizazioa hain handia izan denez, duela urte gutxira arte ez da zalantzan jarri, ez sozialki, ez publikoki. Ideiek eta sinesmenek iraun egin dezakete, nahiz eta gizarte demokratikoetan bizi garen eta gure gizarteetan, politikoki, emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasuna ezarria egon. Normalizatu egiten duten eredu kultural horiek zaildu egiten du emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria hautematea eta salatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria mota asko daude (fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa eta soziala...) eta emakumeak askotariko testuinguruetan izaten dira indarkeriaren xede; hala nola bikotean, bikotekide ohiarekin, familian, lanean, Estatuan, gatazka armatuetan... Indarkeria moten intzidentzia indarkeria gauzatzen den esparruaren araberakoa izaten da hein handi batean. Hala, indarkeria psikologikoak presentzia handiagoa izaten du lanean eta bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin, baina haren intzidentzia nabarmen jaisten da arlo sozialean edo publikoan; arlo horietan ohikoagoak dira ezezagunek eginiko sexu-erasoak.

Bestalde, gure gizartean, adibidez, emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeriak gero eta legitimazio txikiagoa du sozialki eta garrantzitsua da hain esplizituak ez diren indarkeriazko adierazpenei arreta jartzea, adierazpen sotilei eta sozialki hain ikusgarriak ez direnei, "**mikromatxismo**"[148] esaten zaien horiei, eta hor sartzen dira "intentsitate baxukotzat" hartzen diren kontrol- eta nagusitasun-jokabide naturalizatuak, legitimatuak eta ezkutukoak, baina horiek emakumeen aurka emakume izate hutsagatik egiten diren gehiegikeriak dira. Sotilak eta asmo gaiztokoak diren eta gizonek behin eta berriro izaten dituzten jokabide horien alderdirik arriskutsuena zera da, egunerokoan emakumeekin berdintasuna lortzeko oztopo eta erresistentzia diren arren, oso zaila dela horiek sozialki ikusgarri bihurtzea eta legitimazioa kentzea.

Erakundeetara laguntza eske jo ez duten emakume eta neskatilen datuak ez dira erregistroetan jasota gelditzen, eta ezagutzen ditugun zifrak icebergaren tontorra besterik ez direla uste den arren (azterlan batzuen arabera, Espainian bizi eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik indarkeria jasan duten hamar emakumetatik hiruk bakarrik jo dute poliziarengana edo epaitegira egoera hori salatzera) **[149]**, OMEren iritziz, emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria **proportzio epidemikoak** dituen osasun-arazo global bat da.

Zehatzago esanda, emakumeek egunerokoan edo etxean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik jasaten duten indarkeriak zenbait ezaugarri ditu[150], eta horien artean, honako hauek aipagarriak dira: ikusezintasun soziala (etxeko eremu pribatuan egiten baita), kontrolatzeko eta zigortzeko mekanismo gisa erabiltzen da, biktimei erru-sentimendua sortzen die eta emakumea beldurragatik eta jasaten duen indarkeriarekiko sumisioagatik harrapatzen duen **pixkanakako indarkeriaren espirala**. Kide sentimentala dutenaren edo izandakoaren aldetik indarkeria jasaten duten emakumeetatik askok urte askoan jasaten dute egoera hori (azterlan batzuek 10 urte baino gehiago aipatzen dituzte[151]).

Askotan, biktima diren emakume horien **seme-alabak erabili egiten dituzte emakumea kontrolatze horretan** eta horiek ere, etxean indarkeriaren eraginpean egoteagatik, ondorio larriak jasaten dituzte.

---

[148] BONINO, L. Los micromachismos. *La Cibeles*, 2004, 2. zk., 1-4 or..

[149] OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: Avance de resultados.* 2015. Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeez ari da.

[150] ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa Fundazioa, 2002. Azterketa sozialen bilduma, 10. zk..

[151] Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012.

Nazioarteko gomendioei jarraituz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei **biktima-izaera aitortu** zitzaien Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatuta. Aldaketa Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren arabera egin zen.

Genero-indarkerian eragina jasandako seme-alabei buruzko **datuen erregistroari** dagokionez, aipagarria da gaur egungo sistemak ez duela, oraingoz, zifra garbi bat eskuratzeko aukerarik ematen. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak zenbait ekintza jarri ditu abian hutsune hori konpontzeko eta 2019tik aurrera datu horiek kontabilizatuko direla dago aurreikusita.

Ikerketa ugarik erakusten dute indarkeria mota horren eraginpean egoteak nabarmen eragiten diela neska-mutikoei eta nerabeei, osasun-arazoak, eskolako errendimendu eskasa eta jokabidearen asaldurak izateko askoz arrisku handiagoa izaten baitute. Atzerapenak izan ditzakete garapenean, ikasteko eta arretari eusteko zailtasunak, antsietatearekin edo depresioarekin lotutako sintomak, eta aurretiazko estresa eta antsietatea eraso gehiago jasateko aukera ikusten badute. Segurtasun-gabezia eta autoestimu baxua izaten dituzte, barneratu egiten dute ez dutela batere balio eta amak jasaten duen indarkeria haien erruz gertatzen dela sentitzen dute.

Haien ondoez psikologikoa ez da indarkeria ikusi izanaren ondorio bakarrik, baizik baita indarkeriazko jokabide-eredua duen gurasotasun-estiloa duen erasotzaile batekin bizitzearen ondorio ere. Jokabideari lotutako ondorioen artean daude jokabide-arazoak, uzkurtasuna, hiperaktibitatea, ikaskideekin indarkeriazko jokabidea izatea (haiek izutzeko eta iraintzeko joera izaten dute) eta substantzia toxikoen gehiegikeriazko erabilera.

Emakumeen aurkako indarkeriak presentzia duen etxe batean bizituta, emakumeen seme-alabak etengabe egoten dira **harreman-eredu** jakin baten eraginpean eta gizon eta emakume izateak "zer izan behar duen" ulertzen den moduaren eraginpean. Aditu batzuek "bahiketa emozionala"[152] aipatzen dute; izan ere, adingabe horiek bizi diren munduan, indarkeria baliozkoa da gatazkak konpontzeko, gizonak emakumeak baino garrantzitsuagoak dira eta emakumeek esaneko izan behar dute[153].

Bestalde, gazteen jokabideen inguruko azterlanek[154] erakusten dute **nesken eta mutilen arteko harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dutela,** eta sexismoak eta genero-indarkeriak, oraindik ere, nerabeen bizitzetan eragiten jarraitzen dutela. Azterlanen arabera, bereizketa zurruna egiten dute genero-rolen artean eta berdintasunezkoak ez diren harreman-eskemak dituzte nerabeek. Gainera, indarkeria sotil eta naturalizatuaren adierazpen batzuk ez dituzte indarkeriatzat hartzen: normala iruditzen zaie maiteminduta egonez gero zeloak sentitzea, ados daude bikotekidearen telefonoa kontrolatzearekin, baldin eta desleialtasun-susmoa badago...

Oro har, ideia sexistek eta genero-estereotipozko harreman-pertzepzioak iraun egiten dute gazteen artean. Azterlan batzuen arabera[155], indar fisikoa eta gehiegikeria, orain ere, gehiago esleitzen zaizkiela mutilei eta pertzepzio horrek gora egiten du, pixkanaka, adinarekin. Era berean, samurtasuna, maitasuna, sentikortasuna eta fintasuna, orain ere, gehiago esleitzen zaie emakumeei gizonei baino.

[152] LIZANA, R. *A mí también me duele*. Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja. Bartzelona: Gedisa argitaletxea, 2012

[153] EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017. Gasteiz.* Emakunde, 2019.

[154] CANTERA, ESTÉBANEZ, VÁZQUEZ .*Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo.* Bilbo: Emakunde, Eusko Jaurlaritza, 2009.

[155] HEZKUNTZA SAILA. IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA. Genero-berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBHn Euskadin. Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea, ISEI-IVEI. Bilbo: 2017.

Emakume gazte batzuek, baita batzuetan zaharrenek ere, zailtasunak dituzte indarkeriazko egoera batean daudela jabetzeko (mendekotasun afektiboa, egoera ukatzea, haien burua errudun jotzeko joera etab.). Zailtasun horiek, hala ere, emakume gazteen artean, ustez berdinzaleagoa den eta emakume gazteentzako askatasun eta askatasun gehiago eskaintzen dituen gizartean gertatzen dira. Esan liteke, gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoela dioen diskurtso orokortu horrek nahasmena sortzen duela nesken artean, ez baitituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen eta beraz, ez dute horien aurrean haien burua babesten.

Baliteke indarkeriaz jokatzeko komunikazio- eta informazio-teknologiak erabiltzea dela-eta (Interneta, Smartphonea, sare sozialak...), neskatilen eta neska nerabeen aurkako indarkeria-egoerak larriagotzen aritzea; izan ere, besteak beste, erraztu egiten du jokabide matxistak bideratzea eta neskatilak eta neska nerabeak kontrolatzeko aukera eta baliabide berriak eskaintzen dituzte. Horrez gian, **zailagoa da kasuak identifikatzea,** jokabide horiek gehiegikeriazko kontrolaren parte direla jabetzeko kontzientzia maila jaitsi ahala[156].

Ziberjazarpena biktimaren mundua behin eta berriro, modu disruptiboan eta onespenik gabe inbaditzean datza, horretarako Internetek eskaintzen dituen baliabideak erabilita. Askotan, jarduera horiek harreman-lotura duten edo aurrez izan duten pertsonen artean gertatzen dira, eta afektuaren esparruarekin eta bikote-harremanekin zuzenean lotutako arrazoiak izaten dira oinarri. Offline jazarpenean eta genero-indarkerian gertatzen den bezalaxe, ziberjazarpenean ere, jazarlearen helburua biktimaren bizitza pribatuan modu zakarrean sartu eta babesgabetasuna eta beldurra sorraraztea izaten da[157].

Indarkeria horrek ondorio psikologiko nabariak ekartzen dizkie beti hura jasaten duten emakume, neskatila eta neska nerabe guztiei. Horrez gain, emakume asko fisikoki zauritzen dituzte eta batzuetan, hil ere egiten dituzte. 2002tik 2018ra, guztira, 46 emakume hil dituzte gure autonomia-erkidegoan[158].

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak 2015ean argitaratutako Makroinkestak[159] erakusten du **Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen % 10,3k indarkeria fisikoa jasan dutela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik haien bizitzako uneren batean,** eta % 1,8k aitortzen dute mota horretako indarkeriaren biktima izan direla azken urtean. Horrez gain, **emakumeen % 13k bikotekide edo bikotekide ohiarekiko beldurra sentitu dute hain bizitzako uneren batean,** eta % 2,9k une honetako bikotekidearekiko sentitu du beldur hori noizbait.

[156] EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017.* Gasteiz: Emakunde, 2019.
[157] TORRES ALBERO, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.
[158] EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017.* Gasteiz: Emakunde, 2019.
[159] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2015.

Poliziaren erregistroetako datuek errealitatearen zati txiki bat bakarrik erakusten dute. Horren adierazgarri, 2018an, Ertzaintzak[160] **emakumeen aurkako indarkeriazko 5.315 aldi** erregistratu zituen **EAEn, aurreko urtean baino % 6,3 gehiago,** eta biktima diren emakumeen bolumena (4.244) ere antzeko proportzioan igo zen. **Kasuen % 75,3etan, erasotzaileak eta biktimak lotura sentimentala zuten edo izana zuten (bikotea edo bikote ohia ziren),** % 18 familia barruko indarkeria-ekintzak izan ziren eta gainerakoak (% 7) sexu-askatasunaren aurkako delituak izan ziren, familia-girotik kanpokoak (eraso sexualak, jazarpena, etab.).

---

Ohikoa izaten da emakume horien seme-alabak amek jasaten dituzten indarkeria-egoeren lekuko izatea. Zehazki, indarkeria fisikoa edo sexuala, edo bikotekide edo bikotekide ohiekiko beldurra jasaten edo jasan duten **emakume seme-alabadunetatik** indarkeriazko pasarteak gertatu zirenean **seme-alabak zituztenetatik % 63,6k** diote haien seme-alabek **ikusi edo entzun egin zutela indarkeriazko egoeraren bat** (eta kasu gehienetan, seme-alabak adingabeak zirenean izan ziren gertaerak). Gainera, seme-alaba adingabeek ez dituzte indarkeria-egoerak ikusi edo entzun bakarrik egiten, baizik askotan (kasuen % 64,2an), zuzenean jasaten dituzte erasoak[161]**.**

2018an, **emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta psikologikoa emateko hiru Foru Aldundietan zerbitzuetan,** 3.051 emakumeri eskaini zioten arreta. Horietatik 1.558 kasu berriak izan ziren urte hartan eta **28 kasu neskatila adingabeenak** izan ziren. **Arreta lehen aldiz eskaini zieten emakumeen % 58,9k seme-alaba adingabeak zituzten;** hau da, guztira 802 neska-mutil[162].

---

Adin guztietako emakumeei eragiten die indarkeriak; baita gazteenei ere. 2018an, mota horretako indarkeria jasan duten emakumeen ia % 40k (Ertzaintzak erregistratu ahal izan dituenetatik) 30 urte edo gutxiago zituzten eta **biktimen % 11,6 18 urtetik beherakoak ziren. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izandakoen % 2,2k 18 urte baino gutxiago zituzten eta familia-girotik kanpoko indarkeria sexualaren biktimetatik % 40,9 adingabeak ziren.**

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, ADINAREN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK. 2018

| % | EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI LOTUTAKO BIKTIMIZAZIOAK GUZTIRA | Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriari lotutako biktimizazioak | Familia-girotik kanpoko indarkeria sexualaren biktimizazioak |
|---|---|---|---|
| 14 urte baino gutxiago | 6,1 | 2,2 | 40,9 |
| 14-17 urte | 5,5 | | |
| 18-30 urte | 28,2 | 31,5 | 34,56 |
| 31-50 urte | 47,4 | 58 | 20,32 |
| 50 urte baino gehiago | 12,8 | 8,4 | 4,22 |

Iturria: EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak.* Gasteiz: Emakunde, 2019.

[160] Iturria: EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017*. Gasteiz: Emakunde, 2019.

[161] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2015.

[162] Iturria: EMAKUNDE. *EAEn indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretaren irismenari buruzko datuak.* Gasteiz: Emakunde, 2018.

Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren biktima gisa 2018an erregistratutako **14-17 urteko nerabe guztien artetik % 27,8ri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin zieten eraso, % 39,7ri familiako beste kide batek eta % 32,5i familiatik kanpoko norbaitek**[163].

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, ADINAREN ARABERA. EAE. EHUNEKOAK. 2018

| | Bikotekidea/bikotekide ohia | Familia barnekoa | Sexu-indarkeria | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **14 urte baino gutxiago** | 0,0 | 69,3 | 30,7 | 100 |
| **14-17 urte** | 27,8 | 39,7 | 32,5 | 100 |
| **18-20 urte** | 63,5 | 15,7 | 20,8 | 100 |
| **21-30 urte** | 83,4 | 8,6 | 8,0 | 100 |
| **31-40 urte** | 90,8 | 5,8 | 3,4 | 100 |
| **41-50 urte** | 81,1 | 14,6 | 4,4 | 100 |
| **51-64 urte** | 53,9 | 42,7 | 3,4 | 100 |
| **65 urte edo gehiago** | 27,2 | 71,0 | 1,9 | 100 |

Iturria: EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak.* Gasteiz: Emakunde, 2019.

2015eko Estatuko Makroinkestak[164] ohartarazten du **inoiz bikotekidea izan duten 16 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetiko kontroleko indarkeria psikologikoaren intzidentzia edozein adinetako emakumeen batez bestekoa (% 9,6) baino askoz ere handiagoa dela (% 25).**

2014an, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren azterlan batek adierazi zuen **mugikorraren bidez gehiegikeriazko kontrola jasan dutela dioten neska nerabeen ehunekoa % 25,1ekoa zela,** hamar nesketatik sei inguruk irain matxistak jasotzen dituztela mugikorrean eta haietatik % 10ek adierazi dutela, mezu horiekin beldurra sentitu izan dutela. [165]

Garrantzitsua da gogora ekartzea, baita ere, gehiegikeria eta eraso sexualen lehentasun-tasak oso altuak direla emakume gazteenen artean. Makroinkestaren arabera, Espainiako emakumeen % 7,2k indarkeria sexuala jasan dute une horretako edo lehengo bikotekidearekin lotutako eremutik kanpo, haien bizitzako uneren batean, eta horietatik % 3,5ek 15 urte bete baino lehen[166]. Alderdi hori ez da gehiago sakondu, sexu-indarkeriari eskainitako atalean sakon garatu delako.

Bestalde, zenbait azterlanen arabera, desgaitasunak edo osasun mentalari lotutako arazoak dituzten emakumeak zaurgarritasun handiagoko egoeran eta indarkeria jasateko arrisku handiagoan daude. Ez da ohikoa aldagai honi lotutako datuak jasotzea, baina azterlan batzuek ohartarazten dute **tratu txarrak edo bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko beldurra jasaten dituzten desgaitasunik gabeko emakumeak % 15,1 direla, baina ehuneko hori % 23,3ra igotzen dela desgaitasunaren aitortza formala baduten emakumeen kasuan**[167]. Kasu horietan, zaurgarritasun handiena honako faktore hauek sortzen dute: tratu txarren berri emateko zailtasunak, informazioa eta aholkuak eskuratzeko lekuetara irisgarritasun txikiagoa izateak, isolamendu sozialak, mendekotasun ekonomikoak.

[163] Iturria: EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017.* Gasteiz: Emakunde, 2019.

[164] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: Avance de resultados.* 2015.

[165] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.

[166] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: Avance de resultados.* 2015.

[167] Idem

Aipatu beharra dago desgaitasunak dituzten emakume eta neskatilei gehiago eragiten dien beste indarkeria mota bat; hau da, behartutako antzutzea[168]. Gai hori lehentasunezkoa izan da Desgaitasunaren Europako Foroaren eta horren baitako Emakumeen Batzordearen lanean. Kontuan izan behar da behartutako antzutzea desgaitasunak dituzten emakumeen eta neskatilen giza eskubideak ukatzearen arloko eredu zabalago bati dagokiola. Ukazio horretan sartzen da, baita ere, ugalketari eta sexualitateari lotutako osasun-arretako sistemetatik sistematikoki baztertzea, borondatezko antisorgailuak hautatzeko mugak, hilekoa ezabatzea ardatz bihurtzea, haurdunaldian eta erditzean arreta eskasa, nahi gabeko abortuak, eta ama izateko eskubidearen ukazioa.

---

Azken hamarkadan, gure beste herrialde batzuetatik migratutako pertsonak etorri zaizkigu gure autonomia-erkidegora eta horien artean, baita Saharaz azpiko Afrikatik ere. Leku horietan identitateari lotutako oso erro sendoak ditu Emakumeen Genitalen Mutilazioak [169] (aurrerantzean, EGM). 2016an argitaratutako datuen arabera, **jatorri horietako 4.890 emakume inguru bizi dira EAEn eta horietatik 1.378 dira 15 urtetik beherako neskatilak. Azken urteetan hazkunde nabarmena izan du arriskuko populazio-talde horrek**[170].

Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi dira EGM praktikatzen duten herrialdeetako herritarren % 45; Arabako Lurralde Historikoan % 33; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan, berriz, % 22. EGMk osasunerako eta gorputzaren osotasunerako eskubidea urratzen du eta oztopoa da nork bere sexualitatea kontrolatzeko eta sexualitateari eta ugaltzeari lotutako eskubideak modu librean gauzatzeko.

---

### Intereseko beste ohar batzuk:

Horren guztiaren osagarri, aipagarria da, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabek jasan ditzaketen indarkeria moten artean daudela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik egindako indarkeriazko biktimizazioei lotutakoak, Ertzaintzak **familia-harremanen aurkako delitu edo zaintza-urraketari lotutako falta** gisa erregistratzen dituenak. 2018an familia-harremanen aurkako 75 delitu erregistratu ziren (horien artean dago zaintza-betebeharra urratzea, adingabea etxea uztera edo zaintza-araubidea haustera bultzatzea, adingabea ostea, familia uztea eta prestazio ekonomikoak ez ordaintzea).

Badirudi, gure autonomia-erkidegoan kasuen kopurua ez dela oso handia, baina garrantzitsua da emakumeen eta neskatilen aurkako beste indarkeria mota espezifiko batzuei ere erreferentzia egitea.

Hori horrela, aipatu beharrekoa da **umeen ezkontza** behartua, giza eskubideak urratzen dituelako eta neska-mutilak tartean izaten direlako; gehienetan, neskatilen aurkako sexu-gehiegikeriekin eta esplotazioarekin lotzen da. Indarkeria mota honek askotariko ondorio negatiboak dakartza; adibidez, familia eta lagunengandik urrutiratzea, eskola uztea, adin bereko pertsonekin harremanik ez izatea eta komunitatetik isolatzea.

---

[168] Iturria: FUNDACIÓN CERMI MUJERES ETA EUROPAKO DESGAITASUN FOROA (EDF). Poner fin a la esterilización forzosa de las mujeres y niñas con discapacidad, 2017.

[169] Osasunaren Mundu Erakundeak (OME/WHO) honela definitzen du: “nahita eta medikoak ez diren arrazoiengatik emakumeen organo genitalak kaltetzen edo lesionatzen dituzten prozedura guztiak”.

[170] Iturria: KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2016*. Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2017.

Batzuetan, errefuxiatuekin lan egiten duten erakundeek ikusten dituzte bidaian edo desplazatuen eremuetan ezkontzera behartu dituzten neskatilen egoerak eta kasu horiek badute nolabaiteko lotura gizakien salerosketarekin[171].

Ez dugu Espainian edo EAEn praktika horri lotutako daturik, baina badakigu, komunitate batzuek (adibidez, ijito etniako herritarrek) badutela praktika horietarako joera. Gutxi gorabehera, eta ondorengo datuak ez diren arren nahitaez behartutako ezkontzei lotutakoak, aipagarria da, 2018an, 18 urtetik beherako mutiko bat eta bi neskatila bakarrik ezkondu zirela EAEn.

Bestalde, **gizakien salerosketa** ere indarkeria mota bat da eta hor sartzen da *"pertsonak errekrutatzea, garraiatzea, besterentzea, ostatatzea edo hartzea, horretarako, mehatxuak edo indarra erabilita, edota hertsatzeko, abduzitzeko, iruzur egiteko, desilusionatzeko beste modu batzuk edo boterea eta zaurgarritasun-egoera gehiegikeriaz erabilita edo ordainketak edo onurak entregatu edo jasota, pertsona baten kontrola duen pertsonaren onespena lortzeko, helburua esplotazioa izanda"*[172]. Esplotazio horren xedea prostituzioa edo sexu-esplotazioari, lan edo zerbitzu behartuei, esklabotzari edo esklabotzaren antzeko praktikei, mirabetzari edo organoen erauzketari lotutako beste forma batzuk izan daitezke.

Unicefek egin berri duen txosten baten arabera[173], Espainian, salerosketaren biktima diren adingabeetatik gehienak **sexu esplotaziorako** erabiltzen dituzte (bai prostituziorako, bai umeen pornografiarako) eta biktima horien profil nagusia hauxe da: Europa ekialdeko nerabea, 14-17 urtekoa, indarkeriazko eta babesgabetasunezko ingurune batetik datorrena. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren neskatilak detektatzea oso zaila da, zaila izaten baita neskatila horien egoera salatzea, sareekin dituzten loturengatik eta tratularien taldeek oso kontrolatuta edukitzen dituztelako.

Gizakien salerosketak berezko duen klandestinitatea dela-eta, ez dago ia daturik eta daudenak estatutako segurtasun-indarrei eginiko salaketei lotutakoak dira, eta zenbaki horiek errealitatekoak baino askoz txikiagoak dira.

Azken urteetan, Saharaz azpiko Afrikako emakumeen zenbait kasu identifikatzen hasi gara. Ez dute dokumentaziorik eta salerosketaren biktima izatearen zantzuak dituzte. Haurdun egoten dira edo oso adingabe txikiak izaten dituzte haien kargura. Sareek emakume horien seme-alabak erabiltzen dituzte emakumeak herrialdean errazago sar daitezen eta kanpora ez ditzaten, emakumeen kontrolari eusteko eta emakumeak etengabe hertsatzeko (seme-alabak adopzioan emango dituztela mehatxatuta, tratu txarrak, etab.).

Hala ere, zaila da salerosketaren biktima diren seme-alaben kopurua ezagutzea; izan ere, haien ama formalki salerosketaren biktima gisa identifikatzen denean bakarrik identifikatzen eta babesten dira seme-alabak biktima gisa.

---

[171] "Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España". Migrazioei buruzko ikasketen unibertsitate-erakundea (IUEM), Comillas Pontifize Unibertsitatea. Intzidentzia politiko eta azterlanen taldea, UNICEF Espainiako Batzordea. Ed Huygens. 2017.

[172] A/RES/55/25 Ebazpena, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiarena. Ebazpenaren bidez onartzen da pertsonen eta batez ere emakumeen eta umeen salerosketa prebenitzeko, erreprimitzeko eta zigortzeko Protokoloa eta Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurka Nazio Batuen Hitzarmenaren (2000ko azaroaren 15ekoa) osagarri dena. Espainiako Gobernuaren berrespen-tresna, Estatu Aldizkari Ofizialean 2003ko abenduaren 11n argitaratua.

[173] MIGRAZIOEI BURUZKO IKASKETEN UNIBERTSITATE-ERAKUNDEA (IUEM). COMILLAS PONTIFIZE UNIBERTSITATEA. INTZIDENTZIA POLITIKO ETA AZTERLANEN TALDEA, UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España.* Bartzelona: Huygens Editorial, 2017.

Ohikoena zera izaten da, emakumea hautematen denean, ez badu emakume horrek bere burua salerosketaren biktima gisa identifikatzen, babesteko prozesua eten egiten da eta prostituzio-egoeran dauden emakumeen zifretara igarotzen da emakume horri dagokion zifra eta beraz, neska-mutil horiek, gehienetan, poliziaren esku-hartzeak egitean bakarrik hautematen dira.

# Erakunde-indarkeriari lotutako datuak

## Zer da erakunde-indarkeria?

Erakunde-indarkeria umeen aurkako indarkeria mota bat da eta hor sartzen dira administrazio publikoak umeen eskubideak urratzen ditueneko egoerak, bai administrazioko langileek edo operadore juridikoek umeen eskubideak ezagutzen ez dituztelako, bai baliabide espezializatu eta egokirik ez egoteagatik umeek biktima edo delituen lekuko gisa, lege-urratzaile gisa, ezkontideen krisi-kasuetan, babesgabetasun-egoeretan edo atzerritartasun-legeei lotuta esku hartzen duten egoera judizialei erantzuteko.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Umeek administrazioaren edozein organotara jotzeak haien eskubideak errespetatzearen eta gauzatzearen berme izan behar luke beti. Hala ere, administrazioarekin eta administrazioak babeserako eta asistentzia judizialerako dituen sistemekin dituzten harreman horietan, neska-mutilek, indarkeriazko eta babesgabetasunezko egoerak jasaten dituzte.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean neska-mutilei eta nerabeei aitortutako eskubideek erronka hau planteatzen dute: nola uztartu eskubide horien titular izatea eta umeek eskubide horiek gauzatzeko duten heldutasun fisiko eta mentalaren faltari lotutako mugak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak berak, zailtasun horri erantzuteko, bi gidalerro ezartzen ditu, neska-mutilaren bizitzari buruzko edozein erabaki hartzean, edozein arlotan, baina bereziki, arlo juridikoan aintzat hartu beharrekoak: pertsona adingabearen interes gorena gailentzea eta neska-mutilak entzuna izateko duen eskubidea.

Lehen aipatu dugun moduan, Umeen Eskubideen Batzordeak 14. Behaketa Orokorrean zehazten du **“interes gorenaren ebaluazioa”** zera dela, neska edo mutil batentzat edo batzuentzat egoera jakin batean erabaki bat hartzeko beharrezko diren elementu guztiak baloratzea eta neurtzea. Erabakiak hartzea dagokion arduradunari eta haren lantaldeari (ahal dela, diziplina anitzeko talde bat) dagokio eta **umeak parte hartu** behar du.

Era berean, 12. Behaketa Orokorrean zehazten du zer ezaugarri izan behar dituzten prozesuek, umeak, haiei eragiten dieten erabaki bat hartzean, entzunak eta aintzat hartuak izan daitezen. Prozesu horiek gardenak eta informatzaileak izan behar dute, umearentzako borondatezkoak, errespetuzkoak, egokiak, umeei egokitutakoak, inklusiboak, oinarrian inplikatutako helduen prestakuntza dutenak, seguruak eta umeari ekar diezaiekeen arriskua aintzat hartzen dutenak eta arduratsuak, umeari kontu emanez.

Umeei eragiten dieten neurriren bat hartzeko umeen interes gorena aintzat hartzen ez denean edo umeari entzun ere egiten ez zaionean eta umea aintzat hartzen ez denean, orduan sortzen ditu administrazioak indarkeriazko egoera eta horrek adingabea **berriro biktimizatu** eta babesgabetu egiten du.

Zaurgarritasun handia dutela-eta kezka berezia sorrarazten duten hiru kolektibo daude: bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria), sexu-gehiegikerien biktima diren neska-mutilak eta legearekin gatazkan dauden adingabeak.

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak arduradun heldu baten babesik ez duten umeak dira eta beraz, agintariek haien babesa bermatu behar dute, berehalako arreta emanez eta bermatu egin behar dute identifikatuta daudela eta haien interes gorena lehenetsiko duten irtenbide iraunkorrak aurkitzen direla, atzerritarrei lotutako araudian araututako atzerritar izaera aintzat hartuta.

Adingabe horiek identifikatzeko eta adina zehazteko prozesuaren eskumena Ministerio Fiskalak dute eta prozesu horretan identifikatu dira zaurgarritasun-egoera gehien haien eskubideak bermatzeko eta hor daude kezkatzeko arrazoi handienak:

- Adina zehazteko proba ez da beti eztabaidaezina izaten.
- Mesfidantza sortzen da adingabeek aurkeztutako dokumentazioari lotuta.
- Prozesuak gehiegi luzatzen dira eta ez zaio adingabearen interes gorenari arretarik eskaintzen (hala, ez dira betetzen Europako Kontseiluaren Gidalerroetako batzuk, umeei egokitutako Justiziari buruzkoak, hain zuzen).

Harrera- eta integrazio-prozesua dira kezkatzeko beste arrazoi bat. Harrera-egoitza zentroetako okupazio maila altuak dira umeen eta nerabeen eskubideak babesteko lan egiten duten erakunde eta organismo guztien kezka handienetako bat. Zehazki, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak[174], 2018ko urteko txostenean, kezka adierazi du egoera horregatik, baina aipatu du, baita ere, oso altua den okupazio maila hori ez dela arrazoia beharrezkoa den kasu guztietan egoitza-plaza bat, berehalako arreta alegia, ez esleitzeko. Nolanahi ere, gehiegizko okupazioa zailtasun gehigarria da ume bakoitzari baliabide egokiena esleitzeko garaian; izan ere, plaza libre gehiago behar dira umearen inguruabar eta beharren arabera egokiena den programa aintzat hartuta aukera onena zein den erabakitzeko, eta arriskuan jar dezake adingabeen ongizatea.

Gainera, kezkagarria da, adingabeei eskaintzen zaien arretari lotuta, zer erantzun publiko ahula eta eskasa ematen zaien emantzipazio-prozesuei eta adin nagusia izatera iritsi eta egoitza-zerbitzuetatik ateratakoan babesa emateari. Egoitza-baimenak eskuratzeko atzerapena –askotan ez baita baimena adin-nagusitasunera iritsi baino lehen iristen– eta pertsona horien beharrei erantzungo dien hezkuntzako eta prestakuntzako ibilbideen falta direla-eta, bakarrik dauden adingabe asko bazterkeria-arrisku larrian egoten dira.

**Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei dagokienez,** aipatu beharrekoa da biktima-izaera aitortu zitzaiela haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko 2015eko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa aldatuta. Horrek esan nahi du, epaileek beti eman behar dutela iritzia horiei eragiten dieten kautelazko neurriei buruz eta legeak gaur egun seme-alaba horien amei ematen dien babes berdinaren subjektu direla.
Hori horrela, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako baliabideak eta programak egokitu egin behar dira, adingabeen behar espezifikoetara doitzeko.

[174] Iturria: ARARTEKOA. *Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena.* Gasteiz: Arartekoa, 2018.

Bestalde, **sexu-gehiegikerien biktima diren neska-mutilen** kasuan, gero eta kezka handiagoa dago biktimak diren haurrentzat mingarriak eta berriz biktimizagarriak izan ohi diren prozesu judizialen atzerapenaren aurrean. Gainera, prozesu horiek oso kasu gutxitan iristen dira epai irmora, baita ahozko epaiketara ere.

Ez dugu gai horri buruzko azterlan askorik, baina Save The Children erakundeak eginiko lanaren ondorioek [175] gako nagusi batzuk jartzen dituzte mahai gainean. Prozesu judizial bermatzaileetan, ahal bezain laster egin behar da deklarazioa, goi mailako kualifikazioa duten langileek egin behar dute, metodologia estandarizatua erabilita eta adingabeari ez zaio behin eta berriro errepikarazi behar gertatu zaion horren kontaketa. Hala ere, **umeek gehiegikeriak salatu ondoren, 4 aldiz ere errepikatu behar izaten dute kontaketa, batez beste.**

Biktimaren birbiktimizazioa saihesteko eta denbora igarotzeak haren kontaketa kutsa ez dezan, deklarazioa grabatu egin behar da, kasu guztietan eta ahal bezain laster, aurrez eratutako froga gisa. Teknika horrek abantaila ugari izan arren eta legez onartuta eta nazioartean gomendatua den arren, **aztertutako epaien % 13,8tan bakarrik eratu zen froga aurrez.**

**Prozesu judizialak dirauen artean, neska-mutilek erasotzailearen aurrean deklaratzen dute eta kasuen % 86tan, adingabeak saio plenario batean eman du lekukotza.** Horrela, ez dira betetzen prozeduraren antolaketak eta adingabeak parte hartuko duen inguruneak atsegina izan behar duela eta haren ulermen mailara egokitutako hizkera erabili behar dela dioten gomendioak.

**Prozesu judizialak luzatu egiten dira denboran: prozesuaren iraupena, hasten denetik amaitzen den arte, batez beste, hiru urtekoa izaten da.** Save The Children erakundeak 2017ko azterlan batean **aztertutako kasuen % 33an, atzerapen bidegabeak (epaia emateko atzerapena) kondena arintzea dakar; hau da, epaimahaiak onartzen du saihets zitezkeen atzerapenak izan direla** eta arindu egiten dio kondena akusatuari beharrik gabeko itxaronaldi horrek sortutako sufrimenduagatik. Atzerapen horiek eragin negatiboa ekartzen diete biktima diren umeei oneratze-prozesuan eta gainera, lehen aipatutako gomendioak ez betetzea dakarte.




[175] Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

Azkenik, **adingabe arau-hausleei (legearekin gatazkan)** dagokienez, aditu batzuek polizia-arloan hobetu beharreko zenbait alderdi aipatu dituzte. Arartekoak, zehazki, urteko txostenean adierazten du “Ertzaintzaren atxikitze-zentroetan ez dagoela adingabeak zaintzeko instalazio espezifikorik eta ez dela erabiltzen adingabeentzako atxilotze-liburu espezifikoetan jasotako praktikarik, 2000ko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendu bidez eskatzen den moduan”[176].

Era berean, “bi zentroetan, atxilotutako adingabeak zainduta edukiko dituzten lekura iristeko sarbidea ez dago bereizita gainerako polizia-instalazioetatik, eta ez dira gune horretara polizia-ibilgailutik zuzenean sartzen. Hori gomendatzen da atxilotutako pertsonak jendaurrean behar baino gehiago egon ez daitezen eta ohore, intimitate eta irudiari lotuta dituzten eskubideak berma daitezen eta berma dadin atxiloketa haien eta izen onari ahalik eta kalterik txikiena egiteko moduan egiten dela (Prozedura Kriminalaren Legearen 520.1 artikulua eta 2000ko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 17. artikulua).

Dirudienez, udaltzainek atxilotzen dituzten pertsona helduak ez dituzte ziegetan sartzen eta adingabeak ez dituzte kalabozoen eremura eramaten, baina eginiko kalkuluen arabera, zentro horretan ziegak dauden artean eta, beraz, duten funtziorako erabiltzeko aukera dagoen artean, funtzio hori behar bezala betetzeko moduan egon behar lukete. Udaltzaingoak ez du adingabeak atxilotzeari buruzko liburu espezifikorik; ez eta adingabeen identifikaziorako erregistro espezifikorik ere polizia-erregistroetarako 2004ko uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak ezartzen duen konfidentzialtasun-araubidea bermatzeko moduan”.

### Intereseko beste ohar batzuk:

Europako Kontseiluak umeei egokitutako justiziari buruz emandako Gidalerroak –Europako Ministroen Kontseiluak 2010eko azaroaren 17an onetsitakoak– har daitezke ume batek justizia-administrazioko organo batekin ezartzen duen edozein harremanetan edo **antzeko administrazio baten aurreko prozesuetan** aplikagarri diren estandarrak modu integralean sistematizatzeko nazioarteko tresnatzat.

Prozedurek, umeen eskubideekin erabateko errespetuzkoak izateko, aipatu ditugun Gidalerroen arabera, honako elementu orokor hauek izan behar dituzte:

- Informazioa eta aholkuak umeari.
- Umearen intimitatea eta familia-bizitza babestea.
- Umearen segurtasuna bermatzea, eta horretarako, behar izanez gero, prebentzio-neurri bereziak hartzea.
- Umeen eskubideei eta beharrei buruzko diziplina arteko prestakuntza egokia eta espezializatua.
- Askatasuna kentzeko neurriak onartzen badira, arau-hauslea adingabea bada, azken neurria izan behar dute eta ahalik eta denbora laburrenean eduki behar dira indarrean.

[176] Iturria: ARARTEKOA. *Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. Gasteiz:* Arartekoa, 2018.

Gainera, prozeduretan, zaindu egin behar da umeek hauek izango dituztela:

- Auzitegietarako sarbide eraginkorra, behar izanez gero, prozesu judizial bat abiarazteko.
- Aholkularitza juridikoa eta legezko ordezkaritza, haien interesei ondoen datorkiena.
- Atzerapen bidegaberik gabeko prozedurak.
- Prozeduraren antolaketa eta umeek parte hartzeko ingurunea atseginak, eta umeen ulermen mailari egokitutako hizkera.
- Arreta berezia umeak tartean dituzten probak egitean, bereziki deklarazioa hartzen zaienean, beharrezko ez diren errepikapenak eta umeen birbiktimizazioa saihestuz.

Umeak inplikatuta dituzten prozesu judizial guztietako funtsezko elementuetako bat prozesu horietan umeei lagun egin eta haien gaitasunak ebaluatzen dituzten hainbat arlotako profesionalek duten funtsezko zeregina da. Zuzentarauek ezartzen dute prozesu horietan esku hartzen duten profesional guztiek **prestakuntza espezifikoa, espezializatua eta diziplinartekoa** izan behar dutela, eta hor ez dira sartzen auzitegiko psikologiaren arloko profesionalak bakarrik, baita auzitegiko sendagileak, poliziak, immigrazioari lotutako eragileak, gizarte-langileak eta bitartekariak eta jakina, abokatuak, fiskalak eta epaileak ere.

Diziplina anitzeko ikuspegi horrek bermatu egin behar du inplikatutako umearen **intimitaterako** eskubidea. Zuzentarauek ezartzen dute, baita ere, esku hartzen duten profesional guztiak ikuskatu egin behar direla eta **kontuak eman** behar dituztela.

Save the Children erakundearen Haurrak eta Justizia txostenak[177] aipatzen du umeren bat tartean duen administrazio-jarduera orotan behar bezala hartu behar direla kontuan oinarri hauek:

- Umeak eskubideen titular dira.
- Umeei eragiten dien erabakiek umeen interes gorenean oinarrituta egon behar dute.
- Umeek entzunak izateko eta haien iritzia kontuan hartua izateko eskubidea dute haiei eragiten dieten erabakietan.
- Justizia-administrazioak umeen eskubideen bermatzaile izateko funtsezko betebeharra du.

[177] SAVE THE CHILDREN. *Infancia y justicia. Una cuestión de derechos.* Madril: Save the Children, 2012.

# Adingabeen aurkako beste indarkeria mota batzuei buruzko datuak

## Zer dira adingabeen aurkako beste indarkeria motak?

Hor sartzen dira adingabeen aurkako indarkerietatik aurreko ataletan sartu gabekoak; adibidez, hauek: praktika tradizional kaltegarriak oro har (emakumeen mutilazio genitaletik haragokoak); pertsonak sexu-esplotaziorako ez, beste xede batzuetarako salerostea (eskean aritzeko, adibidez); gatazka armatuen esparruko indarkeria (pertsona errefuxiatuak...); bakarrik egiten dituzten migrazio-prozesuetako indarkeria; lan-arloko indarkeria; nork bere buruari eginiko kaltea; komunikabideetako indarkeria eta abar.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Indarkeria mota horietako batzuek presentzia txikia dute gure erkidegoan, edo hauteman berria den errealitate bat izan daitezke, baina garrantzitsua da adi egotea, gai horietako batzuk lantzea oso konplexua izan daitekeelako eta arazo horiek, oso irismen txikikoak izanagatik ere, eragin egiten diotelako indarkeria mota horiek jasaten dituzten umeen ongizateari, osotasunari eta eskubideei.

Bestalde, zenbait azterlanek diote ez dela behar beste baloratzen komunikabideetan, publizitatean, bideo-jokoetan eta Interneten indarkeria gero eta gehiago ikusteak adingabeengan eta haien familiengan izan dezakeen eragina.

Komunikabideei dagokienez, Arartekoaren azken txostenak ere kezka adierazten du horri lotuta; ez hainbeste informazioa eskura dutelako (normalean egokia), baizik umeek informazioari ematen dioten tratamenduari lotuta. “Foroetan, topaketetan eta laneko mintegietan behin eta berriro aipatzen da umeek komunikabideetan ikusgarritasun txikia dutela eta badela **sentsazionalismora** jotzeko joera kezkagarri bat. Informazio gehiena arrisku edo kalteren baten biktima diren umeei buruzkoa izaten da (eskolako jazarpena, sexu-gehiegikeriak, alkohola eta kalamua gehiegi eta goizegi kontsumitzea, sare sozialak ardurarik gabe erabiltzea...), edo bestela, jokabide negatiboekin edo delituak egitearekin lotutakoa. Oso urriak dira, bai zenbakitan, bai informazio-garrantziari begiratuta, subjektu aktibo diren eta arduraz jokatzen duten haur eta nerabeekin lotutako albisteak.”[178].

Gainera, azterlan batzuek erakusten dute, komunikabideetan neskatila adingabeen inguruan **sexismoa eta hipersexualizazioa** dagoela, batez ere emakumeak gauza bihurtzearekin lotutako publizitatean (neskatilak objektu sexual bihurtzen dira rol eta jokabide estereotipatuak haienganatuta).

Bestalde, neska-mutilek osatzen duten **telebista gehien ikusten duten adin multzoetako bat,** eta audientziari buruzko azterlan batzuek ohartarazten dute “umeek gogokoen duten telebistako programazioaren zati handi bat helduei zuzenduta dagoela eta umeen ordutegitik kanpo eskaintzen dela”[179]. Garrantzitsua da gogoan izatea euskal ume eta nerabeek, batez beste, 2,1 ordu ematen dituztela egunean telebista, bideo (hor sartzen dira YouTube eta antzekoak), DVD eta pantailako beste entretenigarri batzuei begira[180].

[178] ARARTEKOA. *Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. Gasteiz:* Arartekoa, 2018.
[179] ARAN, S. et al. Infancia, violencia y televisión: usos televisivos y percepción infantil de la violencia en la televisión. *Quaderns del CAC.* Bartzelona: Consell de l’Audiovisual de Catalunya, 17. zk., 2003.
[180] Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

**Helduek** programazioari lotuta egiten duten **kontrola** ez da garrantzi handikoa eta oso heterogeneoa da, dibertsifikatu egiten baita telebistako eskaintzaren aniztasunaren eta umeek adierazitako gustuen aniztasunaren arabera.

Bideo-jokoei dagokienez, 70eko hamarkadan azaldu zirenetik gaur egunera arte, polemika-iturri izan dira ondorio psikosozial positiboak (entrenamendua eta trebetasunak hobetzea, erabilera terapeutikoak, baliabide didaktiko gisa erabiltzea) zein negatiboak (mendekotasuna, oldarkortasuna, isolamendu soziala, eskolako errendimenduari eragina, beste jarduera batzuk baztertzea, delituzko jokabideak edo jokabide antisozialak, joko patologikoa, substantzien kontsumoa, osasun-nahasteak) dituztelako.

**Bideo-jokoetan** aritzeari denbora asko eskaintzen diote ume eta nerabe askok. Euskal ume eta nerabeek, **batez beste, 1,4 ordu eskaintzen dizkiote egunero gailu elektrikoetako jolasei** (ordenagailuko jokoak, bideo-kontsola, Tableta, Smartphonea, etab.). [181]. Oso joko sofistikatu eta errealistak dira eta batzuek aukera ematen dute, Internet bidez, helduekin eta umeen adin bereko ezezagunekin linean jolasteko.

Joko batzuek eduki hezigarriak dituzte (ikaskuntza susta dezakete, problemak ebazten eta mugimendu-trebetasunak eta koordinazioa garatzen lagundu), baina beste askok zenbait gai negatibo indartzen dituzte: pertsonak edo animaliak hiltzea; drogak eta alkohola kontsumitzea eta gehiegikeriaz kontsumitzea; jokabide kriminala, agintariekiko eta legeekiko begirune-falta; sexu-esplotazioa eta emakumeen aurkako indarkeria; arrazari, sexuari eta generoari lotutako estereotipoak; edo lizunkeriak edo keinu lizunak erabiltzea. Jarduera horien berehalako ondorioei buruz orain arte egindako ikerketek ez dute ondorio eztabaidaezinik ekarri, baina kezkagarria da indarkeriazko edukiak dituzten bideo-jokoek epe luzera zer ondorio ekar diezazkieketen horiekin jolasean denbora luzean eta inoren gainbegiradarik gabe aritzen diren adingabeengan.

Internetek, berriz, zera ekarri du, erabiltzaileek eduki kantitate handia zirkularaztea, aurrekaririk gabekoa, eta sare sozialak interakzio sozialerako baliabide garrantzitsua dira; batez ere nerabeen artean. Egia da edukiak sortzea eta partekatu ahal izatea dela Internetek gaur egun eskaintzen dituen funtsezko aukeretako bat eta oso elementu garrantzitsua da alfabetizazio digitalerako prozesuetan. Hala ere, **eduki batzuk arazotsuak izan daitezke;** adibidez, elikadura-nahasteak (anorexia eta bulimia), nork bere buruari kalte egitea, drogen kontsumoa, zenbait talde sozialen aurkako bereizkeria eta abar sustatzen dituztenak.

Egin berri duten azterlan batek erakusten du, Espainian, umeek eta nerabeek **3,1 ordu ematen dituztela egunean Interneten batez beste,** eta horretarako gailu bat baino gehiago erabiltzen dituztela (batez ere Smartphoneak; egunero erabiltzen dituzten 9-10 urteko umeen % 43k, 11-12 urtekoen % 71k, 13-14 urtekoen % 91k eta 15-17 urteko nerabeen % 97k).[182]

INTERNETERA KONEKTATZEKO, SMARTPHONEA EGUNERO ERABILTZEN DUTEN ADINGABEAK, ADINAREN ARABERA ESPAINIA. EHUNEKOAK

| Adina | 9-10 urte | 11-12 urte | 13-14 urte | 15-17 urte |
|---|---|---|---|---|
| % | 43 | 71 | 91 | 97 |

Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

[181] Idem
[182] Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Lineako **sare sozialek** pertsonen arteko harremanak errazteko duten ahalmenak handitu egin du Interneti lotutako arazoen eta pribatutasunaren eta intimitatearen arteko oreka hauskorraren inguruko kezka. Gainera, gailu mugikorrek zabaldu egiten dituzte komunikazio-jardueren aukerak eta harremanetarako xede diren audientzia motak. **Hiru adingabetatik bat baino gehiago sartzen dira sare sozialen batean egunero, egunean behin baino gehiagotan edo ia une oro**[183].

Egia da lineako arriskuaren eraginpean egoteak ez duela zertan kalterik eragin, baina garrantzitsua da aintzat hartzea beste zaurgarritasun-faktore batzuek igo egin dezaketela benetako kaltea jasateko probabilitatea. **Familiak funtsezko zeregina izan dezake Interneten erabilera arautzeko orduan,** eta horretarako bitartekaritza-estrategia bideratzaileak (hor sartzen dira Interneten erabilerari eta lineako segurtasunari lotutako bitartekaritza aktibo mota guztiak) eta/edo bitartekaritza-estrategia murriztaileak erabilita (linean igarotako denbora baldintzatzea edo lineako jarduerak mugatzea, eta hor sartzen da, baita ere, gurasoen kontrolerako softwarea edo beste iragazki batzuk erabiltzea).

## Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan du eragina?

Neskatilak, mutikoak eta nerabeak indarkeriazko edo kaltegarri izan daitezkeen edukien eraginpean egoteak igoera izan du azken urteetan. Egin berria duten azterlan baten arabera, 2018an, **9-17 urteko adingabeen % 32k dio eduki desegokiak ikusi dituztela linean eta 2010ean, webgune horiek ikusitakoak % 19 ziren.**

Eduki horiek gorrotozko mezuak izaten dituzte zenbait pertsona talderen aurka –beste etnia, erlijio, nazionalitate edo sexualitate batzuetakoak– (% 36); gore edo indarkeriazko irudiak, pertsonei edo animaliei nola min ematen dieten erakusten dutenak (% 36); nork bere burua zauritzeko moduak (% 26); drogak hartzearekin lotutako edukiak (% 25); anorexia edo bulimia susta dezaketen argaltzeko moduak (% 19); eta nork bere buruaz beste egiteko moduak (% 18).

Neska nerabeak nork bere burua zauritzeko, nork bere buruaz beste egiteko edo bulimia edo anorexia ekar dezaketen argaltzeko moduekin lotutako arrisku-edukien eragin handiagoa jasotzen dute. [184]

INTERNETEN EDUKI DESEGOKIEN ERAGINPEAN DAUDEN ADINGABEA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2018

| Edukiak | 11-13 urte | | 14-17 urte | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Mutikoak** | **Neskatoak** | **Mutikoak** | **Neskatoak** | **Guztira** |
| Nork bere buruari min emateko edo nork bere burua zauritzeko moduak | **17** | **19** | **29** | **45** | **26** |
| Nork bere buruaz beste egiteko moduak | **12** | **12** | **20** | **33** | **18** |
| Oso argal egoteko moduak (anorexia, bulimia edo muturreko argaltasuna ekar dezaketenak) | **11** | **15** | **18** | **37** | **19** |
| Zenbait pertsona-talderen aurkako gorroto-mezuak (adibidez, beste etnia, erlijio, nazionalitate edo sexualitate batzuetako jendearen aurkakoak) | **23** | **25** | **45** | **59** | **36** |
| Drogak hartzeari lotutako esperientziak | **13** | **12** | **38** | **44** | **25** |
| Gore edo indarkeriazko irudiak (adibidez, pertsonei edo animaliei min ematen dieten pertsonen irudiak) | **25** | **25** | **47** | **53** | **36** |

Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

[183] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.
[184] Idem

EAEn, 2018an, **19 urtetik beherakoen lau suizidio erregistratu ziren;** hiru kasu Bizkaian eta bat Gipuzkoan. Urte horretako suizidio guztien % 2,5 osatzen dute[185].

## Intereseko beste ohar batzuk:

Gutxi gorabehera mutilen eta nesken erdiek diote **seguru sentitzen direla Interneten** (% 53), baina neskak mutilak baino gutxiago. Antzeko ehuneko batek dio badakitela zer egin Internetek, norbaitek, gustatzen ez zaien moduan jokatzen badu (% 53), baina ehunekoa 13 urtetik gorakoen artean baino txikiagoa da 9-12 urtekoen artean.

Lehen esan dugun moduan, **familiak funtsezko egitekoa izan dezake Interneten erabilera arautzeko orduan;** askotariko estrategiak aktiba daitezke horretarako. Hori horrela, gai horretan espezializatutako argitalpen berrienak[186] dio bostenak baino gutxiagok (% 18) diotela gurasoek edo zaintzaileek Interneten gauzak ezagutzera eta ikastera bultzatzen dituztela, eta ehuneko hori are txikiagoa da nesken kasuan. Umeen % 37k adierazi dute Internet seguru erabiltzeko moduak iradoki dizkietela gurasoek edo zaintzaileek eta balio horiek handiagoak dira nesken kasuan. Ia lautik batek (% 23) adierazi du gurasoek eta zaintzaileek haiekin hitz egiten dutela Interneten egiten dutenari buruz (9-12 urteko mutilen % 23k eta nesken % 26k eta 13-17 urteko mutilen % 17k eta nesken % 28k). Eskaintzen dieten laguntzari dagokionez, inkestari erantzundako hiru lagunetik batek baino gehiagok (% 35) onartu dute maiz jasotzen dutela laguntza Interneten zerbaitek traba egiten dienean.

GURASOEN BITARTEKARITZA BIDERATZAILEA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EHUNEKOAK. ESPAINIA.

| | | 9-12 urte | | 13-17 urte | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Nire guraso edo zaintzaileek...** | Guztira | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak |
| Animatu egiten naute Interneten gauza berriak ezagutzera eta ikastera | 18 | 21 | 17 | 18 | 16 |
| Internet modu seguruan erabiltzeko moduak iradokitzen dizkidate | 37 | 36 | 46 | 31 | 40 |
| Interneten egiten dudanari buruz hitz egiten didate | 23 | 23 | 26 | 17 | 28 |
| Lagundu egiten didate Interneten zerbaitek traba egiten didanean | 35 | 34 | 39 | 26 | 43 |

Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Aipatutako azterlan horrek erakusten du, halaber, ume eta nerabe gehienek sare sozialak erabiltzeko baimena dutela (% 18k bakarrik diote ez dutela baimenik). Oro har, baliabide horiek erabiltzeko murrizpenak handiagoak dira 9-12 urteko umeen artean, baina muga horiek ez dira inongo kasutan elkarrizketatutako pertsonen herena gainditzera iritsi[187]. 13-17 urteko mutiko nerabeen artean, murrizpen horien maiztasuna oso txikia da.

Era berean, inkesta erantzun duten umeak eta nerabeak bizi diren etxeetan, gurasoen kontrolerako programek eta eduki jakin batzuk iragazteko edo blokeatzeko programek eta horien antzeko teknikek presentzia txikia dute (% 13); baita non dauden miatzeko teknologiak (% 14) eta umeek Interneten ikusten duten edukiari jarraipena egiteko lineako edukien iragazkiek ere (% 15).

[185] Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika
[186] Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.
[187] 2.900 umez osatutako laginean dago azterlana oinarrituta.

Inkestari erantzundako hiru pertsonetatik batek onartzen du, batzuetan edo askotan ez dietela jaramonik egin gurasoek edo zaintzaileek Internet nola eta noiz erabili arautzeko proposatutako arauei, eta % 67k onartzen dute betetzen dituztela arau horiek. Gurasoek edo zaintzaileek ezarritako arauei jaramonik ez egiteko joerak gora egiten du umeen adinak aurrera egin ahala.

Bestalde, **gizakien salerosketa** munduan irabazi handienak ematen dituzten negozioen artean hirugarrena dela esaten den arren –droga-trafikoaren eta armen trafikoaren atzetik– eta mundu osoko adingabeei eragiten dien arren (bai herrialde industrializatuetakoei, bai garapen-bidean diren herrialdeetakoei), ez dago errealitate hori EAEn kuantifikatzeko daturik. Arartekoak eginiko azken txostenak fenomeno horri egiten dio erreferentzia eta dio “gizakien salerosketan umeek eta nerabeek duten presentziari buruzko kontuak entzuten hasi garela EAEn azken urte honetan, baina oraindik hasiberria dela gaia”.

Emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeriaren arazoari espezifikoki eskainitako atalean egin diogu erreferentzia gizakiak sexu-esplotaziorako salerosteari (genero-osagai argia duen indarkeria mota bat delako), baina aipagarria da esplotazioaren beste modalitate batzuk ere hartzen dituen fenomenoa dela eta beste modalitate hauek ere umeei eragiten dietela; adibidez, eskean ibiltzea behartzea xede duen esplotazioa edo delituzko jarduerak eginarazteko esplotazioa; horien artean dirulapurrek egiten dituzten delituak, dendetako lapurretak, estupefazienteen trafikoa, legez kontrako adopzioa, organoen trafikoa eta abar.

Garrantzitsua da gizakien salerosketa etorkinen trafiko bidegabearekin ez nahastea[188]. Batetik, onarpena dago: etorkinen trafiko bidegabean, etorkinek onartu egiten dute zirkulazio hori; aldiz, salerosketen biktimek ez dute inoiz praktika hori onartu eta onartzekotan, trafikatzaileen hertsapen, engainu edo gehiegikeriengatik onartu dute[189].

Eta esplotazioaren kontzeptuari dagokionez, trafiko bidegabea migratzaileak haien helmugara iristean amaitzen da eta salerosketan, berriz, iraunkorra da esplotazioa, trafikatzaileen taldeek legez kanpoko irabaziak eskuratzeko.

Azkenik, trafiko bidegabea beti izaten da transnazionala eta salerosketak ez du izan beharrik, badira-eta salerosketa kasuak herrialdearen barruan. Delitu desberdinak diren arren, biktima askok, errealitatean, estatu batetik bestera modu bidegabean eraman ditzaten onartzea izaten dute bidearen abiapuntua eta hara eramaten dituztenean, ondoren, engainatu egin ditzakete edo esplotazio-egoerak jasatera behartu, eta hala, pertsonen salerosketaren biktima bihurtzen dira.

Ez dago ahazterik gure komunitatean harrera egiten zaiela –eta aurreikus daiteke gero eta gehiago izango direla– **nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatuen** familiei (umeak dituztenak). Haien herrialdeetatik ihesi etortzen dira; askotan, gerran dauden herrialdeetatik. Aipagarria da, baita ere, EAEra iritsi eta bakarrik dauden ume eta nerabe migratzaileek **migrazio-prozesu** zailak izaten dituztela eta prozesu horietan, askotan izaten direla gehiegikerien eta zenbait motatako indarkeriaren biktima.

---

[188] APRAMP. *A pie de calle. Actuaciones con menores víctimas de trata.* Madril: APRAMP, 2016.

[189] Umeen eta nerabeen kasuan, onespena beti da garrantzirik gabea, hertsatzeko moduak erabili edo ez. Adingabeei dagokienez, garrantzitsua da aipatzea Palermoko Protokoloaren arabera, salerosketa dela “ume bat esplotazio-xedeekin erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea, hartzea edo harrera egitea, baita horretarako, lehen aipatutako bat ere biderik ez erabili”.

# Adingabeek gauzatutako indarkeriari lotutako datuak

## Zer da adingabeek gauzatutako indarkeria?

Zentzu hertsian, ezin dira adingabeen aurkako indarkeriatzat hartu, baina atal hau adingabeek gauzatutako indarkeriari buruzkoa da, lotura estua du-eta azterlanaren xede den fenomenoarekin.

Adingabe arau-hausleez ari gara, baina baita bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka indarkeria gauzatzen duten mutilez, bullyinga egiten duten erasotzaileez, gurasoen aurkako indarkeria gauzatzen duten nerabeez eta abarrez ere. Adingabe horiek biktimatzat eta erasotzailetzat hartu behar dira, aldi berean.

## Zergatik da garrantzitsua? Zer bereizgarri ditu?

Adingabeen aurkako indarkeriak ondorioak ekartzen dizkie garapenean eta jokabidean (eskolara ez joatea, jokabide oldarkorra, antisoziala eta norbere buruaren eta besteen aurkakoa...) eta ondorio horiek direla-eta, kaltetu egin dakizkieke harreman pertsonalak, eskolatik baztertuta gelditu eta legearekin gatazkak izan. Azterlan askok erakutsi dute indarkeriaren eraginpean egoteak handitu egiten duela umeak haien zaintzaileek izandako indarkeriazko eredua errepikatzeko arriskua. Era berean, maila berekoen ingurunetik baztertzea, buruko gaixotasunei lotutako egoerak edo mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa ere delituzko jokabideak izateko arrisku-faktoreak dira.

Adingabe arau-hausleei erreparatzearen garrantzia lotuta dago helduek indarkeriarekin lotutako egoerak, jokabideak edo harreman-ereduak izatea ekiditeko epe ertainera eta luzera egiten den inbertsioarekin.

Adingabeek gaur egun gauzatutako indarkeriazko adierazpenetan aipagarriak dira adingabe arau-hausleek gauzatzen dutena, maila berdinekoen arteko indarkeriaren esparruan gauzatutakoa, bikotean edo bikote izandakoaren esparruan gauzatutakoa eta seme-alabek gurasoen aurka gauzatutakoa.

2000ko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenak, aldatu egin zuen arlo penalean erantzukizuna izateko gutxieneko adina, 12tik 14ra, eta hala, 14 urtetik beherakoek ez dute erantzukizun penalik eta ez zaie lege hori aplikatzen; adingabeak babesteko arauak aplikatzen zaizkie eta kasu horiek tratatzeko nahikotzat hartzen dira familiaren ingurunea eta babes-inguruneak. Beraz, **adingabe arau-hausleez** ari garenean, Zigor Kodean edo zigor-lege berezietan falta edo delitu gisa tipifikatutako ekintzak egin dituzten 14-18 urteko pertsonez ari gara.

**Maila berekoen arteko indarkeria** dira maila berekoen arteko larderia- eta biktimizazio-prozesuak, askotariko moduetan adierazten direnak (gizartetik baztertzea, hitzezko erasoa, eraso fisikoa, mehatxuak, jazarpen sexual fisikoa, hitzezko jazarpen sexuala...) eta oro har, biktimek ez dute tratu txar mota bakarra jasaten, bat baino gehiago baizik. Maila berekoen arteko tratu txar horiek ezin dira talde-izaeratik bereizi, nahiz eta tratu txarrak pertsona erasotzaile bakarrak egin; izan ere, taldean finkatzen dira tratu txar horiek sortzeko eta horiei eusteko arrazoiak.

Indarkeria mota horri eskainitako atalean zabal azaldu ditugu jasaten dutenei ekartzen dizkien ondorioak. Erasotzaileek izaten dituzten ondorioetako batzuk dira haien jokabidea orokortzea lotura sozialak ezartzeko, indarra gehiegikeriaz erabiltzea ekarri zieten arazoak areagotzea, ulermen moralerako eta enpatia sentitzeko gaitasuna murriztea, identifikatuta sentitzea jazarpenaren atzean dagoen nagusitasun-sumisio ereduarekin. Nahasmen emozionalek ere eragiten diete pertsona jazarleei eta izaten dute etorkizunean indarkeria testuinguru berdinean eta beste batzuetan erabiltzen jarraitzearen arriskua, ikasketekiko interesa galtzeko eta eskola-porroterako arriskua eta, azkenik, baita etorkizunean delituzko jokabideak izateko aukera ere.

**Bikotekideak edo bikotekide ohiak** emakume adingabeen aurka gauzatutako **indarkeria** azken urteetan gero eta interes handiagoa pizten ari den fenomenoa da eta gero eta gehiago aztertzen da. Emakumeen eta gizonen artean itxuraz berdintasuna egon arren, datuek erakusten dute, gazteenek erreproduzitu egiten dituztela harreman asimetrikoen formak eta mutil nerabeek bikotekide edo bikotekide ohi dituzten neska nerabeen aurkako indarkeria erabiltzen dutela. Fenomenoa garrantzitsua da, garai honetan izaten diren lehen bikote harreman horiek etorkizunean izango dituzten harremanen oinarriak finka baititzakete.

Azkenik, **seme-alabek gurasoen aurka erabiltzen duten indarkeriari** dagokionez, seme-alabak nahita eta kontzientziaz gauzatzen dute, gurasoei min emateko, kaltea edo sufrimendua sorrarazteko nahiarekin, denboran zehar behin eta berriro, eta berehalako xedea biktimekiko boterea, kontrola eta nagusitasuna eskuratzea izaten da, nahi duena lortzeko, indarkeria psikologikoaren, ekonomikoaren edo fisikoaren bidez.

Familia-giro negatiboa izatea da seme-alabek gurasoen aurka erabiltzen duten indarkeriaren arrisku-faktore ezagunenetako bat eta honako hauek izaten ditu ezaugarriak: familiako gatazka maila altua, kohesio maila baxua, familiako indarkeria, umeak hazteko bide desegokiak, koherentziarik eta sendotasunik gabekoak, eta komunikazioan gabeziak.

### Zer diote datuek? Zenbat pertsonarengan eta norengan du eragina?

EINek 2018an argitaratutako datuen arabera, EAEn, 14-18 urteko 528 pertsonek jaso zuten epai irmoaren bidezko kondena[190]. Aurreko urteetakoa baino pixka bat altuagoa da zifra, baina antzekoa (adibidez, 2013an, 514 pertsona kondenatu dituzte). Kondenatutakoen % 80 mutilak izan ziren.

Nabarmen igo da, hala ere, arau-hauste edo egitate penalen kopurua. 2013an 987 izan ziren (delituak eta faltak) eta 2018an, berriz, 1.269 (delituak).

Gazte Justiziaren III. Euskal Planaren (2008-2012) ebaluazioa Kriminologiaren Euskal Institutuak egin zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren IV. Euskal Planean (2014-2018)[191] dago jasota. Ebaluazio horren arabera, honako hauek dira delitu-egitate (neurriak hartzea dakartenak) ohikoenak:

---

[190] Iturria: Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiaren EINen ustiapena.

[191] Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. JUSTIZIA SAILBURUORDETZA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA. *Gazte Justiziaren IV. Euskal Plana, 2014-2018. I. liburukia.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.

- Lapurretak indarkeria eta/edo larderia erabilita.
- Indarra erabiliz eginiko lapurretak.
- Lesioak.
- Ebasketak.

Aipatu dugun ebaluazio horren[192] arabera, arau-hausleek, delitu-egitateak egin zituztenean, 16-17 urte zituzten batez beste. Horietatik % 56 EAEn jaioak dira eta % 37 atzerritarrak dira.

EAEko arau-hausleen profilari dagokionez, aintzat hartu behar dira Kriminologiaren Euskal Institutuak ebaluazioak aipatzen duen 2008-2012 aldian eginiko azterlanaren emaitzak:

- % 82,1 gizonak dira.
- % 67,3 EAEn jaioak dira.
- % 74,5 jatorriko familiarekin bizi dira.
- % 47,6ren guraso batek edo biek lan egonkorra dute.
- % 35,6k amaren, aitaren edo bien arretaren gabezia goiztiarra izan du.
- % 34,6k gurasoen banantze traumatikoa bizi izan dute eta ez dira gurasoen leku berean bizi.
- Gaixotasun fisiko eta/edo psikologikoak dituzten familiakoen tasak baxuak dira.
- % 7,4 indarkeriaren eraginpean egon da etxean.
- Adingabeen % 53k eta haien familiek harremana dute gizarte-zerbitzuekin.

Amigó Fundazioak eginiko azterlan batek[193] dio aldatu egin dela arau-hausle adingabeen profila: duela urte batzuk, gizarte-bazterkeriarekin lotutako testuinguruetatik etorritako adingabeak ziren eta orain, adingabe horietako asko klase ertain edo altukoak dira, batez ere mutilak, baina nesken kopurua ere gorantz doa. Arazo hori 13-17 adin-tartean azaltzen da gehien. Garrantzitsua da gurasoek salaketarik jarri nahi ez duten kasuak ere nabarmentzea.

**Aipagarri da adingabeek eginiko delituen biktima asko ere adingabeak izaten direla.** Garrantzitsua da gogora ekartzea 9-17 urteko bost adingabetik batek adierazi duela ikaskideen aurkako bullying motaren bat egin duela azken urtean. Ohikoagoa izaten da mutiletan nesken artean baino[194].

Era berean, aipatu beharrekoa da, handia dela gazteen presentzia emakumeen aurka bikotekideek edo bikotekide ohiek erabiltzen duten indarkerian. 2018an, Ertzaintzak indarkeriari lotutako erasotzaile gisa erregistratutako zituen hamarretik hiruk 30 urte edo gutxiago zituzten eta zehazki, 18 urtetik beherakoak erasotzaile guztien % 3,82 inguru izan ziren (2016an % 2,76)

[192] Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. JUSTIZIA SAILBURUORDETZA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA. *Gazte Justiziaren IV. Euskal Plana, 2014-2018. I. liburukia.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.

[193] Iturria: FUNDACIÓN AMIGÓ. *Violencia filioparental. Una realidad invisible*. Madril: Fundación Amigó, 2017.

[194] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Prebalentziari buruz eskura ditugun azken datuen arabera, **baliteke seme-alabek gurasoen kontra erabilitako indarkeriak mendeko seme-alabak dituzten euskal familia eta etxeen % 0,33ri eragitea.** Horietan, seme-alabaren batek familiako beste kide batzuei tratu txarrak ematen dizkie. Guraso bakarreko familietan da arazo honen eragin nabarmenena, familia horietan % 0,82koa baita ratioa[195].

Ohikoa da gurasoek uzkur jokatzea salaketa jartzeko garaian, baina seme-alabek gurasoen aurka erabilitako indarkeriaren inguruko salaketen kopuruak gora egin du azken urteetan. Estatuko Fiskaltza Orokorraren datuen arabera[196], 2017an, EAEn delitu horiengatik abiarazitako espedienteak[197] 548 izan ziren (90 Araban, 289 Bizkaian eta 169 Gipuzkoan).

EAEn gurasoei erasotzen dieten adingabeen profilari buruz egin berri duten ikerketa batek[198] erakusten du delitu horiek egiten dituztenek badituztela ezaugarri bereizgarri batzuk beste mota bateko delituak egiten dituzten adingabe arau-hausleekin alderatuta.

Azterlanak nabarmentzen du adingabe horiek:

- Ikasteko eta eskolara egokitzeko zailtasun handiagoak dituztela.
- Autonomia maila baxuagoak dituztela.
- Autoestimu txikiagoa eta enpatia-falta handiagoa dutela.
- Oldarkortasun maila altuagoak dituztela.
- Gehiago dira epaitu aurreko tratamendu psikologiko indibiduala jaso eta nahaste emozionalak dituztenak.

Era berean, familiari begiratuta, honako hauek ikusi dira:

- Guraso bakarrekoa eta nuklearra den familia-egitura bateko kide izateko probabilitate handiagoa.
- Gurasoen maila sozioekonomiko handiagoa.
- Gizarte-zerbitzuen eta osasun mentaleko zerbitzuen esku-hartze gehiago lehen salaketaren aurretik.
- Kointzidentzia-falta handiagoa gurasoen hezteko estiloan.

[195] Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. Behar sozialei buruzko inkesta. 2014

[196] Iturria: Estatuko Fiskaltza Orokorraren urteko estatistikak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Fiskaltza.

[197] Biktimak erasotzailearen gurasoak dituen etxeko indarkeriari buruzko espedienteak.

[198] Iturria: IBABE, I. *Perfil de los hijos adolescentes que agreden a sus padres. Investigación realizada en la C.A.V.* Gasteiz: EHU. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila, 2007.

### Intereseko beste ohar batzuk:

Seme-alabek gurasoen kontra erabiltzen duten indarkeria aitaren eta amaren aurkakoa izaten da eta biak izan daitezke biktima, baina azterlan gehienen arabera, biktima nagusia ama izaten da eta ama izaten da, oro har, zaintzaile nagusia (horregatik daude azalpen batzuk genero-rol estereotipatuekin lotuta). Oro har, neskek eduki psikologikoa eta emozionala duen indarkeria erabiltzen dute gurasoen aurka eta mutilena, berriz, fisikoagoa izaten da.

Seme-alabek gurasoen aurka erabiltzen duten indarkeria horren baitan, bada gero eta adierazkortasun handiagoa duen talde berri bat. **Familia migratzaileez** ari gara. Gurasoak EAEra etorri ziren bizitzera seme-alabak oso txikiak zirenean eta berrelkartzea gertatzean, seme-alabek ez diete izaera esanguratsurik aitortzen eta ez dute autoritaterik guraso-rola betetzeko. Gainera, adingabeak nerabe bihurtu dira, oso adin konplexuan deserrotu dituzte haien ingurunetik eta testuinguru ezezagunean murgildu behar dute aita eta amatzat identifikatzen ez dituzten helduen bidez; izan ere, gurasoen funtzioa, urte askotan, jatorriko herrialdeko beste familiako batzuek bete dute.

Era berean, indarkeria mota honi gagozkiola, aipagarria da, baita ere, haurrak babesteko zerbitzuek kezka azaldu dutela **familia adoptatzaile** batzuk umeak hazteko garaian gainez eginda sentitzen direlako, batez ere seme-alaben nerabezaroan, jokabide oso oldarkorretatik etorritako gatazkak eta loturen haustura kudeatzeko ezinean. Indarkeria horrek lotura du, nolabait, ume horiek haurtzaroan jasan izan ditzaketen indarkeriazko egoerekin.

## Ondorioak

Argitaratu diren zenbait azterlanen arabera, haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeriaren eraginpean egoteak, baita indarkeriaren lekuko izateak ere, ondorio negatibo nabarmenak ditu umeen garapen fisiko eta mentalean eta, oro har, haien osasunean. Ondorio horiek hainbat modutakoak izan daitezke eta helduarora arte iraun dezakete, umeak eta nerabeak fisikoki eta psikologikoki garatzen ari diren garaian gertatzen baitira.

Indarkeriaren eraginpean egoteak honako ondorio hauek ekar diezazkiekete umeei eta nerabeei:

- Lesio hilgarriak eta ez hilgarriak (desgaitasuna ekar dezaketenak).
- Osasun fisikoari lotutako arazoak (atzerapena garapen fisikoan eta geroago zenbait gaixotasun azaltzea: biriketakoak, bihotzekoak, gibelekoak, sexu-transmisiozko infekzioak[199], obesitatea, minbizia, biriketako gaixotasun kronikoa, heste minberaren sindromea, kardiopatia iskemikoa, gibeleko gaixotasuna, etab.).
- Ugalketari lotutako osasun-arazoak; adibidez, antzutasuna, disfuntzio sexuala, nahi gabeko haurdunaldiak eta abar.
- Atzerapenak garapenean eta ezagutza-gaitasuna txikitzea.
- Ikasteko zailtasunak eta errendimendu-arazoak eskolan eta lanean[200].
- Eskolara ez joatea eta hezkuntza sistema behar baino lehen uztea.
- Ondorio psikologikoak eta emozionalak (adibidez, gaitzetsia eta abandonatua sentitzea[201], asaldura afektiboak, elikadura-asaldurak, loaren asaldurak, trauma, beldurrak[202], antsietatea, segurtasun-falta, erru-sentimenduak, haserrea, frustrazioa eta autoestimua suntsitzea).
- Trauma osteko estresaren nahasmenduari lotutako sintomak (insomnioa, fobiak, antsietatea, disoziaziozko nahasmenduak).
- Osasun mentalari lotutako arazoak (antsietatea eta depresio-nahasmenduak, haluzinazioak, memoriaren nahasmenduak edo suizidio-saiakerak[203]).
- Osasunerako kaltegarriak diren jokabideak (adibidez, substantzia mendekotasun-sortzaileak gehiegikeriaz kontsumitzea, sexu-jardueretan hasiera goiztiarra, elikadura-nahasmendua[204]).
- Jarrerari eta jokabideari lotutako ondorioak (ezinegona; arreta-gabezia; hiperaktibitatea; jokabide erregresiboak, adibidez, enuresia eta enkopresia, harremanetarako gaitasun-falta, jokabide oldarkorra, antisoziala eta norbere buruarekiko eta besteekiko suntsitzailea).
- Garapen afektiboaren asaldura (emozioak kudeatzeko zailtasunak, indarkeriazko ereduak ikastea...).
- Harreman pertsonalak hondatzea, eskolatik kanpo gelditzea eta gatazkak legearekin (babeserako sare afektibo bat sortzeko zailtasuna, jokabide oldarkorrak eta indarkeriazkoak hirugarrenen aurka[205]).

---

[199] GIB ohikoagoa da biktima horien artean.

[200] Garun egiturek jasaten duten kalteak murriztu egin ditzake arretarako, kontzentraziorako edo memoriarako gaitasunak... Hezkuntza maila apala eskuratzeak edo hezkuntza-behar bereziak garatzeak lotura du pertsona horiek, helduaroan, lan erdikualifikatuak edukitzearekin, enplegua denbora laburragoan izaterekin eta diru-sarrera baxuagoak eskuratzearekin.

[201] Segurtasuna eman behar luketen pertsonen eskutik tratu txarrak jasateak etengabe adi-adi egotera behartzen du biktima.

[202] Umeen aurkako tratu txarren biktimek beldurrak eta segurtasun-falta sentitzen dituzte askotan, trauma osteko estresaren sintomak.

[203] Biktimek, umetan, sufrimendua barneratzen dute, isolamendu, bakardade-sentimendu edo tristura moduan eta/edo depresio-nahasmenduak, suizidio-pentsamenduak eta abar garatzeko joera izaten dituzte.

[204] Bulimia nerbiosoa jasateko probabilitatea boskoiztu egiten da.

- Genero-rol okerrak barneratzea[206].
- Bizitzako ondorengo garaietan bikotean edo seme-alabekiko indarkeriazko jokabidea izateko arriskua igotzea (indarkeriaren transmisioa belaunaldien artean).

Urte asko igaro ondoren ere, helduaroan, indarkeria jasan duten umeek bizi kalitate maila txikiagoa izaten dute biktima izan ez balira izango luketena baino.

Bestalde, alor ekonomikoari begiratuta, adingabeen aurkako indarkeriaren kostuak oso handiak dira, ondorioek hedapen handia baitute eta askotarikoak baitira, eta ez diote umeari bakarrik eragiten, baita familiari eta sistema osoari ere (osasun-sistema, sistema judiziala, umeak babesteko sistema, hezkuntza-sistema...), eta biktimen bizialdi osoan, gainera.

EDUCO Fundazioak[207] txosten bat argitaratu berri du eta txosten horretan aztertu dituzte umeen aurkako tratu txarrek, eragin fisiko eta emozionaletik harago, zer ondorio dituzten eta giza kapitalaren eta kapital sozialaren ikuspegitik sortzen diren ondorioak eta ondorio horiei lotutako kostu motak ere aztertu dituzte.

Umeen eta nerabeen aurkako indarkeriaren ondorioen inpaktuari buruz, txostenak dio ondorioak norbanakotik eta haren ingurutik haragokoak direla eta eragin ekonomiko handia dutela epe labur eta luzera, bai gastu publikoa igotzen delako (osasunean, arlo sozialean eta hezkuntzan gastu handiagoa), bai balio soziala galtzen delako (garapen txikiagoa, produktibitatea murriztea, lanean eta gizartean integrazio pobrea, hazkundea murriztea).

Kostu ekonomikoari dagokionez, sexu-indarkeria bakarrik aintzat hartuta (estimazio zuhurra eginda), 979 milioi ingurukoa izan liteke urteko gastua Espainian.

Beraz, indarkeriaren prebentzioa, lehenbizi, umeek bizitzeko, bizirauteko eta tratu egokia jasotzeko duten eskubidearen defentsa aktibotzat hartu behar da, baina inbertsio gisa ere bai, itzulkinak pertsonari ez ezik, gizarte osoari etortzen baitzaizkio.

---

[205] Biktima batzuek kanpora ateratzen diren sintomak izaten dituzte. Biktimek izaten dituzten jokabide antisozialak eta delituzkoak lotuta egoten dira jasaten duten konfiantza-faltarekin eta konfiantza-falta hori haien buruarekiko eta inguruarekiko zein etorkizunarekiko izaten dute.

[206] Emakumeen aurkako indarkeriak presentzia duen etxe batean bizita, emakumeen seme-alabak etengabe egoten dira harreman-eredu jakin baten eraginpean eta gizon eta emakume izateak “zer izan behar duen” ulertzen den moduaren eraginpean, arrisku handiko berdintasun-faltan oinarrituta. Adingabe horiek bizi diren munduan, indarkeria baliozkoa da gatazkak konpontzeko, gizonak emakumeak baino garrantzitsuagoak dira eta emakumeek esaneko izan behar dute.

[207] RAMOS, R. (koord.). *Los costes de la violencia contra la infancia. Impacto económico y social.* EDUCO, 2018.

UMEEN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIARI LOTUTAKO ONDORIOAK ETA KOSTUAK

| Ondorioak | Kapital sozialean eta giza kapitalean dituen ondorioak | Kostuak | Kostu motak |
|---|---|---|---|
| **Ondorioak osasun fisikoan** | Arinak, larriak, gaixotasun kronikoak | Gastu publikoa handitzea | Osasun-gastuak: osasun zerbitzuak (lehen mailako arreta, espezializatua, ospitaleratzea, gastu farmazeutikoa) |
| | | | Hezkuntza-gastuak: ikasmailak errepikatzea |
| **Ondorioak osasun psikologikoan** | Zailtasun kognitiboak eta intelektualak | Gastu publikoa handitzea | Osasun-gastuak: arreta psikologikoa/gastu farmazeutikoa |
| | Gaixotasun mentalak eta emozionalak | | Hezkuntza-gastuak: behar bereziak |
| **Ondorioak jokabidean** | Eskolara ez joatea eta eskola uztea | Prestakuntza murriztea | Arazoak lan-merkatuan sartzeko (produktibitatea galtzea, langabeziari eta pentsioei lotutako gastuak) |
| | | Giza kapitala galtzea | Prestakuntza murritzagoa eta ondorioz, soldata eta errenta txikiagoa |
| | | Sozializazio murritzagoa | I+G+b garatzeko ahalmen txikiagoa |
| | Substantziak gehiegikeriaz erabiltzea, haurdunaldiak eta sexu-transmisiozko gaixotasunak | Gastu publikoa handitzea | Osasun-zerbitzuak |
| | | | Gizarte-zerbitzuak |
| | Gazteen delinkuentzia eta helduen kriminalitatea | Segurtasuneko eta justiziako gastuak handitzea | Segurtasun-indarrak, epaileak, prozedura judizialak, espetxe- eta birgizarteratze-zerbitzuak |
| **Ondorio sozialak** | Deserrotze soziala | Gizarte-bazterkeriazko egoera | Gizarteratzeari lotutako gizarte-zerbitzuak |
| | Jokabide antisozialak | Ekonomian kapital soziala galtzea | Arazoak lan-merkatuan sartzeko (produktibitatea galtzea, langabeziari eta pentsioei lotutako gastuak) |
| | Gazteen indarkeria | | |

Iturria: RAMOS, R. (koord.). *Los costes de la violencia contra la infancia. Impacto económico y social.* EDUCO, 2018.

# Erantzunaren ebaluazioa: sisteman hobetzeko baliabideak eta arloak

## Sistemaren baliabide-mapa

Atal honen helburua da ikuspegi orokor eta deskribatzailea eskaintzea **sistema publikoak** EAEn haurren eta nerabeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta artatzeko dituen **baliabide** nagusiei[208] buruz.

Baliabideen sailkapenari dagokionez, **esku-hartzea zer esparruren bidez gauzatzen den** (poliziala, sanitarioa, judiziala, hezkuntzakoa, gizarte zerbitzuak edo beste batzuk) lehenestea, eta ondoren, baliabide bakoitza batez ere zer **indarkeria motari** edo formari lotzen zaion (familia barruko tratu txarrak, sexu-indarkeria, berdinen arteko tratu txarrak, emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria, erakunde-indarkeria, adinez txikikoen aurkako beste indarkeria mota batzuk, adinez txikikoek eragindako beste indarkeria mota batzuk eta indarkeria oro har, azken hori, indarkeria mota bakar batekin argi eta garbi lotzen ez denean).

Bestalde, baliabide bakoitzaren helburu nagusia kontuan izanda, prebentzio-baliabideak (kontuan hartzen dira sentsibilizazioa, hautematea…), esku hartzeko baliabideak (zentzu zabalean, aintzat hartzen dira informazioa eta orientazioa, esku-hartze goiztiarra eta bigarren mailako prebentzioa, koordinazioa…) eta beste batzuk (erreparazio-baliabideak aintzat hartzen dira, besteak beste) bereizi dira. Horrez gainera, baliabide bakoitza zer **erakunderen ardurapean** dagoen ere identifikatzen da.

Atal honetako taulak laburtuta dauden arren, irakurketa arina izateko, garrantzitsua da aintzat hartzea eranskinean **baliabide bakoitzaren eta haien irismenaren datuen deskribapenari** buruzko informazio osagarria eskaintzen dela.

Azkenean mapan aintzat hartu diren baliabideak mugatzeko, identifikatzeko eta hautatzeko irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Erantzukizun publikoko baliabideak soilik hartzea aintzat.
- Programez eta zerbitzuez gain, protokoloak, gidak eta indarkeria egoerei ekiten laguntzeko gainerako tresnak baliabidetzat ere hartzea.
- Indarkeriaren biktima diren adinez txikikoentzako edo haien familientzako berariazko baliabideak aintzat hartzea, bai eta indarkeria oro har pairatu duen biztanleriarentzako beste baliabide batzuk eta adinez txikikoak artatzen dituzten beste batzuk ere (adibidez, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnentzako harrera-egoitzako zentroak).
- Berariaz haurrak eta nerabeak edo haien familiak hartzaileetzat dituzten prebentzio-baliabideak aintzat hartzea (eta arau orokor gisa, biztanleriari oro har zuzendutako kanpainak baztertzea).

[208] Azterlanaren xedearekin lotuta, baliabide publiko erabilgarrien zerrenda bat eskaintzen da, esanguratsuentzat jotzen direnena. Baliagarria da zenbait eragileren artean arazoari erantzuna emateko zabaldu diren zerbitzu, programa eta tresna nagusien ezaugarriak zein diren jakiteko. Hala ere, lan honen xedea baliabideen gisa bat egitea ez den neurrian, zerrenda honek ez du zehatza eta osoa izateko asmorik.

- Zuzenean indarkeriari ekitearekin lotutako prebentzio- eta erreparazio-baliabideak eta esku-hartzeko baliabideak soilik aintzat hartzea, nolabaiteko harremana izan dezaketenak kanpoan utziz (arrisku-faktore jakinak artatzen dituztelako), baina ukipenezkoagoa (balioetan hezteko programak, parte-hartzearen sustapena, besteak beste).
- EAEko hiru administrazio mailak aintzat hartzea: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak, nahiz eta, udalei dagokienez, hiru euskal hiriburuak soilik hartu diren aintzat eta beren programekin lotutako informazioaren xehetasun maila txikia den (adibidez, ez dira aintzat hartu drogazaletasunaren prebentziorako programak aintzat hartu udal esparruan).

Mapan aintzat hartu ez badira ere, xedea gainditzen dutelako, kontuan izan behar da, batez ere tokiko esparruaren bidez, beste eragile komunitario batzuek (haurren eskubideen defentsarekin lotutako Hirugarren Sektoreko erakundeak, kaltetutako pertsonen eta haien familien elkarteak, aisialdi hezitzaileko taldeak...) prebentzioko eta esku hartzeko ekintza garrantzitsuak (erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroan aintzat hartutakoez haratago, eta zorro hori hornitzen ere maiz laguntzen dutenak) egiten dituztela.

Prebentzioaren esparruan, mapatik kanpo geratu dira, baina aipatzeko modukoak dira beste eragile publiko eta pribatu batzuen (banku-erakundeen gizarte-lana, Hirugarren Sektoreko erakundeak, Administrazio Publikoa…) lankidetzarekin sustatutako adinez txikikoen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpaina esanguratsuak eta ikerketa-proiektu garrantzitsuak.

Azkenik, aipatu behar da EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistemak[209] bizitzako oinarrizko beharrak asetzeko baliabide ekonomikoak izateko eskubide subjektiboa aitortzen duela (enpleguaren bidez edo babeserako eta gizarte-laguntzarako zenbait araubideren bidez behar adina lortu ezin denean). Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren tasetan[210] eragin positiboa duen neurrian, indarkeriaren arrisku-faktoreetako batzuk nolabait arintzeko indarra duen tresnatzat har daiteke.

[209] Euskadi. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2008ko abenduaren 31koa, 250. Zk. Euskadi. 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2011ko abenduaren 12koa, 233. zk.

[210] Iturria: *Txirotasunaren eta Gizarte Gaien Inkesta. 2018*. Enplegua eta Gizarte Gaiak Saila. Eusko Jaurlaritza.

## OSASUN-ESPARRUA:

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Adikzioetan espezializatutako osasun mentaleko zentroak** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurren eta gazteen ospitaleratze laburrerako unitateak** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurrak eta gazteak artatzen espezializatutako unitate anbulatorioak eta komunitarioak** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurrengan eta nerabeengan asaldura metal larriko programa** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila eta Hezkuntza Saila | **Programa terapeutiko hezitzailea** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Tutoretzapeko adin txikikoen programa-Adin txikikoak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Modulu psikosozialetako ume eta nerabeentzako Osasun Mentaleko programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ICEBERG programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ALKOHOLAREN ARRISKUA programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ALKOHOLEMIA-PROBAK programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **MIMARTE programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Adingabeak eta alkohola programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Lonjalaket** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Testing** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Udako sentsibilizazio-kanpaina aisialdi- eta dibertsio-eremuetan drogen kontsumoari buruz** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Banaketa arduratsua** |

## HEZKUNTZA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskola-absentismoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Eskolatze-programa osagarria** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bideratuz programa** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Osatuz programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskola-absentismoa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | bizikidetza | Bilboko Udala (Berdintasun Saila eta Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak Saila) | **BOSA! programa Aniztasunaren alde eta diskriminazioaren aurka** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | Bilboko Udala (Berdintasun Saila, Lankidetza Saila eta Herritarren Partaidetza Saila) | **Genero-indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko tailerrak. Senar-emaztegaien arteko tratu onen alde.** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa/esku-hartzea | Koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, Osasun Zerbitzuak, Ertzaintza, Fiskaltza eta Epaitegia | **Haurren eta nerabeen babesgabetasun eta tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta –abusuaren egoera posibleen aurrean hezkuntza-esparruan prebenitzeko eta jarduteko protokoloa, eta hezkuntza-esparruaren eta adinez txikikoaren babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza- eta koordinazio-protokoloa.** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | esku hartzekoa | Ziberbullyinga | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ziberbullyngaren aurrean eskolan jarduteko protokoloa. EMICI.** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bullynga | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **EAEko ikastetxeetan eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gida.** |
| **Beste batzuk** | esku hartzekoa | LGTBI kolektiboak | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ikastetxeek trans ikasleen edo arautu gabeko genero-jokabideak dituzten ikasleen familiei jarduteko protokoloa.** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Emakumeen genitalen mutilazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Hezkuntza-esparruan emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko gida** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | Koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila eta Segurtasun Saila | **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetza-hitzarmena, jokabide desegokiak, berdinen arteko indarkeriazko egintzak eta tratu txarrak eta eskola-jazarpena (bullynga eta ziberbullynga) prebenitzeko neurriei buruzkoa, eta oro har, eskola-esparruan bizikidetza kalte dezaketen egoera guztiak prebenitzekoa.** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa/esku-hartzea | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Bizikasi programa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | bekak | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabentzako hezkuntza-bekak** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | eskolatzea | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben berehalako eskolatzea** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ikastetxeko Bizikidetza Plana egiteko gida** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Baterako hezkuntza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako eskuliburua** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Baterako hezkuntza | EMAKUNDE eta Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. | **Nahiko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskola-absentismoa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, EUDEL eta Bizkaiko Foru Aldundia | **Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: "eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko" 2017-2018** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila eta Hezkuntza Saila | **Sare publikoko eta itunpeko sareko ikastetxeetako ikasgeletan bizikidetza eta bide-segurtasun gaiak zabaltzeko eta txertatzeko lankidetza-akordioa** |

## POLIZIA-ESPARRUA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Bullynga | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila | **Komunikazioa oinarri hartuta, prebentzio-programa** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Informazioa eta orientazioa | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila | **Ertzain-etxeak** |

## ESPARRU JUDIZIALA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Sexu-indarkeria | Eusko Jaurlaritza. Justizia, Hezkuntza, Osasun Sailak, Gizarte Zerbitzuak eta Ertzaintza | **Europako Kontseiluaren Hitzarmena Berresteko Tresna, haurrak sexu-esplotaziotik eta -abusutik babesteko. 2007ko urriaren 25ean Lanzaroten egina** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Delituzko egintzen biktimak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Zentro Koordinatzailea** |
| **Indarkeria oro har** | erreparazioa | Prozesu judizialak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Justizia errestauratiboko zerbitzua** |
| **Indarkeria oro har** | Erreparazioa/esku-hartzekoa | Prozesu judizialak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Talde psikosozial judiziala** |

Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiko[211] datuen arabera, 2018an guztira 987 neurri onartu ziren kondenatutako adinez txikikoentzat. Hauek nabarmen daitezke:

KONDENATUTAKO ADINEZ TXIKIKOENTZAKO NEURRI NAGUSIAK EAE. EHUNEKOAK. 2018

| Neurri mota | % |
|---|---|
| Zaintzapeko askatasuna. | **37,99** |
| Komunitatearen mesedetan zerbitzuak ematea. | **13,48** |
| Erregimen erdi-irekian barneratzea. | **12,81** |
| Biktimarengana gerturatzeko edo harekin komunikatzeko debekua. | **9,32** |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak egitea. | **7,4** |
| Asteburuko egonaldia. | **6,79** |

Iturria: Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiaren EINen ustiapena.

Bestalde, Euskadiren 2014-2018 aldirako Gazte Justiziaren IV. Plana tarteko ebaluazioak aipatzen du Adingabeen Epaitegietan gero eta ugariagoak direla bitartekaritza-prozesuak. Prozesu horien % 84k amaiera arrakastatsua izan zuten. Zentzu horretan, Arartekok[212] nabarmendu zuen datu hori oso positiboa zela, “gazte arau-hausleari eskainitako hezkuntza-alderdiaz gain, biktimarentzako asebetetze-baldintzak ere kontuan hartzen baititu. Izan ere, gaizkileak, bere jokabideari justizia errestauratiboaren baitan helduz, eragindako kaltearen ardura hartzen duen neurrian, erreparazio morala eta materiala mesedetuko da”.

[211] Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiaren EINen ustiapena.

[212] Ararteko a. *Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena.*Gasteiz: Ararteko a, 2018.

# GIZARTE ZERBITZUEN ESPARRUA

## Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuak:

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Informazioa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Zeuk Esan, haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzua** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Informazioa | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **SATEVI: Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bitartekaritza | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **Familia-bitartekaritza zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bitartekaritza | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Familia-elkarguneak, epaileak hala bideratuta** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | laguntza ekonomikoak | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei** |
| **Erakunde-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza-harrerak urruntzeetarako | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila, EUDEL eta foru-aldundiak | **Baimendu gabeko urruntzeetarako jarduketarako protokolo komuna** |

## Foru-aldundietako gizarte-zerbitzuak

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrerak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Abegi-etxeak, larrialdiak eta familiak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Jokabide-arazoak dituzten adingabeak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Nerabeak artatzen espezializatutako programaren egoitzak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | emantzipazioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Emantzipazio-programa: etxeak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeentzako egonaldi ertaineko abegi-zentroa: Sortuleku etxea** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Familiaren babesa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: eguneko zentroak eta familiaren babeserako programak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Famili harrera sustatzeko eta horretarako laguntza tekniko emateko zerbitzuak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Adopzioa sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzuak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | emantzipazioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Harrera-ondoko jarraipenerako eta bizitza autonomorako prestatzeko programa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | harrera | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | harrera | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Egonaldi ertainerako Harrera-etxea (CARME)** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima direnei arreta psikologikoa emateko zerbitzua** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza-harrerak | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima direnei aldi baterako harrera emateko etxebizitzak** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza eta orientazio pertsonaleko hezkuntzako programa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Aholkularitza juridikoa | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua** |
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Sexu-abusuak gertatzen diren kasuetan laguntza psikologikoa emateko programa berezia** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Haurren bat babesik gabe dagoen familietan esku hartzeko programa berezia** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Etnia ijitoa/bigarren mailako prebentzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Ijito adingabekoekin eta euren familiekin familian esku hartzeko programa** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Portaera-arazoak dituzten adingabeak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Nerabeekin esku hartzeko programa espezializatua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Familia-harrera | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Familia-harrera babesteko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bizkaian adopzioa sustatzeko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Egoitza-harreren oinarrizko sarea** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrera/NERABEAK | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Nerabeei harrera egiten espezializatutako sarea (bizitokiak)** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrera/NERABEAK | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Ezgaitasuna duten adingabeei harrera emateko Sare Espezializatua (bizitokiak)** |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak/familia gabeko adingabe atzerritarrak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei harrera egiteko sare espezializatua (zentroak eta unitate erdi-autonomoak)** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Banaketa gatazkatsuak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Arreta espezializatuko familia-elkargunearen zerbitzua** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Guraso eta semeen arteko indarkeria | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeriari heltzeko arreta espezializatuko programa esparru psikoterapeutikoak eta psikohezitzailean** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktiman direnentzako larrialdi-egoeretan harrera egiteko zerbitzua** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Emakumeen aurkako tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan laguntza psikologikoa emateko zerbitzua** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Laguntza psikosoziala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Etxean emakumeen aurka egindako indarkerian espezializatutako esku-hartze programa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Esku-hartze terapeutikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familia esku-hartzea** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Aholkularitza juridikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza juridikoa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adingabeentzako egoitza-zentroak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko harrera | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adingabeentzako eguneko zentroak** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Esku-hartzekoa | Familia-harrera | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Famili harrera sustatzeko eta horretarako laguntza tekniko emateko zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Esku-hartzea | Sustapena eta laguntza teknikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adopzioa sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte-hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: TREBATU programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Esku-hartze terapeutikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: BIDERATU programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: GARATU programa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zentroak** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia(Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Indarkeria matxistaren biktimentzako harrera zentroak (egonaldi ertaina)** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta sozio-juridikoa eta psikosoziala | Gipuzkoako Foru Aldundia(Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | Arreta sozio-juridiko eta psikosozialeko zerbitzua, tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako egintzen biktimentzako |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia(Gizarte Politika Departamentua) | **Zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeentzako egonaldi ertaineko zentroa: Haurtxoak** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Gipuzkoako Foru Aldundia(Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzua** |

Esan den bezala, familia-ingurunerik gabeko haurrek, edo beren interes gorenak ingurune horretan gehiago ez egotea eskatzen duenean, herri-administrazio eskumendunaren babesa eta laguntza jasotzeko eskubidea dute. Herri-administrazioaren betebeharra da babes berezi hori ematea familia-ingurunerik gabeko haurrei eta familia-arreta ordezkatuko duten zainketak edo establezimendu egoki baten arreta jasoko dituztela ziurtatzea.

**Familia-harrera**[213] **eta egoitza-harrera**[214] babes-neurriak aplikatzen dira batez ere.

Nazioarteko gomendioak eta administrazioek gure autonomia-erkidegoan familia-harrerari lehentasuna emateko ahaleginak gorabehera, oraindik egoitza modalitatea da nagusi. Zehazki, 2017ko abenduaren 31n, EAEn adingabeen zaintzarekin lotutako neurrien % 65,1 egoitza-harrerarekin lotutakoak izan ziren (ehuneko hori ehuneko 9 puntutan handitu da aurreko urtearekin alderatuta, 2016an % 56,24koa izan baitzen). Nahiz eta aurreko urteekin alderatuta pixka bat aurrera egin (2001ean, esaterako, egoitza-harreren proportzioa % 73,26koa izan zen), egun EAEn familia-harreren pisua (% 34,8) oraindik Estatuko batezbestekoaren (% 52)[215]azpitik dago nabarmen.

[213] **Familia-harrera** Haurrak Babesteko Sistemaren neurri bat da: familia batek aldi baterako hartzen du adingabea etxean, egoitza-harreraren (zentroa edo tutoretzako baliabidea) alternatiba gisa. Babesik gabeko egoeran dauden haurrentzat familian elkarbizitzeko aukera bat da, familia-ingurune egonkor bat emateko, egoera dela eta, jatorrizko familiarekin bizi ezin dutenean. Familia-harrera eta adopzioa ez dira gauza bera. Adopzioa atzeraezina da eta lotura juridikoak sortzen ditu helduen eta haurren artean, gurasotasun biologikoaren berdinak. Irizpide orokor gisa, harrera aldi baterako da beti, jatorrizko familiarengandik bereiztea eragin zuten egoerak hobetzen diren eta/edo haurrari irtenbide iraunkorrago bat proposatzen zaion arte irauten du.

[214] **Egoitza-harrera,** aitzitik, adingabeari gurasoek emango lioketen berezko zainketak ematean datza, ostatua barne. Neurri horrek salbuespenezkoa izan behar du eta lehentasuna eman behar zaio familia-harrerari. Horretarako, kalitate-estandar batzuk ezartzen dira Herri Administrazioak kudeatzen dituen harrera-egoitzetarako nahiz azpikontratatuetarako. Azken baliabide gisa soilik aplikatu behar dira, eta ahal den denborarik laburrenean. 26/2018 Legearen, uztailaren 28koaren, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoaren, arabera, ez litzaieke aplikatu behar 6 urtetik beherako haurrei.

[215] Iturria: OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak.* Madril: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.

**Araban** 2018an beste 18 familia-harrera gauzatu ziren, urte horretan 129 adingabe izan ziren familia-harreran eta urtearen amaieran 105 adingabek jarraitzen zuten familia-harreran. Urte horretan bertan, 472 adingabe egon ziren era askotako egoitza-zentroetan (presazko harrera, bizitokiak, egoitzak…) eta, urtearen amaieran, 218 adingabe zeuden egoitza-harreran (70 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ziren, eta egoitza-zentroetan harrera egin zitzaien guztizkoen % 32 ziren urtearen amaieran). 2018ko abenduaren 31ko datuak aintzat hartuta, familia-harreran zeuden pertsonak harrera guztien % 32,5 biltzen zuten (% 41,5 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak aintzat hartzen ez baditugu), aurreko urteko tasaren oso antzekoa (% 32,8)[216].

**Bizkaian,** 2018an, beste 89 familia-harrera gauzatu ziren, eta urtearen amaieran, 302 adingabe zeuden familia-harreran. Urtean zehar, guztira 2.331 haur artatu ziren egoitza-harreran (aurreko urtean baino % 52,8 gehiago) eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak guztizkoaren % 68 izan ziren (aurreko urtean erregistratutakoaren antzeko kopurua). Urtearen amaieran guztira 1.059 adingabe zeuden egoitza-harreran, 599 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ziren (% 56,6). Urtearen amaierako zifrak abiapuntutzat harturik, esan daiteke familia-harreran dauden adingabeak guztizkoaren % 22,2 direla (% 39,6 zenbaketatik at uzten baditugu bakarrik dauden adingabe atzerritarrak)[217].

**Gipuzkoan,** 2018an, 1.081 adingabe artatu ziren (% 83 mutilak izan ziren eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak guztizkoaren % 70 izan ziren) harrera-egoitzako sarean, eta urtearen amaieran 434 pertsona zeuden (110 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ziren; hau da, guztizkoaren % 25,3). Egoitza-zentroetan artatutako pertsonen kopuruak % 21,9 egin du gora aurreko urtearekin alderatuta, eta duela 10 urteko kopurua laukoiztu egin da. Urte horretako abenduan, 357 haur zeuden familia-harreran. Urtearen amaierako zifrak abiapuntutzat harturik, esan daiteke familia-harreran dagoen biztanleria harreran dauden pertsonen guztizkoaren % 48,2 dela (% 56,6 ez baditugu kontuan hartzen bakarrik dauden adingabe atzerritarrak)[218].

ADINGABEAK FORU-ALDUNDIETAKO SAREAN, APLIKATUTAKO BABES-NEURRIAREN ARABERA. LURRALDE HISTORIKOAK. ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK. 2018

| | | Familia-harrera | Beste harrera batzuk | Egoitza-harrerak | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|
| **ARABA** | 2018an | 129 | 18 | 472 | |
| | 2018ko abenduaren 31n | 105 | | 218 (70 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) | Familia-harrerak guztizkoaren % 42,5 izan ziren, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak kontuan hartzen ez baditugu. |
| **BIZKAIA** | 2018an | | 89 | 2.331 | |
| | 2018ko abenduaren 31n | 302 | | 1.059 (599 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) | Familia-harrerak guztizkoaren % 39,6 izan ziren, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak kontuan hartzen ez baditugu. |
| **GIPUZKOA** | 2018an | | | 1.081 | |
| | 2018ko abenduaren 31n | 357 | | 434 (110 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) | Familia-harrerak guztizkoaren % 56,6 izan ziren, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak kontuan hartzen ez baditugu. |

Iturria: Gizarte Ekintzako Arloaren edo hiru foru-aldundietako arlo baliokideen memoriak

[216] Iturria: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailaren memoria.
[217] Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.
[218] Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.

Adingabe horiei aplika dakiekeen beste neurri bat da **adopzioarena,** nahiz eta azken urteetan gauzatutako adopzioen kopuruak behera egin. 2018an 30 adopzio nazional eta 14 nazioarteko adopzio gauzatu ziren.[219]

Zehazki, **Araban,** urte horretan, 5 adopzio nazional egin ziren (5 neskato) eta 1 adopzio atzerrian (1 neskato); hau da, aurreko urtean baino 4 adopzio gutxiago izan ziren. **Bizkaian,** 2018an, 22 adopzio nazional gauzatu ziren (24 neska, adoptatutako haur eta nerabeak) eta 10 nazioarteko adopzio (3 neskato eta 7 mutiko), aurreko urtearen antzera. **Gipuzkoan** 3 adopzio nazional (aurreko urtean baino 2 gutxiago) eta 3 nazioarteko (2017an baino 8 gutxiago) gauzatu ziren.

Ez dirudi erraza denik **harrera egiteko eta/edo adoptatzeko prest dauden familiak** izatea. **Araban,** 2018an guztira 98 familiak egin zieten harrera adingabeei beren etxeetan, eta urtearen amaieran, Arabako Lurralde Historikoan, guztira 78 abegi-familia zeuden. Urte horretan bertan, nazioarteko 2 adopzio-eskaera jaso ziren eta adopzio nazionalerako 8 eskaintza. **Bizkaian,** 2018an, beste 50 adopzio nazionalerako eskaera jaso ziren (aurreko urtean baino % 66 gehiago), nazioarteko adopziorako 6 eskaera eta harrera egiteko 34 eskaera (aurreko urtean baino 5 37 gutxiago). **Gipuzkoan,** urte horretan, adopzio nazionalerako 10 eskaintza jaso ziren[220].

GAUZATUTAKO ADOPZIOAK. LURRALDE HISTORIKOAK. ABSOLUTUAK. 2018

| | **Adopzio nazionalak** | **Nazioarteko adopzioak** | **Guztira** | **Oharrak** |
|---|---|---|---|---|
| **ARABA** | 5 | 1 | 6 | 2017an baino 4 gutxiago |
| **BIZKAIA** | 22 | 10 | 32 | 2017ko zifren antzekoa |
| **GIPUZKOA** | 3 | 3 | 6 | 2017an baino 8 gutxiago |
| **GUZTIRA EAE** | 30 | 14 | 44 | 2017an baino 12 gutxiago |

Iturria: Gizarte Ekintzako Arloaren edo hiru foru-aldundietako arlo baliokideen memoriak

## 3 hiriburuetako gizarte-zerbitzuak:

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **BAKUVA programa** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Bigarren mailako | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Otxargainean programa** |

[219] Iturria: foru-aldundien memoriak.
[220] Iturria: Iturria: foru-aldundien memoriak.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | prebentzioa | | |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Adingabeekin gizarte-hezkuntza eta komunitate-arloko esku-hartze programa (PISECO)** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Bilbon ijito komunitatean adigabeei eta haien familiei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza- alorreko esku-hartze Programa (PISEKALO)** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Esku-hartze soziala | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Esku-hartze psikosozialeko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko arreta | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Zirkilu zentroa adingabeentzat eta familientzat** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko arreta | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Iñurri haurrentzako zentroa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Koordinazioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Caixa Proinfancia proiektua** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Familia-kudeaketa laguntzeko zerbitzua** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa, genero-indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzua) | **Nerabeentzako prebentzio-programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Babesik gabe dauden adingabeekin esku hartzeko programa (kasu arinak/neurritsuak)** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Familia-kudeaketa laguntzeko zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Babes gabeko egoera larrian dauden adingabeekin esku hartzeko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | prebentzioa | Hautemate goiztiarra | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Adingabeen babesik gabeko egoeren esparruan esku-hartze goiztiarrean hautemateko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa/esku-hartzea | bizikidetza | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Safe Care programa** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | Prebentzioa/esku-hartzea | bizikidetza | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Increible Years programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren esku-hartzeari laguntzeko programak: Orain eta Prólogo** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Gizarte Zerbitzuak) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Babesik gabeko egoeretan esku-hartzea ebaluatzeko programa** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **PAUSOKA programa** |
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Sexu-abusuko kasuetan aholkularitza psikologikoa emateko ASASI programa** |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Guraso eta semeen arteko indarkeria | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeria-egoeretan esku-hartze goiztiarrerako programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren babeserako eta familia-harrerarako eta egoitzarako programa babesik gabeko egoeretan** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren babeserako eta familia-harrerarako eta egoitzarako programa babesik gabeko egoeretan** |

## BESTE ESPARRU BATZUK

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA |
|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Gurasotasuna ekimena** |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Aniztasuna: LGTBI kolektiboa | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **BERDINDU. Gayak, Lesbianak, Bisexualak eta Transexualak (LGBTI kolektiboak) artatzeko euskal zerbitzua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (Hezkuntza eta gizarte-sustapenerako zerbitzua, Gazteria arloa) | **Haurren ongizatea oinarri** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila | **Familia-aniztasunaren inguruan sentsibilizatzeko proiektua** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Jabetu zer ahalmen duzun seme-alabak hezteko. Gurasotasun Positiboko programa** |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Haurrekin eta familiekin lotuta, prebentziorako eta sustapenerako programak: Senidegune, familian emozioen tailerra, haurrak eta nerabeak artatzen jardunbide egokien Programa** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Kirola | Bizkaiko Foru Aldundia (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila eta Euskara eta Kultura Saila) | **Kirolaren bidez, indarkeria prebenitzeko kanpaina** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Kirola | EMAKUNDE | **Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta -abusua prebenitzeko gida** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | EMAKUNDE | **Beldur barik** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | EMAKUNDE | **Gizonduz** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria** | Prebentzioa | Komunikabideak eta publizitatea | EMAKUNDE | **Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako deontologia kodea eta autoerregulaziokoa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Prestakuntza profesionalentzat | EMAKUNDE | **Jabetuz** |
| **Indarkeria oro har** | arreta | LGTBI | EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza Saila, Osasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko Gida** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Informazioa eta salaketa | ARARTEKO | **Haur eta Nerabeen Bulegoa** |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Etxebizitza eskuratzea | Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza eskuratzeko aukera** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa/esku-hartzea | Koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Eraberean: Tratu-berdintasunerako eta ez diskriminatzeko sarea** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | ikerketa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Ikusmirak: Gizarte Politiken Behatokia (haurrak eta nerabeak; familia; gizarte-zerbitzuak)** |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | ikerketa | Bizkaiko Foru Aldundia (Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila) | **Genero-indarkeriaren behatokia** |

## Erantzuna zer esparrutan hobetu behar den

Atal honetan, EAEn haurrengan eta nerabeengan indarkeria-arazoari ematen zaion egungo arazoarekin lotutako analisi kualitatibo bat aurkeztuko dugu, interpretazioa egiten saiatuz. Galdera hauei erantzuten saiatuko da:

- **Zerk kezkatzen gaitu bereziki une honetan? Zer beharrek ez dute behar adinako estaldura? Zergatik?** Bere aldagai desberdinetan, arazoaren neurriari buruzko datuek emandako informazioa eta baliabide-maparen informazioa lotuko ditugu erantzuten saiatzeko, sistemak arazo horiei lotutako beharrak artatzeko zenbaterainoko egokitasuna duen behatze aldera.

- **Zer ahulezia ditu gaur egun sistemaren funtzionamenduak? Zergatik?** Baliabideen maparen informazioa sakon aztertuko dugu galdera honi erantzuteko, horretarako, sisteman zenbait mailatan dauden eragileen balorazioak triangulatuko dira eta zenbait organismoren[221] gomendioekin zer koherentzia duten kontuan hartuko da.

Atal honetako informazioa eskema hau oinarri hartuta azalduko da:




[221] Arartekoa. *Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren eta bere Hautazko Protokoloen Aplikazioari buruzko Espainiako V. eta VI. Txostenaren txosten osagarria.* Gasteiz: Arartekoa, 2017.

## Beharren estaldurarekin lotuta:

**Zerk kezkatzen gaitu bereziki une honetan? Zer beharrek ez dute behar adinako estaldura? Zergatik?**

Oro har, indarkeria mota baten edo bestearen eraginpean dauden adingabeak identifikatu diren kasuen **bolumenean goranzko joera** dagoela ikusi da, bai eta kasu horien gero eta **konplikazio** handiagoa ere.

15 lan-arlo edo kezka-foku identifikatu dira eta indarkeria motekin lotuta multzokatu. Indarkeria motak abiapuntu harturik egituratu da diagnostikoa aurrez (nahiz eta batzuk zeharkakoak izan eta zenbait indarkeria forma eta motarekin lotuta egon).

| |
|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak…** |
| **Sexu-indarkeria…** |
| **Berdinen arteko tratu txarrak…** |
| **Emakume, neskato eta nerabeen aurkako indarkeria…** |
| **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek eragindako indarkeria…** |

Bereziki **FAMILIA BARRUKO UMEEN TRATU TXARRAri** dagokionez…

| **Kezkagarria da…** | **Izan ere…** |
|---|---|
| **Familiaren eremuan ZABARKERIA egoerak jasaten dituzten edo jasateko arriskuan dauden ume eta nerabeak.** | Familia-indarkeriaren **kasuen bolumena** oso adierazgarria da eta, haren barruan, zabarkeria da familia-indarkeriaren motarik **ohikoena**. Kalkulatzen da umeen % 25 baino gehiago umeen tratu txarraren biktima izan dela beren zaintzaileen[222] aldetik. 2018an, familiaren eremuan arau-hauste penalen biktimen proportzioak, Ertzaintzak[223] erregistratutako guztizkoen aldean, % 48 egin zuen gora, aurreko urtearen aldean. Halaber, nabarmentzekoa da aldundiei jakinarazitako babesgabetasun-tipologien artean zabarkeria nabarmen gailentzen dela (2018an Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazitako kasu guztien % 35 inguru, familia-erreferenterik ez duten ume eta nerabe migratzaileen kasuak eta pertsona arau-hausleak aintzat hartu gabe).<br><br>Hura **detektatzea** zaila da, bereziki, eta aparteko ahalegina eskatzen du. Kezkatzekoa da kasuen **kronifikazioa,** kasuak maiz larriagotu egiten baitira, detekzioa eta esku-hartzea garaiz ez egiteagatik.<br><br>Kezkatzekoa da **prekarietate sozioekonomiko eta gizarte-bazterketa** larria duten familiekin bizi diren haurrak eta nerabeak, indarkeria mota hori areagotzen duten faktoreak baitira.<br><br>Indarkeria mota hori **gizarte-klase eta familia-egitura jakinekin soilik lotzea** saihestu behar da, egiaz denei eragin baitezaieke. Lotura hori egitea kezkagarria da; izan ere, detekzio goiztiarra mugatuagoa izan liteke. |
| **Beren FAMILIA-BITARTEKOTIK urrundutako ume eta nerabeak** | Azken bi urteotan, **nabarmen areagotu da** beren familia-bitartekotik urrundu diren eta foru-aldundien tutoretzapean edo babespean dauden umeen kopurua, bereziki bidaiderik gabeko edo familia-erreferenterik gabeko ume eta nerabe migratzaileen kopuruak gora egin duelako EAEn (Bizkaian, batik bat). 2018ko abenduaren 31n, EAEn 18 urtetik beherako 2.800 adingabe inguru zeuden foru-aldundien babesgabetasun-neurriekin (zaintza edo tutoretza); 2.000, beste kasu horiek alde batera uzten baditugu[224].<br><br>**Egoitza-zentroetako batzuetako okupazioa handiegia** da urteko une batzuetan, eta horrek ondorio negatiboak izan ditzake bizikidetzan (berdinen arteko indarkeria, langileenganako indarkeria…) eta adingabeen ongizatean, eta, bestalde, kalitateko esku-hartzea zaildu dezake. Egoera horrek, halaber, egoitza-zentroetan lanean ari diren profesionalen lan-baldintzetan du eragina, eta horrek inplikazioak ditu egiten den esku-hartze motan.<br><br>**Familia-harreren** proportzioa, egoitza-harrerei dagokienez, ez da nahi bezain altua. Foru-aldundiak zailtasun handiak aurkitzen ditu familia |

[222] Iturria: BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save the Children, 2018.
[223] Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.
[224] Iturria: hiru foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailetako memoriak.

hartzaileak erakartzeko, eta ezin dute lortu behintzat 6 urtetik beherako ume guztiek familia-baliabidean jaso ahal izatea harrera.

**FAMILIA-ERREFERENTERIK GABEKO ume eta nerabe migratzaileak**

Haren bolumenak **gorakada handia** izan du, bereziki Bizkaian; izan ere, azken bi urteotan, sistemak gainezka egin du. **Aurreikusten ez diren migrazio-fluxuekin** lotzen da, eta beti ez da erraza baliabideak areagotuz arreta ematea. 2018an, hiru aldundien artean profil hori duten 2.450 adingabe baino gehiago artatu zituzten, eta, urte horren amaieran, guztira 779 egoitza-harrerako zentroetakoren batean zeuden, eta, haietatik, % 97 mutila zen[225].

Nahiz eta errealitate hori beharrezkoa denean egoitza-plaza bat esleitzea ez den eragozten ari, badakar zailtasun handiagoa ume eta nerabe bakoitzaren beharretarako egokiena den baliabidearen kudeaketan.

Halaber kezkatzekoa da haien **emantzipazioa eta gizarte-inklusioa** babes-sistematik irteteko unean, adin-nagusitasuna bete ondoren. Horri dagokionez, **hezkuntza-ibilbidea** haien errealitatera egokituta ez egotea (sarbidea duten prestakuntzako edo lan-trebakuntzako programak) esanguratsua da; bai eta beren administrazio-egoeraren **erregularizazioa** eta egoitza-baimena eskuratzeko prozesua nahiko arina ez izatea, **enplegura eta etxebizitzara sarbidea** izateko zailtasuna, **prestazio ekonomikoen** ahultasuna, eta abar ere. Alderdi horietako batzuk erakunde-indarkeriatzat jo daitezke.

Oro har, baterako irizpideak eta erakundeen arteko koordinazio handiagoa behar dira, bai eta arintasun handiagoa ere prozeduretan.
Batzuetan adingabe-talde horien inguruan transmititzen edo sendotzen den irudi soziala (esaterako, komunikabideen bitartez) ez da positiboa.

**Bikote-BANAKETA oso LISKARTSUETAN bizi diren ume eta nerabeak**

Errealitate horrek **gero eta presentzia handiagoa** du azken urteotan haurren zerbitzuetara iritsi diren kasuen artean. Arazo hori kuantifikatzen duen datu zehatzik ez badago ere, orientazio gisara balia daiteke 2017an guztira 18 urtetik beherako 1.145 adingabek arreta jaso zutela familia-elkarguneetan[226]; zifra hori bi urte lehenagokoa baino % 7,6 handiagoa da.

Kezkagarria da egoera horietan ohikoa dela umeak **instrumentalizatzea**.

Kasu horietan sarritan zaila izaten da gurasoen **elkarlana** lortzea; izan ere, uko egiten diete formulatutako esku hartzeko proposamenei, beren seme-alabetan eragiten ari diren inpaktuaren eta kaltearen berri jakin gabe.

[225] Iturria: hiru foru-aldundietako Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren sailetako memoriak.
[226] Iturria: Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. EAEn Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena. 2017

Batez ere **SEXU-INDARKERIAREKIN** lotuta…

| Kezkagarria da… | Izan ere… |
|---|---|
| **SEXU-ABUSUA jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden haur eta nerabeak** | Zenbait hutsune ikusten dira indarkeria mota horri aurre egiteko eskuragarri dauden baliabideetan, batez ere kasuen detekzioari eta erreparazioari dagokienez. Esku hartzeko baliabideei dagokienez, azken urteetan garatu badira ere, zenbait kasutan ez daude behar bezain espezializatuta, eta ez dute genero-ikuspegi egokirik.<br><br>Baliteke gaur egun gizarte-estigma eta prozesu judizialen oztopoak indarkeria mota horri lotutako salaketak erreprimitzen eta indarkeria horren dimentsioari buruzko ezagutza zailtzen aritzea. Kalkulatzen da bost pertsonatik batek sexu-indarkeria motaren bat jasan duela haurtzaroan[227], eta kalkulatzen da umeen aurkako indarkeria-kasuen % 10 baino gutxiago haurtzaroan edo nerabezaroan jakinarazten dela, alegia, indarkeria gertatzen denean[228]. Gainera, dakigunez, 13 urtetik beherako haurrek sexu-askatasunaren aurkako delituengatik jasaten dituzten biktimizazioen % 75etan, biktima neska da, eta nesken ehunekoa % 81era iristen da 14-17 urteko adingabeen aurkako biktimizazioen kasuan[229].<br><br>Azpimarratu beharra dago Espainiako 11-17 urteko nesken eta mutilen % 42k sexu-izaerako irudiak ikusi dituztela Interneten edo beste baliabide baten bidez, eta hamarretik hiruk sexu-edukiko edo sextingeko (sexu-mezuak –erotikoak edo pornografikoak– bidaltzea eta ikustea)[230] mezuak jaso dituztela.<br><br>Gero eta kezka handiagoa dago biktimak diren neska-mutilentzat mingarriak eta berriz biktimizagarriak izan ohi diren prozesu judizialen atzerapenaren aurrean. Gainera, prozesu horiek oso kasu gutxitan iristen dira epai irmora, baita ahozko epaiketara ere (erakunde-indarkeria). Teknikaren abantailak gorabehera, eta nazioartean gomendatuta badago ere, epaien % 13,8an baino ez da froga ezartzen aldez aurretik. Batez beste, lege-prozesuak denboran hiru urte arte luzatzen dira, eta umeek abusuak 4 aldiz ere salatu ondoren kontatzen dituzte[231]. |

[227] Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

[228] Iturria: WORLD HEALTH ORGANIZATION. European report on preventing child maltreatment. Kopenhage: World Health Organization, 2013.

[229] Iturria: *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena. 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. Estatuko Segurtasun Idazkaritza.* Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren (SEC) ustiapenaren ondoriozko datuak dira. SECean biltzen diren datuak atestatuen instrukzioa egiteko oinarri diren polizia-jarduketen ingurukoak dira. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen, Autonomia Erkidegoetako polizien eta udaltzaingoen datuak biltzen ditu.

[230] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

[231] Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.

| | |
|---|---|
| **BABES-FUNTZIOA betetzen duten, baina sexu-abusuei eta beste indarkeria mota batzuei aurre egin behar dieten FAMILIAK.** | **Familiek beren "babes-funtzioa" betetzen dutenean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazioa jasotzera joan badaitezke ere, haiekin ez da babesgabezia-kasuetan aplikatzen den protokolo bera aktibatzen, eta, horren ondorioz, zenbaitetan ez da laguntzeko esku-hartze ibilbiderik egiten. Ziurtzat jotzen da familiek bere gain hartzen dutela "kasuaren" erantzukizuna eta baliabideetara "bakarrik" joan daitezkeela. Hala ere, batzuetan egiaztatu da egoerak eragindako zailtasunei aurre egiteko eta bere osotasunean egoki kudeatzeko** babesa eta laguntza behar dutela.<br><br>**Horrez gain, kontuan izan behar da egoera horiek bizi dituzten adingabeengan izan ditzaketen epe luzerako, ertainerako eta luzerako ondorio larriak; izan ere, errealitate horiek** familietan **oso** eragin kaltegarriak **izan ditzakete. Horrez gainera, familiaren zeregina funtsezkoa da sexu-abusua pairatu duen haurraren edo nerabearen osatze fisikorako eta emozionalerako. Horregatik, beren ahalak sendotu behar ditu. Hala, familien berariazko beharrei babes eta arreta psikologikoa ematea beharrezkoa da.** |

**BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREI** dagokienez bereziki…

| Kezkagarria da… | Izan ere… |
|---|---|
| **BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK jasaten dituzten edo jasateko arriskuan dauden adingabeak eta tratu txar horiek egiten dituzten pertsonak.** | Indarkeria mota horren prebentzioari lotutako ibilbidea zabala da hezkuntza-eremuan (bizikidetza-planak, jazarpen-protokoloak, gizarte- eta hezkuntza-programak eta abar aplikatu dira), baina datuek adierazten dutenez, **intzidentzia ez da murriztu**. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4. mailara bitarteko bost ikasletik batek adierazi du maiz jasan dituela berdinen arteko tratu txarrak eskolan (3 urte lehenago, tasa % 21,7 zen, eta 7 urte lehenago, berriz, % 16,9) [232].<br><br>Ikusi denez, berdinen arteko **sexu-abusuen** kasu batzuek arreta berezia merezi dute.<br><br>**Erasotzaileek** psikohezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala jaso behar dute, baina lana biktimarengan ardazteko joera dago. 9-17 urteko bost adingabetik batek adierazi du ikaskideen aurkako *bullying* motaren bat egin duela azken urtean[233]. |

[232] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.* 2016. urte jakin bateko tratu txarren indize orokorrak, zehazki, neurtutako tratu txarren jokabide guztietatik gutxienez bat "askotan" edo "beti" jasan dituzten ikasleen ehunekoa adierazten du. Hona hemen ikerketa honetan neurtutako tratu txarren 19 jokabideak: hitzezko tratu txarrak (iraindu egiten naute, ezizenak jartzen dizkidate, nitaz gaizki esaka aritzen dira); gizarte-bazterkeria (ezikusiarena egiten didate, ez didate parte hartzen uzten); tratu txar fisikoak (jo egiten naute, nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute, makilekin mehatxatzen naute, beldurra emateko asmo hutsarekin mehatxatzen naute); gauzen kontrako erasoa (gauzak ezkutatzen dizkidate, gauzak puskatzen dizkidate, gauzak lapurtzen dizkidate); ciberbullynga (ikus 82. oharra); sexu-erasoa (sexu-jazarpena egiten didate).

[233] Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

| | |
|---|---|
| | Erronketako bat **ikastetxeak leku seguruak eta aniztasunarekiko begirunetsuak** direla eta bertan indarkeriazko ezein jokabidetarako eta ezein diskriminaziotarako lekurik ez dagoela ziurtatzea da.<br><br>Beste erronka bat **laguntza-sare informalak** sendotzea eta indarkeria hori baliatzen ez duten baina ikusten duten pertsonen jarrera pasiboari aurre egitea da. |
| **ZIBERJAZARPENA jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden haur eta nerabeak.** | **Gailu mugikorren bidez Internet eta sare sozialak erabiltzeko ohitura** oso zabalduta dago 18 urtetik beherako biztanleengan. Egunean denbora asko ematen dute Interneten, **ikuskapen eta informazio** egokirik gabe.<br><br>Lehen Hezkuntzako ikasleen % 13,6k jasan dute azken urtean berdinengandik ciberbullying[234] motaren bat eta tratu txar mota horren intzidentzia larria % 3,3ra iritsi da. Zifrek erakusten dutenez, tasek gora egin dute 4 urte lehenago egindako kontsultarekin alderatuta (% 11,8 eta % 2,8, hurrenez hurren) [235].<br><br>Indarkeria mota horrek zailtasun espezifikoak ditu **detektatzeko** (erasotzaileen anonimotasunagatik eta abar). Indarkeria hori erabiltzen dutenek **naturalizatu** egiten dute, eta ez dute eragindako kaltearen zuzeneko eta berehalako pertzepziorik.<br><br>Biktimizatzeko ahalmena askoz handiagoa da, mezuak jende askori eta oso bizkor helaraz baitaitezke. |
| **Indarkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden LGTBI haurrak eta nerabeak** | Arauaz kanpoko sexu-orientazioa edo genero-identitatea duten haur eta nerabeak eta haien familiak kalteberatasun-egoeran daude, eta berdinengandik indarkeria jasateko arrisku berezia dute, bai eta erakunde-indarkeria jasatekoa ere.<br><br>DBH egiten ari diren eskola-ikasleen % 32,3k baieztatzen du sexu-orientazioagatik edo neska edo mutila izateagatik ikaskide batzuk baztertu izanaren lekuko izan dela eskola-eremuan. % 7,5 lesbiana izateagatik eta % 19,2 gaytzat hartua izanagatik[236].<br><br>Bereziki kezkagarria da "trans" haurren kolektiboak eskolan integratzeko dituen arazoei arreta jartzeko premia, gizartean errealitate horren inguruan dauden **informaziorik eza eta aurreiritziak** direla eta.<br><br>Funtsezkoa da estrategiak adostea eta irizpide garbiak ezartzea erakundeek araudian LGTBI pertsonei aitortutako eskubideei eta printzipioei jarraikiz jardun dezaten. |

[234] Cyberbulling kasu bat dugula ulertuko dugu adin txikiko batek beste batzuk mehatxatzen, zirikatzen, umiliatzen edo gogaitzen duenean Internet bidez, telefono mugikorren bidez edo beste teknologia telematiko batzuen bidez.
[235] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*
[236] Iturria: *ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrak txostena.2016.*

| | |
|---|---|
| **DESGAITASUNEN bat duten eta indarkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden haur eta nerabeak.** | **Kasu kezkagarria da, desgaitasuna indarkeria jasateko** arrisku-faktore **handia delako (berdinen arteko tratu txarrak bereziki, baina beste mota batzuk ere bai) eta zenbait kasutan desgaitasuna duten pertsonek zailtasun erantsiak izan ditzaketelako jasaten dituzten indarkeria-egoerak** identifikatzeko eta salatzeko**.**<br><br>**Kezkagarria da pertsona horiek eskola-esparruan duten** integrazio **maila oraindik egokia ez izatea.**<br><br>**Kezkagarria da ekipamenduetarako, instalazioetarako eta baliabideetarako** irisgarritasuna**.** |

Batez ere **EMAKUMEEN, NESKATILEN ETA NESKA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREKIN** lotuta…

| Kezkagarria da… | Izan ere… |
|---|---|
| **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK diren emakumeen seme-alaba adingabeak** | Ez dagoelako datu-erregistro egokirik gaur egun kasuak kuantifikatu ahal izateko, nahiz eta azterlanek adierazi **nagusitasun esanguratsua** dutela. Azpimarratu beharra dago 16 urteko edo gehiagoko emakumeen % 10,3k bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria fisikoa jasan duela bizitzako uneren batean, eta % 1,8k onartu du indarkeria mota horren biktima izan dela azken urtean. Gainera, indarkeria hori jasan duten eta seme-alabak dituzten emakumeen % 63,6k adierazi dute seme-alabek indarkeria-egoeraren bat ikusi edo entzun dutela[237].<br><br>Zenbaitetan, emakume eta adingabe horiekin egindako esku-hartzea oztopatuta geratu da aitaren baimena behar izateagatik (adibidez, gizarte-hazkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosozialerako, egoitza-zentroetan sartzeko emakumeak biktima-izaera egiaztatu ez duenean, zaintzarako eta abar). Horrek zaildu egin du egoera, eta arriskuan jarri du haien segurtasuna (gaur egun, badirudi aurrerapausoak egiten ari direla hori konpontzeko, epaileek seme-alaben inguruko kautelazko neurriei buruzko erabakia hartzeko betebeharra baitute).<br><br>Indarrean dagoen araudi berriak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen seme-alabak indarkeria mota horren biktimatzat hartzen baditu ere, **baliabide** batzuk (egoitza-baliabideak, polizia-baliabideak eta abar) ez daude behar bezala prestatuta eta egokituta adingabeen premia espezifikoei erantzuteko.<br><br>Esku-hartzea bideratzeko garaian, inplikatutako agenteek ez dute **ikuspegi bera** izaten beti (adibidez, haur-zerbitzuetako profesionalek eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-zerbitzuetakoek). |

[237] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2015.

| | |
|---|---|
| **BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden nerabeak eta indarkeria hori erabiltzen duten nerabeak.** | **Egindako ahaleginak eta hezkuntza-esparruan zein beste esparru batzuetan aplikatutako askotariko hezkidetza-programak gorabehera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak nerabeengan duen** intzidentziaren **tasak esanguratsuak dira. Kezkagarria da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sentsibilizatzera bideratutako** kanpainek **eta programek emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez nahi zen** eragina **ez izatea.**<br><br>**Kezkagarria da nerabeak indarkeria-egoerak identifikatzeko gai ez izatea eta jokabide eta jarrera jakin batzuen aurrean agertzen den** naturalizazioa **eta permisibitatea ("mikromatxismoen" ondorioen minimizazioa).**<br><br>**Datuek ohartarazten dute inoiz bikotekidea izan duten 16 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetiko kontroleko indarkeria psikologikoaren intzidentzia edozein adinetako emakumeen batez bestekoa (% 9,6) baino askoz ere handiagoa dela (% 25)[238]. Zenbatetsitakoaren arabera, neska nerabeen % 25 inguruk jasaten dute abusuzko kontrola mugikorraren bidez, hamar neska nerabetik sei inguruk irain matxistak jasotzen dituzte mugikorrean[239], eta % 10ek beldurra sentitu dute mezu horiekin. Gainera, azpimarratu beharra dago gazte asko daudela emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen duten bikotekideen edo bikotekide ohien artean. 2018an erregistratutako hamar erasotzailetik hiruk 30 urte edo gutxiago zituzten (zehazki, 18 urtetik beherakoak erasotzaile guztien % 3,82 inguru izan ziren 2018an, eta % 2,76, 2016an)[240].**<br><br>**Nerabezaroko indarkeria horrek ezaugarri espezifiko batzuk ditu, eta oso garrantzitsua da horiei arreta jartzea.** |
| **EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden neskak.** | Arriskuan dauden nesken kopurua ez da oso handia, baina **gora egin** du azken urteetan. 2016. urtean, Emakumeen Genitalen Mutilazioak[241] identitate-sustrai handiak dituen herrialdeetatik iritsitako 4.890 emakume bizi ziren EAEn, eta, 15 urtetik beherako neskak ziren haietatik 1.378[242].<br><br>Arazo horren aurrean **adi** egon beharra dago. Ildo horretan, ez dira ahaztuta utzi behar prebentzio-ekintzak, eta ekintza horiek arriskuan dauden kolektibo eta komunitateetara bideratzen direla ziurtatu behar da. |

[238] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2015.

[239] Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.

[240] Iturria: EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017.* Gasteiz. Emakunde, 2019.

[241] Osasunaren Mundu Erakundeak (OME/WHO) honela definitzen du: "nahita eta medikoak ez diren arrazoiengatik emakumeen organo genitalak kaltetzen edo lesionatzen dituzten prozedura guztiak".

[242] Iturria: KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España* 2016. Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2017.

Batez ere **HAUR ETA NERABEEK ERABILTZEN DUTEN INDARKERIAREKIN** lotuta…

| Kezkagarria da… | Izan ere… |
|---|---|
| **JOKABIDE-ARAZOAK dituzten haur eta nerabeak.** | **Adingabe arau-hausleen** delitu-jokabideen **sorreran** eta mantentzean eta profilik ohikoenetan sakontzeko beharra identifikatu da.<br><br>**Seme-alabek gurasoei eragindako indarkeria**-kasuak dira kezkagarriak eta, kasu horien barruan, gorantz doazen bi errealitate nabarmendu behar dira: **familia migratzaileen familia-birbatzeak** eta hazkuntzan eta, batik bat, nerabezaroaren etapan, portaera oso erasokorrekin eta ustezko lotura-apurketekin gainezka eginda sentitzen diren **familia adoptatzaileak**.<br><br>Gurasoek zailtasunak izan ohi dituzte horrelako kasuak **salatzeko**.<br><br>Jokabide-arazoak dituzten eta horren ondorioz sistematik baztertuta geratzen diren eta gizarteratzeko zailtasun handiagoak dituzten nerabeentzako **hezkuntza-baliabideak** falta direla ikusi da. |
| **OSASUN MENTALEKO arazoak dituzten haur eta nerabeak.** | Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arretan bilakaera positibo nabarmena izan bada ere, egungo erantzuna ez da nahikoa osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeen premietarako soluzio egokiak eskaintzeko, dauden **baliabide soziosanitario espezializatuak** ez baitira nahikoak. Osasun mentalari lotutako egungo baliabideetako batzuk baliatzeko irizpideak ez datoz bat adingabe horietako batzuek dituzten ezaugarriekin (adikzio-arazoak edo jokabide-arazoak dituzten adingabeen kasuan, adibidez). Sistema publikoak larrialdiko arreta eta arreta anbulatorioa neurri handian betetzen badu ere, ez da gauza bera gertatzen egonaldi ertaineko premiekin (3 edo 4 astetik gorakoekin).<br><br>Ezin izan da lortu arazo horrek eraginpean hartutako adingabeen kopuruari buruzko datu zehatzik, baina ikusi ahal izan denez, arazoa lotuta dago arrisku-egoeran dauden haurrentzako arreta-baliabideen erabiltzaile batzuen profilarekin. Zenbaitetan, egoitza-baliabideen erabiltzaile adingabeek **diagnostikatu gabeko osasun mentaleko arazo** jakin batzuk dituzte, eta horrek areagotu egiten du gatazka-arriskua. Halaber, beharrezkoa izan liteke osasun mentalari eta toxikomaniei lotutako arreta hobetzea barneratze-neurriak betetzen dituzten adingabeen kasuan.<br><br>Arreta berezia eskaini behar zaio detekzio goiztiarrari, esku-hartze goiztiarra ahalbidetzeko. |

# Sistemaren funtzionamenduarekin lotuta:

**Zer ahulezia ditu gaur egun sistemaren funtzionamenduak? Zergatik?**

Adingabeen aurkako indarkeria aztertzeko garaian zorroztasun tekniko eta ezagutza zientifiko handiagoa dago, inpaktuari nahiz baloratzeko tresnei dagokienez gidak, eskuliburuak, esku hartzeko prozedurak eta prebentziorako nahiz artapenerako baliabideak daude. Hala ere, zenbait alderdiri arreta jarri behar zaiela identifikatu da, arazo horri egun ematen zaion erantzuna hobetzeko.

Hobetu beharreko elementuen artean, indarkeriaren biktimak diren familiak eta adingabeak artatzeko oinarrizko lanei buruz zenbait esparrutan irizpide berberak izan arren, batzuetan, esparru bakoitzak bere esku-hartzea (emakumea, adingabea, gizarteratzea, osasuna…) kontuan izanda jartzen du arreta, arretari ikuspuntu osoago bat eman gabe, aldi berean zenbait sistema aktibatuz. Horrez gain, adingabeei entzutearekin eta esku-hartzearen eta koordinazioaren azkartasunarekin lotuta zenbait zailtasun daudela hauteman da.

Koadro honetan, identifikatuko diren hobetzeko arloen zerrenda osoa ageri da. Aurrerago, xehetasun handiagoz deskribatuko dira. Askok lotura handia dute beren artean, eta batzuek beste batzuk beren baitan har ditzakete. Hala ere, kontsultatutako eragileen kezken artean indarra hartu duten gaiak agerian uzten laguntzeko formula baten alde egin da.

| | **Hobekuntza-arloak** |
|---|---|
| **Sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzioa** | 1. EAEn ez dago prebentzio-estrategia integralik. |
| | 2. Haur eta nerabeenganako Tratu Onaren Kultura zabaltzeko eta sentsibilizatzeko balioko duen baterako balio-sistema bat zehaztu eta adostea. |
| | 3. Ez da behar adina sustatzen eta sendotzen esku-hartze komunitarioa, prebentzioaren aldetik duen inpaktuarekin. |
| | 4. Kasuen detekzio goiztiarra sendotu behar da, esku-hartzeen arrakasta handitzeko: sarritan, profesionalek zailtasunak dituzte indarkeria-egoerak detektatzeko eta jakinarazteko. |
| | 5. Komenigarria litzateke komunikabideen (telesailak, programak, albisteak…), publizitatearen, bideo-jokoen eta Interneten bidez zabaltzen diren edukiei buruzko ikuskaritza eta mugaketak areagotzea. |
| | 6. Ez da behar adina kontuan izan hezkuntza emozionalaren eta afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren gizarte- eta hezkuntza-zeregina: batzuetan, adingabeak ez dira gai beren eta/edo besteen indarkeria-egoerak identifikatzeko. |
| **Balorazioa, esku-hartzea eta koordinazioa** | 7. Kezka gehieneko fokuei dagokienez, behar batzuk bete gabe daude, eta euskal lurralde osoan zerbitzu eta prestazioetara jotzeko aukeran ekitatea ez da behar adina ziurtatzen. |
| | 8. Beharrezkoa da prozedurak arintzea eta erantzuteko bizkortasuna irabaztea. |
| | 9. Esku-hartze goiztiarra ez da zabartu behar. |
| | 10. Haurren eta nerabeen interes gorena ardatz duen esku-hartze eredu batean, beharrezkoa da esku-hartze guztietan ibilbideen pertsonalizazio maila egokia eta baliabide batzuk behar berezietara hobeto egokitzen direla bermatzea. |
| | 11. Arretaren jarraitutasuna ez da ziurtatzen. |
| | 12. Beharrezkoa da arretan integraltasun handiagoa ziurtatzea, sareko lanaren ereduaren aldeko apustuaren, sendotzearen eta sustapenaren bidez. |
| | 13. Sistemak zailtasunak ditu familiaren babesa eta familia-harrera nagusitzeko. |
| | 14. Beharrezkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta esku-hartzean kultura aniztasuna errespetatuko duen begirada eta genero-ikuspegia ziurtatzea. |
| **Zeharkako beste alderdi batzuk** | 15. Arazoaren neurria dela-eta, erantzunkidetasunean oinarritzen diren eta ardura bereziko fokuetan eragingo duten erakunde-apustuak egitea komeni da. |
| | 16. Indarkeria moduak aitortuko dituen eta baterako kontzeptu-esparru argia eskainiko duen araudi-esparrua garatzearen falta sumatzen da. |
| | 17. Eskuragarri dauden giza baliabideak ez dira nahikoak kopuruari eta gaikuntzari dagokionez, hazten eta gero eta konplexuagoa egiten ari den arazoari erantzuteko. |

| | |
|---|---|
| | 18. Komenigarria litzateke lanbide-sekretua, konfidentzialtasuna eta datuen babesa diziplina anitzeko esku-hartzeko egoera batean nola integratu hausnartzea. |
| | 19. Ez dago fenomenoa neurtzeko eta haren jarraipen egokia egiteko datuen erregistro-sistemarik. |
| | 20. Esku-hartzeetan, protokoloetan eta abarretan hobekuntzak ezarri ahal izateko ezagutza eskuratzeko ebaluazio-mekanismoak ez dira nahikoak. |
| | 21. Sistemak berriz biktimizatzen duela dakigun neurrian, erakunde-indarkeria zaintzeko eta geldiarazteko tresnen falta sumatzen da. |
| | 22. Haurrei eta nerabeei ez zaie behar adina aditzen. |

## SENTSIBILIZAZIOAREKIN, PREBENTZIOAREKIN ETA DETEKZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

### 1. EAEn ez dago prebentzio-estrategia integralik.

Batzuetan, zerbitzu jakinak sustatzeko eragileen arteko dibulgazio-kanpainak egiten badira ere edo zenbait prebentzio-programa zabaltzeko lankidetza-hitzarmenak egiten badira ere, EAE osoan haurren eta nerabeen aurkako prebentzio-estrategia integral baten falta sumatzen da, esku-hartzeen ardatzak argi eta garbi zehazteko.

Sentsibilizazioari dagokionez, esan daiteke aurrera egin dela, adingabeen aurka dagoen indarkeriari ikusgarritasun handiagoa eman baitzaio. Halaber, sumatu da herritarren sentsibilitatea pixkanaka handitu egin dela, zenbait indarkeria motari dagokionez. Hala ere, ez da hautematen haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren **arazoak zenbaterainoko magnitudea** duen behar adina helarazi denik.

Badirudi gizartea bereziki kontzientziatua dagoela indar fisikoa eta zigorra jokabideak zuzentzeko modu gisa desagerrarazten. Gaur egun, ordea, gure gizartean oraindik familia barruko haurren kontrako indarkeria **zerbait pribatutzat** hartzen da, eta horrenbestez, ez da esku hartu behar, eta horixe da, hain zuzen, arrisku-faktore handienetako bat.

Prebentzioari dagokionez, haurrentzat eta nerabeentzat zuzendutako programa asko (zenbait eragilek abian jarritakoak) hezkuntzaren esparruan hedatzen dira, eta lotura dute mendekotasunen prebentzioarekin, kultura-aniztasunaren sustapenarekin, bizikidetzarekin, ez baztertzearekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenarekin, besteak beste. Bestalde, nabarmendu behar da familiei zuzendutako gurasotasun positiboko programak ere abian jartzen ari direla (nahiz eta modu neurritsuagoan hedatzen ari), hazkuntzan laguntzeko gero eta eskari handiagoari erantzuteko.

Azken urteetan, EAE osoan, tokiko esparruan nahiz lurralde mailakoan, horrelako ekimen ugari jarri dira abian, eta denak aurrerapauso handia izan dira adingabeen aurkako indarkeria desagerrarazteko. Hala ere, kontuan izan behar da ekimen horien ezarpen maila ikastetxeetan eta udalerrietan desorekatua dela. Halaber, arazoari heltzeari dagokionez, nolabaiteko zatiketa islatzen dute, zenbait azpisistemaren bidez egindako ekintzen **trazabilitate eta elkarrekiko lotura eskasa** baitute. Dena dela, zentzuzkoa dirudi egindako jarduketak antolatzen eta koordinatzen jartzea arreta.

Komenigarria izan daiteke **sozializazio primarioko testuinguruetan** ez eskolan soilik, zer gertatzen den erreparatzea, hala nola kirolean eta kirolean sortzen den indarkerian.

Azkenik, adierazi behar da askotan sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainek eta -programek ez dutela behar adinako jasangarritasunik. Horrek aditzera ematen du nolabait **erakundeek ez dutela aldeko apustu garbirik egiten,** eta horrek lanketa zehatzak baino zerbait gehiago egitea oztopatzen du. Beharrezkoa da arazoaren erroan eta jatorrian jartzea arreta (prebentzioa), eta ez ondorioei soilik arreta jartzea (esku-hartzea).

### 2. Ez da zehaztu eta adostu haur eta nerabeenganako Tratu Onaren Kultura zabaltzeko eta sentsibilizatzeko balioko duen baterako balio-sistema bat.

Ez dago **printzipioen eta balioen esparru** komunik, zenbait sistemaren eta eragileren bidez beste jarduketa-eredu batzuk koherentziaz sustatu ahal izateko. Tratu ona ardatz izango duen baterako ikuspuntu baten falta sumatzen da, arazo horrekin lotuta esku hartzen duten eragileen jarduna bideratzeko. Tratu onak elkarren artean harremanak izateko modu bat dira, haurrei beren beharrak asetzeko eskaintzen dizkiegun zaintza-, babes, maitasun- eta sozializazio-adierazpenak dira, hazkunde egokia eta garapen fisiko, psikologiko, sozial, afektibo eta intelektual egokia izan dezan, bere ezaugarrien eta eboluzio-etaparen arabera.

Haurren eta nerabeen esparruan lan egiten duten eragileek kontrako norabidean lan egitea saihestu behar da. 360°-ko ikuspuntua duen Tratu Onaren Kultura sustatu behar da. Adibidez, ez du zentzurik eskola-esparruan balio batzuk sustatzea, baldin eta familiek sustatutako hazkuntza-ereduak ez badituz balio berak edo familiaren ereduekin koherentzia ez badute. Edo haurraren garapena eragotziko duen hazkunde-eredu bat sustatzea, bateratze-politikak edo zainketetan baterako erantzunkidetasuna ez izateagatik.

Balio horiek transferitzeko, beharrezkoa da erantzunkidetasuna printzipio gisa txertatzea eta ingurune edo testuinguru desberdinetan (familia, eskola, pediatria, komunitatea, komunikabideak…) balio-sistema bat aplikatzea.

Gure gizartean aniztasunak ez dira beti balioesten, eta oraindik genero norbatibotan hezten duen gizarte sexista dugu. Indarkeria horren kausekin lotutako faktoreen analisiak aditzera ematen du beharrezkoa dela urrats argiagoak eta koordinatuak ematea berdintasunezko gizartea lortzeko. Gizarte mota horretan, aniztasunak (afektibo-sexuala, familiarra, funtzionala, jatorrizkoa eta abar) onartuta eta txertatuta egon behar du, eta horretarako ikuspuntu global eta zeharkako bat garatu behar da, “desberdina” dena barneratu ahal izateko.

### 3. Ez da behar adina sustatzen eta sendotzen esku-hartze komunitarioa, prebentzioaren aldetik duen inpaktuarekin.

Oro har, nabaritzen da ahalegin handienak **babes gabeko egoerak artatzen** jarri direla, eta prebentzioari baliabide gutxiago eskaintzen zaizkio. Errealitate hori ia sistema guztietan gertatzen da. Hala ere, **komunitateko prebentzio-ekimenek murriztu egiten dituzte haur baten indarkeria pairatzeko aukerak,** eta horregatik, funtsezkoa da ildo horretan jardutea.

Esku-hartze komunitarioak **funtsezko funtzioa** betetzen du prebentzioan (horrez gain, funtsezkoa izan daiteke edozein esku-hartze garatzeko garaian).

Tokiko esparruan egitura, ekipamendu eta zerbitzu soziokulturalak eta gizarte-heziketakoak garatzea sustatu behar da, komunitateko eragileak bultzatuz, hala nola sexu-aniztasunaren eta kulturarteko aniztasunaren esparruan lan egiten duten nahiz hirugarren sektoreko erakundeak, esku-hartze sozialeko erakundeak eta aisialdiko heziketako erakundeak, kirol- eta kultura-erakundeak, emakumeen elkarteak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde lan egiten duten erakundeak, gurasoen elkarteak eta ikastetxeak. Horren guztiaren xedea da, alde batetik, haurrei eta nerabeei aisialdirako, kirolerako eta kulturarako sarbidea sustatzea eta erraztea, eta bestetik, gurasoei zainketako eta hazkunde abileziak garatzeko programetarako eta gurasotasun positiboari buruzko prestakuntzarako sarbidea sustatzea eta erraztea.

### 4. Kasuen detekzio goiztiarra sendotu behar da, esku-hartzeen arrakasta handitzeko: sarri, profesionalek zailtasunak dituzte indarkeria-egoerak detektatzeko eta jakinarazteko.

Haurrengandik gertu lan egiten duten profesionalek ez badakite nola identifikatu indarkeriaren biktima izan daitekeen adingabe bat, indarkeria hori luzatu egingo da, eta haurrak zer gertatu zaion azaltzen duenean, ez sinetsia izateko edo zeharkako jakinarazpen bat ulertua ez izateko aukera gehiago izango dira.

Gaur egun, **kronifikatutako** kasuen proportzio handiarekin ari da lan egiten. Izan ere, sarritan, esku hartzen denean, jada babes gabeko egoeraren historia luze bat dago atzean (gutxienez 8 edo 9 urteko haurrak dira). Kasu horietan, esku-hartzea askoz ere luzeagoa eta zailagoa da. Ez da ahaztu behar, neurri batean, familien borondatezkotasuna izanda egiten dela lan eta, egoera arrisku arinekoa bada, familiak kalte gutxiago izan dituela eta lan egitea errazagoa dela.

Ezinbestekoa da gero eta mekanismo gehiago sortzea, indarkeria lehenbailehen detektatzeko zaurgarritasunari heltzen dioten programen bidez. Izan ere, ebidentzia argiak daude: zenbat eta goizago egin esku-hartzea, orduan eta arrakasta handiagoa izango da. Zentzu horretan, komenigarria litzateke profesionalen indarkeria-egoeren **arrisku-faktoreei buruzko** ezagutza zabaltzea, beraiekin lan egiteko, indarkeriaren aurretiko adierazleak identifika daitezkeen neurrian, kasuak lehenago detektatu ahal izango baitira.

Sarri, zenbait esparruren bidez haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionalek, arazo horiei aurre egitean, **beldurra** sentitzen dute, eta zalantzak sortzen bazaizkie, kontuz ibili eta zenbait neurri hartzeko joera dute; gero, ebidentzia argiak eta sinesgarriak izatera itxaroten dute, kasuak jakinarazteko.

Detekzio goiztiarrean aurrera egiteko, badirudi beharrezkoa dela gizarte-zerbitzuek **koordinazio-lan biziago bat egitea,** ez ikastetxeekin soilik, orain arte egin den bezala, baizik eta osasunaren profesionalekin, detekziorako esparru pribilegiatua baita (pediatrak, erizainak, emaginak...) eta aisialdi eta kirol esparruko begiraleekin ere bai. Zentzu horretan, badaude zenbait esperientzia (udalerritan) informazioa eta gaikuntza trukatzea errazten dutenak, babes gabeko egoera arinak detektatzeko eta lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuekin lotzeko xedez, kasuaren jakinarazpena egiten lagunduz (Haurtzaroaren Mahaiak).

Kontuan izateko beste elementu bat da zenbait eragilek ez dutela **kontzeptuzko esparru eta irizpide partekaturik**, horrek ere garaiz detektatzea eta kasuen deribazioa oztopatzen baitu. Garrantzitsua da urratsak ematea eragileek lengoaia bera erabil dezaten, indarkeria zer den eta indarkeria zer ez den garbi izan dezaten, indarkeria moten berri izateko, tratu onari buruzko moldakaiztasunaren ikurrak identifikatzen jakin dezaten, eta identifika dezaten zer kasu bideratu behar diren gizarte-zerbitzuetara edo beste eragile batzuetara.

### 5. Ez dira nahikoak komunikabideen (telesailak, programak, albisteak…), publizitatearen, bideo-jokoen eta Interneten bidez zabaltzen diren edukiei egiten zaien ikuskaritza eta ezartzen zaizkien mugak.

Azken urteetan, urrats handiak eman dira eta komunikabideen eta publizitate-agentzien jarduketa arautzen duen araudia dago (indarkeriazko edukiekin, bereziki zaindu beharreko ordutegi-tartea eta abar), eta horri esker, aurrerapen handiak egin dira zentzu horretan, baina ez nahikoak.

Azterlan ugarik ohartarazten dute haurrak eta nerabeak **gero eta goizago eta gero eta denbora-tarte luzeagoan daudela eduki desegokien eraginpean** komunikabide horien bidez, bai eta Interneten bidez ere. Halaber, ohartarazten dute ez dagoela behar adina ezagutza indarkeriazko edukien, berdintasuna sustatzen ez duten mezuen… eraginpean egoteak adingabeengan epe ertainera eta luzera izan ditzakeen ondorioei buruz.

Nahiz eta egoera horren inguruko kezka adierazi, **badirudi ez dela izan aldaketa esanguratsurik familiengan,** hala nola bideo-jokoen erabilera murriztuz, telebista ikusteko denbora murriztuz eta Interneten erabilerari buruzko bitartekaritza aktiboa eginez.

### 6. Ez da behar adina kontuan izan hezkuntza emozionalaren eta afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren gizarte- eta hezkuntza-zeregina: batzuetan, adingabeak ez dira zenbait testuingurutan gai beren eta/edo besteen indarkeria-egoerak identifikatzeko.

Jakina, kasu horiek detektatzeko ardura haurrena izan behar ez duen arren (profesionalek, familiek eta, oro har, familiek indarkeriaren detekzioan parte hartu behar dute), garrantzitsua da beraien artean sozializatzea zein diren arreta eman behar dieten seinaleak.

Urrats batzuk eman dira haurrek eta nerabeek kontzientzia handiagoa izan dezaten atxikita dituzten eskubideei eta eragin diezaieketen indarkeria motei buruz. Hala ere, indarkeriazko adierazpenak identifikatzeko, jokabide onargarriak eta ez onargarriak bereizteko… xedea duten planteamendu gehiagoren falta sumatzen da.

Sarri, indarkeriaren sintomei ematen zaie garrantzia, indarkeriaren atzean zer kausa edo egiturazko faktore dauden erreparatu ordez. Garrantzitsua da planteamendu horri buelta bat ematea eta **indarkeriaren jatorriari heltzeko** estrategiak garatzea. Haurrak ahalduntzeari garrantzia ematen dioten estrategiak, indarkeria pairatzeko zaurgarritasun txikiagoa izan dezaten, gertatuz gero, eraginkortasunez erreakzionatzeko tresnak izateari esker.

Zentzu horretan, bereziki garrantzitsua dira **emozioen eta afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren garapenarekin** lotutako alderdiak artatzeko programak. Programa horiek prebentzio-estrategietan garrantzi handiagoa izatearen falta sumatzen da. Azterlan askok azaleratzen dute, zentzu horretan, lan hori bereziki garrantzitsua dela indarkeriazko egoerak garaiz detektatzeko (batez ere, sexu-indarkeriarekin lotuta).

## BALORAZIOAREKIN ETA ESKU-HARTZEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

### 7. Kezka gehieneko fokuei dagokienez, behar batzuk bete gabe daude, eta euskal lurralde osoan zerbitzu eta prestazioetara jotzeko aukeran ekitatea ez da behar adina ziurtatzen.

Esan den bezala, behar bezalako estaldura ez duten beharrekin lotuta, lehentasunezko 15 kezka-foku identifikatu dira. Bereziki nabarmendu behar da era askotako arreta-zerbitzuak garatzeko beharra, hauekin lotuta: adingabe erasotzaileak; "babes” funtzioa betetzen duten familiak; indarkeria pairatzen edo eragiten duten haurrak eta nerabeak eta osasun mentaleko arazoak dituztenak; sexu-abusuen biktimak diren haurrak eta nerabeak eta abar.

Bestalde, gurea bezalako eskumen-banaketako ereduan, bereziki garrantzitsua da gutxieneko arreta-estandar batzuk adosten eta onartzen direla ziurtatzea, bermatzeko indarkeria pairatzen duen EAEko edozein haurrek edo nerabek, edozein lurraldetakoa edo udalerritakoa izanda, **beharren baliokidea den arreta jasoko duela, sarbide-irizpide eta –betekizun beren arabera.**

Horretarako funtsezkoa da, arazo honi sektore anitzeko erantzun bat emateko, zer osagaik (programak, zerbitzuak, laguntzak, esku-hartzeak) izan beharko luketen funtsezkoak identifikatzea, haurrek eta nerabeek bizi dituzten askotariko indarkeria motek ongizatean izan ditzaketen epe laburrerako eta luzerako ondorioak arintzeko, suspertze-prozesuan laguntzeko eta indarkeria berriz gertatzea saihesteko. Beharrezkoa da zenbait sistematan **gutxieneko estandarrak** ezartzea erantzukizun publikoko zerbitzuetan eta prestazioetan.

Zenbait esparrutan edo sektoretan (polizia, justizia, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak…) ezartzen diren gutxieneko baliabidetarako eta zerbitzuetarako sarbidea berdintasunean sustatzeaz gain, estandarrei buruz hitz egiteak berekin dakar haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeria bizi duten guztientzat **kalitateko** zerbitzuak ematea xede duten irizpide batzuk ziurtatzea. Irizpide horiek koherentzia izan behar dute nazioarteko arauekin eta zerbitzuen diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta koordinazioa arautuko dituzten jardunbide egokiak izan behar dituzte oinarri, erantzun eraginkor bat, oso bat eta haurrak eta nerabeak ardatz dituena eskaintzeko azken xedez.

Zentzu horretan, litekeena da dauden zerbitzuetako batzuk egokitu behar izatea, beste zerbitzu batzuk ezartzea eta/edo neurri osagarriak onartzea, zenbait arreta maila ziurtatzeko.

### 8. Beharrezkoa da prozedurak arintzea eta erantzuteko bizkortasuna irabaztea.

Bestalde, profesionalak kezkatuta daude indarkeriazko egoera bat **jakinarazten denetik** (adibidez, irakasle batek oinarrizko gizarte-zerbitzuei jakinarazten dienetik) biktimarekin **esku hartzen hasten diren arte** (adibideari jarraiki, arretako gizarte-zerbitzuak harremanetan jartzen dira familiarekin eta ikerketa-prozesua abiatzen dute, eta ondoren, beharrezkoa bada eta larritasun mailak eskatzen badu, lehen mailako arretaren bidez esku hartzen dute edo kasua bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuei bideratzen diete) denbora-tarte luzeegia igarotzen delako.

Larrialdiko egoeretan esku hartzea (Gizarte Larrialdietako Zerbitzuaren edo Gizarte Larrialdien Koordinazioko Zerbitzuaren bidez) azkar samartzat jotzen da, nahiz eta **larrialdiko arreta behar ez duten lehentasunezko arretei erantzuteko** arintasun falta kezkagarria izan. Behin kasua baloratu ondoren, atzerapena maiz baliabideak esleitzeko **plazak libre egotearekin** lotuta egongo da.

Nahikoa ohikoa da itxaro-zerrenda izatea esku-hartzea abiatu ahal izateko. Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetan, kasu larrienekin lan egiten den lekuan hain zuzen, bereziki esanguratsua da hori. **Baliabide-urritasunaz** gain, **gero eta kasu gehiago judizializatzeak** berekin dakar erantzuteko denborak moteltzea (esaterako, eskola-absentismoari aurre egiteko hartutako neurriak, batzuetan, sistema kolapsa baitezakete).

### 9. Esku-hartze goiztiarra ez da zabartu behar.

Azken urteetan lortutako aurrerapen esanguratsuenen artean, udal esparruan esku-hartze goiztiarra xede duten **gizarte-heziketako esku-hartze eta esku-hartze psikosozialeko** zerbitzuen indartzea eta zerbitzu horien aldeko apustua nabarmendu behar da. Egoera arinei eta neurritsuei erantzuna emateaz gain, esku-hartze hori bigarren mailako prebentziotzat jo daiteke, nolabaiteko zaurgarritasuna duten kasuak larriagotzea eragozten baitu.

Hori lortzea, aldi berean, oso lotuta dago administrazioek **esparru komunitarioan eta** bertan lan egiten duten beste eragile batzuekin **elkartasunean** esku-hartzeak baliatzeko duten gaitasunarekin. Esku-hartze goiztiarreko lanak inpaktu handigoa eta eraginkorragoa izateko, funtsezkoa komunitateko zenbait eragile eta baliabide inplikatzea.

Ahalik eta lasterren esku hartzen hasi ahal izateko, bi korapilo askatu behar dira: alde batetik, eragile askok ez dute sistemaren trazabilitatearen berri; eta bestetik, **ez dute oso argi nori bideratu behar dizkioten** detektatutako kasuak. Horrez gainera, kasu asko **ez dira bideratzen oso agerikoak ez diren arte,** eta hori lotuta dago haurrei behar adina **sinesgarritasun** ez ematearekin.

### 10. Haurren eta nerabeen interes gorena ardatz duen esku-hartze eredu batean, beharrezkoa da esku-hartze guztietan ibilbideen pertsonalizazio maila egokia eta baliabide batzuk behar berezietara hobeto egokitzen direla bermatzea.

Suspertze-prozesua luzea da eta askotariko beharrak ditu. Hala ere, baliabideek zurrunak izateko joera dute, eta horrek ez du koherentziarik biktimak ardatz dituen ikuspuntuarekin. Eragile batzuek adierazi dute esku-hartzea indibidualizatzeko zailtasunak dituztela, eta zailtasun horiek lotuta daudela baliabide-eskasiarekin, irizpideetan eta protokoloetan malgutasun ez izatearekin eta arreta-sistema beraren zatiketarekin, ez baitu esku-hartzeko ibilbide pertsonalizatuak eta haurren eta nerabeen beharretan gehiago ardaztuak diseinatzea errazten.

Sistemaren beste arazo nagusietako bat da, oro har, arreta-eredua ez dela egokitzen **adingabeen erritmoekin.** Kontuan izan behar da haurrentzat hilabete batzuk denbora-tarte luzea direla, baina prozesu judizial baterako, berriz, oso motza.

Halaber, ohartarazi da, gizarte-zerbitzuen esparruko zenbait baliabideren bidez, adingabeekin lan egiteko garaian beste esku hartzeko eredu batzuk erabiltzen ari direla. Beraz, arretaren pertsonalizazio mailarekin lotutako, irizpideak nolabait **bateratzearen** falta sumatzen da.

Bestalde, biktimek laguntza eta babesa bilatzeko zenbait baliabidetara eta zerbitzutara jotzen dute, baina baliabide eta zerbitzu horiek ez dira berariaz **haurrentzat eta nerabeentzat** (adibidez, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, ertzain-etxeak, Gizarte Larrialdietako Zerbitzua, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-harrerako zentroak, arreta psikologikoko zerbitzuak...). Baliabide horiek, sarri, ez dituzte haurrak artatzeko **instalazio eta espazio fisiko egokiak** (pribatutasun handiagoa bermatuko duten espazio atseginagoak, segurtasun-sentsazio handiagoa emango dutenak…). Horrez gain, komenigarria litzateke bertako profesionalek haurren berariazko beharrekin lotutako **gaitasun** handiagoak eskuratzea, esku-hartzea egokitu ahal izateko.

### 11. Arretaren jarraitutasuna ez da ziurtatzen.

Esku-hartzeak nahiko maiz **eteten dira aldi baterako** zenbait arrazoi direla eta. Kasu horietan, ez da ziurtatzen arreta behar bezala jarraituko den ala ez. Etenak, sarri, lotuta daude lehen mailako eta bigarren mailako gizarte-zerbitzuen artean (dagoen eskumen-banaketaren arabera) nahiz beste sistema batzuekin kasuak **deribatzearekin**, bai eta nahikoa baliabide ez izatearekin, eta horrek berekin dakar itxaro-zerrendak izatea.

Arretaren jarraipena errazteko, komenigarria litzateke, deribatzeaz eta jakinarazteaz gain, inplikatutako erakundeek prozesuen **jarraipena** egitea eta/edo ematea eta informazio gehiago trukatzea (esate baterako, ez da ziurtatzen balorazio-txostenak egiteko informazioa eskatzen denean, inplikatutako alderdi inplikatu guztiei informazioa itzultzea).

Nahiz eta gaur egun komunikazio-kanalak izan eta, kasu bat baloratzeko, gizarte-zerbitzuen sisteman lan egiten duten eragileen arteko informazio-fluxua, oro har, egokitzat jo, batzuetan sumatzen da kasuen larritasun maila **baloratzearekin lotutako desadostasun batzuk** izan direla ("Balora” tresna izan arren).

Bestalde, ez da beti ziurtatzen **erreferentziazko profesionalaren** figura (funtsezkoa da esku-hartzeen arreta- eta koordinazio-ibilbideen koherentzia bermatzeko) esku-hartze osoan izatea, eta ohikoa da ibilbidean erreferentziazko pertsona aldatzea.

Udalerri mailan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek profesional bat izaten dute beti, eta profesional horrek kasua koordinatzeko ardura eta erreferentziazko pertsonaren rola bere gain hartzen ditu (familiaren beharretara ondoen egokitzen dena izan ohi da). Horrez gainera, udal batzuek profesional-talde bat dute, berariaz, adingabeak artatzeko (haurren zerbitzuak…) eta erreferentziazko pertsonaren lanak egiten ditu. Adierazi behar da adingabeen esku-hartzean espezializatutako pertsona horiek izateak gainerako baliabideekin koordinazioa errazten duela, hobeto ezagutzen baitituzte erreferentziazko pertsonak beste esparruetan, bai eta beharrezko dinamikak eta epeak ere.

Foru mailan, erreferentziazko profesionala izendatzeko prozedura nahiko argi egoten da, esku-hartzearen hasieratik izendatzen baita pertsona bat kasuaren arduradun (pertsona hori zein izango den zehazteko irizpideak lotura du esku-hartze motarekin eta prozesuaren unearekin edo aurrera eraman beharreko neurriarekin). Pertsona horrek balorazioa egiten du, baliabideak esleitzen ditu eta esku-hartzea koordinatzen du, eta familiek nahiz adingabeek erreferentetzat dute.

Hala ere, lehen mailako eta bigarren mailako gizarte-zerbitzuen artean desbideratzeak daudenean, kasuaren larritasunari eta konplexutasunari erreparatuz, erreferentziazko pertsona aldatu egiten da (kasuaren koordinazioa ere deribatzen da) eta horrek berekin dakar zenbait lotura apurtzea, eta horrenbestez, arretaren jarraipena zailtzea.

### 12. Beharrezkoa da arretan integraltasun handiagoa ziurtatzea, sareko lanaren ereduaren aldeko apustuaren, sendotzearen eta sustapenaren bidez.

Azaletik, irizten da sistemen arteko koordinazioan **aurrerapen** orokor bat izan dela, haurren eta nerabeen aurkako tratu txarrak jorratzeko **protokoloak** garatu baitira (hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen, gizarte-

zerbitzuen eta poliziaren… arteko koordinazioa hobetzeko protokoloak eta hitzarmenak), eta horrek eragin onuragarria izan baitu indarkeriaren biktimak diren adingabeen arretan.

Hala ere , badirudi egungo egiturek eta antolaketa-formek ez dutela errazten **esku-hartzearen osotasuna,** sareko lana, ez eta zenbait mailaren eta sistemaren artean egindako esku-hartzeak ere. Bestalde, azpimarragarria da bigarren mailako gizarte-zerbitzuen baitako **zatikatzea**, eta bestetik, sistemen arteko funtzionamendu zatitua (hezkuntza, judiziala, gizarte-zerbitzuak…).

Alderdi horri arreta jarri behar zaio, haurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria motetako askok **diziplina arteko** ikuspuntu bat oinarri duen lanketa merezi baitute, eta lanketa hori ziurtatzeko, taldean eta koordinatuta lan egiteko egiturak eta sistemak eskaini behar dira, barruan nahiz kanpoan beharrezko kontrastea egiteko aukera emango dutenak, bai eta **baterako esku-hartzeak** ere, egun oso urriak direnak. Horretarako tresna ona da batera egindako Arreta Plan Pertsonalizatu bat izatea.

Halaber, berrikusketarekin eta koordinazioarekin lotutako hobekuntzak egiteak berekin ekarriko du esku-hartzearen behar aldakorretarako egokitzeko gaitasun handiagoko sistema bat izatea, zeharkakotasun handiagoko baliabideak izatea, ez orain artekoak bezain hermetikoak.

Protokoloei dagokienez, garrantzitsua da denek genero-ikuspuntua eta kultura-aniztasunekoa behar adina txertatua dutela zaintzea. Era berean, zenbait eragile eta sistema tartean sartzen dituzten protokoloak egiten direnean, trinkotasuna bermatzeko, beharrezkoa da eragileek kasuari **erreparatzeko duten modu desberdinak** (sistemetako bakoitza eta sistema berean ikuspuntuak desberdinak izan daitezke) bat etortzea ziurtatzea lortzeko. Beti ez da erraza hori lortzea, eta zentzu horretan, lagungarria izango litzateke esparru orokor bat izatea, zer printzipiori eman behar zaion lehentasuna argitzeko. Era berean, esparru orokor horrek orientabideak eskaini beharko lituzke printzipio horiek gauzatzeko moduari buruz, nolanahi ere adingabearen interes gorena nagusi izan dadin. Halaber, funtsezkoa da denek **lengoaia bera hitz egitea.**

Arazoa protokolo falta egotea baina handiagoa da, eta zerikusia du protokoloen **hedapenarekin, zabalpenarekin eta ebaluazioarekin.** Funtsezkoa da ziurtatzea langileek protokoloak behar adina ezagutzen dituztela, beraiek aplikatuko baitituzte, eta horrez gainera, zenbait mekanismo ezarri behar dira, ezagutza besterentzen dela ziurtatzeko, langileen txandakatzea handia denean ere bai. Zabalpenari dagokionez, zenbait esperientziari balorazio positiboa eman zaie, aldian-aldian inplikatutako eragileak harremanetan jartzen dituzten koordinazio-egiturak ziurtatzen baitituzte eta partekatutako lanaren kultura sortzen baitute, kasu jakinen arazoak konpontzeko lotura jakinak soilik egiten dituzten ereduetatik urrun dagoen eredu bat oinarri hartuta. Horrez gain, kontuan izan behar da protokoloei ez zaiela beti etengabeko ebaluazioa eta berrikusketa egiten. Nahiz eta prozesuen gainbegiraketa bat egin, erakundeei zabaldu diren edo ez balioesteko aukera ematen diena, ez da ohikoa prozesuaren kalitatea bere horretan ebaluatzea. Hori egingo balitz, prozesuetan hobekuntzak identifikatu ahal izango lirateke, aplikazio praktikoa kontuan izanda.

Halaber, sistema guztietan erreferentziazko pertsonak identifikatzeari esker, protokoloak egokiago zabalduko lirateke. Batzuetan, **sistema bakoitzean erreferentziazko pertsona zehatzak** izatearen falta igartzen da, elkarrizketa eta informazio-trukea errazteko, eta hala, lankidetza arinagoa izateko. Batzuetan, giza baliabideen hornikuntza justuegia eta txandakakoegia da. Horren ondorioz, baliabideak batez ere esku-hartzean erabiltzen dira, eta ez da behar adina arreta jartzen koordinazio-lanean.

Horrez gain, komenigarria izango litzateke sistemen arteko **elkarrenganako ezagutza** hobea. Antzeman da beti ez dela behar adina ezagutzen beste eragile batzuek egiten duten lana eta profesional batzuek ez dituztela behar adina ezagutzen baliabide batzuk (esku-hartzearen zatiketa eta tartean sartutako eragileen aniztasuna direla eta, mapa konplexu bat eratzen da eta horiei buruzko informazioa sakabanatuta dago). Horren ondorioz, zaila da sektore arteko multzoaren ikuspuntua izatea, eskaini nahi den esku-hartze osoa lortzeko beharrezkoa.

Azkenik, azpimarratu behar da ohikoa dela koordinazioan beste oztopo batzuk izatea, **datuen konfidentzialtasunarekin lotuta** irizpide argiak ez izatearekin zerikusia dutenak.

### 13. Sistemak zailtasunak ditu familiaren babesa eta familia-harrera nagusitzeko.

Gaur egun, badirudi egungo baliabideak ez direla nahikoak, babes gabeko egoera detektatzean, nahi adina kasutan **familiaren babesa** bermatu ahal izateko, eta horrez gain, esku-hartzearen beharrezko intentsitate mailaz egiteko, helburuak arrakastaz lortzen saiatze aldera.

Era berean, familiaren babesean eta egoitza-harreran (lehena bideragarria ez denean jotzen da horra) lan modalitateen arteko “jauzia" handia den neurrian, interesgarria izango litzateke tarteko beste aukera batzuk aztertzea. Jada zenbait udal ari dira urratsak ematen beste aukera horiek lortze aldera.

Bestalde, egungo legediari erreparatuz, beharrezkoa litzateke **familia-harreren** proportzioa areagotzea. Hala ere, foru-aldundiek ohartarazi dute zailtasun handiak izaten ari direla harrera-familiak aurkitzeko, herritarrek ez baitiote erantzun ateratako kanpainei.

### 14. Beharrezkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta esku-hartzean kultura aniztasuna errespetatuko duen begirada eta genero-ikuspegia ziurtatzea.

Badirudi beharrezkoa dela, besteak beste, genero-ikuspuntua eta afektibitate- eta sexu-aniztasuneko eta kulturaniztasuneko ikuspuntuak aintzat hartzen dituzten politika estrategikoak oinarri hartuta lan egitea, koordinazioak ezartzeko eta esku hartzeko ildo garbiak zehazteko sistema arteko espazioak sortuz. **Berdintasun- eta immigrazio-unitateak** sartuta egon beharko lirateke espazio horietan.

Egindako esku-hartze gehienetan, ez da behar adina txertatu genero-ikuspuntua, eta familia-egituran dauden botere-harremanak eta horiek adingabeen babesik gabeko egoeran dakartzaten ondorioak aztertzean ere ez da kontuan izan genero-ikuspuntua. Funtsezkoa da ikuspuntu hori zeharka txertatzea, haurrak artatzeko garaian nahiz familiekin egiten den lanean.

## BALIABIDEEKIN, EBALUAZIOAREKIN ETA BESTE BATZUEKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

### 15. Arazoaren neurria dela-eta, erantzunkidetasunean oinarritzen diren eta ardura bereziko fokuetan eragingo duten erakunde-apustuak egitea komeni da.

Garrantzitsua da lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen lidergoa aitortzea, lehen hartzaileak eta babes-sistemarako sarbidea diren aldetik. Izan ere, gainerako sistemak laguntzen eta orientatzen izugarrizko lana egiten dute, indarkeriako egoerak hautematen nahiz jakinarazten, bai eta gainerako sistemekin funtsezko lotura gisa ere.

Hala ere, adingabeen aurkako indarkeriaren arazoari aurre egiteko **ardurak** ezin du soilik gizarte-zerbitzuen sistemarena izan. Sistemek nolabaiteko erantzunkidetasuna falta dutela sumatzen da. Eskumen maila ere oztopo handia da. Izan ere, batzuetan eragin handia du kasuaren eskumena batena edo bestearena izateak.

Zenbait esparrutako profesionalek nolabaiteko bakardadeaz bizi dute kasu batzuen inguruko erabakiak hartzea, ez baita beti erraza nola jardun behar den jakitea. Profesionalen arteko **lankidetza** funtsezkoa da beldur horiei aurre egiteko. Interesgarria da zenbait profesionalen ikuspuntuen arteko osagarritasuna aintzat hartzea. Kasua kontrastatzen eta koordinatzen denean, irtenbide posibleei buruzko ikuspuntu zabalagoa eta aberatsagoa lortzen da.

Arazoaren handitasuna dela eta, erakundeek apustu globalagoak eta **arrisku eta kezka handieneko fokuei** neurri handiagoan erreparatuko dien estrategiak bere gain hartu beharko lituzkete. Horretarako, lan-arlo horiekin lotutako aurrekontu-konpromisoen aldeko apustua ere egin behar da.

### 16. Indarkeria moduak aitortuko dituen eta baterako kontzeptu-esparru argia eskainiko duen araudi-esparrua garatzearen falta sumatzen da.

Egindako legegintza-aldaketei esker, detekzio eta arreta sistemak hobetuz joan diren arren, behar bezain esparru zabala ezartzeko Lege Integrala ez izateak berekin dakar biktima batzuek eta beste batzuek **eskubide berak aitortuak ez izatea** eta aurreikusitako baliabide batzuk eskuratzeko aukera ez izatea. Arazoaren handitasuna eta tartean sartutako eragileen aniztasuna direla eta, horren neurri sakona justifikatzen duten hobekuntza esanguratsu kuantitatiboak eta kualitatiboak egin behar dira.

Gaur egun, erakundeen eta instituzioen bidezko esku-hartzea sektorializatuta dago. Izan ere, eskuarki, indarkeria mota zehatz batekin egiten da lan, eta horrek, batzuetan, arazoaren **ikuspuntu globalagoa** izatea eragozten du.

Batzuetan, zenbait eragilek kasu berari buruzko ikuspuntu desberdina izan dezakete, eta gerta daiteke araudiaren inguruko interpretazioan ere bat ez etortzea (adibidez, haurren babesaren esparruan eta indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretaren esparruan lan egiten duten profesionalen artean. Egungo araudi-esparruak ez du behar adina argi adierazten zer hartu behar den indarkeriatzat, eta ez du garbi bideratzen esku-hartzea. Izan ere, ez du adierazten **zer printzipiori eman behar zaion lehentasuna** gatazkaren kasuan, ez eta zer irizpide hartu behar diren aintzat, praktikara ekartzeko.

Horrez gain, adostutako **kontzeptuzko esparru** baten falta sumatzen da, tartean sartutako eragile multzoak elkarren artean partekatu ahal izateko eta denek lengoaia bera erabiltzea errazteko.

Epe laburrera **Estatuko Lege Organiko bat** izateko aurreikuspena aukera bat izan daiteke gure autonomia-erkidegoaren mailako arau bat sustatzeko.

### 17. Eskuragarri dauden giza baliabideak ez dira nahikoak kopuruari eta gaikuntzari dagokionez, hazten eta gero eta konplexuagoa egiten ari den arazoari erantzuteko.

Artatutako kasuen **bolumena** gero eta handigoa den bitartean, baliabideak ez dira proportzio berean ugaritzen ari. Eskariari eta egoeren **konplexutasunari** erantzuteko giza baliabideen gabezia erreala dago. Nahiz eta baliabide gabezia ia maila guztietan nabarmentzen den, bereziki nabarmena da udalerri mailan. Izan ere, **udal txiki** batzuek ez dute behar adina baliabiderik erantzukizun publikoko zenbait gizarte-zerbitzu eskaintzeko, eta sarritan, foru-aldundien laguntza handiagoa eskatzen dute.

Era berean, baliabide askotan **langileen txandakatzea** oso handia da. Indarkeriaren eta adingabeen esparruan lan egiten duten zerbitzuetako profesionalek arrisku psikosozial handia bizi dute, bai eta lanaren gainkarga ere. Egoera hori ez dago behar adina aitortuta eta osasuna kaltetzen die. Horrek zuzenean eragiten du txandatze mailan eta absentismo-tasan. Erakunde batzuek profesionalei arnasa hartzeko programak eskaintzen dizkieten arren, babes-baliabideen falta sumatzen da, hala nola, gainbegiratzea, babes teknikoko eta pertsonaleko beharrak artatzeko.

Egoera larriagotu egiten da herri-administrazioaren barruko funtzio publikoko baliabideen esleipen-sistema behar bezain malgua ez izatearen ondorioz. Halaber, zeresana du sistema horrek ez izatea kontuan **esperientziarekin** eta heldutasunarekin lotutako irizpideak, kolektibo horrekin esku-hartzeko lanpostuak dituzten langileen gehiengoak behar baitituzte.

Arartekoak nahiz erreferentziazko haurren erakundeek berariaz helarazitako beste gai bat bereziki kezkagarria da: egoitza-harrerako zentroetako esku hartzeko profesional taldeen lan-baldintzak. Baldintza horiek (lantoki egokiak, bidezko ordainsariak eta ratio egokiak, ikaskuntza gainbegiratzeko eta kontrastatzeko lekuak izatea, taldeko lana, emandako lana egiteko beharrezko osasun psikikoko egoerari eustea…) funtsezkoak dira adingabeekin kalitateko lana egiteko, eta horrenbestez, helburuak ahalik eta gehien betetzeko

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da esparru batzuetako (poliziala, judiziala, gizarte-larrialdiak…) langileen berariazko prestakuntza zabaltzea, oro har adingabeekin egin beharreko esku-hartzearekin lotutakoa (izan ere, adingabeek entzute berezitua behar dute, berariazko laguntza…) eta berariazko indarkeria formen arretarekin, batez ere sexu-indarkeriako kasuekin, lotutakoa. Lehen esan den bezala, haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei gaikuntza handiagoa falta zaiela sumatzen da, indarkeria-zantzuak garaiz identifikatzeko eta jakinarazteko, bai eta babes-giroak sortzeko ere.

Ez EAEko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle-ikasketen curriculum akademikoetan, ez eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko irakasleen master-programetan ere, ez dago aipu bakar bat ere haurren aurkako indarkeriari eta babesari buruz. Horrenbestez, ezin da sexu-abusuen edo adingabeen aurkako beste edozein indarkeria motaren detekzioari buruzko prestakuntzarik txertatu. Zuzenean haurrekin lotutako esparruetako beste profesionalekin ere antzekoa gertatzen da.

Adingabeen aurkako indarkeria azaltzen duten egiturazko faktoreen artean emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuak daudenez, ezinbestekoa da modu batera edo bestera esku hartzen duten profesionalen multzoan (fiskalak, epaitegietako talde psikosozialetako profesionalak, polizia, familia-elkarguneko langileak, gizarte-zerbitzuetako profesionalak, irakasleak, begiraleak...) genero-ikuspuntuarekin lotutako prestakuntza egokia bermatzea.

### 18. Komenigarria da lanbide-sekretua, konfidentzialtasuna eta datuen babesa diziplina anitzeko esku-hartzeko egoera batean nola integratu hausnartzea.

Nahiz eta batzuetan konfidentzialtasuna, lanbide-sekretua eta datuen babesa sinonimoak balira bezala erabili, ez dute esanahi bera eta ardura desberdinak dakartzate. Gai horiek inplikazioak dituzte profesionalen arteko harremanetan eta koordinazioan, nahiz lan eragiten den erabiltzaileekin dituzten harremanetan.

Lanbide-sekretua esaten zaio zenbait profesionalek erabiltzaileengandik jasotako informazioa isilpean gordetzeko legezko betekizunari. Epaiketetan ere betekizun hori bete behar dute. Konfidentzialtasuna, ordea, konfiantzan egiten edo esaten dena da, bi edo pertsona gehiagoren arteko elkarrenganako segurtasun-testuinguru batean, eta printzipio etiko batekin lotuta dago. Azkenik, datuen babesa erabiltzaileek beren espedientean dauden edo dagozkien beste edozein dokumentutan dauden izaera pertsonaleko datuak 3/2018 Legean, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan eta Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean aurreikusitakoa betez tratatuak izateko duten eskubidea da, profesionalek gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileei buruz jakindako informazioa gorde behar izatekoa ere bai.

Azken puntu horri dagokionez, herri-administrazioek nahiz zerbitzuak ematen dituzten erakundeek nabarmen egin dute aurrera eta ahalegin handiak egin dira prozedurak eta programa informatikoak datuen babesari buruzko araudiari egokitzeko. Era berean, lanerako beharrezko dokumentuak sinatzeko eta haien kopia egiteko prozedura hedatzen ari da. Dokumentu horietan zer informazio lortzen den, zaintza norena den, dokumentu horren erabilera zertarako baimendu zen eta baimen hori aldatzeko edo kentzeko gaitasuna zehazten dira.

Bestalde, behin eta berriz aipatzen dira alderdi horiek, kasu bati buruzko informazioa ezin dela partekatu justifikatzeko. Hala ere, kasu baten egoerari buruzko beharrezko informaziorik ez izatea oztopo izan daiteke edo esku-hartzea motel dezake eta sistemen edo azpisistemen arteko esku-hartzeak eta baterako helburuak abian jartzea geldotu. Horrez gain, biktimak zehazki behar dena baino gehiagotan lekukotza eman behar izatea ekar dezake. **Erakunde-lankidetzarekiko eta** biktimen **duintasunarekin eta berriz biktimizatzearekiko** ondorioak behar adina esanguratsuak dira, gai horren inguruko praktikak berrikusi behar direla mahaigaineratzeko, profesionalen artean zer informazio partekatu behar den adosteko…

### 19. Ez dago fenomenoa neurtzeko eta haren jarraipen egokia egiteko datuen erregistro-sistemarik.

Indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabeen inguruko datuak biltzeko sistema egokirik ez dago, estatistika egoki bat izateko aukera emango lukeena.

Gero eta kasu gehiago detektatzen badira ere, ebidentziak falta dira biktimen kopurua handitu den edo datuek salaketarekin lotutako kontzientziazio handiagoa soilik adierazten duten zehazteko. Indarkeria mota batzuen **nagusitasunari** buruzko datuak falta dira batez ere, hala nola sexu-abusuei buruzkoak, eta horrenbestez, zaila da arazoa zenbaterainokoa den osorik zehaztea.

Berariaz hobetu beharko lirateke Informazioa biltzeko irizpideak estandaritzatzea eta bateratzea eta datuen estatistika-tratamendu egokia, alderagarria eta denboran zehar etengabea ziurtatzeko prozesuen sistemazizazioa, bai eta adingabeen konfidentzialtasunerako eta intimitaterako eskubidea bermatu ere.

### 20. Esku-hartzeetan, protokoloetan eta abarretan hobekuntzak ezarri ahal izateko ezagutza eskuratzeko ebaluazio-mekanismoak ez dira nahikoak.

Ez dago behar adina hedatutako **ebaluazio-kultura,** programen eragina neurtzeko, eta hobekuntzak identifikatzea, eta horiek oinarri hartuta, esku hartzeko prozedurak eta koordinazio-protokoloak egokitzeko.

Programa batzuen jarduera ebaluatzerakoan, zaila da analisian behar bezainbeste sakontzea eta hori lotuta dago informazio-bilketako sisteman hautemandako defizitekin. Ezin da egoki neurtu, baldin eta ez bada adierazleen aurreikuspen bat egiten eta ez badira **datuak biltzeko protokoloak** diseinatzen.

Zenbait programaren eta esku hartzeko ereduen (familiaren babesa vs. egoitza-harrera…) gizarte- eta ekonomia-**eraginaren** konparazio-ebaluazioak egitea bereziki interesgarritzat jotzen da, erabakiak zenbait ebidentzia arrakastatsu abiapuntutzat hartuta hartu ahal izateko.

Horrez gain, aintzat izan behar da ebaluazioa gardentasun-ariketa bat dela eta herri-administrazioek konpromisotzat bere gain hartu beharko luketen **kontu-ematea**.

### 21. Sistemak berriz biktimizatzen duela dakigun neurrian, erakunde-indarkeria zaintzeko eta geldiarazteko tresnen falta sumatzen da.

Fiskaltzak gero eta sentsibilizazio handiagoa du beren jarduketek adingabeengan dituzten ondorioei buruz (zenbait arau berrik positiboki lagundu dute horretan, hala nola 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena) eta zenbait alderdi gero eta gehiago zaintzen hasi dira, besteak beste: aurrez sortutako probak, erasotzaileak eta erasotuak nahastea saihestea... Hala ere, badirudi oraindik beharrezkoa dela norabide horretan urratsak ematea, prozesuak "atseginagoak" izatea lortzeko.

Datuen arabera, oraindik biktimak berriz biktimizatzen dituzten baldintza daude, adibidez: baliabide batzuetan haurrak artatzeko **espazio egokirik** ez izatea (bulego judizialetatik bereizitako espazioak, polizien atxiloketa-zentroetan adingabeak zaintzeko berariazko aretoak, harrera-zentroak behar baino gehiago okupatuta egotea); **prozesu** judizialen eta administratiboen **luzatzearen** ondoriozko zailtasunak (esaterako, bakarrik dauden adingabe atzerritarren adina zehazteko proba ez da beti erabakigarria, adingabeek emandako dokumentazioen inguruko mesfidantza sortzen da eta prozesuak gehiegi luzatzen dira); adierazpen presentzialak egiteko derrigortasuna...

Gaur egun, adingabeen lekukotza euskal epaitegien oso epai gutxitan eratzen da aurrez. Euskal epaitegietako esku-hartze psikosozialeko taldeetako profesionalek **froga aldez aurretik era** dezaketen arren, instrukzio-epaileak eskatu behar du eta geroago ahozko fasean onartua izan. Kasu gehienetan ez da hori gertatzen.

Beste zailtasunetako batek zerikusia du, froga aldez aurretik eratzen bada ere, haurrak sistema judizialera iritsi aurretik bere historia lauzpabost aldiz (familia, ikastetxea, polizia, ospitalea) azaldu behar izatearekin. Agente batzuen ustez, ez dira nahikoa neurri hartzen, biktimak **lekukotza behin eta berriz** ematea saihesteko.

## 22. Haurrei eta nerabeei ez zaie behar adina aditzen.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak nahiz beste arau batzuek haurrei eta nerabeei **entzunak izateko eskubidea** aitortzen die, eta betebehar bat da eskubide horren ardura hartzea. Zehazki, 8/2015 Legeak, uztailaren 22koak, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duenak, 2. artikulua aldatzen du, adingabearen interes gorenari buruzkoa, eta hau aipatzen du esplizituki: “Adingabearen nahiak, sentimenduak eta iritziak kontuan hartuko dira, baita haren interes gorena zehazteko prozesuan progresiboki parte hartzeko duen eskubidea ere, betiere adingabearen adina, heldutasuna, garapena eta bilakaera pertsonalaren arabera”. Era berean, adingabearen interes gorenarekin lotuta hartzen diren neurri guztiek adingabearen iritzia aintzat izan behar dutela adierazten du: “Adingabeak informazioa jasotzeko, entzuna izateko eta prozesuan parte hartzeko eskubideak izango ditu, indarrean den araudiari jarraikiz”.

Esku-hartzeko prozesuetan, adingabearen iritzia kontuan hartu ohi da esku-hartzeko planak lantzeko eta eskuratzen diren lorpenak ebaluatzeko, eta iritzi hori espedientea osatzen duten txostenetan jasotzen dira. Hala ere, gurasoen eta/edo tutoreen **baimenak** entzutea asko baldintzatzen du. Izan ere, batzuetan, ez dute errazten adingabea esku-hartzearen aurreko faseetan sartzea, hala nola detekzioan eta balorazioan.

Oso kontuan hartzeko beste alderdi garrantzitsu bat dira profesionalen mugak. Haurrak eta nerabeak entzuteko **berariazko entrenamendua** behar da eta denek ez dute. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da adingabeak entzuteko denborak helduen denboren oso desberdinak direla. Funtsezkoa da haurrak behar dituen **denboretara** egokitzea, esku-hartzeko profesionalekin konfiantza har dezaten.

Ildo horretan aurrerapenak egin badira ere, oro har, adingabeen lekukotzei ez zaie behar adina balio ematen, sarritan, irizpidean eta iritzian mendekoak izatearen ustekizuna baitago. Zerbitzu batzuek aitortzen dute: gehienetan, adingabeen ardura duten helduek (ama/aita, hezitzailea…) helarazten du adingabeen ahotsa.

# Ondorioak: erronkak eta orientabideak

**Haur eta nerabeenganako indarkeriaren arazoarekin lotuta, zertara bideratu behar ditugu ahalegin guztiak? Nola hobetu dezakegu sistemaren funtzionamendua, erronka nagusiei erantzun ahal izateko?**

Aurreko kapituluan deskribatutako 15 beharrizan-fokuek eta 22 hobekuntza-arloek adierazten dutenez, ezinbestekoa da erronkak edo desafioak izatea. Horretarako, kapitulu honetan hainbat orientabide eta proposamen ematen dira, hobekuntzak txertatuz joan ahal izateko. Horretaz gainera, erronka horiek lehenetsi osteko emaitza ere eskaintzen da atal honetan, eta garrantzi handienekotzat edo lehentasunezkotzat jotako hamar erronka ere nabarmentzen dira.



Honako taula honetan, adierazitako 22 erronkak zabaltzen dira, eta lehenetsitako hamarrak adierazten.

| | Erronkak |
|---|---|
| **Sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzioa** | **1. EAEn prebentzio-estrategia integral bat garatzea.** |
| | 2. Haurrei eta nerabeei eman beharreko tratu onaren kultura zabaltzeko eta haren inguruan sentsibilizatzeko euskarri izango den balio-sistema komun bat zehaztea eta adostea. |
| | **3. Esku-hartze komunitarioa sustatzea eta sendotzea, prebentzioari dagokionez duen eragina kontuan hartuta.** |
| | **4. Kasuen detekzio goiztiarra sendotzea, esku-hartzeen arrakasta handitzeko.** |
| | 5. Komunikabideen bitartez (hala nola serie, programa eta albisteen bitartez) zein publizitatearen, bideo-jokoen eta Interneten bitartez zabaltzen diren edukien inguruko ikuskapena eta mugak areagotzea. |
| | **6. Hezkuntza emozionalak eta hezkuntza afektibo-sexualak betetzen duten gizarte- eta hezkuntza-zereginari behar duen balioa ematea.** |
| **Balorazioa, esku-hartzea eta koordinazioa** | 7. Esparrurik kezkagarrienetarako arreta-zerbitzuak garatzea eta euskal lurralde osoan zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko ekitatea ziurtatzea. |
| | **8. Prozedurak arintzea eta erantzuteko bizkortasuna irabaztea.** |
| | 9. Esku-hartze goiztiarra zaintzea. |
| | **10. Esku-hartze guztietan ibilbideen pertsonalizazio maila egokia eta, baliabide batzuen kasuan, premia espezifikoetarako egokitzapen handiagoa bermatzea.** |
| | 11. Arretaren jarraitutasuna ziurtatzea. |
| | 12. Sareko lanaren eredu bat indartu eta bultzatzearen bidez arretaren integraltasun handiagoa ziurtatzea. |
| | 13. Familia-babesa eta familia-harrera nagusitzea zailtzen duten oztopoak kentzea. |
| | 14. Esku hartzean genero-ikuspegia eta aniztasun afektibo-sexuala eta kultura-aniztasuna errespetatuko dituen ikuspegi bat ziurtatzea. |
| **Beste alderdi transbertsal batzuk** | **15. Erantzunkidetasunean oinarritzen diren eta ardura bereziko fokuetan eragingo duten erakunde-apustuak egitea.** |
| | 16. Indarkeria mota guztiak kontuan hartuko dituen eta esparru kontzeptual garbi komun bat eskainiko duen arau-esparru bat garatzea. |
| | **17. Eskuragarri dauden giza baliabideak gehitzea eta baliabide horiek hazten ari den eta gero eta konplexuagoa den arazo horri erantzuteko trebakuntza areagotzea.** |
| | 18. Sekretu profesionala, konfidentzialtasuna eta datuen babesa diziplina anitzeko esku-hartze esparru batean integratzeko moduari buruzko gogoeta egitea. |
| | 19. Fenomenoa neurtzea eta jarraipen egokia egitea ahalbidetuko duen datuak erregistratzeko sistema egoki bat ziurtatzea. |
| | **20. Esku-hartzeetan, protokoloetan eta abarretan hobekuntzak inplementatzea ahalbidetuko duen ezagutza lortzeko ebaluazio-mekanismoak zabaltzea.** |
| | **21. Indarkeria instituzionala zaintzeko eta geldiarazteko tresnak garatzea.** |
| | 22. Haurrei eta nerabeei neurri handiagoan entzutea. |

Erronka bakoitzerako, hobetzeko hainbat orientabide edo proposamen erakusten dira; nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan izatea erabilgarriak izan litezkeela erronka batekin baino gehiagorekin, eta, hortaz, antzeko auziak ager litezkeela jasota behin baino gehiagotan. Era berean, garrantzitsua da adieraztea erronkak elkarren artean sendo lotuta daudela; haietako batzuk orokorragoak dira, eta beste batzuek, berriz, alderdi espezifikoagoak dituzte xede. Hain zuzen ere, erronka orokorrenetako batzuek hainbat erronka espezifiko bil ditzakete; hala eta guztiz ere, oro har, bereizita eman dira banaka susta daitezkeela iritzitako erronkak.

Aurreko kapituluan baliatutako eskema berari jarraikiz, hiru bloke handitan sailkatuta ematen dira erronkak: prebentzioa, esku-hartzea eta transbertsalak.

## Sentsibilizazioan, prebentzioan eta detekzioan hobetzeko:

| Erronkak | Orientabideak eta proposamenak |
|---|---|
| **1. EAEn prebentzio-estrategia integral bat garatzea.** | • Prebentzio-plan integral bat garatzea indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei zuzendurik, EAEko erakunde publiko eta gizarte-erakunde nagusiek adostuta eta sustatuta. Estrategia horrek bloke honetan bildutako gainerako erronkak eta ekintzak bil ditzake.<br>• Herritarrengana oro har zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak garatzea, arazoaren neurria ezagutarazteko, eta haurrenganako indarkeria toleraezina dela zabaltzea.<br>• Prebentzio-ekintzak martxan ipintzea, indarkeriaren jatorria lantzeko.<br>• Balioetan hezteko hezkuntza-jarduerak garatzea, haur eta nerabeei ez ezik familiei ere zuzenduta.<br>• Arazoari modu zatikatuan ez baina orokorrean helduko dion estrategia baten aldeko apustua egitea.<br>• Erakundeek martxan ipintzen dituzten kanpainak koordinatzea, ikuspegi komuna dutela bermatzeko.<br>• Kanpaina espezifikoak gauzatzea, sexu-abusuaren inguruko mitoak akabatzeko eta halakoak detektatzea eta salatzea sustatzeko. |
| **2. Haurrei eta nerabeei eman beharreko tratu onaren kultura zabaltzeko eta haren inguruan sentsibilizatzeko euskarri izango den balio-sistema komun bat zehaztea eta adostea.** | • Printzipio eta balio komunen esparru baten prestaketa sustatzea, sistemek eta eragileek jarduera-eredu berriak modu koherentean sustatu ahal izan ditzaten.<br>• Tratu onaren kultura bultzatzea, 360°-ko ikuspegiarekin, guztion ongia eta indarkeriarik eza sustatzen duten politiken bidez, haurrak eta nerabeak ez ezik helduak ere ardatz harturik.<br>• Baterako erantzukizuna printzipio gisa biltzea eta balio-sistema hainbat ingurune eta inguruabarretan aplikatzea (familia, eskola, pediatria, esparru komunitarioa, komunikabideak...).<br>• Gurasotasun positiboko erremintak eskaintzea aita-amei, harreman osasungarriak eta afektiboak posible egiteko; hala, haurrek konfiantza-giroan hazteko aukera izango dute, beren buruan konfiantza handiagoa eskuratuko dute eta ez dira hain hauskor izango abusu-modu desberdinen aurreko manipulazioarekin.<br>• Eskola-curriculumean haur eta nerabeenganako indarkeria prebenitzeko ikasgaiak biltzea, eta adingabeak ahalduntzea.<br>• Ez-diskriminazioko eta aniztasuneko printzipioak biltzea eskola-programa guztietan eta diskurtsoan.<br>• Pertsonen arteko onarpena eta errespetua lantzeko, ezinbestekotzat jotzen da hainbat alderdi jorratzea nerabeekin, hala nola genero-rolak, maitasun erromantikoaren ideala, maskulinitate berrien sorrera, sexu-orientazioak, genero-identitateak eta abar. |

| | |
|---|---|
| **3. Esku-hartze komunitarioa sustatzea eta sendotzea, prebentzioari dagokionez duen eragina kontuan hartuta.** | • **Prebentzioaren alorreko esku-hartze komunitarioa gauzatzen duten eragileen lana babestea eta indartzea.**<br>• **Esku-hartze komunitarioan jarduten duten eragileak indartzera bideratutako jarduerak garatzea (sektorea sustatzea: ekipamenduak, aholkularitza, hitzarmenak kontratuen tokian...).**<br>• **Adingabeekin eta/edo familiekin esku hartzeko proiektu berritzaileak sustatzea prebentzio modura eta ikuspegi komunitarioekin, hirugarren sektoreko erakundeek garatuta.**<br>• **Hezkuntza-entitateen aisialdian eragiten duten inpaktu handiari balioa ematea.**<br>• **Prebentzio-ekintzak gizarte-zerbitzuetatik eta eskolatik harago zabaltzea, familiak eta profesionalak beste espazio batzuetatik inplikatuz eta arreta berezia ipiniz sozializatzeko testuinguru primarioei (kirola, aisia, kultura...).**<br>• **Sorkuntza kulturala garatzera eta kirola eta jarduera fisikoa praktikatzera bideratutako jarduerak eta proiektuak sustatzea, ikuspegi sozioedukatibotik.** |
| **4. Kasuen detekzio goiztiarra sendotzea, esku-hartzeen arrakasta handitzeko.** | • Arrisku-faktoreen inguruko jakintza areagotzea eta hausnarketan sakontzea.<br>• Koordinazioa areagotzea hezkuntza arautuko eta ez-arautuko, osasungintzako eta hezkuntzako profesionalen eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean.<br>• Esparru kontzeptual bat eta hainbat irizpide partekatu garatzea, berehalako deribazioa errazteko.<br>• Prestakuntza eta aholkularitza eskainiko dituen sistema bat zabaltzea, bermatuz haur eta nerabeekin hainbat esparrutan lan egiten duten profesionalek badituztela gaitasun egokiak indarkeria-kasuak identifikatzeko, baita behar adina babes ere haien zalantzak konpontzeko.<br>• Ikastetxeetako barne-protokoloak ezagutaraztea, irakasleek jakin dezaten nola jokatu eta hezkuntza-komunitateak konfiantza ematen dioten dokumentuak izan ditzan, guztia ere kasu posibleak prebenitzen, detektatzen eta maneiatzen laguntzeko.<br>• Oinarrizko gizarte-zerbitzuen lana indartzea esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuen bidez, garapen komunitarioko prebentzio-funtzioa sustatuz.<br>• Tratu txarren, jazarpenen edo abusuen kasuak edozer zantzu edo susmo izan orduko jakinarazten direla sustatzea, haurraren edozer jakinarazpen ere barnean hartuta.<br>• Detekzio goiztiarreko taldeak sortzea, hainbat sistematako profesionalek kontsultak egin ahal izateko zalantzak dituzten kasuetan eta, alde horretatik, aholkularitza eskaini ahal izateko. |

| | |
|---|---|
| **5. Komunikabideen (serieak, programak, albisteak…), publizitatearen, bideo-jokoen eta Interneten bidez zabaltzen diren edukiei buruzko ikuskaritza eta mugaketak areagotzea.** | • **Familien artean kontzientzia piztea, sentsibiliza daitezen zer-nolako ondorioak izan ditzakeen haurrak eta nerabeak denbora luzean indarkeriazko edukien eraginpean egoteak komunikabideetan, bideo-jokoetan, Interneten eta abarretan.**<br>• **Familiek bitartekaritza- eta gainbegiratze-ekintzak egin ditzaten sustatzea, informazioa eta gaikuntza eskainiz, haurrek komunikabide horien kontsumoa dosifikatzea sustatzeko.**<br>• **Familia eta lana bateragarri egiteko laguntza-neurriak sustatzea, gurasoek denbora gehiago izan dezaten haurrak hezteko.**<br>• **Haurrak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arduratsuan heztea, herritar digitalak sustatzeko laguntza eskainiz, eta kontzientzia harraraztea intimitateak, pribatutasunak eta eskubide eta obligazioak babesteak duen esanahiari buruz. Haurrei hainbat irakurketa-gako eta defentsak garatzen irakastea.**<br>• **Arduradun instituzionalei arreta handiagoa eskatzea ikus-entzunezko programazioari dagokionez, eta, batez ere, telebistako edukiak arautzea, eredu positiboen eta balio altruisten presentzia areagotzeko.** |
| **6. Hezkuntza emozionalak eta hezkuntza afektibo-sexualak betetzen duten gizarte- eta hezkuntza-zereginari behar duen balioa ematea.** | • Sexu-hezkuntza eta hezkuntza afektiboa adin goiztiarretatik sustatzea, hezkuntza afektibo-sexualarekin eta harremanetako tratu onarekin lotutako prebentzio-programak areagotuz, guztia ere abusuak izateko probabilitateak murrizteko eta nerabeak hobeto prestatuta egon daitezen errespetuan oinarritutako harremanak ezartzeko.<br>• Emozio propioak eta besterenak errekonozitzeko eta kudeatzeko lana sustatzea.<br>• Programa horiek curriculum akademikoan biltzea (bermatzea irakaskuntza arautura jotzen duten haur guztiek jasotzen dutela hezkuntza hori), denbora eta adin bakoitzerako material estandarizatu egokiak eskainiz, trebatutako langileek emanda eta jarduera puntualak izan daitezen saihestuz. |

## Balioespenean, esku-hartzean eta koordinazioan hobetzeko:

| Erronkak | Orientabideak eta proposamenak |
|---|---|
| **7. Esparrurik kezkagarrienetarako arreta-zerbitzuak garatzea eta euskal lurralde osoan zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko ekitatea ziurtatzea.** | • Arreta-estrategia bat garatzea, esparrurik kezkagarrienekin lotutako premiak estaltzen direla bermatzeko.<br>• Gutxieneko estandar partekatu batzuk ezartzea, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko. Prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko bidea ekitatiboa izatea EAEko lurralde historiko guztietan, haietako bakoitzaren bitarteko espezifikoen beharrizanei erantzunez.<br>• Kalitatezko zerbitzuak ematera bideratutako gidalerroak eskaintzea, jardunbide onetan oinarri harturik, eta lurraldeen arteko berdintasuna bermatuz arretaren kalitateari dagokionez.<br>• Jardunbide egokiak indartzea eta sendotzea eta proiektu berritzaileetako inbertsioa areagotzea.<br>• Behar duten biktima guztientzako esku-hartze terapeutikoa bermatzea, laguntza psikologikoa eskainiz, haur bakoitzak indarkeriarekin izandako esposizioak eragindako kaltea berroneratzeko.<br>• Behar adinako babesa ematea babes-eginkizuna betetzen duten baina sexu-abusua eta bestelako indarkeria-moduak jasaten dituzten familiei. Sarbide unibertsaleko arreta psikologikoko bitarteko publikoak eta laguntza eskaintzea haurren sexu-abusuak edo -erasoak bizi dituzten familia guztiei.<br>• Gidak edo eskuliburuak prestatzea, familiei orientazioa eskaintzeko seme-alabek sexu-abusua izandako egoera bati aurre egiteko beharrezkoak diren alderdiei buruz.<br>• Adingabe erasotzaileekin esku-hartzea sustatzea.<br>• Berdinen arteko indarkeriaren lekuko diren haurrekin eta nerabeekin esku hartzea sustatzea. |
| **8. Prozedurak arintzea eta erantzuteko bizkortasuna irabaztea.** | • Jakinarazpenaren eta esku-hartzearen artean igarotzen den denbora murriztea, denbora-faktorea erabakigarria baita esku-hartzeak arrakasta izan dezan.<br>• Eskura diren bitartekoak eta plazak areagotzea, gizarte-zerbitzuen alorreko programa batzuetako itxarote-zerrendak desagerrarazteko.<br>• Gai hau lantzeak behar adina aurrekontu-lehentasun izan dezan lortzea.<br>• Adingabeak inplikatuta dauden prozesu judizialak arintzeko neurriak ezartzea.<br>• Sistemen arteko koordinazioa hobetzea. |

| | |
|---|---|
| **9. Esku-hartze goiztiarra zaintzea.** | • **Eragile guztiek kasuak deribatzeko mekanismoak ezagutzen dituztela bermatzea.**<br>• **Profesionalak sentsibilizatzea, haurren lekukotzari ematen zaion sinesgarritasuna eta garrantzia areagotzeko, eta, hala, oso bistakoak izan aurretik kasuak deribatzen laguntzeko.**<br>• **Babesgabetasuna balioesteko erremintak berrikustea eta hobetzea, tresna psikologikoak eta gurasoak gaitzeko eskalak txertatuz, guztia ere indarkeriaren inpaktua balioetsi ahal izateko eta, ondorioz, diagnostiko hobea egin ahal izateko.**<br>• **Kasu jakin bat deribatzen duenaren eta hartzen duenaren artean adostasunik ez dagoenean, batzuetan sortzen diren korapiloak desegiten laguntzeko mekanismoak ezartzea (gaitasunak, itxaropenak eta halakoak direla eta), bereziki gizarte-zerbitzuetako lehen eta bigarren mailako arretan, baina baita beste eragile batzuen artean ere.**<br>• **Udal-programak ezartzea, prebentzioa, arreta goiztiarra eta esku-hartzea lantzeko.**<br>• **Zailtasunak dituzten familiei laguntzeko programak sustatzea. Paradigma aldatzea eta ez lan egitea babesgabetasunetik abiatuta, baizik eta babesera begira aritzea, hauskortasun-kasuei arreta gehiago eskainiz eta halakoetan esku hartzeko bitarteko gehiago bideratuz (babesgabetasun-egoerara iritsi aurretik lantzeko).** |
| **10. Esku-hartze guztietan ibilbideen pertsonalizazio maila egokia eta, baliabide batzuen kasuan, premia espezifikoetarako egokitzapen handiagoa bermatzea.** | • Bitartekoak eta protokoloak oro har eta, bereziki, arreta soziosanitarioko bitartekoak malgutzea, bermatzeko ez direla atzean geratzen ezaugarri eta premia jakin batzuk dituzten hainbat adingabe.<br>• Protokoloak ezagutaraztea aplikatu behar dituzten pertsonen artean.<br>• Profesionalen prestakuntza eta espezializazioa erraztea.<br>• Esku-hartzea haurren eta nerabeen erritmoetara egokitzea.<br>• Haurretara bereziki zuzentzen ez diren bitartekoetako hainbat espazio egokitzea haurren eta nerabeen premia berezietara.<br>• Familia-elkarguneen egitekoa eta haietan gauzatzen den esku-hartzea berrikustea.<br>• Sexu-abusuak tratatzeko ereduari buruzko hausnarketa egitea, Europako testuinguruan ibilbide luzea duten esperientzia interesgarriak balioetsiz, hala nola «haurren etxeak» (espazio lagunkoi horietan, bermatzen da haurrei entzuten dietenek badutela horretarako gaikuntza berezia, eta hara jotzen dute agenteek esku hartzeko; halakoetan, lekukotzak errepikatzea saihesten da, koordinazioa hobetzen...). |
| **11. Arretaren jarraitutasuna ziurtatzea.** | • Deribazio-uneetako esku-hartzeetan etenak saihestea, arreta etengabea bermatuko duten ordezko aukerak sustatuz.<br>• Segimendua bermatzea, arreta-bitartekoetara deribatu ostean.<br>• Hausnarketa egitea zer estrategia balia daitezkeen ahalik eta gutxien aldatzeko esku hartzeko ibilbidean zehar diren erreferentzia-pertsonak eta igarotze-prozesuez arduratzen direnak.<br>• Adingabeak babesteari dagokionez, sistema homogeneoago bat lortzeko bidean aurrera egitea eta arreta-*continuuma* bermatzeko bidean hobetzea, eskumenen zatiketa gainditzen saiatuz (administratiboa eta sistemen artekoa). |

| | |
|---|---|
| **12. Sareko lanaren eredu bat indartu eta bultzatzearen bidez arretaren integraltasun handiagoa ziurtatzea.** | • Erakundeen arteko esparru-akordio bat prestatzea sektoreen arteko koordinazioa lortzeko (arauren batean jasotzeko modukoa), eskumena duten erakunde guztiak konprometituz (gizarte-zerbitzuak, polizia, epaitegiak, hezkuntza-sistema eta sistema sanitarioa) eta zatikatutako jarduna saihestuz.<br>• Egitura egonkorrak eta operatiboak sortzea protokoloak zabaltzen direla bermatzeko, guztia ere gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, osasunaren eta aisialdiaren esparruarekin lotutako bestelako agenteen artean. Agenteek elkartzeko eta kasuen, zalantzen eta halakoen gainean lan egiteko egiturak sortzea, lan partekatuaren eta erantzunkidetasunaren kultura sortuz (aldian aldiko koordinazio eta kolaborazioekin edo gai bati buruzko prestakuntza espezifikoarekin sortzen dena baino handiagoa).<br>• Kasuei heltzeko diziplina arteko ikuspegia bermatuko duten lan-sistemak sustatzea.<br>• Protokoloak hedatzen, zabaltzen eta ebaluatzen kontu berezia hartzea.<br>• Sistema bakoitzean harremanetarako eta erreferentziako pertsonak identifikatzea, koordinazioak eta informazio-trukea arintzeko.<br>• Koordinazioak eskatzen duen dedikazioa kontuan hartzea, giza baliabideen zuzkidura zenbatesteko garaian.<br>• Sistema batzuetako eta besteetako eragileen artean hizkuntza eta kontzeptu-esparru bera adostea eta erabilaraztea. Argi eta garbi definitzea indarkeria, koordinazioa, ebaluazioa eta tankera horretako kontzeptuak, eta zer xede duten adingabeen eta nerabeen ongizaterako.<br>• Bermatzea jazarpenaren eta ziberjazarpenaren kontrako borrokan inplikaturik daudela bai hezkuntza-komunitatea (familia-ingurunea eta haurrak berak), bai osasun-esparrua, gizarte-zerbitzuak eta beste sistemak ere.<br>• Eztabaida-guneak eta elkar ezagutzeko eremuak sortzea, oro har sistema batzuen barruan dagoen zatiketa gainditzen laguntzeko, akordioak lortzen laguntzeko eta esku-hartze partekatuak sustatzeko. Zehazki, koordinazioa hobetzea haurrei arreta eskaintzeko zerbitzuen eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimez arduratzen direnen artean, ekintza partekatuak abiaraztea sustatuz.<br>• Eskubideen gatazka-egoeretan erabakiak hartzeko hausnarketa egitea eta irizpideak partekatzea (gurasoen eskubideak *vs* haurraren eskubideak, ez denean epairik), «adingabearen interes gorenaren» gailentasuna jarduera guztietan efektibo egiteko moduari dagokionez. |
| **13. Familia-babesa eta familia-harrera nagusitzea zailtzen duten oztopoak kentzea.** | • Familia hartzaileak eta/edo adoptatzaileak kaptatzeko sistemak hobetzea.<br>• Familia hartzaileak eta/edo adoptatzaileak hautatzeko protokolo eta irizpideen hausnarketa eta berrikuspena.<br>• Bitartekoen modalitatea areagotzea, malgutzea eta dibertsifikatzea, familiak gordetzea bermatzeko programak ezartzeko. |

| | |
|---|---|
| **14. Esku hartzean genero-ikuspegia eta aniztasun afektibo-sexuala eta kultura-aniztasuna errespetatuko dituen ikuspegi bat ziurtatzea.** | • **Hainbat jarduera garatzea, esku-hartzeetan genero-ikuspegia, aniztasun afektibo-sexuala eta kultura-aniztasuna errespetatuko dituen ikusmolde bat modu transbertsalean txertatzera bideratuta.**<br>• **Adingabeekin oro har zuzenean edo zeharka lan egiten duten profesionalen oinarrizko prestakuntza areagotzea.**<br>• **Jardunbide egokien koordinazio eta truke handiagoa sustatzea, hainbat sistemaren arteko ikuspegi transbertsalak biltzean.** |

## Beste alderdi transbertsal batzuk hobetzeko:

| Erronkak | Orientabideak eta proposamenak |
|---|---|
| **15. Erantzunkidetasunean oinarritzen diren eta ardura bereziko fokuetan eragingo duten erakunde-apustuak egitea.** | • Sistema batzuek eta besteek arazo honekin duten erantzukizuna har dezaten sustatzea (gizarte-zerbitzuez harago doan arazo bat da).<br>• Estrategian ikuspegi bat biltzea, arazoaren arrisku-faktoreetan arreta ipiniko duena (prebentzioa) eta ez arazoaren efektuetan bakarrik (arreta).<br>• Gai honekin lotutako apustuak aurrekontu-konpromiso bilakatzea.<br>• Haurrenganako indarkeriaren kontra borrokatzeko estrategia integral bat sortzea, dokumentu operatibo moduan, administrazioaren maila guztiak inplikatuko dituena eta prebentzioa, detekzioa, esku-hartzea eta berroneratzea sustatzeko neurriak planteatuko dituena. |
| **16. Indarkeria mota guztiak kontuan hartuko dituen eta esparru kontzeptual garbi komun bat eskainiko duen arau-esparru bat garatzea.** | • Haurrenganako indarkeria desagerrarazteko lege bat garatzea, haurrak babesteko konpromiso publikoa bilduz eta, hala, profesionalen beharrezko erremintak izan ditzaten fenomeno hori desagerrarazteko prozesuan aurrera egiteko. Eragileen erantzukizunak eta prozesuak ezarriko dituen lege bat, baita esparru kontzeptual erkide bat ere. |
| **17. Eskura diren giza baliabideen kopurua areagotzea eta haien gaikuntza hobetzea, arazoaren dimentsioarekin eta konplexutasunarekin koherentzian.** | • Beharrezko bitarteko-zuzkidura bermatzea, pertsona-bolumen gero eta handiagoari arreta eskaintzeko (bereziki gizarte-zerbitzuen esparruan eta udalik txikienetan). Bereziki lehentasunezkotzat jotzen diren lan-esparruetan bermatzea (kezka berezia sorrarazten duten eremuak).<br>• Haur eta nerabeenganako indarkeria-kasuetan oro har esku hartzen duten langileei eta bereziki gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten dutenei zainketa hobea eta haien arrisku psikosozialei arreta espezifikoa eskaintzen zaiela bermatzeko mekanismoak ezartzea, arretaren kalitatean inplikaturik egon litezkeen aldetik.<br>• Haur eta nerabeenganako indarkeria-kasuetan oro har esku hartzen duten langileen eta bereziki gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten dutenen errekonozimendua hobetzea.<br>• Arreta-ratio hobeak zehaztea dela gizarte-zerbitzuen esparruan, dela judizialean eta sanitarioan, alde horretatik nahitaez bete behar diren estandarrak ezartzen dituen araudia garatuz.<br>• Langileen errotazio maila handiak esku-hartzean dituen efektuak minimizatzeko mekanismoak ezartzea, hala nola prozedurak sistematizatzea, informazioa erregistratzea eta abar. |

| | |
|---|---|
| | • Prestakuntza-premiak estaltzea, indarkeria mota batzuekin eta besteekin lotutako bitartekoetako langileen artean behar adinako espezializazioa bermatzeko (sexu-indarkeria, berdinen arteko tratu txarrak...).<br>• Indarkeria mota desberdinekin lotutako oinarrizko prestakuntza jarraitua eskaintzea, baita haur eta nerabeen kolektiboarekin lan egiten duten profil profesional (publiko zein pribatu) guztietan esku-hartze egokia emateko kontuan hartu beharreko ikuspegiekin loturik ere, guztia ere indarkeria prebenitzen, detektatzen eta jakinarazten dela bermatzeko, baita haien eskubideen gaineko informazioa helarazteko ere.<br>• Arazo berriak identifikatzeko aukerak sortzea eta halakoetan esku hartzeko jardunbide egoki integralak.<br>• Jardunbide egokiak partekatzea eta espazioak sortzea komunikazioa eta etengabeko prestakuntza bermatzeko sistema guztietako profesionalen artean, jardunbide profesionaleko ikusmoldearekin.<br>• Ikastetxeetako irakasleen eta aisialdiko, kiroletako eta halakoetako begiraleen prestakuntza-curriculumetan indarkeriari buruzko prestakuntza eta haurrak babestea biltzea.<br>• Biktimak artatzeko zerbitzuari behar adina bitarteko, prestakuntza eta protokolo ematea, haur biktimei arreta eskaini ahal izateko, bereziki sexu-abusuen kasuetarako. |
| **18. Sekretu profesionala, konfidentzialtasuna eta datuen babesa diziplina anitzeko esku-hartze esparru batean integratzeko moduari buruzko gogoeta egitea.** | • Datuen babesa eta informazioa trukatzeko sistemak bateragarri egitea ahalbidetuko duten prozedurak garatzea, diziplina arteko esku-hartzea sustatzeko, ahalbidetzeko eta areagotzeko.<br>• Auzi horri buruzko praktikak berrikustea, informazioa trukatzeko sistema hobetzeko eta adosteko zer informazio trukatu behar den profesionalen artean.<br>• Hausnartzea nola egin daitekeen bateragarri berriro ez biktimizatzeko printzipioa (lekukotza behin eta berriz eman behar ez izatea) konfidentzialtasun-eskubidearekin. |
| **19. Fenomenoa neurtzea eta jarraipen egokia egitea ahalbidetuko duen datuak erregistratzeko sistema egoki bat ziurtatzea.** | • Bermatzea badirela egoerari buruzko behar adina datu, errealitatearekin egokituta eman behar diren erantzunak planifikatzera bideratutako analisiak egin ahal izateko.<br>• Irizpideak bateratzea datuak biltzeko garaian, egokiro interpretatzen direla bermatzeko.<br>• Haurren sexu-abusuari buruzko prebalentzia-azterketak egitea EAEn, haur biktimen errealitatera hobeto egokitutako prebentzio-, babes- eta arreta-politika integralak sustatu ahal izateko.<br>• Haurren eta Nerabeen Euskal Behatokia indartzea, giza baliabideen eta bitarteko materialen zuzkidura egokiarekin, haurrenganako indarkeriarekin lotuta esleitzen zaizkion erantzukizunarekin, helburuekin eta erronkekin koherentzian. |

| | |
|---|---|
| **20. Hobekuntzak ezarri ahal izateko ezagutza eskuratzeko behar beste ebaluazio-mekanismo zabaltzea.** | • **Behar adina irmotutako ebaluazio eta etengabeko hobekuntzako kultura sustatzea, dela esku hartzeko programei dagokienez, dela prozedura, protokolo eta halakoei dagokienez, guztia ere hobekuntza-arloak identifikatzeko, emandako erantzunen efikaziarekin eta efizientziarekin loturik.**<br>• **Indarkeriaren arazoaren bilakaerari segimendua egitea, behar den erantzuna egokiro antolatu ahal izateko.**<br>• **Esku-hartzeen ereduak eta paradigmak berrikustea, eta esku-hartze integralago eta berritzaileagoak garatzeko urratsak egitea.** |
| **21. Indarkeria instituzionala zaintzeko eta geldiarazteko tresnak garatzea.** | • Behar adina erregistro- eta segimendu-mekanismo gaitzea, indarkeria instituzionalaren intzidentzia aztertu ahal izateko hainbat esparrutan, eta ez judizialean bakarrik.<br>• Prozesu judizialek adingabeengan duten inpaktu negatiboa minimizatzea, haien ongizatea babestuz eta berriro biktimizatzeko prozesuak saihestuz.<br>• Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak bistaratzea polizia-eginbideetan (salaketak...), eta polizia-kidegoetako profesionalen prestakuntza hobetzea.<br>• Haurraren bigarren mailako biktimizazioa saihestea, administrazioaren instantzia desberdinetan elkarrizketak errepikatzearen ondorioz (polizian, maila judizialean, osasun-sisteman, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan...).<br>• Esparru judizialean, adingabeenganako sexu-abusuen prozedurak izapidetzeari eta egiteari lehentasuna ematea, denbora luzeegian aritzeak ez diezaion kalte egin adingabeak berroneratzeari eta haien eskubideak berrezartzeari, edo haien lekukotzak ez dezan kalterik izan.<br>• Justiziako profesionalak trebatzea haurrenganako sexu-abusuen ezaugarrien inguruan.<br>• Epai guztiak behar beste arrazoitzea, adingabearen interes gorena banan-banan kontuan harturik.<br>• Ertzaintzaren jarraibideak eta barne-zirkularrak kasu guztietan betetzen direla bermatzea; alegia, ez egitea galdeketarik sexu-abusuen biktima izan diren adingabeei.<br>• Esku-hartzeak ahalik eta bizkorren egiten direla bermatzea, eta ziurtatzea badituztela biktimei eta erasotzaileei zuzendutako jarduketak, eta, berdinen arteko indarkeria-kasuetan, baita haiei dagokien taldeari bideratuak ere.<br>• Adingabe erasotzailearekin hartutako neurriak biktimaren eskubideak berrezartzera, berriro ere heztera eta kontzientzia hartzera bideratuta daudela bermatzea, eta ziurtatzea neurri horiek ez dutela zigor-ikuspegia bakarrik. |

| | |
|---|---|
| | • Epaitegiek aldez aurretik osatutako frogaren erabilera eta onarpen orokortua sustatzea, biktimaren lekukotza zaintzeko eta denboraren poderioz ez ditzan galdu balioa, naturaltasuna eta sinesgarritasuna, esperientzia behin eta berriro kontatu behar izatearen ondorioz.<br>• Esku-hartzeen segimendua eta jarraitutasuna hobetzea, ezarritako neurria bete ostean (adingabe arau-hausleak).<br>• Osorik aplikatzea Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legeak eta 80/2009 Dekretuak ezarritako arau-esparrua, aurreikusten diren bitarteko eta aukera guztiak balioetsiz; izan ere, adingabe arau-hausleekin loturik hartzen direnak baino harago doaz.<br>• Adingabeentzako polizia-instalazioak eta erregistro espezifikoak ezartzea, legeak aurreikusten duen moduan.<br>• Epaitegietan gune lagunkoiak egokitzen aurrera egitea.<br>• Abokatuen ofizioko txandak eskainitako defentsa-zerbitzua eta prestakuntza espezifikoa hobetzea.<br>• Sistema judizialaren eta polizialaren arteko harremana sustatzea babes-zerbitzuekin, lehen mailako arreta-zerbitzuak barnean hartuta. |
| **22. Haurrei eta nerabeei neurri handiagoan entzutea.** | • Haurrek eta nerabeek Haurren eskubideei buruzko Konbentzioan jasota daukaten partaidetzarako eskubidea egikaritzea.<br>• Profesionalak prestatzea, entzunak izateko eskubidea bermatzeko.<br>• Adin desberdinetara egokitutako erremintak baliatzea eta adingabeen beharrizanak kontuan izatea etapa ebolutibo bakoitzean, haien iritzia kontuan izateko esku-hartzearen une guztietan eta haien bizitzari eragiten dien erabaki orotan.<br>• Haurren partaidetzari balioa ematea eta haien ekarpenak kontuan izatea prebentzio-, detekzio- eta komunikazio-mekanismoak ezartzean.<br>• Partaidetza eta entzunak izateko eskubidea bideratzen laguntzeko mekanismoak ezartzea. |

# Eranskina

## Erakunde parte-hartzaileen zerrenda

1. AGINTZARI KOOPERATIBA
2. ARARTEKOA
3. AVAIM ELKARTEA (Tratu Txarrak Jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkartea)
4. AMURRIOKO UDALA
5. BILBAOKO UDALA
6. DONOSTIA-SAN SEBASTIANKO UDALA
7. IRUNGO UDALA
8. LEIOAKO UDALA
9. VITORIA-GASTEIZKO UDALA
10. GASTEIZKO BERRITZEGUNEA
11. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
12. ARABAKO FORU ALDUNDIA - GOFE (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea)
13. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
14. GIPUZKOAK FORU ALDUNDIA- HNET (Haur eta Nerabe gaietarako Eskualdeko Taldeak)
15. EMAKUNDE
16. EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea)
17. ATZERRITARRAK ETA IMMIGRAZIOA-GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA ARABAN
18. EUSKO JAURLARITZA-JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA
19. EUSKO JAURLARITZA-JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA-GIPUZKOAKO PROBINTZIA FISKALTZA
20. EUSKO JAURLARITZA-HAURREN ETA NERABEEN BEHATOKIA
21. EUSKO JAURLARITZA-SEGURTASUN SAILA
22. EUSKO JAURLARITZA-HEZKUNTZA SAILA
23. EUSKO JAURLARITZA-OSASUN SAILA-OSAKIDETZA
24. HZ ZERBITZUAK
25. IRSE (GIZARTERATZE INSTITUTUA) ARABA
26. IRSE (GIZARTERATZE) BIZKAIA
27. ISEI-.IVEI (Eusko Jaurlaritzako Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)
28. ANAR FUNDAZIOA
29. ORTZADAR FUNDAZIOA
30. SAVE THE CHILDREN
31. UNICEF EUSKADI
32. UTE ORTUELLA (Ortuellako Zentro Terapeutiko Hezigarria).

# Baliabideen mapa zehatza

Azterlanaren xedearekin lotuta, baliabide publiko erabilgarrien zerrenda bat eskaintzen da, esanguratsuentzat jotzen direnena. Baliagarria da zenbait eragileren artean arazoari erantzuna emateko zabaldu diren zerbitzu, programa eta tresna nagusien ezaugarriak zein diren jakiteko. Nolanahi ere, zerrenda hori ez da osoa eta eta sakonekoa izango, lan honen helburua ez baita bitartekoen gida bat egitea.

## OSASUN-ESPARRUA:

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | Deskribapena | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Adikzioetan espezializatutako osasun mentaleko zentroak** | Euskadin osasun mentaleko arazoekin lan egiten duten 23 zentro daude. Horietatik 3 mendekotasunetan espezializatuta daude (Novia Salcedo, Ajuriaguerra, Barakaldo). | |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurren eta gazteen ospitaleratze laburrerako unitateak** | Basurtoko, Donostiako eta Santiagoko ospitaleen psikiatria-zerbitzuetan daude. | Guztira 20 ohe ditu. |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurrak eta gazteak artatzen espezializatutako unitate anbulatorioak eta komunitarioak** | Haurrentzako eta gazteentzako osasun mentaleko taldeak (Bizkaian 6 daude, Galdakaon, Bilbo-Ercillan, Bilbo-Ajuriagerran, Herribitarten, Barakaldon eta Uriben; Araban 1; eta Donostian 1) eta arratsaldeko zentroa Donostian. | |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Haurrengan eta nerabeengan asaldura metal larriko programa** | Osasun Mentaleko Sarearen haurren eta gazteen berariazko arloko profesionalek garatutako programa intentsibo espezializatu bat da eta helburu hauek ditu: nerabeen eta haurren nahasmendu mental larrirako Tratamendu Intentsiboko Programak ezartzea; ospitaleratze-beharrak murriztea; kaltetuen bizitza-kalitatea hobetzea. Osasun sare orokorrak (pediatria) nahiz haurren eta gazteen osasun mentalean espezializatutako taldeek bidera ditzakete gaixoak. | |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila eta Hezkuntza Saila | **Programa terapeutiko hezitzailea** | Programa hori Hezkuntza Sailarekin elkarlanean garatzen da, eta horri esker, gaixotasun mental larriak dituzten eta derrigorrezko eskolatze adinean dauden adingabeei arreta terapeutikoa eta hezitzailea eska dakieke, denbora-tarte zehatz batean berariazko esku-hartzea behar badute (ez da Egonaldi Luzeko Unitatetzat hartzen). Lan-ereduak eskola-egunetan "in situ" eginiko esku-hartze terapeutikoak ditu oinarri. 16 urte arteko haurrak onartzen ditu programak. 3 zentro terapeutiko hezitzaile daude, 1 Lurralde Historiko bakoitzean. | Guztira 20 plaza ditu. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | Tutoretzapeko adin txikikoen programa-Adin txikikoak | Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Umeen Zerbitzuak artatutako arrisku-egoera larrian dauden edo babesgabetasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen diagnostikorako eta tratamendurako arreta psikiatrikoko eta psikologikoko programa bat da, Osakidetzako langileek garatua. Hasieran, urtean 100 adingabe artatzeko proiektatu zen. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Modulu psikosozialetako ume eta nerabeentzako Osasun Mentaleko programa** | Babesgabetasun-egoeraren arriskuan dauden eta beste arazo batzuk dituzten adingabeentzako programa da, bai eta haien familientzako ere. Adingabeekin esku hartzeko udal programek artatu ahal dituztenak izan ohi dira programaren hartzaileak. | 2018an, guztira 129 adingabek parte hartu dute (86 mutil eta 43 neska). |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ICEBERG programa** | DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) lehen eta bigarren zikloko ikasleentzako prebentzio unibertsalerako programa bat da. Irakasleek edo trebatutako langileek ikasgelan emateko diseinatu da hezkuntza-esparruan aplikatzeko egin den materiala. Edukiaren aplikazioan hiru zutabe bereizten dira: pertsona (ikasleen asertibitatea sendotuko da), substantzia (alkoholaren efektuei buruz hitz egingo da) eta ingurunea (pareen taldeen eragina jorratuko da). | |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ALKOHOLAREN ARRISKUA programa** | Alkoholaren kontsumoari buruzko prebentzio selektiboko programa bat da, DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei, jada ohikoak edo ez hain ohikoak dituztenei, zuzendua. Alkoholaren kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko tailerrak dira, eta kontsumo arduratsurako jarraibideak ematen dituzte. Kontsumo horiek eragin ditzaketen kalteen eta arriskuen kontzientzia hartzea eta nork bere burua zaintzeko jokabideak eskuratzea eta sendotzea lortu nahi da. | 2015-2016 ikasturtean, guztira 4.689 ikaslek hartu dute parte. Guztira 234 tailer egin ziren 87 ikastetxetan eta 43 udalerritan. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **ALKOHOLEMIA-PROBAK programa** | Aisialdiaren esparruko prebentzio selektiboko programa bat da. Esku-hartze ibiltariak dira, batez ere udan eta Euskadiko udalerrietako zaindariaren jaiak direnean egiten dira, nerabeen eta gazteen artean. Alkoholemia-proba kualitatibo bat da, festa-esparruan dagoen publikoaren arreta biltzen duena. Prozesu berean, alkoholaren kontsumoa prebenitzeko lana egiten da, batez ere kontsumoari buruzko sinesmenak desmitifikatuz eta haren efektuei, arriskuei eta kalteei buruz sentsibilizatuz. | 2019an, guztira 71 karpa instalatu ziren eta guztira 14.484 alkoholimetria egin ziren. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **MIMARTE programa** | DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako prebentzio unibertsaleko programa bat da. Mimoa, magia eta umorea erabiltzen ditu ikasleen parte-hartzea pizteko eta alkoholaren kontsumoari buruzko hausnarketa pizteko. Komunikazio- eta prebentzio-estrategia du oinarri, eta alkoholaren kontsumo-egoeren eta pertsonen osasunaren eta zenbait gizarte-arazoren arteko kausa-ondorio lotura identifikatzea eta aitortzea du xede. | |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Adingabeak eta alkohola programa** | Arazo horri holistikoki aurre egiten dio programak. Izan ere, zenbait adin-tartetan eta gizarte-taldetan alkoholaren gehiegizko kontsumoak adin-tarte eta gizarte-talde guztien parte-hartzea eta ardura behar duela irizten du. Horregatik, gazteengan alkoholaren kontsumoa prebenitzea biztanleria osoaren arduratzat hartzen du. 36 ekintzako multzo baten bidez, helburuak gazteengan eta ikasleengan ardazten ditu, baina gurasoengana, ostalaritzako langileengana, irakasleengana, osasun-esparruko profesionalengana eta gainerako gizarte-eragileengana ere bideratzen da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Lonjalaket** | Aisialdiko prebentzio selektiboko programa bat da, lonjetan/etxabeetan/txokoetan drogen kontsumoa prebenitzea ardatz duena. Kontsumitzen duten gazteentzat da, aisialdian esparru horretan jarrera arduratsua hartzeko xedez. | 2016abm 46 esku-hartze egin ziren 33 lonjetan. Guztira, 614 esku-hartze egin ziren (405 mutil eta 209 neska). |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Testing** | Aisialdi eta dibertsio espazioko prebentzio selektiboko programa bat da, eta legezkoak ez diren drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteari eusten dio. Ibiltaria da eta batez ere zaindari-jaietan garatzen da. Batez ere aisialdian legez kontrako substantziak kontsumitzen dituzten edo kontsumitzeko asmoa duten pertsonei zuzendua da, bereziki kontsumitzen hastear daudenei. Hala ere, haien inguruneko pertsonak (batez ere koadrila eta lagun-taldea) eta legez kontrako drogen inguruko interesa duen edozein kontsumo horrek dakartzan ondorioei buruz kontzientziatzea eta informatzea lortu nahi du, batez ere egungo legaltasunik gabeko eta desinformazioko egoeran. | 2016an, 51 esku-hartze egin ziren, eta guztira 13.465 parte-hartzaile izan ziren eta 982 analisi egin. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Udako sentsibilizazio-kanpaina aisialdi- eta dibertsio-eremuetan drogen kontsumoari buruz** | Prebentzio unibertsal komunitarioko kanpaina bat da, tokiko erakundeen sarearekin lankidetzan ezartzen dena. Eusko Jaurlaritzari atxikitako adikzioen plana egiten ari diren udalen eta mankomunitateen bidez banatzen da materiala. Materialen artean hauek daude: "Bete zaitez… baina emozioz!": adikzioen eta alkoholaren kontsumoaren prebentzioa aisia- eta dibertsio-espazioetan; "Alkohola adingabeei? Ezta urrik ere!"; "Kontsumo kontzientea. Zentzuz jokatu". | Normalean, prebentzio-sarea osatzen duten tokiko 48 erakundeen ia erdiak parte hartzen du kanpaina horretan. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | mendekotasunak | Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila | **Banaketa arduratsua** | Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa, batez ere ostalaritzako langileei zuzendua, bai eta adingabeekin lan egiten duten arautu gabeko irakaskuntzetako profesionalei ere, hala nola aisialdiko begiraleei. Materialen bidez, aisialdiaren kalitatea hobetu nahi da ezagutzak eta jarduketa-trebetasunak eskuratuz, alkoholaren kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko nahiz kontsumoaren eraginpean dauden pertsonekin esku hartzeko. Material horien helburua da kontsumoari lotutako legezko arriskuen, arrisku fisikoen, psikologikoen eta sozialen berri izatea eta arrisku horiek murrizteko jarraibideak eskuratzea. | 2016. urtean, 11 tailer egin dira 9 udalerritan, eta 139 pertsonak hartu dute parte. |

## HEZKUNTZA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskolako absentismoa; Eskolara ez agertzea | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Eskolatze-programa osagarria** | Programa horren helburua da, behin neurri arrunt eta aparteko neurri oro agortuta, gizarte-zailtasunak edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten 14 eta 16 urte arteko ikasleen hezkuntza-beharrei erantzutea da. Zenbait abilezia tekniko eta tailerreko ezagutza garatzen dira, etorkizunean zer lanbide hartuko duten bideratzeko baliagarriak. Aldi berean, prestakuntza-jarduera eta DBHren xede-mailak lortzea motibatzen da. | 2018an, 93 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bideratuz programa** | Eskolatze Osagarriko Programen baitan, programa hau gizarte-zailtasun nabarmena edo ikastetxera egokitzeko zailtasun larriak dituzten DBHko ikasleei zuzendua dago, osasun mentaleko arazo baten ondorioz jokabide-arazo larriak dituztenei. Hamar plazako erreserba bat da. | 2018an, 10 neraberekin egin zen lan. |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Osasun mentala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Osatuz programa** | Gizarte-heziketako programa bat da, eskola-ingurunean osasun mentaleko arazoekin lotutako jokabide asaldagarri larriak dituzten ikasleak artatzea helburu duena. Programaren xedea da lan pertsonalizatua egitea, beste erakunde batzuekin koordinatuz (Ikastetxea, Berritzegune, Osasun Mentala…) eta irizpide terapeutikoak erabiliz familian nahiz komunitatean. | 2018an 63 adingaberekin egin zen lan (10 neska eta 53 mutil). |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskolako absentismoa; Eskolara ez agertzea | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa** | Gizarte Ekintza Arloko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gailu bat da, Bilbon bizi diren adingabeei eragiten dieten absentismo-egoerak eta eskolatze-eza prebenitzea, garaiz detektatzea eta arreta zuzena ematea helburu duena. Adingabe horiek Haur Hezkuntzako, Derrigorrezko Hezkuntzako etapatan daude eta 16 eta 18 urte artekoak ere badaude, lanean hasteko eta helduaroari ekiteko laguntza-programa gisa. Halaber, familiei ere zuzenduta dago programa hau. Eskolatu gabeko adingabeen eta adingabe absentisten zerrendak oinarri hartuta, egoera orokorra balioesten eta esku-hartzeko plan bat diseinatzen da. | 2017an, 1.204 adingabe artatu ziren. |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | bizikidetza | Bilboko Udala (Berdintasun Saila eta Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak Saila) | **BOSA! programa Aniztasunaren alde eta diskriminazioaren aurka** | Zinemaren bidez balioetan hezteko programa bat da. Zenbait gai jorratzen ditu, hala nola aniztasuna, kulturartekotasuna eta bizikidetza, Bilbon eskolatutako nerabeen artean kultura-arrazoiengatik jokabide diskriminatzaileak prebenitzeko. Horrez gain, pertsona guztien eskubideen errespetua sustatzen lagundu nahi da, kultura edo jatorrizko herrialdea gorabehera. | 2018. urtean, guztira 11 ikastetxek, 837 ikaslek eta 44 irakaslek hartu zuten parte programa honetan. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | Bilboko Udala (Berdintasun Saila, Lankidetza Saila eta Herritarren Partaidetza Saila) | **Genero-indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko tailerrak. Senar-emaztegaien arteko tratu onen alde.** | Tailer hauen bidez, gazteriari "generoaren betaurrekoak" eskaini nahi zaizkio, menderatze- eta zapalketa-egoerak identifikatu ahal izateko, tratu onak eta benetako maitasuna zertan dautzan ikasteaz gain. Ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxe pribatuetan eta OLHtan egiten dira, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko, Batxilergoko, prestakuntza-zikloetako ikasleei nahiz irakasleei eta gurasoei zuzenduta daude. | 2017/2018 ikasturtean, 3.112 gaztek parte hartu zuten: 1.491 neska eta 1.621 mutil izan ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa/ esku-hartzea | koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, Osasun Zerbitzuak, Ertzaintza, Fiskaltza eta Epaitegia | Haurren eta nerabeen babesgabetasun eta tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta –abusuaren egoera posibleen aurrean hezkuntza-esparruan prebenitzeko eta jarduteko protokoloa, eta hezkuntza-esparruaren eta adinez txikikoaren babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza- eta koordinazio-protokoloa. | 2016. urteko Protokoloa da, hezkuntza-esparruan prebenitzeko eta jarduteko oinarrizko protokoloa, eta babesgabetaun-egoera, tratu txarrak, sexu-abusua edo -jazarpena (fisikoa edo psikologikoa) sufritzen ari diren, sufritu duten edo hori sufritzeko arriskuan dauden adingabeekin esku hartzen duten eragileekin lankidetzan aritzeko protokoloa. Protokoloaren helburua da adingabeekin esku hartzen duten profesional guztiek egoera horiek detektatzeko eta ahalik eta modurik egokienean, azkarrenean eta eraginkorrenean jokatzeko eredu bat izan dezaten, adingabeen eta haien eskubideen babesean esku hartzen duten erakunde guztien ahalegin pertsonalak eta materialak koordinatzea erraztuz. | . |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | esku hartzekoa | Ziberbullyinga | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ziberbullyngaren aurrean eskolan jarduteko protokoloa. EMICI.** | EMICIk (Ziberbullyngari buruzko Diziplina Anitzeko Ikerketa Taldea) 2011n egindako protokoloa. Jarduketa-gida bat eskaintzen die ikastetxeei ziberbullyng-egoerei aurre egiteko, eta aldi berean, ziberbizikidetzako arazoen gakoak ulertzea errazteko. | |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bullynga | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **EAEko ikastetxeetan eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gida.** | EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak 2004-2005 ikasturtean gida hau egin zuen, eta ikastetxe guztien eskura jarri zuen. Lehen aldaketa 2007ko maiatzean egin zen. Gida honen helburua da orientabide bat eskaintzea, ikastetxe batean detekta daitezkeen jazarpen-kasuen tratamendua erraztuko duena, arazoari azkar, eraginkortasunez eta ikasleentzako segurtasunez heltzeko. | |
| **Beste batzuk** | esku hartzekoa | LGTBI kolektiboak | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ikastetxeek trans ikasleen edo arautu gabeko genero-jokabideak dituzten ikasleen familiei jarduteko protokoloa.** | 2016ko protokolo horrek jarduketa-gomendioak eskaintzen ditu ikastetxeentzat adingabe transei edo arautu gabeko genero-jokabideak dituztenei laguntzeko, bai eta transfobia dela-eta diskriminazio, eskola-jazarpen, indarkeria edo haurren tratu txarren kasu posibleen aurrean laguntzeko ere. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Emakumeen genitalen mutilazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Hezkuntza-esparruan emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko gida** | 2016ko gida honetan, emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzearekin, profesionalen ardurarekin eta ikastetxeko jarduketa-protokoloarekin lotutako oinarrizko jarduketa-printzipioak biltzen dira. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila eta Segurtasun Saila | Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetza-hitzarmena, jokabide desegokiak, berdinen arteko indarkeriazko egintzak eta tratu txarrak eta eskola-jazarpena (bullynga eta ziberbullynga) prebenitzeko neurriei buruzkoa, eta oro har, eskola-esparruan bizikidetza kalte dezaketen egoera guztiak prebenitzekoa. | 2018ko akordio horren helburua da bizikidetza era baikorrean lantzeko neurriak eta prozedurak zehaztea, prestakuntza-ekintzen bidez. . Akordioaren xedea da bizikidetzaren aurkako egoerak prebenitzeko ekintzak sakon jorratzea eta ikastetxeei aukerak eta baliabideak ematea, ikastetxe barruko bizikidetza kalte dezaketen egoerak egoki kudeatzeko. | |
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa/ esku-hartzea | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Bizikasi programa** | Programa honek ikastetxeak bizikidetza baikorreko eta jazarpen-egoera posibleak ez onartzeko espazio seguruak izaten laguntzea du helburu. Xede horrekin, programak hiru jarduketa-esparru aurreikusten ditu: prebentzioa, esku-hartzea eta ebaluazioa. Ikastetxe bakoitzean lau pertsonaz osatutako "talde dinamizatzailea" eratzea aintzat hartzen du: ikastetxeko zuzendaria, ikasketaburua, orientatzailea eta irakasleren bat. | Irakasleen % 60 inguruk oinarrizko sentsibilizazioko prestakuntza jaso du, eta ikastetxeen % 30ek, berariazko prestakuntza. Ikastetxeen % 87,5etan baterako hezkuntzaren arduradun bat izendatuta dago. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | bekak | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabentzako hezkuntza-bekak** | Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak diren emakumeen nahiz haien seme-alaben eskura jartzen dira unibertsitateko bekak eta unibertsitatekoak ez direnak. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | eskolatzea | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben berehalako eskolatzea** | Genero-indarkeriaren biktimen seme-alabek genero-indarkeriaren ekintzen ondorioz etxez aldatu behar badute, eskubidea dute bizileku berrian berehala eskolatzeko. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Berdinen arteko tratu txarrak** | Prebentzioa | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | Ikastetxeko Bizikidetza Plana egiteko gida | 2016ko gida honek ikastetxeei laguntza eta orientazioak eskaini nahi dizkie, zenbait dokumentu estrategiko egiteko. Gidaren helburua da hezkuntza-orientabideak eta –materialak ematea, Bizikidetza Plana berrikusteko eta/edo egiteko eta urtero zehazteko. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Baterako hezkuntza | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila | **Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako eskuliburua** | 2016ko eskuliburu honek ekarpen teorikoak jasotzen ditu genero-indarkeriari eta desberdintasunari buruz, bai eta genero-indarkeria prebenitzeko jarraibideak ere. Hezkuntza-komunitate osoari zuzendua dago. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Baterako hezkuntza | EMAKUNDE eta Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. | **Nahiko programa** | Berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria-ezerako baterako hezkuntzako programa bat da, Lehen Hezkuntza ikasleei zuzendua. Berdintasunezko bizikidetza sustatzen du, balioetan heziz, giza eskubideak eta genero-rolen analisia oinarri harturik. Ikasleen arteko bizikidetza eta harremanak hobetzea du helburu, berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako heztea, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, askotariko gaiak lantzen dituzten materialen bidez. | 2018an, 43 ikastetxek hartu zuten parte. 2017/2018 ikasturtean 2.025 neskarekin eta 2.088 mutilekin egin zen lan, eta 2018/2019 ikasturtean, 2.888 neskarekin eta 3.181 mutilekin. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eskolako absentismoa; Eskolara ez agertzea | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, EUDEL eta Bizkaiko Foru Aldundia | **Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: "eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko" 2017-2018** | Programak eskolatze-ezaren arazoa aztertzen du, legezko esparrua, helburuak eta erakundeen jarduketak zehazten. Lau ikasturteko iraupena du, tartean sartutako erakundeen berariazko hitzarmenaren bidez luzagarria. Bizkaiko Lurraldean derrigorrezko eskolatze adinean dauden haurren eta nerabeen eskolatua izateko eskubidea burutu nahi du. Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak, Eudelek eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatua. | |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | bizikidetza | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila eta Hezkuntza Saila | **Sare publikoko eta itunpeko sareko ikastetxeetan ikasgeletan elkarbizitzako eta bide-segurtasuneko gaiak zabaltzeko eta txertatzeko elkarlan-akordioa** | 2018ko sailen arteko hitzarmen horren helburua da neurriak ezartzeko garaian bideratzea, neurri horien ezarpena sustatzea eta sakon jorratzea hezkuntza-esparruan. Neurri horiek jokabide desegokiak eta indarkeriazko egintzak prebenitzeko, faktore baikorren edo prebentzioko faktoreen presentzia babestu eta sustatzeko, eta bizikidetza egokia asaldatzen duten jokabideak murrizteko edo indargabetzeko dira. | 2016-2017 ikasturtean, 36.345 ikaslek hartu zuten parte. |

## POLIZIA-ESPARRUA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Bullynga | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila | **Komunikazioa oinarri hartuta, prebentzio-programa** | 250 ertzaina inguruko talde batek garatzen du programa hau, aniztasunaren, berdintasunaren eta ez diskriminatzearen alde lan egiten duten zenbait elkartetan eta gizarte-kolektibotan, bai eta ikastetxeetan eta hezkuntza-zentroetan ere, hitzaldiak emanez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun eta Hezkuntza sailen arteko lankidetza-hitzarmenari esker. | 2018an, 1.114 dibulgazio-jarduera egin ziren, eta horietatik 56 aniztasunaren esparruan izan dira. 37.709 pertsonari eman zitzaien prestakuntza, eta horietako 1.336k adimen-aniztasuna zuten. |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Informazioa eta orientazioa | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila | **Ertzain-etxeak** | Edozein delituren biktima den biztanleria joan daiteke ertzain-etxera salaketa bat jartzera. | |

## ESPARRU JUDIZIALA

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Sexu-indarkeria | Eusko Jaurlaritza. Justizia, Hezkuntza, Osasun Sailak, Gizarte Zerbitzuak eta Ertzaintza | **Europako Kontseiluaren Hitzarmena Berresteko Tresna, haurrak sexu-esplotaziotik eta -abusutik babesteko. 2007ko urriaren 25ean Lanzaroten egina** | Europako Kontseiluko estatu-kideek hitzarmen hori egin zuten, haur guztiek, adingabe diren aldetik, familiaren, gizartearen eta Estatuaren aldetik ezinbestean babes-neurriak jasotzeko eskubidea dutela aintzat izanda. Hitzarmenak helburuei, neurriei... buruzko 13 kapitulu biltzen ditu. | |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Delituzko egintzen biktimak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)** | Juristen, gizarte-langileen eta psikologiako profesionalen diziplina anitzeko taldeek osatuta dago zerbitzu hau. Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak delituen biktimen eskura jartzen du. Doakoa da eta borondatez eskura daiteke. Informazioa eta arreta eskaintzen du. | 2017an, 87 adingabe artatu zituen, eta azpimarratu behar da 10 genero-indarkeriarekin, 34 familia barruko indarkeriarekin eta 28 askatasunaren aurkako delituekin lotuta zeudela hor. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Zentro Koordinatzailea** | Zentro honek zerbitzu telematiko bat erabiliz garatzen du bere jarduketa. Zerbitzu horri esker, bulegoak, eguneko hogeita lau ordutan eta urteko egun guztietan, seguru daki etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren kasuetan babes-aginduei buruz ebazten duen organo judizialak bidalitako jakinarazpenak berehala jakinarazi direla. Funtzio hauek betetzen ditu: genero-indarkeriaren gaietan neurriren bat jasotzen duten ebazpen judizial guztiak, organo judizialetako bakoitzak jakinaraziko zaizkionak, jasotzea; Biktima Laguntzeko Zerbitzuak eskainitako prestazioen berri ematea genero-indarkeriaren biktima direnei eta zerbitzu horrekin koordinatzea, bidezko xedeetarako; esleitutako arduradunaren bidez edo, hala badagokio, arduradun horrek izendatutako pertsonen bidez, Estatuko Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Nagusiko informazioa eskuratzea, organo judizialek onartutako behin-behineko edo behin betiko babes-neurriak eraginkortasunez betetzen direla bermatzeko; taldeen bileretan parte hartzea eta erakundeekin harremanei eustea, genero-indarkeriako egoerak zaintzeko eta haien jarraipena egiteko gaitasuna duen informazio-sistema eraikitzeko xedez, eta Justiziarekiko Lankidetza Zerbitzuen datuei eustea, datu horiek argitaratzea eta eguneratzea, koordinatuz eta laguntza emanez, batez ere Biktima Laguntzeko Zerbitzuari, hark Koordinazio Zentroarekin datuak partekatu ahal izango baititu, bere lana eta genero-indarkeriaren biktimei eskaini beharreko arreta hobetzeko. | 2017an, guztira 2,485 emakume biktimak izan zuten prozeduraren bat abiatuta. |
| **Indarkeria oro har** | erreparazioa | Prozesu judizialak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Justizia errestauratiboko zerbitzua** | Justizia Errestauratiboa justizia-eredu alternatibo bat da. Biktimari eragindako kaltearen erreparazioa lortzea du helburu. 2016an ezarri zen eta ez du Ordainsari Justizia (zigor-justizia) ordezkatzen, baizik eta justizia gizatiartzaileago bat lortzeko aurrerapausoak emateN saiatzen da, elkarrizketa zigor-sistemaren funtzionamenduan txertatuz. | 2017an, zigor-arloko bitartekotzan, zerbitzu honetatik igaro diren 58 adingabetatik 12 eragile gisa igaro dira, eta 36, kaltetu/iraindu gisa. |
| **Indarkeria oro har** | Erreparazioa/esku-hartzekoa | Prozesu judizialak | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Talde psikosozial judiziala** | Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegiei, Auzitegiei eta Fiskaltzei laguntza emateko eta aholkularitza eskaintzeko ardura duen organo tekniko bat da talde hau. Gazteen zigor-esparrura (aholkularitza psikologikoa/soziala/hezitzailea/familiarra eta justizia errestauratiboko prozesuak), esparru zibilera (Familien Eskubideei eta Adingabeen Babesari buruzko prozesuetan familia-unitateen adituen ebaluazioa) eta helduen zigor-esparrura (haurren eta desgaituen, delituen biktimen eta babes berezia behar dutenen lekukotza lortzea eta aztertzea, adierazpen judizialetan eta aurretik eratutako probetan, bai eta lekukotza horren edo adingabeari buruzko beste txosten batzuen sinesgarritasunaren ebaluazio psikologikoa) mugatzen da haren esku-hartzea. | 2014an, 5.058 adingabe arau-hausle eta haien familiak artatu zituen, eta haien delituen biktimak prozesu errestauratiboetan. 4.191 familia-txostenetan ebaluatutako familia-unitateeetako kideak izan dira eta 226 pertsona aurretik eratutako probetan edo lekukotzaren edo kalte psikologikoaren sinesgarritasunaren ebaluazioan adingabe gisa. |

## GIZARTE ZERBITZUEN ESPARRUA

### Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuak

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Informazioa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Zeuk Esan, haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzua** | Euskal Autonomia Erkidegoko haurrei eta nerabeei zuzendutako espazio bat da, kezkatzen dituen gaiari buruz norbaitekin hitz egin ahal izan dezaten. Zeuk Esan zerbitzuak laguntza-telefono bat du eta webgune bat. Zeuk Esan telefonoa 116111 da, doakoa da eta guztiz anonimoa. Zeuk Esan webguneak blogak, sare sozialak, bideo-kanalak eta kontsulta-postontzi guztiz anonimoa du, telefonoz deitu ordez, idatzi eta zer gertatzen zaien azaltzea nahiago dutenentzat. | 2018an 979 kontsulta jaso zituen. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Informazioa | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **SATEVI: Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua** | Zerbitzu horrek eguneko 24 ordutan eta urteko 365 egunetan ematen du arreta, anonimoa da eta ez du arrastorik uzten telefonoaren fakturan. Emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenen biktimak diren emakumeak artatzen ditu, eta era berean, aholkularitza eta informazioa eskaintzen die profesionalei nahiz senideei edo gertuko pertsonei, baldin eta edozein kontu konpondu nahi badute. | 2018an, guztira 1.227 adingabe artatu zituen. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bitartekaritza | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **Familia-bitartekaritza zerbitzua** | Zerbitzu publiko bat da, borondatezkoa eta doakoa. Hirugarrengo pertsona inpartzialek eta adituk ingurune neutro batean esku hartzean datza, eta familia- eta bikote-giroan garatzen da. Familia-gatazkako egoeran dauden pertsonei zuzendua dago, eta lurralde historiko bakoitzeko familia-bitartekaritza zerbitzu bat dago. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bitartekaritza | Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila | **Familia-elkarguneak, epaileak hala bideratuta** | Elkargune hauek espazio neutral eta egokia dira, bertan, diziplina anitzeko talde tekniko baten babesaz eta segurtasun- eta ongizate-berme osoekin, krisi-egoeran dauden, edo egoera horretan egon gabe, jarraipena egiteko edo gizarte-heziketako babesa emateko zerbitzua behar duen, familia bateko kideak elkar biltzeko. Ebazpen judizial baten bidez zehazten da espazio horien erabilera. Zenbait elkargune daude: Portugaleten, Bilbon, Barakaldon, Gasteizen, Donostian... | 2017an, 1.145 adingabek (555 neska eta 590 mutil) erabili zituzten familia-elkarguneak. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | laguntza ekonomikoak | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei** | Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria) zuzendutako diru-laguntzak dira, tratu txarren egoeratik irteten laguntzeko eta independentzia ekonomikoa nahiz gizarteratzea lortzen laguntzeko. | 2018an, guztira indarkeriaren biktimak diren 295 emakumek eskatu zuten ordainketa bakarreko diru-laguntza, eta 170i eman zitzaien (guztizkoaren % 57,6ri). |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Erakunde-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza-harrerak urruntzeetarako | Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila, EUDEL eta foru-aldundiak | **Baimendu gabeko urruntzeetarako jarduketarako protokolo komuna** | 2017ko protokolo honen asmoa da baimendu gabeko urruntze bat dagoen ustezko kasuetan jokatzeko modua arautzea, egoitza-harreran dagoen haurra edo nerabea irteera-baimen baten ondoren adierazitako datan eta orduan itzuli ez delako. | |

## Foru-aldundietako gizarte-zerbitzuak

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Abegi-etxeak, larrialdiak eta familiak** | **Larrialdiko harrera-programa:** epealdi laburreko egonaldietan arreta emateko zerbitzu bat da. Babesgabetasun-egoera larrian dauden eta etxetik kanpo egon behar duten 3 urtetik beherako haurrei eskaintzen zaie, babes-neurri bat edo familia-ordezkatzeko neurri bat hautazkoa den arte. Nerabeen kasuan, gizarte- eta familia-babesgabetasuneko egoera baten ondorioz presazko esku-hartzea behar duten nerabeei arreta osoa eskaintzen dien zentro bat dago. 15 plaza ditu. 12 eta 18 urte arteko **bakarrik dauden adingabe atzerritarren arreta emateko programak** gizarteratzen, prestakuntza eskuratzen eta laneratzen laguntzen die. 42 plazako harrera-moduluak ditu. **Oinarrizko Arreta Programa-etxeak-:** 3 eta 18 urte arteko haurrei eta nerabeei arreta osoa ematea du helburu. Guztira 8 etxe daude, eta 70 plaza dituzte. | **Larrialdiko harrera-programan,** 2018an guztira 52 adingabe egon dira zentroan (22 neska eta 30 mutil). Urte amaieran, haietako 15 zeuden oraindik zentroan (8 neska eta 7 mutil). Nerabeen zentroan, 2018. urtean, 51 adingabe igaro ziren zentrotik (28 neska eta 23 mutil) eta urtearen amaieran 14 adingabe geratzen ziren (11 neska eta 3 mutil). **Bakarrik dauden adingabe atzerritarren arreta emateko programan,** 2018an 93 adingaberi eman zitzaion ostatu zentroan (88 mutil eta 2 neska). Oro har, harrera-zentroetan eta larrialdikoetan, 2018an, guztira 193 adingabe izan dira 79 plazetarako. 2018. urtearen amaieran, 72 adingabe zeuden (53 mutil eta 19 neska). **Etxeetan,** 2018an, guztira 95 adingabe artatu ziren (45 neska eta 50 mutil) eta urtearen amaieran 69 adingabe zeuden bertan (34 mutil eta 35 neska). |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Jokabide-arazoak dituzten adingabeak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Nerabeak artatzen espezializatutako programaren egoitzak** | Babesgabetasun-egoeran dauden eta jokabide-arazoak dituzten 13 eta 18 urte arteko nerabeei arreta osoa eskaintzen dien **gizarte-heziketako etxe bat da.** Egoitzan arreta emateko 24 plaza ditu eta eguneko arreta emateko 4 plaza. Horrez gainera, jokabide arazoak dituzten eta **zentro bat behar duten** adingabeei abegi emateko **behin behineko unitate** bat ere badu. | 2018an, gizarte-heziketako etxean, 41 adingabe artatu dira (32 mutil eta 9 neska) eta urtearen amaieran, 16 mutilek eta 5 neskak jarraitzen zuten bertan. Unitatean 24 adingabe artatu dira (16 mutil eta 8 neska) eta urtearen amaieran 10 adingabek jarraitzen zuten bertan (4 mutil eta 6 neska). Zentroan 6 adingabe artatu dira, eta urtearen amaieran 3 mutilek jarraitzen zuten bertan. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | emantzipazioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | Emantzipazio-programa: etxeak | Programa honek emantzipaziorako prestatzeko 2 etxebizitza ditu (bata bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat, 15 plazarekin; eta bestea, 14 eta 18 urte arteko nerabeentzat bizitza autonomorako prestatzeko, 12 plazarekin) eta 2 emantzipazio-etxebizitza (bata, 15 plazarekin, eta bestea, 5ekin, 16 eta 18 urte arteko gazteentzat). | 2018. urtean, 113 adingabe artatu ziren eta urtearen amaieran 43k jarraitzen zuten etxebizitzetan bizitzen (36 mutil eta 7 neska). |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeentzako egonaldi ertaineko abegi-zentroa: Sortuleku etxea** | Baliabide honetan behin behineko harrera, babesa eta heziketa-arreta eskaintzen zaie bakarrik dauden emakumeei edo haurdun daudenei eta/edo 6 urtetik beherako seme-alabak dituztenei eta babesgabetasun-egoera larrian daudenei, aterperik gabe egotea ekar dezakeen aldaketa bat izan dezaketenei. 7 plaza ditu. | 2018an, 4 emakume eta 7 adingabe (3 mutiko eta 4 neskato) egon dira bertan. Urtearen amaieran, zentroan 3 emakume, 3 neskato eta 1 mutiko zauden. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Familiaren babesa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: eguneko zentroak eta familiaren babeserako programak** | Eguneko zentroak egunez arreta ematen duten zerbitzuak dira. Familiei nahiz haurrei eta nerabeei eskaintzen diete babesa, adingabeen gizarteratze eta eskolaratze egokia lortzeko eta familien eta/edo zaintzaileen heziketa-estiloak hobetzeko. Eguneko 5 zentro daude eta guztira 50 plaza. Bestalde, familia-babeserako programen helburua babesgabetasun-egoerak prebenitzea da, abilezia pertsonalak, sozialak edo hezitzaileak ikasi edo hobetu behar dituzten familiei lagunduz, seme-alabak egoki arta ditzaten. Familiaren osotasuna babestea du xedetzat, haurra edo gaztea bereiztea saihestuz. | 2018an, eguneko zentroen bidez 53 pertsona artatu ziren, eta urtearen amaieran, 47k jarraitzen zuten bertan (25 mutil eta 22 neska). Familiekin gizarte-hezkuntzaren aldetik esku-hartzea egiteko programa bereziaren esparruan, 2018an 347 familiarekin esku hartu da guztira, eta 580 adingabe zeuden. Familia horietatik 253 babesgabetasun-egoera larrian zeuden (Adingabearen eta Familiaren Arloaren mendean zeuden) eta 94 babesgabetasun-egoera neurritsuan edo arinean. Gao Lacho Drom Elkartearekin (biztanleria ijitoa) familiekin esku hartzeko eta familiak hezteko egin den programaren bidez, 2018. urtean, guztira babesgabetasun-egoera larrian zeuden 8 familia artatu ziren (8 neska eta 9 mutil). |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Famili harrera sustatzeko eta horretarako laguntza tekniko emateko zerbitzuak** | Programa honen xedea da haurrei familiako etxe bat ematea, denbora-tarte jakin batean haien zaintza eta haiek zaintzeko eta hezteko betebeharra bere gain hartzeko gai dena, jatorrizko familiara itzultzeko edo haien osatuko duen familia-bizitza batean txertatzeko eta min emozionala erreparatzeko. | 2018an 5 adopzio nazional egin ziren (5 neska), eta 1 atzerrian (Errusiako 1 neska). 2018an guztira 98 familiak egin zieten harrera adingabeei beren etxeetan, eta urtearen amaieran, Arabako Lurralde Historikoan, guztira 78 abegi-familia zeuden. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Adopzioa sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzuak** | Haurra edo gaztea jatorrizko familian egotea edo jatorrizko familiara itzultzea ezinezkoa den kasuetan eta gurasoen rola guztiz eta behin betiko hartuko duten heldu batzuk dituen etxe egonkor bat eman nahi zaion kasuetan erabiltzen da baliabide hau. | 2018an 5 adopzio nazional egin ziren (5 neska), eta 1 atzerrian (Errusiako 1 neska). 2018an guztira 98 familiak egin zieten harrera adingabeei beren etxeetan, eta urtearen amaieran, Arabako Lurralde Historikoan, guztira 78 abegi-familia zeuden. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | emantzipazioa | Arabako Foru Aldundia (Adingabearen eta Familiaren Arloa) | **Harrera-ondoko jarraipenerako eta bizitza autonomorako prestatzeko programa** | Adingabeen Kontseiluaren zaintzapean eta/edo tutoretzapean, etxeetan edo abegi-familietan, egon diren gazteak laguntzeko eta gaitzeko programa bat da. Gazte horiei beren bizitza independentea autonomiaz eta egoki bizitzeko beharrezko gaitasunak ematea du helburu. | 2018an, harrera-ondoko (egoitza eta familia) babesa eta jarraipena egin zitzaien guztira 79 gazteri (38 neska eta 41 mutil), 18 familia-harreratik zetozen eta 61 egoitza-harreratik. Urtearen amaieran, 51 pertsonak jarraitzen zuten (24 mutil eta 27 neska). |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | harrera | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat** | Egonaldi laburrerako baliabide bat da, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien mendean daudenei zuzendua. Emakume horiek ohiko etxebizitza egun batetik bestera utzi behar izaten dute genero-indarkeriako egoera bat bizitzen ari direlako. | 2018an, guztira 39 adingabe artatu zituen. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | harrera | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Egonaldi ertainerako Harrera-etxea (CARME)** | Egonaldi ertainerako harrera-etxe bat da (CARME). Hamabi plazako etxe batean dago, eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eta kargupean dituzten adingabeei zuzendua dago. Egonaldi ertainerako zentro honen xedea da arreta eta ostatua eskaintzea bizikidetza-gatazka larriak dituzten emakumeei, etxeko tratu txarren biktimak direnei edo babesgabetasun- edo bazterketa-egoeran daudenei. Emakume horien seme-alabak ere sar daitezke zentroan. | 2018an, higiezin bat alokatu da egonaldi ertainerako harrera-etxe horretarako. 2019an martxan jartzea aurreikusita dago. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima direnei arreta psikologikoa emateko zerbitzua** | Doako arreta psikologikoko zerbitzu bat da. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak diren emakume helduak, sexu-indarkeriaren biktimak direnak, genero-indarkeriaren biktimak diren adingabeak, zeharkako biktimak eta gizon erasotzaileak artatzen ditu. Laudion eta Gasteizen ematen du arreta. | 2018an, 78 adingabe artatu ziren, eta horietako 48 lehen aldiz artatuak izan ziren. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima direnei aldi baterako harrera emateko etxebizitzak** | 5 etxebizitza daude (guztira 20 plazekin) berehalako eta behin-behineko harrera emateko emakumeei eta haien kargura dauden mendeko pertsonei, tratu txarren egoera baten ondorioz, ohiko etxebizitzatik presaka atera behar dutenerako. Etxebizitzetako bat zubi-etxebizitza bat da; hau da, egonaldi ertainerako harrera-zerbitzu bat. | 2017an, 14 adingabe artatu ziren. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza eta orientazio pertsonaleko hezkuntzako programa** | Programa hori genero-indarkeriaren biktimak izan diren eta harrera-etxebizitza batean dauden emakumeei eta, harrera-etxebizitzan sartzeko beharrik izan ez duten arren, bizitako tratu txarrak gainditzeko laguntza behar duten emakumeei zuzenduta dago. | 2018an 38 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Aholkularitza juridikoa | Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua** | Doako zerbitzu bat da, eta auzibide aurreko banakako orientabide juridikoa eskaintzen du, bai eta Arabako Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eragiten dieten prozesu juridikoei jarraipena egitea ere. Zerbitzua Gasteizen, Laudion eta Amurrion ematen da, eta zerbitzu publikoaren kanpo kontratazioaren bidez kudeatzen da, Gasteizko Udalarekin egindako lankidetza-hitzarmen baten baitan. | 2018an, 31 emakume artatu ziren, eta horietako 10ek seme-alabak zituzten beren kargura. |
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Sexu-abusuak gertatzen diren kasuetan laguntza psikologikoa emateko programa berezia** | 2001eko martxan jarri zen abian zerbitzu hori. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta Umeen Zerbitzuak familia barruko sexu-abusuen aztarnengatik edo probengatik babes-espedientea irekita duten 0 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten familiei zuzendua dago. | 2018an, 65 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Haurren bat babesik gabe dagoen familietan esku hartzeko programa berezia** | Familia babestea eta berriz biltzea da programa honen zeregin nagusia. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta Gizarte Ekintzako Sailak babes-espedientea irekita duten 0 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten familiei zuzendua dago. | 2018an, 732 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Etnia ijitoa/bigarren mailako prebentzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Ijito adingabekoekin eta euren familiekin familian esku hartzeko programa** | Esku-hartzea etnia ijitoaren berezko ezaugarrietara egokitzen saiatzen da programa hau, adingabeak kargura eta babesgabetasun-egoeran dituzten etnia ijitoko familiak gaituz. | 2018an, 72 adingabe artatu ziren. |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Portaera-arazoak dituzten adingabeak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Nerabeekin esku hartzeko programa espezializatua** | Gizarte-gatazkako egoeran dauden 12 eta 18 urte arteko nerabeei zuzendua dago programa hau, beren ezaugarri pertsonalak, familiakoak edo sozialak direla eta, arrisku-faktore larriak edo babesgabetasuna agerian dutenei eta ingurune irekian gizarte-heziketa arloko esku-hartze bizia behar dutenei. Nerabeen familiak –batez ere gurasoak-onuradunak izango dira, baldin eta agerikoa bada arazoak dituztela nerabearekin duten harremanean eta arazo horiek konpontzeko laguntza eta orientazioa behar badute. | 2018an, 57 kasu artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Familia-harrera | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Familia-harrera babesteko programa** | Programa horren helburu nagusia da larrialdiko, behin-behineko edo behin betiko familia-harrera sustatzea, esku hartzea eta babestea, modu integralean besteren familian eta familia-girokoan familia zabalean. | 2017an, 163 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | adopzioa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bizkaian adopzioa sustatzeko programa** | 2009an abiatutako programa horren helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren adopzio-familia guztiei arreta ematea, familia-integrazioa erraztu eta laguntzeko, eta adopziozko seme-alabekin laguntza behar duten pertsonen banakako eskariak artatzeko. Laguntza terapeutiko hezitzailearen bidez egiten da. | 2017an, 84 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Egoitza-harreren oinarrizko sarea** | Etxean egon ezin duten adingabeei zuzendutako babes-neurri bat da. Neurri horren bidez, bizitzeko eta bizikidetzarako leku bat eskaintzen zaie, gaikuntza zehatza duten profesionalen arretarekin eguneko 24 ordutan. | 2018an, 337 plaza eskaini ziren etxeetan, 4 emantzipazio-etxebizitzan eta 6 larrialdiko plaza. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrera/NERABEAK | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Nerabeei harrera egiten espezializatutako sarea (bizitokiak)** | Harrera-egoitzaren esparruan, babesik gabe dauden nerabeentzako 10 egoitza-zentro daude. | 2018an, 88 plaza eskaini ziren eta 3 berariazkoago larrialdietarako. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza-harrera/NERABEAK | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Ezgaitasuna duten adingabeei harrera emateko Sare Espezializatua (bizitokiak)** | Bizkaian, harrera-egoitzaren esparruan, desgaitasuna duten adingabeentzako 4 egoitza-zentro daude. | 2018an 29 plaza eskaini ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak/familia gabeko adingabe atzerritarrak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei harrera egiteko sare espezializatua (zentroak eta unitate erdi-autonomoak)** | Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiborako guztira 389 berariazko egoitza-plaza daude, emantzipaziorako prestatzeko programan eta Unitate Erdi-autonomoetan berariazko garatutako emantzipaziorako programan banatuta. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako 19 egoitza-zentro dira. | 2018an, 1.148 adingabe sartu dira zentroetan, eta guztira 1.571 adingabe artatu dira. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Banaketa gatazkatsuak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila, Umeen Zerbitzua) | **Arreta espezializatuko familia-elkargunearen zerbitzua** | Talde profesional batek gainbegiratuta, adingabearen eta familiaren arteko bisitak egitean datzan, bi alderdien arteko harremanak aldatu eta osasungarriagoak izan daitezen. Funtsean, haurren eta nerabeen eta gurasoen, senideen edo gertuko pertsonen artean bisitak garatzean datza, Administrazioak tutoretza duenean edo haien zaintza bere gain hartu duenean. | 2018an, 220 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Guraso eta semeen arteko indarkeria | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeriari heltzeko arreta espezializatuko programa esparru psikoterapeutikoak eta psikohezitzailean | Seme-alaben gurasoekiko indarkeria bizi duten familiei zuzendutako programa da. Indarkeria mota hori semeak edo alabak amaren eta/edo aitaren edo beste senideren baten gainetik jarri eta haiek kontrolatzeko gauzatzen duen indarkeriari esaten zaio. Abusua fisikoa, psikologikoa edo ekonomikoa izan daiteke. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktiman direnentzako larrialdi-egoeretan harrera egiteko zerbitzua** | Zerbitzu horren helburua da ostatua eta arreta eskaintzea emakumeei eta kargura dituzten seme-alabei, baldin eta bikotekideak edo bikotekide ohiak tratu txarrak eman badizkie. | 2018an 114 emakume artatu ziren, eta artatutako biktima berriek kargura 54 adingabe zituzten. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Emakumeen aurkako tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan laguntza psikologikoa emateko zerbitzua** | Programa honek tratu txarren, emakumeen, gizonen eta adingabeen aurkako sexu-erasoen, ondoriozko aztarnei heldu nahi die eta indarkeriazko jokabideak aldatu. | 2018an, 1.223 emakume artatu zituen, eta artatutako kasu berriek 540 adingabe zituzten kargura. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Laguntza psikosoziala | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Etxean emakumeen aurka egindako indarkerian espezializatutako esku-hartze programa** | Arlo psikohezitzailean espezializatutako esku-hartze programa honen helburua da tratu txarren biktimak diren emakumeei eta haiekin bizi diren adingabeei indarkeria-egoeratik irteten laguntzea eta egoera horrek sortutako aztarnak gainditzen laguntzea. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Esku-hartze terapeutikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familia esku-hartzea | Etxean genero-indarkeria bizi duten edo bizi izan duten haurrei (3 eta 18 urte artekoak) zuzenduta dago. Esku-hartze terapeutikoa eta terapeutiko-hezitzailea eskaintzen du. | 2018an, lehen aipatutako emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako esku-hartzean 144 emakume artatu dira, eta artatu diren emakumeen kasu berriek guztira 81 seme-alaba adingabe zituzten. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak** | Genero-indarkeriaren biktimak diren eta adingabeak kargura dituzten emakumeentzako egonaldi luzerako egoitza-zentroak dira. | 2018an, 56 emakume artatu zituen, eta artatutako kasu berriek 20 adingabe zituzten kargura. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Aholkularitza juridikoa | Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua) | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza juridikoa** | Zerbitzu honek laguntza eta aholkularitza juridikoa eskaintzen die genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei. | 2018an, 179 emakume artatu ziren eta artatutako kasu berrien kargura guztira 125 adingabe zeuden. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adingabeentzako egoitza-zentroak** | Adingabeentzako egoitza-zentroak egoitza-harrerarako erabiltzen diren bizikidetza-zentroak dira. Neurri hori zaintza administratiboaren eta judizialaren neurri alternatibotzat jotzen da, eta arreta osoa eskaintzea du helburu. Egoitza-baliabideen esku-hartzea zenbait programaren bidez osatzen da (gizarte- eta osasun-babeserako programa, Anothe programa, Eskutik programa, Crono programa eta Izeba programa). 2018an, 343 plaza eskaini dira, 40 zentrotan banatuta. Horrez gainera, beste 8 plaza erabiltzen ari dira desgaitasunean espezializatutako zentroetan. | 2018an, 1.040 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko harrera | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adingabeentzako eguneko zentroak** | 2018an, intentsitate handiko zentro bat jarri zen abian, esperimentala. Eguneko zerbitzua eskaintzen dira tutoretzapean dauden eta arrisku-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden nerabeei. Zentroa arlo terapeutikora bideratuta dago nabarmen. Egunerokoan, taldeko jarduera ugari egiten dira, tutoretza-arreta banakatua eskaintzen da, kanpora laguntzen zaie nerabeei, prestakuntza eta lanean hasi aurreko aholkularitza emanez, eta familiekin eta/edo beren bizikidetza-errealitateekin esku hartzeko eremu antolatu bat. | 2018an, 11 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Esku-hartzea | Familia-harrera | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Famili harrera sustatzeko eta horretarako laguntza tekniko emateko zerbitzua** | Zerbitzu hau adingabeei, familia-harrera babes-neurri egokia izan daitekeela iritzi zaienei, zuzenduta dago, bai erabaki administratibo bati edo judizial bati erantzute dionean nahiz arazo larriengatik borondatezko zaintza-eskaera bati. Bestalde, haur bat edo nerabe bat hartu nahi duten eta dagozkion betekizun egokiak betetzen dituzten pertsonei eta familia- edo bizikidetza-unitateei ere zuzendua dago. | 2018ko abenduan, 357 haur zeuden familia-harreran.<br>2018an, borondatezko familian larrialdiko harrera egiteko 40 eskari artatu dira. Familia-harrera espezializatuari dagokionez, 11 neska-mutili eman zaie abegi. Familia-harrera espezializatua esaten zaio ordainduta eta dedikazio osoa eskainiz adingabeei arreta ematen dabiltzan pertsonek garatutako harrerari. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Esku-hartzea | Sustapena eta laguntza teknikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Adopzioa sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzua** | Zerbitzuak funtzio hauek garatzen ditu: Dibulgazio-kanpainen eta familia adoptatzaileak erakartzeko kanpainen bidez, adopzioa sustatzea; adopziorako hautagaiak diren familiak aukeratzea balioespena eginez; pertsona adoptatzaileen zerrenda eguneratua izatea. | Adopzio nazionalerako 10 eskaintza egin dira. 2018an, 3 adopzio gauzatu dira. Nazioarteko adopzioari dagokionez, ez da eskaerarik izan (2017an 6 eskaera izan ziren) eta 3 adopzio gauzatu dira. Nazioarteko adopzioaren bidez adoptatutako haurrak Indiakoak (2) eta Errusiakoak (1) izan ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte-hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: TREBATU programa** | Gizarte-heziketaren alorrean esku hartzeko programa bat da, familia barruan haurren eta nerabeen tratu txarren eta/edo uztearen arazoak dituzten familiei zuzendua. | 2018an, 579 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barruko haurren kontrako tratu txarrak eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Esku-hartze terapeutikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: BIDERATU programa** | Adingabeen tratu txarren egoeretan eta/edo sexu-erasoaren egoeretan ikertzeko, ebaluatzeko eta esku-hartze terapeutikoa egiteko programa bat da. | 2017an, 181 adingabe egon dira artatuta. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Arreta psikologikoa | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua - Haurrak eta nerabeak babesteko Arloa) | **Familiekin gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko zerbitzua: GARATU programa** | Diagnostikoko eta tratamendu psikoterapeutikoko baliabide bat da, gizarte- eta familia-babesgabetasun larriak hauteman zaien eta harremanetarako eta egokitzapen pertsonaleko eta sozialeko arazoak dituzten adingabeei zuzendua. | 2018an, 699 adingabe egon dira artatuta. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zentroak** | Egonaldi laburreko zentroak dira eta berehala egiten diete abegi etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeei. Eguneko 24 ordutan sar daiteke haietan, urteko egun guztietan, eta behar bezainbesteko denboraz egon daitezke bertan, baliabiderik egokienera bideratu aurretik beren beharrak baloratzeko. 2018an, berehalako harrera-zentroan 12 plazako eskaintza dago. | 2018an, 47 adingabe artatu ziren eta guztira 73 emakume. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Indarkeria matxistaren biktimentzako harrera zentroak (egonaldi ertaina)** | Egonaldi ertaineko zentroak dira. Tratu txarren biktimak diren eta esku-hartze espezializatu osoa behar duten emakumeen eta haien seme-alaba adingabeen babes- eta ostatu-eskariak artatzen dituzte, bai eta bakarrik dauden emakumeak ere, baldin eta haurdun badaude edo seme-alabak kargura badituzte eta ez badute baliabiderik eta gizarte- edo familia-babesik. 2018an, egonaldi ertaineko harrera-zentroan 8 plazako eskaintza zegoen, eta beste 10 plazakoa, autonomia-etxebizitzetan. | 2018an artatutako 26 pertsonatatik 7k adingabeak zituzten kargura. |
| Familia barneko haurren tratu txarrak | esku hartzekoa | Egoitza harrerak | Gipuzkoako Foru Aldundia Gizarte Politikak | **Zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeentzako egonaldi ertaineko zentroa: Haurtxoak** | Egoitza-araubidean tratamendua emateko programa bat da, arrisku-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran (tratu txarrak, mendekotasunak, guraso-gaikuntza...), haurdun eta 0-5 urte arteko seme-alabekin dauden emakumeei eta haurren zenbait babesgabetasun mailari zuzendua. Amarekin eta seme-alabekin jarduera psikoterapeutikoak eta hezitzaileak eginez gauzatzen da, beste baliabide komunitario batekin koordinatuta eta gizarteratze egokiena bideratuz. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Arreta sozio-juridikoa eta psikosoziala | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Arreta sozio-juridiko eta psikosozialeko zerbitzua, tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako egintzen biktimentzako** | Zerbitzu horrek gizarte-heziketaren alorreko, eta hala badagokio, alor terapeutikoko, esku-hartzearen beharrei osotasunean heltzen die, bai eta aholkularitza soziojuridikoko beharrei ere. Behar horiek tratu txarren egoeren eta sexu-askatasunaren aurka egin daitezkeen egintzen ondoriozkoak dira, zer esparrutan gertatu diren kontuan izan gabe. | Aholkularitza juridikoan 76 adingabe artatu ziren eta artatutako kasu berrien kargura 42 adingabe zeuden, 2018. urtean. Arreta psikologikoari dagokionez, aipatu behar da 2018an 541 emakume biktima artatu zirela, eta emakume biktima berrien kargura zeuden 262 adingabe. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Politika Departamentua – Tratu txarren biktimak diren emakumeak babesteko Arloa) | **Gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzua** | Urteko egun guztietan funtzionatzen duen zerbitzu bat da, lurraldean gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoerei berehalako arreta emateko. | 2018an, 273 artatu ziren guztira, eta horien % 20 adingabeak ziren (70 adingabe). |

## 3 hiriburuetako gizarte-zerbitzuak:

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** | Bilboko gizarte-zerbitzuen oinarrizko sarean txertatuta dago zerbitzu hau. Ordutegi trinkoko baliabide bat da (24 ordu/365 egun) eta Bilbon gertatutako banakako, familiako eta gizarteko larrialdiko eta presazko egoerei berehala arreta ematea du xede. | 2017an eta gizarte-larrialdiko programaren baitan, 563 jarduketa egin ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **BAKUVA programa** | Adingabeei eta familiei laguntzeko programa bat da, gizarte-heziketa eta prebentzio arloak jorratzen dituena eta gizarte-zerbitzuek, Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Arloaren bidez, garatzen dituzten adingabeei eta familiei arreta emateko programa batzuen osagarria. | 2017an, 215 adingabe artatu ziren. |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Otxargainean programa** | Gizarte-heziketa arlotik lan egiten duen programa honek Otxarkoaga eta Txurdinaga auzoetan bizi diren eta arrisku- edo zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeei gizarteratzen laguntzen die. | 2017an, 38 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Adingabeekin gizarte-hezkuntza eta komunitate-arloko esku-hartze programa (PISECO)** | Funtsean, prebentzio- eta heziketa-programak dira, Bilbon bizi diren eta babesgabetasunerako zaurgarritasun-arriskuan edo aterperik gabe geratzeko arrisku arinean eta neurritsuan dauden adingabeei eta familiei arreta ematekoak. Gizarte-hezitzaileek prestatutako 11 taldek egiten dute lan, banaka nahiz taldeka, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei atxikita daude. | GHELen bidez, guztira 713 espedientetan esku hartu da; 2017an, 276 abiatu ziren. Landutako espediente guztietatik 540 aterperik gabe geratzeko arrisku neurritsuko/larriko egoerei buruzkoak dira, eta 173, arrisku arinekoak.<br>2018an, 1.002 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Bigarren mailako prebentzioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Bilbon ijito komunitatean adigabeei eta haien familiei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza- alorreko esku-hartze Programa (PISEKALO)** | Prebentzio- eta heziketa-programa bat da, Bilbon bizi diren eta babesgabetasunerako zaurgarritasun-arriskuan edo aterperik gabe geratzeko arrisku arinean eta neurritsuan dauden etnia ijitoko adingabeei eta familiei arreta ematekoak. | 2017an, 171 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Esku-hartze soziala | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Esku-hartze psikosozialeko programa** | Prebentzio- eta heziketa-programa bat da, Bilbon bizi diren eta babesgabetasunerako zaurgarritasun-arriskuan edo aterperik gabe geratzeko arrisku arinean eta neurritsuan dauden etnia ijitoko adingabeei eta familiei arreta ematekoak. | 2017an, 548 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko arreta | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Zirkilu zentroa adingabeentzat eta familientzat** | Bilbon bizi diren eta babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeentzako eta familientzako eguneko zentroa da. | 2018an, 41 adingabe artatu ziren, 0 eta 12 urte artekoak. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Eguneko arreta | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Iñurri haurrentzako zentroa** | Bilbon bizi diren eta babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeentzako eta familientzako eguneko zentroa da. | 2017an, 50 adingabe artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | koordinazioa | Bilboko Udala (Gizarte Ekintza Saila) | **Caixa Proinfancia proiektua** | Garaiz detektatzeko eta esku-hartze koordinaturako proiektu bat da, Errekaldeko, Otxarkoagako eta Zorrotzako oinarrizko gizarte-zerbitzuan pobrezia-egoeran dauden adingabeen oinarrizko beharrak artatzeko. | 2018an, 278 familiako 542 adingabek hartu zuten parte guztira programa horretan. |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** | Eguneko 24 ordutan, urteko 365 egunetan, libre dauden gizarte-langileek ematen dute zerbitzu hau. 092 (Udaltzaingoa), 112 (SOS Deiak) telefono-zenbakien edo edozein gizarte-langileren telefono-zenbakiaren bidez aktibatzen da. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Familia-kudeaketa laguntzeko zerbitzua** | Zerbitzu honen helburua da hazkuntza-testuinguruan berariazko zailtasun bat identifikatu zaien familiei prestakuntza ematea, taldeko lanaren bidez. Izan ere, zailtasun horrek ondorioak izan ditzake adingabeen garapenean. | 2017an, 79 kasu artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa, genero-indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzua) | **Nerabeentzako prebentzio-programa** | Programa horren helburua da indarkeria matxista prebenitzea Umeen programen esku-hartzea jasotzen ari diren nerabeengan eta afektibitate- eta sexu-harreman arriskutsuekiko sentikorrak diren edo oso harreman arriskutsuak dituzten nerabeengan, bai eta neska-mutil nerabeen artean berdintasunezko harremanak sustatzea ere. | 2018an bi tailer egin ziren, eta guztira 10 nerabek hartu zuten parte. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Babesik gabe dauden adingabeekin esku hartzeko programa (kasu arinak/neurritsuak)** | Babesgabetasun-adierazle arinak edo neurritsuak dituzten adingabeekin gizarte-heziketako ikuspuntutik lan egiten du programa horrek. | 2018an 579 kasurekin esku hartu zen. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Familia-kudeaketa laguntzeko zerbitzua** | Zerbitzu honen helburua da hazkuntza-testuinguruan berariazko zailtasun bat identifikatu zaien familiei prestakuntza ematea. Izan ere, zailtasun horrek ondorioak izan ditzake adingabeen garapenean. | 2017an, 79 kasu artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | Gizarte-heziketako arreta | Donostiako Udala (adingabeentzako arreta eta zerbitzuak) | **Babes gabeko egoera larrian dauden adingabeekin esku hartzeko programa** | Babesgabetasun-adierazle larriak dituzten adingabeekin gizarte-heziketako ikuspuntu batekin lan egitera bideratuta dago programa hori. | 2018an 103 kasurekin egin zen lan. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | prebentzioa | Hautemate goiztiarra | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Adingabeen babesik gabeko egoeren esparruan esku-hartze goiztiarrean hautemateko programa** | Bi alderdi ditu programa honek: eskola- eta komunitate-esparruan detektatzeko prestakuntza, eta espazio horietako profesionalei aholkularitza ematea, garaiz esku hartzeko detekzioa egiten den esparru berean eta han lan egiten duten profesionalekin. Unitate profesionalen izenekoen arabera antolatuta dago. | 2018an 1.005 adingaberi egin zaie esku-hartze goiztiarra.<br>2018an, programak 4 unitate profesional gehiago eskuratu zituen: 58 ziren, eta orain 62. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa/esku-hartzea | bizikidetza | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Safe Care programa** | Familiei gizarte-heziketaren alorreko eta alor psikosozialeko laguntza eskaintzen dien profesional talde bati atxikita dago. Helburutzat ditu gatazkak kudeatzea, zaintza-gabeziako egoerak saihestea, ohitura eta jokabide kaltegarriak ordezkatzen laguntzea eta bizikidetza eta gizarteratzea mesedetzeko gaitasunak eskuratzea. Familia ahulekin, bai eta arduragabeekin ere, egiten dute lan etxean, eta 0 eta 5 urte arteko adingabeekin. | 2017an 12 familiak osatu zuten programa; eta 2018an, 13 familiak. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | Prebentzioa/esku-hartzea | bizikidetza | Donostiako Udala (Gizarte Ekintzaren Arloa) | **Increible Years programa** | Familiei gizarte-heziketaren alorreko eta alor psikosozialeko laguntza eskaintzen dien profesional talde bati atxikita dago. Helburutzat ditu gatazkak kudeatzea, zaintza-gabeziako egoerak saihestea, ohitura eta jokabide kaltegarriak ordezkatzen laguntzea eta bizikidetza eta gizarteratzea mesedetzeko gaitasunak eskuratzea. Gurasoen eta 4 eta 8 urte arteko seme-alaben aldibereko taldeekin egiten da lan. Hautatutako adingabeek jokabide disruptiboak dituzte eta gurasoek haiek kontrolatzeko gaitasun murritza dute. Esku-hartze mugatua da (asteroko 20 saio + 4 bisita etxera) | 2017an, 24 adingabek eta 35 helduk hartu zuten parte; eta 2018an, 24 adingabek eta 32 helduk. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren esku-hartzeari laguntzeko programak: Orain eta Prólogo** | **Orain programa:** familiei zuzendutako programa bat da. Aldi baterako laguntza eskaintzen zaie egoera zehatzei aurre egiteko eta denbora-tarte zehatz baterako. Programan, hiriko beste familia batzuek, aurretik egokitzat balioetsitakoek, beren etxeetan artatuko dituzte haurren eta nerabeen beharrak, Haurren eta Familiaren Zerbitzuaren laguntzaz. **Prólogo programa:** familiei zuzendutako programa bat da. Bigarren mailako prebentziozko esku-hartze bat antolatzen du, gurasoei gaitasunak ematera bideratua, familia-giroaren defizitak konpentsatzeko helburuz, hazkuntza-eredu desegokien ezarpena eta kronifikazioa arinduz. | Orain programa: 2017an, 2 familiak hartu zuten parte; eta 2018an, bakarrak. Prólogo programa: 2017an, 105 pertsonak hartu zuten parte; eta 2018an, 117k. |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Gizarte-larrialdiak | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Gizarte Larrialdietako Zerbitzua** | Urteko egun guztietan ireki dagoen zerbitzu bat da. Berehalako arreta eskaintzen du Arabako Lurralde Historikoan gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoeretan. Gizarte-zerbitzuen udal-sarea osatzeko eta laguntzeko funtzionatzen du. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Babesik gabeko egoeretan esku-hartzea ebaluatzeko programa** | Haurren eta Familiaren Zerbitzuak, Balorazio Unitatearen bidez, oinarrizko gizarte-zerbitzuek, gizarteratze-zerbitzuek eta Arabako Foru Aldundiaren Adingabearen eta Familiaren Arloak bideratutako babesgabetasun neurritsuko espedienteak jasotzen ditu. Familiari arreta psikosoziala ematen dion bitartean, babesgabetasun-egoera ebaluatzen du, Kasuaren Plana zehazteko. | 2017an, 475 adingabe artatu ziren. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **PAUSOKA programa** | 2017an programa abiatu zen, familian Erresilentzia Programaren kontratua amaitu eta beste programa bat kontratatu ondoren. Beste programa horrek aurreko hori jaso zuen eta beste helburu batzuk, biztanleria hartzailea eta esku-hartzeen ustezko kasuak gehitu zituen, oinarrizko zerbitzuek bideratutako kasu arinetan, ikuspuntu psikosozial-hezitzailetik laguntzeko babesgabetasun-egoera ebaluatzen den bitartean. Programak aldi berean 25 familia arta ditzake, 5 ikerketa-prozesuan izan eta 20 ebaluazio-prozesuan. | 2018an, 56 guraso eta 69 adingabe artatu ziren. |
| **Sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Sexu-abusuko kasuetan aholkularitza psikologikoa emateko ASASI programa** | Haurren edo nerabeen sexu-abusua izan daitekeenaren adierazledun kasuak jasotzean, ebaluazio eta esku-hartze plana garatzen da.<br>Sexu-abusua jasan izanaren probabilitatea duten adierazledun haurrei eta nerabeei zuzenduta dago; haur eta nerabe horien familiei; beraiekin lotutako profesionalei. | 2018an, guztira 31 kasu artatu ziren (23 neska eta 8 mutil). |
| **Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria** | esku hartzekoa | Guraso eta semeen arteko indarkeria | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Gurasoen eta seme-alaben arteko indarkeria-egoeretan esku-hartze goiztiarrerako programa** | 2016ko abenduan abiatu zen programa hori, EHUrekin lankidetzan. Seme-alaben gurasoekiko indarkeriaren arazoa dagoen eta babesgabetasun-egoera arina edo neurritsua duten familietan, adingabeek (11 eta 18 urte artean) gurasoen kontra gauzatzen dituzten indarkeria psikoemozionaleko jokabideak murriztea du ardatz. Ikuspuntu psikohezitzailea du eta 6 hilabeteko iraupena. Banakako eta taldeko saioak egiten dira nerabeekin eta gurasoekin. | 2018an, 23 familiak hartu zuten parte; eta 2017an, 15ek. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren babeserako eta familia-harrerarako eta egoitzarako programa babesik gabeko egoeretan** | Haurren eta Familiaren Zerbitzuak, Familia-babeserako eta Familia- eta Egoitza-harrerarako Unitatearen bidez, adingabeei eta haien familiei arreta psikosoziala eskaintzen die, familiako esku-hartze plana garatuz, proposatutako kasu planaren arabera. Aldi berean, haurren eta nerabeen babesgabetasunaren mailaren bilakaera zer-nolakoa izan den ebaluatzen da. Babesgabetasun neurritsuko egoeran dauden (eta larrian, Harrera Programan) adingabeei eta nerabeei eta haien familiei zuzendutako programa bat da. | 2018an, 23 urtetik beherako 235 pertsona artatu ziren. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | esku hartzekoa | | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Familiaren babeserako eta familia-harrerarako eta egoitzarako programa babesik gabeko egoeretan** | Haurren eta Familiaren Zerbitzuak, Familia-babeserako eta Familia- eta Egoitza-harrerarako Unitatearen bidez, babesgabetasun neurritsu espedienteen arreta psikosozialaren ardura du, familiako esku-hartze plana garatuz, proposatutako kasu planaren arabera. Aldi berean, haurren eta nerabeen babesgabetasunaren mailaren bilakaera zer-nolakoa izan den ebaluatzen da. Babesgabetasun neurritsuko egoeran dauden (eta larrian, Harrera Programan) adingabeei eta nerabeei eta haien familiei zuzendutako programa bat da. | 2018an, 23 urtetik beherako 235 pertsona artatu ziren. |

## BESTE ESPARRU BATZUK

| INDARKERIA MOTA | BALIABIDE MOTA | GAIA | ARDURADUNA | BALIABIDEA | DESKRIBAPENA | IRISMENARI BURUZKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Gurasotasuna ekimena** | Gurasotasuna ekimenaren webgunea 2015ean jarri zen abian. Familiekin eta gizarte-, hezkuntza-, osasun-esparruekin, esparru judizialarekin... lan egiten duten profesionalen komunitate batek zuzentzen du, familiak gurasotasun positiboa praktikatzeko gaitzeko beharra ikusita. | |
| **Indarkeria oro har** | esku hartzekoa | Aniztasuna: LGTBI kolektiboa | Eusko Jaurlaritza. Gizarte Politiketako Saila | **BERDINDU. Gayak, Lesbianak, Bisexualak eta Transexualak (LGBTI kolektiboak) artatzeko euskal zerbitzua** | Sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazioa emateko eta horren inguruan arreta eskaintzeko zerbitzu publikoa da. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Donostiako Udala (Hezkuntza eta gizarte-sustapenerako zerbitzua, Gazteria arloa) | **Haurren ongizatea oinarri** | 0 eta 5 urte arteko haurrentzako eta haien familientzako programa da eta “0-5 URTE: HAURREN ONGIZATEA OINARRI” du izena. Haurren eta gurasoen beharrak asetzea du xede eta bi helburu ditu: alde batetik, eremu egokitu bat eskaintzea, haurrak gurasoekin batera egon daitezen. Eta bestalde, proposamenak edo eremuak eskaintzea, gurasoek seme-alaben hazkuntzari/heziketari buruz dituzten beharrak asetzeko edo behar horiei buruz hitz egiteko. | |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila | **Familia-aniztasunaren inguruan sentsibilizatzeko proiektua** | Proiektuak helburutzat du herritarrei familien errealitate anitza eta askotarikoa gerturatzea, bai eta denek dituzten erronkak eta elementuak gerturatzea ere. Horretarako, bereziki nabarmentzen da familiako kideen zaintza, hazkuntza, seme-alaben heziketa egoki betetzeko eta gurasotasun positiboaren bidez garatzeko helburua nabarmentzen dute. | 2017an, 18 pertsonak hartu zuten parte programan; eta 2018an, 15 pertsonak. |
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Jabetu zer ahalmen duzun seme-alabak hezteko. Gurasotasun Positiboko programa** | 0-3 urte arteko seme-alabak dituzten eta gurasotasun positiboaren printzipioak familian nola aplika daitezkeen ikasteko prest dauden familia orori zuzendutako programa da. Familiaren etxean elkarrizketa bat egiten zaie, gurasotasun positiboen irizpideekin ebaluazio profesional bat egiteko, eta ondoren, orientazio eta jarraipena egiteko Internet eta/edo telefono bidez. | 2018an, 50 familia artatu ziren (50 emakume eta 48 gizon). |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Familia barneko haurren tratu txarrak** | Prebentzioa | Gurasotasun positiboa | Gasteizko Udala (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila – Haurren eta Familiaren Zerbitzua) | **Haurrekin eta familiekin lotuta, prebentziorako eta sustapenerako programak: Senidegune, familian emozioen tailerra, haurrak eta nerabeak artatzen jardunbide egokien Programa** | SENIDEGUNE programa, espazio familiarra, familiei zuzendutako prebentzio- eta sustapen-programa bat da. Gurasoekin eta seme-alabekin taldeko esku-hartze zuzena eta aldiberekoa egitean datza, heziketan lagunduz. Iloben kargu hartzen duten aitona-amonek ere parte har dezakete. Emozioen tailerra familiei zuzendutako sustapen-programa bat da, eta haurrekin eta nerabeekin egiten den emozioen lanketa osatzeko xedea du. Haurrak eta nerabeak artatzen jardunbide egokien programa familiei zuzendutako sustapen-programa bat da, haurren eta nerabeen arretan eta hezkuntzan jardunbide egokiak sustatzeko helburuz. | Senidegune: 2017an 0 eta 3 urte arteko 160 adingabek hartu zuten parte. 2018an, 0 eta 3 urte arteko 142 adingabek hartu zuten parte, eta 4 eta 5 urte arteko 12 adingabek. Emozioen tailerra: 2017an, 118 pertsonak hartu zuten parte; eta 2018an, 82k. Jardunbide egokiak: 2017an 3.404 pertsonak hartu zuten parte, eta gizarte-etxeetan, 138k. 2018an, ikastetxeetan guztira 2.470 pertsonak hartu zuten parte, eta gizarte-etxeetan, 205ek. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | KIROLA | Bizkaiko Foru Aldundia (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila eta Euskara eta Kultura Saila) | **Kirolaren bidez, indarkeria prebenitzeko kanpaina** | Azaroak 25 zela eta, Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailak eta Euskara eta Kultura Sailak, abagune egokia baliatu nahi izan dute indarkeria sexistaren inguruan sentsibilizatzeko eta indarkeria mota hori prebenitzeko, Bizkaian zenbait kirol-programaren bidez. Bizkaina Federazioak ere bat egin du ekimen horrekin, kartelen eta pegatinen bidez. | |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | KIROLA | EMAKUNDE | **Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta -abusua prebenitzeko gida** | 2015eko gida horrek jarraibideak eskaintzen ditu, kirol-esparruan emakumeen aurkako sexu-jazarpenaren edo –erasoaren susmoa dagoenean edo egoera horiek gertatu direnean abian jarri beharreko protokolorako. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | EMAKUNDE | **Beldur barik** | 2009. urtetik, EAEko erakundeek programa hau sustatzen dute. Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzera zuzenduta dago, eta gazteekin batera hausnarketak eta eztabaidak sustatzea du helburu. Programaren ardatz egituratzaileak dira, alde batetik, Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketa, eta bestetik, Berdur Barik topaketa, bateko, kale-ekintzen antolatuz (komiki-mundiala, flash-moba edo puntu lilakoa argazkien birala, besteak beste) eta besteko, eztabaida- eta hausnarketa-prozesuak sendotzeko baliabideak sortuz: ikus-entzunezko euskarria duten unitate didaktikoak, BB abestia eta sexu-erasoei aurre egiteko gida, besteak beste. | 2018. urteko Beldur Barik lehiaketaren edizioan 129 udalerrik hartu zuten parte eta 309 bideo aurkeztu ziren. Beldur Barik topaketan eta aurretikoen entregan, 250 gaztek hartu zuten parte. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Berdintasuna | EMAKUNDE | **Gizonduz** | 2007an abian jarritako ekimen aitzindaria da, gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde kontzientzia, parte-hartzea eta inplikatzea sustatu nahi duena. | 2018an, zenbait jarduera egin ziren, eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa nabarmen daiteke. 778 pertsonak hartu zuten parte. |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | Prebentzioa | Komunikabideak eta publizitatea | EMAKUNDE | **Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako deontologia kodea eta autoerregulaziokoa** | Publizitate eta komunikazio ez-sexistetarako autoerregulazioko deontologia-kode horrek asmo hau du: komunikabideen edukiek emakumeak ez gaizki tratatzea, ez apaltzea edo emakumeak mendekoak balira bezala ez aurkeztea, eta emakumeak eta gizonak berdintasunezko gizarte baten alde elkarrekin irudikatzea. Horretarako, 3 jarduketa-dekalogo proposatzen ditu: publizitate ez-sexistarako, komunikazio ez-sexistarako eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio-trataerarako. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Prestakuntza profesionalentzat | EMAKUNDE | **Jabetuz** | Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalei zuzendutako prestakuntza-ekimena da. | |
| **Indarkeria oro har** | arreta | LGTBI | Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, Osasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko Gida** | 2016an egindako gida horrek osasun-, gizarte- eta hezkuntza-esparruak gomendatutako jarduerak oso-osorik aintzat hartzen ditu. Pertsona transexualen eta genero-adierazpenean aniztasuna duten pertsonen kolektiboa ez baztertzen aurrerapausoa ematen laguntzeko tresna gisa sortu da. Halaber, hiru esparrutako profesionalei argitzen laguntzeko helburua du, pertsona horiei ahalik eta arretarik onena bermatzeko. | |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | Informazioa eta salaketa | ARARTEKOA | **Haur eta Nerabeen Bulegoa** | 2010ean sortutako bulego honek haurren eta nerabeen eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin lotutako jarduera sustatzen eta antolatzen du. Bulegoaren webgunean informazio zabala dago haurren eta nerabeen eskubideei buruz, eta haren bidez, Arartekora haurrei eragiten dieten gaiekin eta egoerekin lotutako kexak, kontsultak edo iritziak bidal daitezke. | |
| **Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria** | esku hartzekoa | Etxebizitza eskuratzea | Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila | **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza eskuratzeko aukera** | Etxebizitzaren esparruko jarduketa-plan bat da, eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak ditu hartzaile. Eskaera Berdintasun, Lankidetza eta Herritartasun Arloaren bidez egiten da. Ekintza positibo gisa, hauek ezartzen ditu: errenta-araubideko esleipen-prozesuetan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen erreserba txertatzea eta Bizigune Programako etxebizitza zuzenean esleitzea. | 22 emakume sartu ziren programan 2018. urtean. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa/esku-hartzea | koordinazioa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Eraberean: Tratu-berdintasunerako eta ez diskriminatzeko sarea** | Eusko Jaurlaritzak sustatutako sare bat da Eraberean. Arraza, etnia edo nazionalitate jatorriagatiko edo sexu-orientazioagatiko edo –identitateagatiko eta genero-identitateagatiko bazterketaren aurka borrokatzea du helburu. Eusko Jaurlaritzak eta immigrazioaren, herri ijitoaren eta LGTBI kolektiboen esparruan lan egiten duten zenbait gizarte-erakundek osatzen dute sarea. Politika publikoetan eta Euskadiko gizarte zibilean tratu-berdintasuna zaintzea eta bazterketa-ezaren alde egitea du misio.Arreta espezializatuko zerbitzua eskaintzen die biktimei eta profesionalei. | Memoria batek Sarearen jardueraren datuak biltzen ditu: (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2018_es.pdf). |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | ikerketa | Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | **Ikusmirak: Gizarte Politiken Behatokia (haurrak eta nerabeak; familia; gizarte-zerbitzuak)** | Haurren eta Nerabeen Legearen babesean, abenduaren 4ko 219/2007 Dekretuak Haurren eta Nerabeen Behatokia sorrera jasotzen du. Behatoki hori haurren eta nerabeen errealitatea sakonago ezagutzeko, ikerketa eta azterketa sustatzeko, herri-administrazioen jarduketei eta beste gainerako entitate publikoei eta sektorean lan egiten duten erakunde pribatuei buruzko informazio zorrotza egiteko tresna eta bide gisa sortu zen, Legeak bere baitan hartzen dituen esparru guztietan politiken diseinua hobetzeko xedez. Haurren eta Nerabeen Behatokia, 219/2007 Dekretuak (EHAA 2007/12/20) sortua, misiotzat du haurren eta nerabeen errealitatea eta Haurren eta Nerabeen Legea aplikatzean garatutako politiken inpaktua aztertzea. | (https://ikusmirak.eus/es/quees/co-6/) webgunean datu-banku bat dago eta haurrei eta nerabeei buruz egindako zenbait azterlanen informazioa eskaintzen da. |
| **Indarkeria oro har** | Prebentzioa | ikerketa | Bizkaiko Foru Aldundia (Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila) | **Genero-indarkeriaren behatokia** | Kide anitzeko organo bat da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailari atxikitakoa, eta kontsulta-izaera du. Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeria-egoerak zaintzeko eta egoera horiei jarraipena egiteko gaitasuna duen informazio-sistema bat eraikitzea du xede nagusitzat. Halaber, abian jarritako erakunde-politiken ondorioak aztertzezko gaitasuna ere izan nahi du, eskura dauden baliabideak behar errealetara egokitzeko. | |

# Diagnostikorako datuen iturrien zerrenda

Ondoren, egoeraren diagnostikorako datuak lortzeko bigarren mailako zer iturri nagusi erabili diren zerrendatuko da:

| | INTZIDENTZIA | PREBALENTZIA |
|---|---|---|
| FAMILIA BARNEKO HAURREN TRATU TXARRAK | - OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak. Madril:* Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.<br>- Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa. 2017<br>- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKALTZA. *2018ko memoria [2017ko ekitaldia}.* Bilbo: Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza, 2018.<br>- Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza arloko memoria.<br>- Donostiako Udaleko Gizarte Ekintza arloko memoria.<br>- Gasteizko Udaleko Gizarte Politika Sailaren memoria.<br>- Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. EAEn Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena. 2017<br>- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.<br>- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.<br>- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailaren memoria.<br>- | - WORLD HEALTH ORGANIZATION. European report on preventing child maltreatment. Kopenhage: World Health Organization, 2013.<br>- STOLTENBORGH, M., BAKERMANS-KRANENBURG, M., ALINK, L. eta VAN IJZENDOORN, M., 2015. The prevalence of child maltreatment across the globe: Review of a series of meta-analyses. *Child Abuse Review.* York: Child Abuse Review, 24. zk.<br>- BLASCO DEL MORAL, C. Más me duele a mí. *La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save the Children, 2018.<br>- EUSKO JAURLARITZA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA EUDEL. *Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko 2017-2018 programan aurreikusitako jarraipen-batzordearen txostena.* Bilbo: EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 2018.<br>- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren memoria.<br>- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren memoria.<br>- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailaren memoria. |
| SEXU-INDARKERIA | - *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena. 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. Estatuko Segurtasun Idazkaritza.*<br>- Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Azterketa eta analisi dibisioa. 2017<br>- Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzaren estatistika-datuak.<br>- Barne Ministerioko Kriminaltasunaren Estatistika Ataria. | - ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* ANAR Fundazioa, 2017.<br>- Europako Kontseilua https://www.coe.int/es/web/human-rights-channel/stop-child-sexual-abuse-in-sport<br>- SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.<br>- LÓPEZ, F. Los abusos sexuales de menores. *Lo que recuerdan los adultos. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 1994.*<br>- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* 2015.<br>- Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.<br>- BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.<br>- SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017. |
| Berdinen arteko tratu txarrak | - | - Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.<br>- ISEI-IVEI. *Berdinen arteko tratu txarrak txostena.* Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 2017.<br>- CALMAESTRA, J. et al.; SASTRE, A. (koord.). *Yo a eso no juego. Bullying y ciberbullying en la infancia.* Madril: Espainiako Save the Children, 2016.<br>- GEHITU (BERDINDU GIPUZKOA) eta GUZTIOK ELKARTEA (BERDINDU ESKOLAK). *BERDINDU! Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan. 2013-2014 ikasturtea* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2014.<br>- EUSKO JAURLARITZA. *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza sisteman [sarean].* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. |

| | | |
|---|---|---|
| EMAKUME, NESKATO ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA | - EMAKUNDE. *EAEn 2017an indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko baliabideen irismenaren gaineko datuak.* Gasteiz: Emakunde, 2018. | - EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017. Gasteiz.* Emakunde, 2019.<br>- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* 2015.<br>- EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILA. *EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxista: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012.<br>- LIZANA, R. *A mí también me duele. Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja*. Bartzelona: Editorial Gedisa, 2012<br>- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.<br>- KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2016.* Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2017.<br>- MIGRAZIOEI BURUZKO IKASKETEN UNIBERTSITATE INSTITUTUA (IUEM). COMILLAS PONTIFIZE UNIBERTSITATEA. INTZIDENTZIA POLITIKO ETA AZTERLANEN TALDEA, UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España.* Bartzelona: Huygens Editorial, 2017.<br>- FUNDACIÓN CERMI MUJERES ETA EUROPAKO DESGAITASUN FOROA (EDF). Poner fin a la esterilización forzosa de las mujeres y niñas con discapacidad, 2017. |
| Erakunde-indarkeria | - ARARTEKOA. *Legebiltzarrerako Urteko Txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena.* Gasteiz: Arartekoa, 2018. | - SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Save the Children, 2017.<br>- SAVE THE CHILDREN. *Infancia y justicia. Una cuestión de derechos.* Madril: Save the Children, 2012. |
| BESTE INDARKERIA MODU BATZUK | | - Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.<br>- EUSTAT. Heriotzen estatistika.<br>- |
| Adinez txikikoek gauzatutako indarkeria | - EUSKO JAURLARITZA. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. JUSTIZIA SAILBURUORDETZA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA. *Gazte Justiziaren IV. Euskal Plana, 2014-2018. I. liburukia. Gasteiz:* Eusko Jaurlaritza, 2016<br>- Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Nagusiaren EINen ustiapena.<br>- Estatuko Fiskaltza Orokorraren urteko estatistikak.<br>- IBABE, I. *Perfil de los hijos adolescentes que agreden a sus padres. Investigación realizada en la C.A.V.* Gasteiz: EHU. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila, 2007.<br>- FUNDACIÓN AMIGÓ. *Violencia filioparental. Una realidad invisible.* Madril: Fundación Amigó, 2017. | - Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.<br>- EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017. Gasteiz:* Emakunde, 2019.<br>- Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. Behar sozialei buruzko inkesta. 2014 |

Oharra: zenbait iturri, hala nola foru-aldundienak, bereziki baliagarriak dira familia barruko indarkeria egoera muturrekoenen prebalentzia aztertzeko, nahiz eta zehazki prebalentziari buruzkoak ez izan. Izan ere, gure babes-sistemaren estaldura zenbaterainokoa den kontuan izanda, zentzuzkoa da pentsatzea aldundiek babesgabetasun-egoera larrienak detektatu eta artatzen dituztela.

# Erreferentzia bibliografikoak


- EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA. *Combating child poverty: an issue of fundamental rights.* Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa, 2018.
- EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA ETA EUROPAKO KONTSEILUA. *Manual de legislación europea sobre los derechos del niño.* Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa, 2016.
- AGINTZARI eta EUSKO JAURLARITZA*. Haurrei eta Nerabeei laguntzeko telefonoa. Zeuk esan. Urteko txostena.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2017.
- ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España. Colección Estudios Sociales,*10. zk. Bartzelona: La Caixa Fundazioa, 2002.
- APRAMP. *A pie de calle. Actuaciones con menores víctimas de trata.* Madril: APRAMP, 2016.
- ARAN, S. et al. Infancia, violencia y televisión: usos televisivos y percepción infantil de la violencia en la televisión. *Quaderns del CAC.* Bartzelona: Consell de l'Audiovisual de Catalunya, 17. zk., 2003.
- ARARTEKOA. *Haurrenganako sexu-abusua: gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua.* Gasteiz: Arartekoa, 2018.
- ARARTEKOA. *Legebiltzarrerako Urteko Txostena 2017. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. Gasteiz:* Arartekoa, 2018.
- ARARTEKOA. *Euskal administrazioek 14 urte baino gazteagoak diren adin txikiko lege-hausleei emandako arreta hobetzeko gogoetak.* Gasteiz: Arartekoa, 2017.
- ARARTEKOA. *Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren eta bere Hautazko Protokoloen Aplikazioari buruzko Espainiako V. eta VI. Txostenaren txosten osagarria.* Gasteiz: Arartekoa, 2017.
- ARARTEKOA. *Gizarte-zerbitzuak Euskadin, horren gertu eta horren urrun.* Gasteiz: Arartekoa, 2016.
- ARARTEKOA. *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak.* Gasteiz: Arartekoa, 2016.
- ARARTEKOA. *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.* Gasteiz: Arartekoa, 2011.
- ARARTEKOA. *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak.* Donostia, XXVIII. Uda Ikastaroak Donostian, XXI. Europar Ikastaroak-EHU. Gasteiz: Ararteko, "Giza Eskubideei buruzko Jardunaldiak" bilduma, 13. zk., 2011.
- ARARTEKOA. *Udal gizarte oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.* Gasteiz: Arartekoa, 2010.
- ARARTEKOA. *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan. EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan dagoen egoerari buruzko Arartekoaren txosten berezia.* Gasteiz: Arartekoa, 2006.
- ARARTEKOA. *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari eginiko txosten berezia.* Gasteiz: Arartekoa, 2005.
- ARRUABARRENA, I. eta HURTADO, M.A., 2018. Instrumento Balora para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo infantil: elaboración, implantación, fundamentos conceptuales y contenido. *Zerbitzuan.* Gasteiz: Zerbitzuan, 66. zk.
- BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako Sexu Abusuak. Indarkeriak ikusaraziz.* Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.
- BLASCO DEL MORAL, C. *Más me duele a mí. La violencia que se ejerce en casa.* Madril: Save the Children, 2018.

- BONINO, L. *Los micromachismos*. *La Cibeles*. Madril: La Cibeles, 2004, 2. zk.
- CALMAESTRA, J. et al.; SASTRE, A. (koord.). *Yo a eso no juego. Bullying y ciberbullying en la infancia.* Madril: Save the Children, Espainia, 2016.
- CANTERA, ESTÉBANEZ, VÁZQUEZ .*Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbo: Emakunde, Eusko Jaurlaritza, 2009.
- CASTAÑO REYERO, M.J. eta PÉREZ ADROHER, A. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España.* Madril: UNICEF, Espainiako Batzordea, 2017.
- UNICEF-EN IKERKETA ZENTROA. Construir el futuro. Los niños y los Objetivos de Desarrollo Sostenible en los países ricos. *Report Card de Innocenti.* Florentzia: UNICEFen Ikerketa Zentroa, 14. zk., 2017.
- REINA SOFÍA ZENTROA ETA OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Maltrato infantil en la familia en España. Informe del Centro Reina Sofía.* Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, 2011.
- CILLERO, M. Los derechos del niño: de la proclamación a la protección efectiva. *Justicia y derechos del niño.* Buenos Aires: Justicia y Derechos del Niño, 3. zk., 2009.
- EUROPAKO BATZORDEA. *10 Principles for integrated child protection systems* [sarean]. Brusela: Europako Batzordea, 2015 [kontsulta: 2019ko urtarrilak 22]. Webgune honetan eskuragarri: https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/10_principles_for_integrated_child_protection_systems_en.pdf
- EUROPAKO BATZORDEA. *Changes in child and family policies in the EU28 in 2017. European Platform for Investing in Children: Annual thematic report.* Brusela: Europako Batzordea, 2018.
- EUROPAKO BATZORDEA. *EU* acquis *and policy documents on the rights of the child.* Brusela: Europako Batzordea, 2017.
- MADRILGO ERKIDEGOA. *Afrontamiento de la Mutilación Genital Femenina con perspectiva de Salud Pública en el contexto de la red de Prevención de la MGF de la Comunidad de Madrid.* Salud Madrid, 2017. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *La justicia dato a dato.* Madril: BJKN, 2013.
- DEL REY, R. et al. *Ziberbullyngaren aurrean eskolan jarduteko protokoloa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2011.
- GENERO INDARKERIARAKO GOBERNU-ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015.* Madril. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen Zentroa, 2015.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA eta EUSKO JAURLARITZA. *Tratu txarrak eta babesik eza umezaroan eta nerabezaroan: arrisku egoeran daudenentzako atentzioa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA eta EUSKO JAURLARITZA. *Tratu txarrak eta babesik eza umezaroan eta nerabezaroan: arrisku egoeran daudenentzako atentzioa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. *Haurrentzako III. Plana. Haurren eta nerabeen babesgabetasun egoeretan arreta emateko 2016-2019.* Bizkaiko Foru Aldundia, 2016.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua.* Bizkaiko Foru Aldundia, 2005.
- EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Estatistika-datuak 2017. Gasteiz:* Emakunde, 2019.
- EMAKUNDE. *EAEn indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretaren irismenari buruzko datuak.* Gasteiz: Emakunde, 2018.
- EMAKUNDE. ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN arteko II. AKORDIOAREN

JARRAIPEN BATZORDEA. *Genero indarkeria pairatzen duten Euskadiko haurren giza-eskubideak babesteko ikuspegi eta ekintza-ildoak.* Gasteiz: Emakunde, 2017.

- EMAKUNDE. *Diagnostikoa. Emakumeen genitalen mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.* Gasteiz: Emakunde, 2014.
- EMAKUNDE. *Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arretari buruzko diagnostikoa.* Gasteiz: Emakunde, 2014.
- EU ALLIANCE FOR INVESTING IN CHILDREN. *Implementation Handbook. Putting teh investing in children recommendation into practice.* Brusela: Eurochild, 2015.
- EUROCHILD. *Investing in children through the post-2020 European Multiannual Financial Framework.* Brusela: Eurochild, 2018.
- EUROCHILD eta UNICEF. *Realising the rights of every child everywhere. Moving forward with the EU.* Brusela: Eurochild eta UNICEF, 2014.
- FABRA FLORIT, M.G. et al; RAMOS, R. (koord.). *Los costes de la violencia contra la infancia. Impacto económico y social.* Madril: EDUCO, Komillas Pontifize Unibertsitatea, Zuzenbide eta Adinez txikikoen Santander Katedra, 2018.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKALTZA. *2018ko memoria [2017ko ekitaldia}.* Bilbo: Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza, 2018.
- FRAZER, H eta MARLIER, E. *Progress across Europe in the implementation of the 2013 EU Recommendation on 'Investing in children: Breaking the cycle of disadvantage'. A study of national policies.* Brusela: Europako Batzordea, 2017.
- FUNDACIÓ VICKI BERNADET. *Prevenció i abordatge de l'abús sexual infantil en el món del lleure. Orientacions i recursos pedagógics.* Bartzelona: Fundació Vicki Bernadet, 2017.
- AMIGÓ FUNDAZIOA. *Violencia filioparental. Una realidad invisible.* Madril: Amigó Fundazioa, 2017.
- ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016). Madril:* ANAR Fundazioa, 2017.
- CERMI MUJERES FUNDAZIOA ETA EUROPAKO DESGAITASUN FOROA (EDF). *Poner fin a la esterilización forzosa de las mujeres y niñas con discapacidad.* Madril: CERMI Fundazioa, 2017.
- MUTUA MADRILEÑA FUNDAZIOA ETA ANAR FUNDAZIOA. *III Estudio sobre acoso escolar y ciberbullying según los afectados. Informe del Teléfono ANAR.* Madril: Mutua Madrileña Fundazioa eta Anar Fundazioa, 2018.
- WASSU UAB FUNDAZIOA. *Mutilación genital femenina. Manual para profesionales.* Bartzelona: Wassu Fundazioa, 2017.
- GEHITU (BERDINDU GIPUZKOA) ETA GUZTIOK ELKARTEA (BERDINDU ESKOLAK). *BERDINDU! Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan. 2013-2014 ikasturtea.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2014.
- ESPAINIAKO GOBERNUA. Haurren eskubideen aldeko kanpaina. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa – Hezkuntzaren Espainiako Liga, 2018.
- ESPAINIAKO GOBERNUA. BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA. *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena. Madril: Barne Arazoetako Ministerioa, 2017.*
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2019.
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea 2018an zenbakitan* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2019.
- EUSKO JAURLARITZA. *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza sisteman, 2017 [linean] Gasteiz:* Eusko Jaurlaritza [kontsulta: 2019ko irailaren 19a]. Esteka honetan eskura daiteke: https://fundacionede.org/servicios/lesbofobia-homofobia-y-transfobia-en-el-sistema-educativo/

- EUSKO JAURLARITZA. *2018ko Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta* [sarean]. Gasteiz, Enplegu eta Gizarte Gaiak Saila, Eusko Jaurlaritza [kontsulta: 2019ko urriaren 22a]. Esteka honetan eskura daiteke: https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/informe-encuesta-pobreza-desigualdades-sociales/
- EUSKO JAURLARITZA. *EAEko ikastetxeetan eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gida.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2015.
- EUSKO JAURLARITZA. *Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
- EUSKO JAURLARITZA. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. *Biktimak eta lekuko diren umeak prozedura judizialetan: Auzitegi-psikologiako ikuspegitik.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2016.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA. *Atzerriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2018.
- EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012.
- EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILA. *Adingabeen erantzukizun penala.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA EUDEL. *Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa Bizkaiko Lurraldean desagerrarazteko 2017-2018 programan aurreikusitako jarraipen-batzordearen txostena. Bilbo:* EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 2018.
- GONZÁLEZ-MURIEL LÓPEZ, C. Factores de riesgo del maltrato y abandono infantil desde una perspectiva multicausal. *Aula.* Salamanca: Salamancako Unibertsitatea, 8. liburukia, 1996.
- GOZALO GOICOECHEA, A; JÍMENEZ MARTÍN, E. eta VOSMEDIANO SANZ, L. *¿Menores o extranjeros? Análisis de las políticas de intervención sobre menores extranjeros no acompañados.* Gasteiz: Arartekoa, 2011.
- HORNO, P. eta FERRERES, E. *Los municipios ante la violencia entre niños, niñas y adolescentes. Guía de actuación ante las diferentes formas de violencia entre niños, niñas y adolescentes en el ámbito municipal.* Madril: UNICEF, Espainiako Batzordea, 2016.
- HORNO GOICOECHEA, P.
  Prebentzioak duen garrantzia: hezkuntza afektibo-sexuala haurtzaroko eta nerabezaroko aldi ezberdinetan.
- Hemen: *EHUren XXVII. Uda Ikastaroak. XXX. Europar Ikastaroak. Haurrenganako sexu-abusua: gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua.* Donostia: Arartekoa; EHU, 2018.
- IBABE, I. *Perfil de los hijos adolescentes que agreden a sus padres. Investigación realizada en la C.A.V.* Gasteiz: EHU. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila, 2007.
- IBABE, I.; ARNOSO, A. eta ELGORRIAGA, E. *Gurasoen aurkako indarkeria egoeretan garaiz esku hartzeko programa: deskribapena, protokoloak eta ebaluazioa.* Gasteiz: Gasteizko Udala, 2019.
- IBABE, I.; JAUREGUIZAR, J. eta DÍAZ, O. *Violencia filio-parental. Conductas violentas de jóvenes hacia sus padres.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2007.

- IGARTUA, J.J, et al. La violencia en la ficción televisiva. Hacia la construcción de un índice de violencia desde el análisis agregado de la programación. *ZER: Komunikazio Ikasketen Aldizkaria.* Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001, 6. liburukia, 10. zk.
- INJUVE-INSTITUTO DE LA JUVENTUD. BALLESTEROS, B. eta MATA, L. (koord.). "Jóvenes: bullying y ciberbullying". *Revista de Estudios de Juventud.* Madril: Revista de Estudios de Juventud, 115, 2017.
- MIGRAZIOEI BURUZKO IKASKETEN UNIBERTSITATE-ERAKUNDEA (IUEM). COMILLAS PONTIFIZE UNIBERTSITATEA. INTZIDENTZIA POLITIKO ETA AZTERLANEN TALDEA, UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España.* Bartzelona: Huygens Editorial, 2017.
- KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA. *EAEn Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena 2017. urtean.* Donostia: Kriminologiaren Euskal Institutua, 2018.
- ISEI-IVEI. *Berdinen arteko tratu txarrak txostena.* Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 2017.
- ISEI-IVEI. *Genero-berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBHn Euskadin.* Bilbo: ISEI-IVEI, 2017.
- ANDALUZIAKO JUNTA. BERDINTASUN, OSASUN ETA GIZARTE POLITIKA SAILA. ADINEKOEN, HAURREN ETA FAMILIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA. *Guía de indicadores para la detección de casos de violencia sexual y pautas de actuación a los Centros de Protección de Menores.* Sevilla: Andaluziako Junta, 2014.
- KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2016.* Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2017.
- LERNER, G. *La Creación del Patriarcado*. Bartzelona: Editorial Crítica, 1990.
- LIZANA, R. *A mí también me duele*. *Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja*. Bartzelona: Gedisa argitaletxea, 2012
- LÓPEZ, F. *Los abusos sexuales de menores*. *Lo que recuerdan los adultos.* Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 1994.
- OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. *Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2017ko datuak.* Madril: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 20. zk, 2018.
- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. "HAURREN SEXU-ERASOA PREBENITZEKO JARDUNBIDE ONEI" BURUZKO HAURREN BEHATOKIA. *Guía de buenas prácticas para la prevención y protección del abuso y la explotación sexual infantil.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2017.
- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015: avance de resultados.* 2015. Webgune honetan eskuragarri: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CONTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf
- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.
- BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA. *Anuario Estadístico del Ministerio del Interior.* Madril: Barne Arazoetako Ministerioa, 2018.
- BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA. Estatuko Segurtasun Idazkaritza. Koordinazio eta Ikasketa Kabinetea. *Informe sobre delitos contra la libertad e indemnidad sexual.* Madril: Barne Arazoetako Ministerioa, 2017.
- NAZIO BATUAK. DROGAREN ETA DELITUAREN AURKAKO BULEGOA. *Manual para la lucha contra la trata de personas.* New York: Nazio Batuak, 2007.
- BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREKO BEHATOKIA. *5. sorkuntza-faktoria. Berdinen arteko tratu txarrak jorratzen, esku hartzeko esparru ez-formaletik* [sarean]. Bilbo:

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2016 [kontsulta: 2019ko otsailaren 5a]. Esteka honetan eskura daiteke: http://www.3sbizkaia.org/wp-content/uploads/1882_OTS_URTARRILA_2016_2.pdf

- BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREKO BEHATOKIA. *EAEn bullying-egoerak saiheste aldera esku hartzeko baliabideen mapa.* Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2015.
- NBE EMAKUMEAK. *Paquete de servicios esenciales para mujeres y niñas que sufren violencia. Elementos centrales y directrices relativas a la calidad de la atención.* New York: NBE Emakumeak, 2015.
- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA. *Manual de formación para combatir la trata infantil con fines de explotación laboral, sexual y de otros tipos. Entendiendo la trata infantil. Libro I.* Geneva: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2009.
- OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA. *Indarkeria eta osasunari buruzko mundu txostena: laburpena.* Washington: Osasunaren Erakunde Panamerikarra, Osasunaren Mundu Erakundearen Amerikarako Eskualde Bulegoa, 2002.
- ORIJUELA LOPEZ, L. et al. *Manual de atención a niños y niñas víctimas de violencia de género en el ámbito familiar.* Madril: Save the Children, 2008.
- PEREDA, N. eta RIVAS, E. (koord.). *Bajo el mismo techo. Las Casas de los Niños: un recurso para atender a niños y niñas víctimas de abuso sexual y sus familias en Catalunya.* Madril: Save the Children, 2018.
- PINHEIRO, P. S. *Haurrenganako indarkeriari buruzko mundu txostena*. New York: NBE, 2016.
- ESPAINIAKO HAURREN PLATAFORMA. *Informe Complementario al V y VI Informe de aplicación de la CDN de NN.UU. y sus PF.* Madril: Haurren Plataforma, 2017.
- POLO, P. et al. *Protocol de prevenció dels abusos sexuals en l'àmbit del lleure*. Bartzelona: Kataluniako Generalitata, 2016.
- RAMOS, R. (koord.). *Los costes de la violencia contra la infancia. Impacto económico y social.* Madril: EDUCO, 2018.
- SÁNCHEZ PARDO, L.; BENITO CORCHETE, R.; SERRANO BADÍA, A; ALEIXANDRE BENAVENT, R. eta BUENO CAÑIGRAL, J.M. *Programa de prevención del uso problemático de Internet y redes sociales. "Clickeando".* Valentzia: Valentziako Udala, 2018.
- SÁNCHEZ-VALVERDE VISUS, C. El interés superior del niño y de la niña. El debate ideológico a través de las denominaciones: ¿niño/niña? o ¿menor? *Intervención psicoeducativa en la desadaptación social: IPSE-ds.* Las Palmas Kanaria Handikoa: Las Palmas Kanaria Handikoko Unibertsitatea, 9. zk., 2016.
- SAVE THE CHILDREN. *Qué debería contener una ley orgánica para la erradicación de la violencia contra la infancia* [sarean]. Valentzia: Save the Children, 2018 [kontsulta: 2019ko martxoaren 5a]. Esteka honetan eskura daiteke: https://www.savethechildren.es/publicaciones/como-deberia-ser-la-ley
- SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak. Euskadiri buruzko Eranskina. Ume baten kontrako sexu-abusuen kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak.* Madril: Save the Children, Espainia, 2017.
- SAVE THE CHILDREN. *Infancia y justicia. Una cuestión de derechos.* Madril: Save the Children, 2012.
- SAVE THE CHILDREN. *Más allá de los golpes: ¿Por qué es necesaria una ley? Informe sobre la violencia contra los niños y las niñas.* Madril: Save the Children, 2012.
- SAVE THE CHILDREN. *Evaluación del II Plan Nacional Contra la Explotación Sexual de la Infancia y Adolescencia (2006-2009). Informe técnico y consulta a niños, niñas y adolescentes.* Madril: Save the Children, 2008.

- SETHI, D. et al. *European status report on preventing child maltreatment.* Kopenhage: World Health Organization, 2018.
- SETIEN, M.L. eta BARCELO, F. La atención a los menores extranjeros no acompañados en el País Vasco. Modelos de intervención y luces y sombras del sistema de acogida. Hemen: *La migración de menores no acompañados en Europa.* Poitiers: Observatoire International de Justice Juvénile y Migrinter, 2007.
- TEJEIRO SALGUEIRO, R.; PELEGRINA DEL RÍO, M. eta GÓMEZ VALLECILLO, J.L. Efectos psicosociales de los videojuegos. *Comunicación.* Sevilla: Sevillako Unibertsitatea, 1. liburukia, 7. zk. 2009.
- TORRES ALBERO, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento.* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.
- TORRES LÓPEZ, P.; ZARAGOZA, G. eta ZUPPIROLI, J. *Los más solos. Los fallos en el sistema de acogida, protección e integración de los menores migrantes no acompañados que llegan a España.* Madril: Save the Children, Espainia, 2018.
- UNHCR-ACNUR. *Demasiado dolor. Mutilación genital femenina y asilo en la Unión Europea. Panorama estadístico.* Brusela: ACNURren Europarako Eskualdeko Bulegoa, 2013.
- UNICEF. *Construir el futuro: Los niños y los Objetivos de Desarrollo Sostenible en los países ricos. Report Card de Innocenti.* Florentzia: Innocenti Report Card, 2017.
- UNICEF. *Progreso para todos los niños en la era de los ODS.* Madril: UNICEF, 2018.
- UNICEF. *Cuaderno de protección.* Madril: UNICEF Espainiako Batzordea eta Lleidako Unibertsitatea, 2017.
- UNICEF. *Una situación habitual. Violencia en las vidas de los niños y los adolescentes. Datos fundamentales.* New York: UNICEF, 2017.
- UNICEF. *Eliminar la violencia contra los niños y las niñas. Seis estrategias para la acción. #ENDviolence.* New York: UNICEF, 2014.
- UNICEF. *Hojas informativas sobre la protección de la infancia.* New York: UNICEF, 2006.
- UNICEF. *La violencia contra los niños y las niñas.* New York: UNICEF, 2006.
- UNICEF EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BATZORDEA ETA UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Haurren eta Nerabeen Egoera Euskadin. Euskal Itun baterantz Haurren eta Nerabeen alde.* Bilbo: UNICEF, Euskal Autonomia Erkidegoko Batzordea, 2017.
- UNICEF, ESPAINIAKO BATZORDEA. *Acogida en España de los niños refugiados. Estudio sobre el Sistema de Acogida de personas refugiadas en España desde la perspectiva de derechos de infancia.* Madril, UNICEF, Espainiako Batzordea, 2016.
- LEGEBILTZARREN ARTEKO BATASUNA eta UNICEF. *Cómo eliminar la violencia contra los niños y niñas.* Frantzia Legebiltzarren arteko Batasuna eta UNICEF, Legebiltzarkideentzako eskuliburua 13. zk., 2007.
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. “Uno de cada tres menores ha sido víctima de bullying, según el informe elaborado por EU kids online”. [Prentsa oharra]. 2018ko ekainaren 18a.
- Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España.* León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.
- WORLD HEALTH ORGANIZATION. *Inspire. Seven strategies for ending violence against children.* Geneva: World Health Organization, 2016.
- WORLD HEALTH ORGANIZATION. European report on preventing child maltreatment. Kopenhage: World Health Organization, 2013.
- WORLD VISION. *Informe. Vínculos entre Mutilación Genital Femenina/Ablación y Matrimonio Infantil.* Madril: World Vision International Fundazioa, 2014.

- XARXA DE CENTRES OBERTS D'ATENCIÓ A LA INFÀNCIA DE BARCELONA. *L'abordatge de posibles situacions de maltractament o abús sexual. Protocol d'actuació davant d'indicis o sospites de matractament o abús sexual.* Bartzelona: Xarxa de Centres Oberts d'atenció a la infància de Barcelona, 2013.


## Araudia


- EUROPAKO BATZORDEA. Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa apurtzea. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2013ko martxoaren 2a, L59/5 zk.).
- EUROPAKO BATZORDEA. Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategiarantz. (COM (2006) 367 azkena, 2006ko uztailaren 4a).
- EUROPAKO BATZORDEA. EBren Agenda haurren eskubideen alde. (COM (2011) 60 azkena, 2011ko otsailaren 15a).
- HAGAKO KONFERENTZIA. *Hagako Hitzarmena.* Haga: Hagako Konferentzia.
- HAGAKO KONFERENTZIA. *Haurren adopzioaren inguruko Hitzarmena.* Haga: Hagako Konferentzia, 1995
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Haurren Eskubideen aldeko Europako Kontseiluaren Estrategia, 2016-2021. Haurren giza eskubideak.* Estrasburgo: Europako Kontseilua, 2016.
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseiluak emakumeen aurkako eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka egiteari buruz eginiko hitzarmena.* Council of Europe Treaty Series. Istanbul: Council of Europe Treaty Series, 2011, 210. zk.
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Haurrak sexu-esplotazioaren eta –abusuen aurka babesteko Hitzarmena.* Estrasburgo: Europako Kontseilua, 2007.
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Haurraren harreman pertsonalei buruzko Hitzarmena.* Estrasburgo: Europako Kontseilua, 2003.
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Haurren eskubideen baliatzeari buruzko Hitzarmena.* Estrasburgo: Europako Kontseilua, 1996.
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Ezkontza-harremanetik kanpo jaiotako haurren estatus juridikoari buruzko Hitzarmena.* Estrasburgo: Europako Kontseilua, 1975.
- EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA. Haurren hezkuntzari eta haurrari eman beharreko arretari buruzko Kontseiluaren ondorioak: hau guztiei ahalik eta prestakuntzarik onena eskaintzea etorkizunari begira. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 175/8 seriea, 2011ko ekainaren 15a).
- EUROPAKO KONTSEILUA. *Adingabearen eskubideak babesteko ildoak.* Europako Kontseilua, 2007ko abenduaren 10ekoa.
- EMAKUNDE. *Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko II. Akordioa.* Gasteiz: Emakunde, 2009.
- EMAKUNDE. *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana* Gasteiz: Emakunde, 2018.
- ESPAINIAKO GOBERNUA. Haurrenganako eta nerabeenganako indarkeriaren kontra babes integrala eskaintzeko Lege Organikoaren aurreproiektua [online] Madril: Espainiako Gobernua, 2019 [kontsulta: 2019ko urriaren 20a]. Esteka honetan eskura daiteke: https://www.mscbs.gob.es/normativa/audiencia/docs/LO_proteccion_integral_violencia_menores.pdf
- ESPAINIAKO GOBERNUA. 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 180. zenbakia, 2015eko uztailaren 29koa).

- ESPAINIAKO GOBERNUA. 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 175. zenbakia, 2015eko uztailaren 23koa).
- ESPAINIAKO GOBERNUA. 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena. (BOE, 11. zenbakia, 2000ko urtarrilaren 13koa).
- ESPAINIAKO GOBERNUA. *2013-2016 aldirako Haurren eta Nerabeen II. Plan Estrategiko Nazionala (II. PENIA).* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa – Haurren Behatokia, 2013.
- ESPAINIAKO GOBERNUA. *2010-2013 aldirako Haurren eta Nerabeen sexu-esplotazioaren aurkako III. Ekintza Plana (III. PESIA).* Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa – Haurren Behatokia, 2011.
- ESPAINIAKO GOBERNUA. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 274. zk., 2011ko azaroaren 14koa).
- ESPAINIAKO GOBERNUA. 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena.(BOE, 11. zenbakia, 2000ko urtarrilaren 13koa). ESPAINIAKO GOBERNUA. 14/1999 Lege Organikoa, 1995eko Zigor Kodea -tratu txarrak jasan dituzten biktimak babesteko gaiei dagokienez- eta Prozedura Kriminaleko Legea aldatzekoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 138. zk., 1999ko ekainaren 10ekoa).
- ESPAINIAKO GOBERNUA. 1/1996 Lege Organikoa, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 15. zk., 1996ko urtarrilaren 15ekoa).
- ESPAINIAKO GOBERNUA. Prozedura Kriminalaren Legea. (Kazeta, 1982ko irailaren 17koa).
- EUSKO JAURLARITZA. *EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).*Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2019.
- EUSKO JAURLARITZA. *EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana. Familietan inbertitzea, haurtzaroan inbertitzea (2018-2022)*. Gasteiz Eusko Jaurlaritza, 2018.
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020 aldirako.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2018.
- EUSKO JAURLARITZA. *Adikzioen VII. Plana: Euskadi 2017-2021.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2017.
- EUSKO JAURLARITZA. 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren eguneraketa onesten duena. (EHAA, 125. zenbakia, 2017ko uztailaren 3koa).
- EUSKO JAURLARITZA. *Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
- EUSKO JAURLARITZA. *Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna.* Eusko Jaurlaritza, 2017.
- EUSKO JAURLARITZA. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 206. zk., 2015eko urriaren 29koa).
- EUSKO JAURLARITZA. *2016-2019 aldirako Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2015.
- EUSKO JAURLARITZA. 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena. (EHAA, 233. zenbakia, 2011ko abenduaren 12koa).

- EUSKO JAURLARITZA. 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 233. zk., 2011ko abenduaren 12koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa. (EHAA, 251. zenbakia, 2009ko abenduaren 31koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.(Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 260. zk., 2008ko abenduaren 24koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 250. zk., 2008ko abenduaren 31koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. (EHAA, 240. zenbakia, 2008ko abenduaren 16koa).
- EUSKO JAURLARITZA. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. (EHAA, 59. zk., 2005eko martxoaren 30ekoa).
- EUSKO JAURLARITZA. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. JUSTIZIA SAILBURUORDETZA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA. *Gazte Justiziaren IV. Euskal Plana, 2014-2018. I. liburukia.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
- NAZIO BATUAK. BATZAR OROKORRA. *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa.* 1989. New York: Batzorde Orokorra (1990)
- NAZIO BATUAK. Declaración de Ginebra sobre los Derechos del Niño. Geneva: Nazio Batuak, 1924.
- NAZIO BATUAK. Nazio Batuen haurren kontrako indarkeria aztertzeko aditu independentearen txostena (A 61/299, 2006ko abuztuaren 29koa).
- NAZIO BATUAK. EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. HAURREN LAGUNTZARAKO NAZIO BATUEN FUNTSA. UNICEFen haurrak babesteko estrategia. (E/ICEF/2008/5/Berr.1, 2008ko maiatzaren 20koa).
- NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA. 8. ohar orokorra. Zigor fisikoen eta beste zigor anker edo umiliagarrien aurka babesteko haurraren eskubidea. (CRC/C/GC/8, 2006ko abuztuaren 21a).
- NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA. 13. ohar orokorra. Inolako indarkeriaren biktima ez izateko haurraren eskubidea (CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa).
- NAZIO BATUAK. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA. 14. ohar orokorra. Interes gorena lehentasunezkotzat jotzeko haurraren eskubideari buruzkoa (CRC/C/GC/14, 2013ko maiatzaren 29koa)
- NAZIO BATUAK. EMAKUMEAREN AURKAKO BAZTERKETA DESAGERRARAZTEKO BATZORDEA. Emakumearen aurkako bazterketa desagerrarazteko Batzordearen 31. gomendio orokorra eta Haurren Eskubideen Batzordearen 18. ohar orokorra, praktika kaltegarriei buruzkoa, batera onartutakoak. (CEDAW/C/GC/31/CRC/C/GC/18, 2014ko azaroaren 14koa).
- NAZIO BATUAK. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA. *Emakumearen kontrako diskriminazio modu oro ezabatzeari buruzko konbentzioa* [online]. 1979. Geneva: Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, 1981 [kontsulta: 2019ko irailaren 19a]. Esteka honetan eskura daiteke: https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cedaw.aspx

- GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA. *Emakumeen aurkako indarkeria CEDAW 19. Gomendio Orokorra.* Geneva: Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, 1992.
- EUROPAKO PARLAMENTUA. Haurren eskubideen Europako Gutuna. (Europako Erkidegoetako Aldizkari Ofiziala, C 241 zk., 1992ko irailaren 21ekoa).
- UNICEF, ESPAINIAKO BATZORDEA. *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa.* Madril: UNICEF, Espainiako Batzordea, 2015.
  EUROPAR BATASUNA. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 202/389, 2016ko ekainaren 7koa).
- EUROPAR BATASUNA. Europar Batasuneko Itunaren bertsio bateratua. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 326/13, 2012ko urriaren 26koa).